

Guy de Maupassant

Fantasiatzko ipuinak

euskaratzailea: Josu Zabaleta

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Josu Zabaleta.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 2000

Jatorrizkoaren data: 1880-1890

Guy de Maupassant euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=325>

HITZAURREA

Gustu lodiko pasadizo barregarriak, hildakoen istorioak eta gonapeko gorabeherak kontatzen aritu omen ziren haren hiletan, haren adiskide izanak, inori lur ematen zaionean sartu ohi den asperraldi itogarria uxatzeko nonbait, Goncourt anaiek beren Egunkarian kontatzen dutenez. Halakoxea izan «Hildako baten ondoan» idatzi zuenaren patua! Ez zukeen agian gaizki hartuko ere, ikusi ahal izan balu, umore beltzaren hain zale izandakoak. Bere azken nahietan aginduaren kontra lur eman baitzioten gainera, gorpua soilik lurperatzeko agindu eta zerraldoan sartuta hilobiratu baitzuten Montparnasseko hilerrian, legeak esaten duen bezala, batek erabaki uste baitu, baina inoren legeak baitu agintzen, agindu.

Bizitza

«Henri-René-Albert-Guy de Maupassant, âgé de quarante-trois ans, homme de lettres» —heriotza agirian dioen bezala— Miromesnil-eko gazte-

luan jaio zen 1850eko abuztuaren 5ean —jaiotza agiriaren arabera—, edo Fécamp herrian, ez baita gauza segurua; hain zuzen, Guyren anaia gaztea, Hervé, jaiotzeko zenean ere, gaztelu bat alokatu baitzuen amak, nobleziari dagokion bezala jaio zitezten inondik ere gauza handitarako sortuak zituen bere semeak.

Edozeinetara ere Normandiako Fécamp herrian eman zuen bere haurtzaroa; arrantza-leen seme-alabak izan zituen lagun, eta etxean egin zituen lehenengo ikasketak. Han ezagutu zuen bere bizitza guztian zaletasun handia izango zuen itsasoa eta oihal ontzi handiak.

Guyk 12 urte zituelarik gurasoak bereizi egin ziren, eta bi semeak amarekin geratuko ziren Fécampen. Gurasoen arteko iskanbilak eta liskar bortitzak barren-barrenean markaturik geratu ziren Guyrengan, gizakiaren zorian izan zezakeen esperantzaren andeagarri. 13 urte zituela Ivetot-eko elizaren eskolan sartu zuen amak, ikasketak egin zitzaizkion, eta han ibili zen 18 urte zituela «bertso gordin» batzuegatik kanpora bota zuten arte.

Udako oporrak gurasoek 1860an Étretat-en errosia zuten etxean igarotzen ditu amonarekin. Étretat-eko bainutegia bolada bete-betean dago urte horietan; han biltzen dira kazetariak, idazleak, margolariak: Corot, Courbet, Monet... Han salbatu zuen itotzetik Charles Swinburne olerkari ingelesa, salbatu izanaren esker onez emandako bazkarian tximu xigortua janarazi eta ipuin hauetan bi bider aipatzen den larrutuaren eskua opari gisa eman ziona. Swinburne olerkari «madarikatuaren» itzala izan zen, hain zuzen, filosofian Schopenhauerrekin batera, Maupassanten barne bidaietako beste bidelagun nagusietako bat.

Elizako eskolatik bota eta Parisa zuzenbide ikasketak egitera joan bitartean Roueneko Cornille Lizeoan erretorika ikasle egin zituen hamalau hilabeteak erabakigarriak izan ziren Maupassanten bizitzan. Orduan ezagutu zituen bere literaturako bizitzaren nondik norakoak markatuko zizkioten bi pertsonak. Louis Bouilhet olerkaria bata, Rouengo udal liburutegiko zuzendaria, eta Flaubert, Maupassanten amaren eta haren familiaren aspaldiko adiskidea, sarri-sarri Rouenera

joan eta bere bi adiskideekin auzo ilunetako fama txarreko kaleetan ibiltzea atsegin izango duena.

1869an Parisa joango da zuzenbide ikasketak egitera. 1870eko udan gerrak harrapatzen du eta soldadu egongo da 1872ko azaroa arte. Esperientzia gogorak igaro behar izan zituen; ipuin eta istorio askotan aipatzen dira esperientzia horiek: «Boule-de-Suif», «Mademoiselle Fifi», «La Mère Sauvage», «Le Père Milon», «Deux Amis», banaka batzuk baizik ez aipatzearen.

Garai horretarako erabaki sendoa zuen literatura idazten jarduteko. Jakinik, ordea, bizi ere, bizi behar dela, Itsas Armadako Ministerioan sartu zen funtzionario —Flauberten gomendioz— (1872-1878), eta gero Irakaskuntza Publikoko Ministerioan (1878-1880); esperientzia luze aspergarri horretan ikasitakoak sarritan agertuko dira Maupassanten obretan, Parisko ipuin zikloan batez ere.

Bitarte horretan, amaren eskaera etengabeek bultzatuta, itxura denez, Flaubert «Zaharrak» amore eman, eta Guyren karrera literarioa

bultzatzeko prest agertu zen. Bi baldintzarekin, ordea: etenik gabe idaztea, eta esan arte ez argitaratzea. Maupassantek gogoz onartu zuen egitarau gogor hori, eta zinez bete ere, bete zuen, bi salbuespenekin: bilduma honetan jasotzen diren «Larrutuaren eskua» eta «Héraclius Gloss doktorea», biak 1875ean argitaratuak, bere adiskideek jarria zioten Joseph Prunier ezizenaz sinaturik.

Lan, ikasketa, kirol eta lagunarteko jostaketa urteak. Gizon azkar, indartsua baitzen Maupassant. Igerilari trebea, arraunlari bizkorra, josta zalea, «Sena ibai ertzetako jostaketen zaleegi» Flaubertek inoiz gogoratu zion bezala. Bizimodu alaia; neskak, larrua suelto, jotzeko ere. 1877rako heriotzaraino lagunduko zion sifilisa-ren seinaleak agertu ziren: egonaldi bat Loècheles-bains-en gaitz horretatik sendatzeko.

Lagunarte literarioetako kide: Flaubert, eta haren bitartez Turgeniev, Edmond de Goncourt, Zola, eta gazteagoen artean, Huysmans, Céard, Hennique, Alexis, Mirbeau.

1880ko apirilean, azkenik, Flaubertek argitaratzen hasteko baimena eman zion. Aldi berean

argitaratu zituen, alde batetik, poema liburu bat, kritikak goraipatua, eta Zolak antolatutako «Soirées de Médan» talde lana, Zolaren beraren eta Huysmans, Céard, Hennique eta Alexisen beste zenbait lanez gainera Maupassanten «Boule de Suif» dakarrena. Flaubertek, ordu arte Maupassanten lanei buruz oso zorrotz agertu baitzen, maisu lantzat goraipatu zuen lan berria. Artean, ordea, Maupassant idazleen zerrendan aipatzen hasi berria zela, 1880ko ekainaren 8an hil zen Flaubert. Dolu eta samin izan zuen Maupassantek, aspaldi ez zela ikusi baitzuen Flaubert gau batean beren arteko gutunak sutan erretzen.

«Boule de Suif» bat-bateko arrakasta izan zen. Argitalpen saila izan zuen oso aste gutxitan. Maupassantek Ministerioko lana utzi ahal izan zuen. Bat-batean ospetsu egin zen; egunkariak eskuetatik kentzen zizkioten ipuinak eta kronikak. Handik aurrera literaturak, kazetaritzak eta bidaiak hartuko zuten Maupassanten denbora guztia.

Kronikagile *Le Gaulois* egunkarian, 1880tik 1888ra, *Gil Blas* egunkarian, 1881etik aurrera, aldiari behin *Figaro* egunkarian. Ipuin eta elebe-

rri guztiak egunkarietan argitaratu ziren liburu gisa argitaratu aurretik.

Maupassantek arrakasta du gizarte bizitzan: aberastua, ongi ordaindua (200-300 libera ordaintzen dizkiote kronikak 1885az gero), ate guztiak zabalik.

Osasunak ordea, ez dio laguntzen: sasoiko gizona izana elbarritzen ari da, gaztarotik dator- kion sifilisak eta amaren aldetik herentziaz datorkion neurosirako joerak elkar indartuta. Perlesiaren izumenak, begietako arazoak, hotze- rako sentiberatasunak, gaitzen kontra hartzen dituen bromuroen, eterren, opioaren gehiegike- riek ahultzen dute eta etsimenera eramaten. Beheraldi horren guztiaren, eromenera bide horren kronika analitiko zehatz ohartuak dira garai horretan idatziz doan geroz eta kontaera ilunagoak, etsimenez beteagoak.

Bere sormena agortzen ari zaiola sumatzen duenean egiaz erotzen da. 1982ko urtarrilaren 1ean bere buruaz beste egiten ahalegintzen da, hilaren 7an Passyko erietxean sartzen dute, eta ez da bere onera itzuliko hurrengo urteko ekai- naren 6an, gorputz guztia perlesiak hartuta, hil-

tzen den arte. Zolak egin zuen haren hiletetan agur hitzaldia, Idazleen elkartearen izenean.

Obra

Hamabost ipuin bilduma (hirurehundik gora ipuin), sei eleberri, hiru bidaia liburu, bi antzerki obra, ehundaka kronika, hamabi urtetan. Eta hori guztia gizarte harreman etengabeen, bidaien artean. Datu soil horiek erakuts dezakete Maupassanten sormena, lanerako lehia zenbaterainokoa zen.

Edozein obra sorrerako baldintzek halakotzen dute; Maupassanten bizitzak berak baldintzatzen du haren obra. Ez da zuzenean Maupassanten autobiografia, oso gutxitan adierazten baititu zuzenean bere bizikizunak. Baina, zinez esan daiteke Maupassanten barne bidearen isla dela haren obra gehiena: ia hasieratik dituen gaien inguruan geroz eta estuago korapilatua.

Obra laburrak dira, zati laburrak, oso antzekoak, estiloaren bilakaera sumatzen ez zaienak, gai bertsuen inguruan moldatuak gehienak: gizakien arteko komunikazioaren ezintasuna, zoritxarreko maitasunak, familiaren desegitea,

gera, eromena, heriotza, gizarte hipokritaren kritika erruki gabea. Gertaldien inguruneak ere ez dira asko: Normandiako laborariak, Parisko gizartea, bere handiki, funtzionario eta prostituetekin.

Azkeneko urteetan, ordea, zertxobait aldatzen hasi zen Maupassanten produkzioa. Mesprezuaren lekua halako erruki-edo batek hartzen du, kritika sozial gutxiago ageri da, eta leku gehiago uzten zaie pertsonaien barne dramei. Eta horrexen ondorioz, agian, ipuinen lekua eleberriek hartzen dute geroz eta gehiago: *Une vie* (1883), *Bel-Ami* (1885), *Mont-Oriol* (1887), *Pierre et Jean* (1888), *Fort comme la mort* (1889), *Notre Cœur* (1890).

Aldaketa horiek guztiak azalekoak dira, ordea, mamiarenak baino gehiago. Mami bera baitago Maupassanten obra guztietan: gizonak gaineratik kendu ezin duen eta beti zori txarrera eramango duen patu gaiztoaren etsimen geroz eta argiagoa. Maupassantek uste oso-osea du tranpa bat dela itxaropena. Ezin da galdu harra-paturik gauzkan ilunbetik, barrunbe itxitik, libre irten eta askatuko garen esperantza, horretan

ahalegintzen gara geure baliabide apurrez, baina lortu dugula uste duguneantxe, bat-batean eta bortizki ixten zaigu itoko gaituen lakio absurdua.

Egiaz gizon eta libre izaten uzten ez digun patu gaizto hori bazter guztietan ageri da Mau-passanten obran; ez da definitzen, ordea, ez du itxura jakinik, *Horlako* lausotasuna bera izatera iristen da: norberaz kanpokoa baldin bada ezin da ulertu, barnekoa baldin bada ezin da menderatu. Ezkortasun hori ezin pareka daiteke, ordea, bere garaiko gizarteak nozitu zuen «mal du siècle» harekin, gizartearen patua, gizartearen izaera eta etorkizuna eskuetatik joanak zituela sentitzen zuen gizarte hark nozitzen zuen etsimenarekin. Bestelako etsimen sakonagoa ageri da Maupassanten obretan, egilearen beraren nortasunean errotua.

Leku askotan arrazoitzen du Maupassantek patu irrazional hori, Schopenhauerren eragin aitortu batez. Hain zuzen ere, itxaropena tranpa den bezala, logika ere tranpa da. Harrapaturik gaude, ezin dugu ezagutu (*Magnetismoa, Saint-Michel Mendiko elezaharra, Horla*). L'inutile

Beauté-n laburbiltzen du, beharbada, ongien Maupassantek munduaz eta izateaz duen pentsamendua:

Sais-tu comment je conçois Dieu: comme un monstrueux organe créateur inconnu de tous, qui sème dans l'espace des milliards de mondes, ainsi qu'un poisson unique pondrait des œufs dans la mer. Il crée parce que c'est sa fonction de Dieu: mais il est ignorant de ce qu'il fait, stupidement prolifique, inconscient des combinaisons de toutes sortes produites par ses germes éparpillés. La pensée humaine est un heureux petit accident des hasards de ses fécondations, un accident local, passager, imprévu, condamné à disparaître avec la terre (...) Nous lui devons d'être très mal en ce monde qui n'est pas fait pour nous.

Ipuinak

Maupassantek ez zituen inoiz bereizi «conte» eta «nouvelle»; istorio labur guztiei «nouvelle» deitu zien beti, hemen «ipuin» deituko diegu, erosotasunagatik. Hamahiru bilduma argitaratu zituen: *La maison Tellier* (1881), *Mademoiselle*

Fifi (1882), *Contes de la bécasse*, *Clair de lune* (1883), *Miss Harriett*, *Les soeurs Rondoli*, *Yvette* (1884), *Contes du jour et de la nuit* (1885), *La petite Roque*, *Monsieur Parent*, *Toine* (1886), *Le Horla* (1887), *Le rosier de Madame Husson* (1888), *La main gauche* (1889), *L'inutile beauté* (1890). 306 ipuin, guztira; kopuru horrek, besterik gabe, literaturaren historiako ipuingile oparoenen artean jartzen du Maupassant.

Esan den bezala egunkarietan argitaratu ahala egindako bildumak dira aipatu diren hauek. Ez dira, beraz, bilduma tematikoak. Europako ipuin modernoa egunkariekin sortu zen, egunkarietan argitaratzeko idazten ziren gehienbat ipuinak (XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran batez ere). Horrek baditu bere ondorioak, jakina. Egunkariak luzera jakin bat eskatzen du, irakurle jakin bat jartzen du, eta gai jakin batzuk proposatzen.

Exotismoa da arau nagusia. Maupassantek normandiarren ipuinak idazten dituenean, Parisen ditu irakurleak. Atzerria eta mundu arrotza ere mundu exotikoak dira. Fantasiako mundua, hain zuzen, mundu normalaren ertz-ertzean

dagoen errealitate bat da. Maupassanten ipuinak oso modu errealistan aurkezten du egunero-ko mundua, eta poliki-poliki arrotz bihurtzen du. Ziurtasun guztiak zalantzan jartzen ditu.

Maupassanten ipuinetako gaiak hiru multzo handitan sailkatu ohi dira: Normandiako ipuinak, Parisko ipuinak (Parisko erdi mailako klaseei eta funtzionarioei buruz) eta fantasiako ipuinak (izumenezko, ankerkeriazkoak). Gaiez, kokalekuz, anekdotaz desberdinak; a posteriori irakurrita, sortzez iturburu beretik sortuak, antolamenduz helburu berera bideratuak: etsimenetik etsimena adieraziz etsimena gainditzeko ekimen etengabeak.

Fantasiako ipuinak

Askotan esan izan da Maupassanten gaixotasuenetik sortuak direla ipuinok, eta ez da harritzekoa uste hori izatea gaixotasun horien historia ezaguturik. Ez da ahaztu behar, baina, fantasiako ipuinak (anckerkeriazkoekin eta beldurrezkoekin batera) hasiera-hasieratik daudela Maupassanten ipuingintza oparoan; 1885-1886 urteetan iristen du argitalpenen gailurra, *Horla*

argitaratzen duen garaian, eta handik aurrera bakantzen hasten dira ipuin argitalpenak, bere zoria garbi ikusi eta beldurtu izan balitz bezala. Maupassantek ez zituen, gainera, fantasiako ipuinok gainerakoetatik bereizi, besteekin batera argitaratu zituen bildumetan. Ez zegoen eroturik ipuin horiek idatzi zituenean; ez dira eromenaren fruitu. Erotzen hasten denean, hain zuzen, alde batera uzten du literatura, zalantzak ditu, eleberririk hasi eta bukatu gabe uzten ditu, eta gero ez du gehiago idazten, literaturazko sormenerako bere buruaren kontrola behar duelako eta ez duelako horrelakorik.

Litekeena da, hasieran, Maupassanten fantasiako lehenengo ipuinen gaiak ikasiak izatea, Gautier-engandik, Huysmans-engandik; baina, oro har, zinez esan daiteke Maupassanten *autoskopiatic*, bere barne mundu esturaz betetik, direla sortuak. Beldurra da, hain zuzen, fantasiako ipuinok lotzen dituen haria. Beldurraren iturburua ez da arrisku jakin ezagutu bat, arrazoizkoa, arrazionalizatu edo arrazoiaren neurrietara eka-ri ezin daitekeena baizik.

Maupassanten ipuinetan gauak eta bakarda-deak prestatzen dituzte fantasiako mundua sortzeko baldintzak. Orduan aski da ustekabeko gertaera bat, zentzumenen hutsegite bat, arrazoimena zalantzatan sar dadin, kontaera mundu arrotz, itomenezkoan sar dadin. Fantasiako literatura klasikoan ez bezala, Maupassanten historietan ez da naturaz gaindiko inguruneren beharrik. Fantasiako mundua errealitatean txertatuta dago guztiz, eta horrexek egiten du, hain zuzen, sinesgarriago eta kezkarriago. Zentzumenen hutsegite batetik etor daitekeen beldurrari, izu laborriak eta eromenak jarraitzen dio, ezin geratzeko zurrunbilo batean.

Hiru ipuin mota bereizi ohi dira Maupassanten fantasiako ipuin hauen artean: esturazko ipuinak, betiere halako ondoez sentipen bat uzten dutenak; eromenezko ipuinak, protagonistak poliki-poliki erotuz doazenak; eta gauza bitxien ipuinak, aurrekoak bezain gogorak ez direnak, baina hala ere gogoia biziki erakartzen dutenak.

Esturazko ipuinak:

Agerpena da fantasma bat agertzen den bakarra. *Ur gainean, Gaua* amesgaiztozko giroa dakartenak. *Tik bat, Hildako baten ondoan, Benta, Eroa?, Izua, Beldurra, Eskua, Larrutuaren eskua. Nork jakin?* Maupassanten azkeneko idatzietakoak zalantzak sorrarazten ditu egilearen buru osasunaz. Eta azkenik *Horla*, Maupassanten ipuinik ezagunen eta ospetsuenetakoa.

Eromenezko ipuinak:

Hura?, Ero baten gutunak, Horla, Héraclius Gloss doktorea, Ametsak, Adatsa, Marteko gizona, Dibortzio kasu bat, Menuet, Madame Hermet, Lotarakoa. Eromen kasuak edo erotzeko bidean direnen kasuak dira guztiak.

Gertaera bitxiak:

Magnetismoa, telepatiari buruz, Saint-Michel Mendiko elezaharra, Gabonetako ipuina, hipnosiaz, Munstroen ama, Ezezaguna, Katuei buruz, Otsoa, piztiei buruz, Hildako andrea.

Bilduma hau

Bilduma hau Anne Richter-ek 1980an Marabout argitaletxerako apailatutako «Contes fantastiques complets» argitalpenetik hartua da.

Guy de Maupassanten fantasiak ipuinak argitalpen dataren arabera ordenatuta jasotzen dira.

Estiloaz eta itzulpenaz

Nekez azal daiteke Maupassanten idazkera idazleak berak «Pierre et Jean» eleberriaren sarreran egiten duen baino hobeto eta laburrago. Irizpide horixe izan dut, orobat, itzulpeneko gida eta helburu.

Il n'est point besoin du vocabulaire bizarre, compliqué, nombreux et chinois qu'on nous impose aujourd'hui sous le nom d'écriture artiste, pour fixer toutes les nuances de la pensée; mais il faut discerner avec une extrême lucidité toutes les modifications de la valeur d'un mot suivant la place qu'il occupe. Ayons moins de noms, de verbes et d'adjectifs aux sens presque insaisissables, mais plus de phrases différentes, diversement construites, ingénieusement coupées, pleines de sonorités et de rythmes savants. Efforçons-nous d'être des stylistes excellents plutôt que des collectionneurs de termes rares.

Il est, en effet, plus difficile de manier la phrase à son gré, de lui faire, tout dire, même ce qu'elle n'exprime pas, de l'emplir de sousentendus, d'intentions secrètes et non formulées, que d'inventer des expressions nouvelles ou de rechercher, au fond de vieux livres inconnus, toutes celles dont nous avons perdu l'usage et la signification, et qui sont pour nous comme des verbes morts.

Esker ematea

Nire eskerrona azaldu nahi diet Lur argitaletxean erredakzio kide ditudan guztiei, eskaini didaten laguntzagarik. Bereziki aipatu nahi ditut, hala ere, Antton Olano, irakurri eta zuzenketak egin dizkidalako, eta Jon Muñoz, zuzendu ez ezik beti kontuan hartzeko idarokizunak egin dizkidalako. Eskerrak, orobat, Joxe Antonio Sarasolari, itzulpen hau argitaratu aurretik osorik irakurri duelako. Nori berea zor baitzaio, bihoakie denei nire eskerrona.

Larrutuaren eskua

Orain dela zortzi hilabete-edo, nire lagun batek, Louis R...-k, bere ikaskide batzuk bildu zituen gau batean; pontxe edaten eta zigarroak erretzen ari ginen, eta bitartean literaturaz eta pinturaz mintzatzen, aldiro-aldiro txantxaren bat edo beste tartekatuz, gazteen arteko bileretan ohi den bezala. Horretan, zabaltzen da atea, den bezain zabal, eta sartzen da haurtzaroko lagun on haietako bat haize oldarra balitz bezala.

— Ezetz asmatu nondik natorren —egiten digu oihu, sartuz batera.

— Mabilletik baietz —erantzuten dio batek.

— Ez, oso pozik hator hi horretarako, dirua mailegatzetik, edo osabaren bati lur ematetik edo hire erlojua nire izebarenean uztetik hator hi —erantzuten dio beste batek.

— Baietz mozkortzetik —hirugarrenak—, eta Louisenean pontxe usaina hartu duanez, berriro hasteko igo haiz.

— Ez, bada, ez duzue asmatu, P...tik nator, Normandiatik, zortzi egun egin ditut han, eta

handik ekarria dut nire adiskide gaizkile handi bat, baimena ematen badidazue, oraintxe erakutsiko dizuedana.

Eta hitz horiek esanik, larrutu baten eskua atera zuen sakelatik; itsusi ikaragarria zen, beltza, iharra, luze-luzea, eta estutua bezala, giharrrek berebiziko indarra zuten itxuraz, pergamino bilakatutako larruzko hede batez bildurik zeuden barrutik eta kanpotik; azkazal horiak, estuak, hatz muturretan zeuden oraindik; milia batetik zuen hark guztiak gaizkilearen usaina.

— Begira —esan zuen nire adiskideak—, lehengo batean inguru hartan guztian oso eza-guna zen azti zahar baten zaharkinak saltzen ari ziren; larunbatero joaten omen zen sabbat-era erratz kirten baten gainean, magia zuria eta beltza biak egiten omen zituen, esne urdina ematen omen zien behiei eta San Antonioren lagunak erabiltzen zuen bezala erabilarazten zien isatsa. Kontua da gaiztagin horrek zaletasun handia ziola esku honi, gaizkile famatu batena baitzen, esaten zenez; gaizkile hori 1736an hil omen zuten, lehenik bere emazte legezkoa putzu batean buruz behera bota, —horretan ez dut

uste gaizki egin zuenik—, eta gero ezkondu zituen apaiza elizako dorretik eskegi zuelako. Ekintza bi horiek eginik, munduan zehar joan zen, eta bere karrera labur bezain betean, hama-bi bidaztiri egin zien lapurretan, hogeitazko fraide ketu zituen komentu batean eta moja monasterio bat harem bihurtu zuen.

— Zer egin behar duk, baina, izugarrikeria horrez? —egin genion oihu denok.

— Txilin kirtena egingo diat, arraioak ez baitu, ea izutzen diren hartzekodunak.

— Adiskidea —hasi zen esaten Henri Smith, ingeles handi guztiz flematiko bat—, esku hori Indiako okela da, nik uste, prozedura berri batez kontserbatua, salda egiteko erabil ezazu, gomendatzen dizut.

— Ez ezazue barre egin, jaunak —hasi zen berriro odolik hotzenaz hiru laurdeneko beroki gris batez jantzita zegoen medikuntzako ikasle bat—, eta hik, Pierre, aholkurik eman badiezaaket, emaiok lur kristauari dagokion moduan giza gorpuzki horri, ez al zaik bestela jabea etorriko horren eske; esku horrek ez al zituen gainera

ohitura txarrak hartuko, zeren badakik nola den esaera: «Hil duenak hilko du berriro».

— Eta edan duenak edango —heldu zion ostalariak. Horrekin batera antoisin handi bete pontxe atera zion ikasleari; hark zurrutada batez irentsi, eta hordi zerraldo erori zen mahaipean. Ateraldi hori algara handiz ospatu zen, eta Pie-rrek, ontzia jasorik eta eskuz denei agur eginez:

— Topa hire jabea berriro etor dakian —eta bestelako gauzez hitz egin zen handik aurrera eta nor bere etxera itzuli zen.

Biharamunean, haren ataurretik nindoala, etxean sartu nintzen; ordubiak-edo ziren, irakur-tzen eta zigarro erretzen aurkitu nuen.

— Zer moduz? —esan nion.

— Oso ongi —erantzun zidan.

— Eta hire esku hori?

— Eskua, hor ikusiko huen txirrinean, hantxe jarri bainuen bart etxeratu nintzenean, baina, ez dakik, ergel puskaren bat, adarra jotzeko inondik ere, etorri eta txirrina jo eta jo aritu zaidak gau erdi inguruan; nor zen galdetu, baina inork eran-tzuten ez zidanez, berriro oheratu eta lo hartu nian.

Une horretan bertan txirrina jo zuten; etxejabea zen, gizaje oihas eta mutiria oso. Agurrik esan gabe sartu zen.

— Jauna —esan zion nire adiskideari—, arren eskatzen dizut ken dezazula oraintxe bertan txirrinaren sokatik zintzilikatu duzun sarraski hori, bestela kanpora bota beharko zaitut-eta etxe honetatik.

— Jauna —erantzun zion Pierrek guztiz serio—, horrelakorik batere merezi ez duen esku bati ari zara laidoka, jakin behar baituzu oso ongi hazitako pertsona batena izana dela.

Etxejabeak oinak itzuli eta sartu bezalaxe atera zen. Pierre haren atzetik joan, eskua askatu, eta bere ohetokian zeukan txilinetik zintzilikatu zuen.

— Hobeto horrela —esan zuen—, fraide trapisten «Anaia, hil behar duzu» hark bezala, gogoeta serioak ekarriko dizkit gauean lotarakoan.

Handik ordu betera harenetik alde egin eta etxera itzuli nintzen.

Gaizki egin nuen lo hurrengo gauean, urduri, asaldatuta nengoen; behin eta berriro esnatu

nintzen ikaraturik; horietako batean, hala ere, etxean norbait sartu zela iruditu zitzaidan, eta, jaikirik, armairuetan eta ohe azpian begira aritu nintzen; goizeko seiak aldera, azkenik, ia lozorroan sartzen ari nintzela, atean jo zuten kolpe bortitz batek ohetik kanpora jauzarazi ninduen; nire adiskidearen otseina zen, ozta-ozta jantzirik, zurbil eta ikaraz.

— Ai, jauna —hasi zen oihuz eta zotinez—, nire nagusi gaixoa, hil egin dutela.

Azkar bai azkar jantzi eta Pierrenera joan nintzen lasterka. Jendez bete-beterik zegoen etxea, eztabaidak, urduritasuna, hara-hona etengabea, zein bere esan beharrak esaten, gertatua hainbat modutara kontatzen eta komentatzen. Nekez bada ere, gelaraino iritsi nintzen, atea zainduta zegoen, izena eman nuen, sartzen utzi zidaten. Lau polizia zeuden erdian zutik, eskuan koadernotxo bana zutela aztertzen ari ziren, aldian-aldian elkarrekin hitz egin eta idatzi egiten zuten; bi mediku berriketan ari ziren ohe ondoan, eta haren gainean etzanda Pierre, konorterik gabe. Ez zegoen hilda, baina edonor beldurtzeko itxura zuen. Begiak neurritz goitik

zabalduak, begi-niniak handiturik, bazirudien esan ezinezko izumen batez gauza beldurgarri ezezagunen bati begira zeudela, behatzak estututa zituen, gorputza, kokotsetik behera, izara batez estalia zuen, jaso nuen. Lepoan bost behatzen seinaleak zituen, haragitan barreneraino sartuak, odol tanta batzuen orbanak zituen alkandoran. Une horretan gauza batek jo ninduen gogoan. Gelako tximiniara begiratu nuen, larrutuaren eskua ez zegoen han. Medikuek kendua izango zioten, inondik ere, zaurituaren gelan sartzen zirenak zirraraz alditxartu ez zitezten, zinez gauza hitsa baitzen, izan ere, esku hura. Ez nuen galdetu zer gertatu zen gerora hartaz.

Orain biharamuneko egunkari batetik moztuta dakart krimenaren kontaketa, poliziak jaso ahal izan zituen xehetasun guztiekin. Hona zer zekarren:

«Atentatu ikaragarri bat egin zen atzo Pierre B... gaztearen kontra; zuzenbidezko ikaslea bera, Normandiako familiarik onenetako batekoa. Gazte hau gaueko hamarrak aldera etxeratu zen, nekatuta zegoela eta aurki oheratu behar zuela esanez agurtu zuen bere otseina,

Bouvin jauna. Gau erdi aldera, nagusiaren txirri-
nak esnatu zuen bat-batean, amorruez ari baitzi-
ren jo eta jo. Beldurtu zen, piztu zuen argi bat
eta zain geratu zen; minutu batez-edo txirrina
isilik egon zen, eta gero berriro ekin zion, halako
indarrez, non otseina, beldurraren beldurraz,
gelatik kanpora itsumustuka atera, eta etxezai-
na esnatzera joan baitzen; hura poliziarengana
joan zen eta ordu laurden baten buruan-edo
haiek atea bota zuten.

»Ikuskari izugarria azaldu zitzaien begien
aurrean, altzariak azpikoz gora zeuden, itxura
guztia zuen ikaragarritzko borroka izan zela bikti-
maren eta gaizkilearen artean. Gelaren erdi-
erdian zetzan, bizkarrez, gorputz atalak zurrun
eta aurpegia zurbil, begiak izumenez zabal-
zabal, Pierre B... gaztea, zirkinik egiten ez zuela;
bost hatzen arrasto sakonak zituen lepoan. Bour-
deau mediku jaunari berehalaxe deiturik, txoste-
na eman du esanez aparteko indarra zuela inon-
dik ere erasotzaileak, eta oso esku ihar eta zain-
tsua behar zuela izan, bost balaren zuloak beza-
la utzi baitizkio lepoan, haragian zehar ia bestal-
deraino pasata. Krimenaren zergatiaz ez dago

susmorik eman dezakeen ezer, eta egin duena nor izan daitekeen sumatzeko ere ez».

Hurrengo egunean honela zekarren egunkari berean:

«Pierre B... jaunak, atzo kontatzen genuen atentatu izugarriaren biktimak, konortea hartu du berriro Bourdeau mediku jaunak bi orduz arreata handiz zaindu ondoren. Ez du bizia galtzeko arriskurik; baina beldur handia dago ez dela berriro bere senera itzuliko; errudunaren arrastorik ez da».

Nire adiskide gaixoa erotuta zegoen, izan ere; egunero-egunero joan nintzaion ikustera, zazpi hilabetez, ospitalera, baina bere senaren izpirik ere ez zuen berriro eskuratu. Bere erome-nean hitz arraroak jaulkitzen zituen, eta, ero guztiek bezala, bazuen ideia finko bat, mamu batek jarraitzen ziola uste zuen. Egun batez lasterka etorri zitzaizkidan bila, esanez okerrago zegoela, eta hiltamuan aurkitu nuen. Bi ordu sosegu oso-soan egon zen, gero, ordea, bat-batean gure ahalegin guztiengatik ere ohean zutiturik oihuka hasi zen besoak astinduz izu laborri batek hartu izan balu bezala:

— Heldu iezaio!, heldu iezaio! Ito behar
naik, hel, hel!

Bi itzuli egin zituen gelan garrasika, gero hilik
erori zen, ahozpez.

Umezurtza nola baitzen, niri eman zidaten
haren gorpua Normandiako P... herrira eramate-
ko ardua, han baitzeuden hilobiratuak haren
gurasoak. Herri hartatik bertatik iritsia zen Louis
R-nean pontxe edaten aurkitu gintuen eta larru-
tuaren esku hura erakutsi zigun gau hartan.
Berunezko zerraldo batean sartu zuten gorputza,
eta lau egun geroago, lehenengo ikasketak
eman zizkion apaiz zaharrarekin paseatzen ari
nintzen triste eta goibel haren hilobia zulatzen
ari ziren hilerritxoan. Oso eguraldi ona zegoen,
zerua urdin-urdin argiz parrastaka ari zen, txo-
riak kantuz pendoitzetako laharretan, biok
artean haur ginela hainbestetan masustak jatera
etorritako lekuan. Ikusten ari nintzen oraindik,
nola irristatzen zen hesian, han sailaren bazter-
bazterrean pobreei lur ematen zitzaien lekuan
zegoen eta ongi ezagutzen nuen zulo hartatik
barrura, eta gero masailak eta ezpainak jandako
fruituez beltz-beltz eginik itzultzen ginen etxera,

eta laharretara begiratu nuen; masustaz beterik zeuden; ohartu ere gabe hartu bat eta ahora eraman nuen, eta hobia zulatzen ari ziren hobigileen aitzurkadak entzuten nituen bide barreneetik. Horretan hots egin ziguten, apaizak itxi zuen liburua eta zer nahi zuten ikustera joan ginen. Zerraldo bat zuten aurkitua. Pikatxoi kolpe batez estalkia zartarazi, eta hezurdura gehiegizko luze bat ikusi genuen, ahoz gora etzana, bere begi hustuetatik oraindik begira balegokigu bezala, desafioz-edo; ondoezik sentitu nintzen, ez dakit zergatik ia beldurra izan nuen.

— Begira —esan zuen gizon haietako batek—, begira hori, zital honek eskumuturra moztuta dauka, hona eskua.

Eta esku ihar handi bat jaso zuen gorpuaren ondotik, eta erakutsi zigun.

— Begira iezaioak, hi —esan zuen besteak barrez—, esango litzatekek begira ari zaiala eta zintzurrera egin behar diala jauzi, eskua itzul diezaioan.

— Ea, bada, lagunak —esan zien apaizak—. Laga itzazue hilak bakean eta itxi ezazue zerral-

do hori, zulatuko duzu beste nonbait Pierre gaixo honentzako hobia.

Biharamunean bukatua zen dena, eta Parisa bidea hartu nuen berriro, apaiz zaharrari hilobiko bakea nahasi genion haren arimaren betiko atsedenerako mezak eman zitzan berrogeita hamar libera utzirik.

(1875)

Héraclius Gloss doktorea

I

Zer zen, moralez, Héraclius Gloss doktorea

Gizon jakintsua zen, zinez, Héraclius Gloss doktorea. Hark sinatutako liburuxka txikienik ere hiriko liburutegietan inoiz agertu ez zen arren, Balançon hiri eskolatuko biztanle guztiek begiratzten zioten Héraclius doktoreari oso gizon jakintsu bezala.

Nola eta zertan zen doktore? Ezin inork esango zukeen. Haren aitari eta aitonari ere beren hirikideek doktore deitzen zieten, ez zekiten besterik. Deiturarekin eta ondasunekin batera hartu zuen herentzian haien titulua ere; haren familian doktore ziren aitaren ondoren semeak, aitaren ondoren semeak Héraclius Gloss deitzen ziren bezalaxe.

Hortik aparte, fakultate ospetsuren bateko kide guztiek sinatu eta kontrasinatutako inolako

diplomarik ez bazuen ere, horrek ez zion kentzen, horrenbestez, oso gizon duina eta jakintsua izatea. Aski zen haren bulego zabaleko lau hormak estaltzen zituzten berrogei apal liburuz kargatuak ikustea, erabat konbentzitzeko hura baino gizon jakintsuagorik ez zela inoiz izan Balançoneko hiriaren ohoragarri. Bada, haren konturik Dekano jaunaren edo Errektore jaunaren aurrean aipatzen zen bakoitzeko, halako misterio irribarre bat ikusten zitzaien beti. Esan izan da, gainera, egun batez Errektore jaunak gorai pamen handia egin zuela hartaz latinez Artzapezpiku jaunaren aurrean; hori kontatzen zuen lekukoak ezin arbuiauzko frogatzat aipatu ohi zituen, gainera, latinez entzun zituen hitz apurrok:

«Parturiunt montes, nascitur ridiculus mus».

Dekano jaunak eta Errektore jaunak haren etxean afaltzen zuten, gainera, igandero; inork ez zukeen zalantzatan jarriko, beraz, oso gizon jakintsua zenik Héraclius Gloss doktorea.

II

Zer zen, gorpuzkeraz, Héraclius Gloss doktorea

Egia baldin bada, filosofo batzuek nahi duten bezala, harmonia bete-betea dagoela gizon baten moralaren eta gorpuzkeraren artean, eta egia bada aurpegiko marretan izaeraren nondik norakoak irakur daitezkeela, Héraclius doktorea ez zen horrelakorik gezurtatzeko egina. Ttikia, bizia eta urduria zen. Bazuen zerbait arratoiarenik, ipurtatsarenik eta zakur lasaiarenik, bilatzailleen, marruskatzaileen, ehiztarien eta nekaezinen familiakoa zela, alegia. Hura ikusita ezin sinets zitekeen hark ikasitako dotrina guztiak horren buru txikian sar zitezkeenik, bestela baidarik, bati iruditzen zitzaion hark behar zuela sartu zientzian barrena, eta hantxe bizi, arratoi bat liburu lodi batean bezala barrenetik marruskatzen. Bere harrigarritzko mehetasuna zuen batez ere gauza bereziena; haren lagun dekanok esan ohi zuen, eta ez arrazoi gutxirekin agian, infolio baten orrien artean mende batzuetan ahazturik utzia izan behar zuela, nonbait, arrosa

baten eta bioleta baten ondoan, oso pinpirin eta urrindu ibiltzen baitzen beti. Bere aurpegia, hala ere, hain zuen bizarra mozteko labanaren gisakoa, non urrezko betaurrekoen kirtenek, lokieta-tik kanpora arras irtenik, itsasontzi baten mastan bela hagak bezalakoxe itxura egiten baitzioten. «Héraclius doktore jakintsua izan ez balitz — esan ohi zuen inoiz Balançoneko fakultateko Errektore jaunak—, aizto bikaina zatekeen pape-
ra mozteko». Ileordea erabiltzen zuen, oso zainduta janzen zen, ez zen inoiz gaixo, animalien zale zen, ez zion gorrotorik jendeari, eta galeper txitxiburduntzien zale amorratua zen.

III

Zertan ematen zituen Héraclius Gloss doktoreak eguneko hamabi orduak

Ez al zen doktorea jaikitzen, xaboiz garbitzen, bizarra mozten eta bainila txokolatezko katilu batean bustitako ogi gurinez igurtzi batez betetzen, bere lorategira jaisten zen. Ez oso lorategi

zabala, txikia baizik, hiri barrukoak ohi diren bezala, baina bai atsegina, itzaltsua, loretsua, isila, gogoetatsua esango nuke nik, ausartuko banintz. Aski bedi pentsatzea zer izan behar duen egiaren bila dabilen filosofo baten lorategiak, eta ez da oso-oso urruti egongo Héraclius Gloss doktoreak bigarren gosariko galeper txitxi-burduntziei ekin aurretik hiruzpalau bider pauso arinez itzulia ematen zion hura ezagutzetik. Ariketatxo hori, esan ohi zuen, apartekoa zen ohetik jaikitzean; odolaren zirkulazioa bizkortzen zuen, lozorroturik egoten baitzen loarengatik, burmuineko haizeak uxatzen zituen eta txegos-bideak prestatzen.

Horren guztiaren ondoren bazkaldu egiten zuen doktoreak. Gero, kafea harturik, eta trago batetik edaten zuen, mahaian hasitako txegosketak ekarri ohi duen lozorroari inoiz amore eman gabe, bere redingote handia jantzi eta alde egiten zuen. Eta egunero-egunero, fakultate aurretik igaro eta bere Luis XV patrikako erlojuaren ordua unibertsitateko ordulariaren biribil goitituarenarekin alderatu ondoren, Uso Zaha-

rren karrikan barrena ezkututzen zen, eta afaritara itzultzeko baizik ez zen ateratzen handik.

Zer egiten zuen Héraclius Gloss doktoreak Uso Zaharren karrikan? Zer egiten zuen han, ai Jauna!... egia filosofikoa zuen bilatzen, hona nola.

Karrikatxo ilun zikin horretan elkartuak ziren Balançoneko liburu zaharren saltzaile guztiak. Urteak beharko ziratekeen Uso Zaharren karrika osatzen zuten berrogeita hamar etxekondoetan sototik ganbararaino pilatutako uste ez izateko obra guztien tituluak baizik ez irakurtzeko.

Héraclius Gloss doktoreak bere jabegoa baliatu bezala begiratzen zien karrika hari, etxe haiei, liburu saltzaileei eta liburuei.

Sarritan gertatua zen edozein gauzaren saltzaile haietakoren batek, lotarako unean, hotsen bat entzun izana ganbaran, eta otsoaren pausoz, antzinako ezpatatzar handiren batez armatuta, hara igorik, zer aurkituko, eta Héraclius Gloss doktorea aurkitu, gorputz erdiraino liburu zahar pilatan ezkutaturik, esku batean behatz artean urtzen ariko zitzaion kandela mutur bat zuela, eta besteaz antzinako eskuizkriburen baten

orriak pasatzen, handik agian egia erneko ote zitzaion ustez. Eta harritzen zen doktore gaixoa, jakinik dorreko ezkilak aspaldi joak zituela bederatziak, eta afari nazkagarriren bat jan beharko zuela.

Zinez serio bilatzen baitzuen Héraclius dokto-reak! Sakon-sakonetik ezagutzen zituen antzina-ko filosofiak eta filosofia moderno guztiak; aztertuak zituen Indiako sektak eta Afrikako beltzen erlijioak; Iparraldeko barbaroen artean edo Hegoaldeko basa herrien artean ez zen jende multzo txikiarik, hark haien sinesteak aztertu gabe zituenik! Horra! Horra, ordea! zenbat eta gehiago ikasi, bilatu, barrendu, gogoeta egin, orduan eta handiago zalantza:

— Adiskidea —esan zion arrats batez Errekto-re jaunari—, zenbatez ez ote dira gu baino zoriontsuago itsasoan barrena mundu berri baten bila abiatzen diren kolonoak; aurrera jarraitu baizik ez dute. Aurkitzen dituzten nekeak gizon kementsuak beti gainditzen dituen oztopo materialek eraginak baizik ez dira; guk, berriz, ezbaizko itsasoak amaigabe astintzen gaituelarik, hipotesi batek, itsasontzia ipar haizeak beza-

la, kolpetik bere aldera eramanez, bertatik topatzen dugu, kontrako haizea nola, kontrako doktrina bat, esperantzarik batere gabe, irtenak ginen portura berriro itzultzen gaituena.

Gau batez Dekano jaunarekin filosofatzen ari zela, esan zion:

— Bai arrazoia, adiskidea, egia putzu batean bizi dela esaten denean... Etengabe jaisten dira ontziak, noiz harrapatuko, eta ur xahua baizik ez dute ekartzen... Zeuk asmatu, jarraitu zuen sotil, nola idazten dudan nik *Sots* hitza.

Horixe da hari inoiz entzun zaion hitz joko bakarra.

IV

Zertan ematen zituen Héraclius Gloss doktoreak gaueko hamabi orduak

Héraclius doktorea arratsean etxeratzen zenean etxetik irtendakoan baino askoz ere gize-nago itzuli ohi zen ia beti. Hain zuzen ere, haren patrika bakoitza, eta bazituen hemezortzi, gai-

nezka ekartzen baitzuen Uso Zaharren karrikan erositako filosofiako liburu zaharrez; eta errektore irrizaleak zioenez, une horretan kimikalariren batek analizatu izan balu, doktorearen osaeraren bi herenak paper zaharrak hartzen zituela aurkituko omen zuen.

Zazpitan Héraclius Gloss doktorea mahaira esertzen zen, eta jaten ari zen bitartean, erosi berriak zituen liburu zaharrak arakatzen zituen.

Zortzi eta erdietan maisuaren gisan jaikitzen zen, ez zen egunean zehar izandako gizontxo erne alaia, bekokia, zamalaria zama astunegiaren mende bezala, gogoeta goratuen pisuaren mende zimurtzen zaion pentsalari benazkoa baizik. Bere neskameari «ez nago inorentzat» maiestatezko bat bota ondoren, bere langelan desagertzen zen. Behin hara sartuta, lanerako mahai liburuz muku zuenean eseri eta... amets egiten zuen. Zer ikuskari bitxia orduantxe inork doktorearen pentsamendu barrua ikusi ahal izango balu!... Jainkorik bateratu ezinena eta sinisterik zentzugabeena jarraigo munstrozkoa, dotrina eta hipotesien elkar gurutzatze fantasiakoa. Filosofia guztietako aitzindariak lehia-

keta erraldoi batean elkarrekin talka egiten zuten gudu leku bat bezala zen hura. Doktoreak batean biltzen, konbinatzen, nahasten zituen Ekialdeko espiritualismo zaharra alemaniar materialismoarekin, Apostoluen moralak Epikurorenarekin. Laboratorioan konbinaketa kimikoak nola, halaxe ahalegintzen zen dotrina konbinaketak egiten, baina ez zuen inoiz azalean hain desiratua zuen egia borborka ikusten, eta, bere adiskide on errektore jaunak zioenez, etengabe bila ari zen egia filosofiko horrek antz handia zuen talka-harri filosofalarena...

Gauerdian doktorea lotara joaten zen, eta haren lotako ametsak iratzar aldiko berberak ziren.

V

**Nola Dekanoak eklektizismoan
zituen esperantza guztiak,
doktoreak errebelazioan eta
Errektore jaunak dijestioan**

Dekano jauna, Errektore jauna eta bera bere bulego zabalean bilduta zeuden gau batean, guztiz eztabaida interesgarria izan zuten hiruren artean.

— Adiskidea —esaten zuen dekanok—, eklektikoa eta epikurotarra behar da izan. Aukera ezazu on dena, egotz gaitz dena. Lur guztian zehar hedatzen den lorategi zabal bat da filosofia. Bil itzazu Sortaldeko lore distiratsuak, Iparreko loratze zurbilak, belardietako bioletak eta lorategietako arrosak, egizu sorta bat guztiez, eta usain egizu, haren urrina amets ere egin daitekeen gozoena ez bada, oso atsegina izango da behintzat, eta lore bakarrarena baino —munduko lorerik usaintsuena izanda ere— mila bider eztiagoa.

— Askotarikoagoa, zalantzarik ez da —hasi zen doktorea—, baina eztieta ez, beste lore guztien usainak bere baitan biltzen eta bateratzen dituen lorea inoiz aurkitzen baduzu. Zeren zure sorta horretan ezin eragotziko duzu usain batzuek beste batzuei kalte egitea, eta, filosofian ere, sineste batzuek besteen kontrako izatea. Egia bat bakarra da — eta zure eklektizismo

horrekin zatikako, puskakako egia bat baizik ez duzu inoiz lortuko. Neu ere izana naiz eklektiko, orain bat bakarraren zale naiz. Nik ez dut nahi halako gutxi gorabeherako topaketa bat, egia osoa baizik. Pertsona burutsu guztiek dute, nik uste, egia horren halako auresusmo bat, eta inoiz bidean topatzen badu «hona!» aterako zaio barrenetik. Gauza bera gertatzen da edertasunari dagokionez ere; nik neuk, adibidez, ez nuen maitasunik izan hogeita bost urte bete nituen arte; inoiz ikusi bai emakume ederrak, baina ez zidaten ezer esaten — nik begiztatzen nuen ideal hura osatzeko, gauzatxo bat hartu beharko litzateke haietako bakoitzetik, baina horrek ere zuk lehen aipatzen zenuen lore sorta horren antza izango luke, era horretara ez bailitzateke behar den edertasun osoa lortuko, bakundu ezina baita, urrea eta egia bezala. Egun batean, azkenik, emakume hori topatu nuen, bertatik nabaritu nuen hura zela, eta maitasuna hartu nion.

Doktorea, emozio pixka batez, isildu egin zen, eta Errektore jaunak irribarretxo fin bat egin zuen Dekano jaunari begiratzuz. Handik une batera aurrera jarraitu zuen Héraclius Gloss jaunak:

— Errebelaziotik itxaron behar dugu dena. Errebelazioak argitu zuen Paulo apostolua Damaskorako bidean eta hark eman zion kristau fedea...

— ...egiazkoa ez dena —eten zuen barrez errektoreak—, zuk ez baituzu sinesten horretan — errebelazioa ez da, beraz, eklektizismoa baino seguruago.

— Barka, adiskidea —jarraitu zuen dokto-reak—, Paulo ez zen filosofoa, gutxi gorabehera-ko errebelazioa izan zuen hark, haren adimena ez zatekeen gauza izango egia osoa atxikitzeko, abstraktua baita. Filosofiak, ordea, bide luzea egin du geroztik, eta edozer gauzak, liburu batek, hitz batek agian, ulertzeko aski argitua den norbaiti egia hori azaltzen dionean, bat-batetik argituko du halakoa, eta izarrak eguzkia piztearekin batera nola, halaxe ezabatuko dira haren aurrean sineskeria guztiak.

— Amen —esan zuen erretoreak—, hurrengo egunean ordea beste pertsona argitu bat izango duzu, eta biharamun hurrengoan beste bat, eta zeinek bere errebelazioak elkarri burura jaurtiko

dizkiote; gaitzerdi, halere, errebelazio horiek oso arma arriskutsuak ez diren.

— Zuk ez duzu hortaz ezertan sinesten? —
jaurti zion doktoreak, haserretzen ere hasia baitzegoen.

— Dijestioan sinesten dut —erantzun zuen serioski errektoreak—. Nik berdin-berdin irensten ditut sineste guztiak, dogma guztiak, moral guztiak, sineskeria guztiak, hipotesi guztiak, begitazio guztiak, afari on batean ere plazer berberaz jaten ditudan bezalaxe eltzekariak, sarre-rak, haragi erreak, barazkiak, gozokiak ala postrea, eta horren guztiaren ondoren guztiz filosofikoki etzaten naiz ohean, nire dijestio lasaiak gauerako lo atsegin bat eta hurrengo egunerako bizitasuna eta osasuna ekarriko dizkidalako uste oso-osoan.

— Sinesten ez baduzu —presakatu zen dekanoa—, ez dugu aurrerago eramango konparazio hori.

Handik ordubetera, Héraclius jakintsuarenetik ateratzen ari zirela, errektorea barrez hasi zen tupustean, esanez:

— Doktore gaixoa! maite duen emakumea bezala azaltzen bazaio egia, hauxe dugu mundu honek inoiz ezagutu duen gizonik tronpatuena.

Eta bere etxean sartzeko ahaleginetan ari zen mozkor bat izumenak jota erori zen dekanoren barre ozena entzunda, errektorearen faltsete zoliari ahots baxu sakonaz lagunkari.

VI

Nola doktorearen Damaskoko bidea Uso Zaharren karrika gertatu zen, eta nola eskuizkribu metenpsikosista baten itxuran argitu zuen egiak

Mila zazpiehun eta ... urteko martxoaren 17an sukarrak harturik esnatu zen doktorea. Gau hartan behin eta berriro ikusi zuen ametsetan gizon zuri handi bat, antzinako modura jantzia, hatzaz bekokian jo eta ulertu ezinezko hitzak esaten zizkiona, eta amets hori guztiz oharpen esanguratsua iruditu zitzaion Héraclius jakintsuari. Zeren oharpena zen?... zertan zen

esanguratsu?... doktoreak ez zekien ziur-ziur, baina zerbaiten zain zegoen nolana ere.

Gosaldu ondoren Uso Zaharren karrikara joan zen, ohi zuen bezala, eta eguerdia jotzen ari zuela 31. zenbakiko etxean sartu zen, Nicolas Bricoletenean, jantzi alokatzailea bera, altzari zaharren saltzailea, bigarren eskuko liburuen saltzailea, eta antzinako oinetakoen konpontzailea, zapataria, alegia, libre zituen uneetan. Doktorea, halako inspirazio batek bultzatuko balu bezala, ganbarara igo zen zuzenean, eskua Louis XIII armairu bateko hirugarren apalera eraman eta pergaminozko eskuizkribu handi bat atera zuen handik. Hona izenburua:

Nire hemezortzi metenpsikosiak
Kristau aroa deituaren 184. urteAz gero izan
ditudan bizitzen historia

Izenburu bitxi horren ondoren, sarrera hau zekarren, Héraclius Glossek itsumustuan deszifratu zuena:

«Nire transmigrazioen kontraera doia dakarren eskuizkribu hau Erromako hirian hasi nuen

kristau aroko CLXXXIV urtean, goian esan beza-
la.

»Gizakiei arimak dituen berragertzeen berri emateko azalpen hau gaurko egunez, 1748ko apirilaren 16an sinatzen dut nire patuaren gora-beherek ekarri nauten Balançoneko hiri honetan.

»Filosofiako arazoek kezkatzen duten edozein pertsona argituk bere begiak orri hauetara begira jartzea aski izango du, bere baitan argitasunik distiragarriena piztu dakion.

»Horretarako, hain zuzen, Ierro bakan batzuetan laburtuko dut nire historiaren muina, latin pixka bat, greziera, alemana, italiara, espainiera eta frantsesa jakinez gero beherago irakurri ahal izango dena; hain zuzen ere, gizon izan naizen aldi desberdinetan herri desberdinetan bizi izan bainaiz orobat. Geroago azalduko dut nolako ideia kateatzez, zer eratako burubide psikologikoz, zer-nolako baliabide mnemoteknikoz atera ditudan, huts egiteko arriskurik gabe, ondorio metenpikosikoak.

»184. urtean Erroman bizi nintzen eta filosofoa nintzen. Egun batean Apia bidean nenbilela agian Pitagoras aurki jaiotzekoa zen egun handi

baten eguantz oraindik ere zalantzatia zatekeela bururatu zitzaidan. Une horretatik aurrera desira bat baizik ez nuen izan, helburu bat, ardura bat bakarra: nire iraganaz gogoratu. Horra, ordea, alferrik izan ziren nire ahalegin guztiak, ez nintzen ezertaz gogoratzen nire ordu arteko bizialdiez.

»Horrela bada, egun batean nire atriumean nuen Jupiterren irudi baten oinarrian nire gaztarroan hantxe grabatu nituen marra batzuk ikusi nituen ezustean; aspaldi ahaztua nuen gertaera bat gogoratu zidaten bat-batean. Argi izpi bat bezala izan zen; eta orduantxe ohartu nintzen urte bakan batzuk, inoiz gau bat bakarra ere, aski direla oroimen bat ezabatzeko, eta horrenbestez are ahazgarriago diratekeela lehenagoko bizialdietan gertatuak, haien oroitzapenen gaineratik bitarteko giza eta animalia bizialdi guztien lozorroa igaro denez.

»Horregatik, bada, harrizko oholetan idatzi nuen nire historia, egunen batean agian patuak berriro begien aurrean jarriko zidalako ustean, eta hala gertatuz gero estatua haren oinarrian

aurkitutako idatzia bezala izango zelako esperantzatan.

»Nik orduan nahi izandakoa halaxe gertatu zen, gertatu ere. Handik mende bat geroago, arkitekto bainintzen, etxe zahar bat erauzi eta hura egondako lekuan palazio bat eraikitzeko kargua eman zidaten.

»Nire mende nituen langileek harri puskatu idatziz estali bat ekarri zidaten, zimenduetarako zangak zulatzen ari zirela aurkituta. Idatzi hura deszifratzen hasi nintzen — eta zeinu haiek idatzi zituenaren bizitza irakurri ahala, iragan ahaztu baten argi dirdai igarokor batzuk bezala etortzen zitzaizkidan aldika. Poliki-poliki argituz joan zitzaidan barnea, ulertzen hasi nintzen, gogoratu egin nintzen. Neuk grabatua zen harri hura!

»Zer egin nuen nik, ordea, mende bateko bitarte horretan? Non egon nintzen? Zer itxuratan egon nintzen sofritzen? Ezerk ezin zidan horren berri eman.

»Egun batean, ordea, aztarren bat aurkitu nuen, hain ahula eta hain lausoa ordea, non ez bainaiz aipatzera ere ausartzen. Nire auzoa zen agure zahar batek esan zidan sekulako barreak

egin zituztela behin Erroman, berrogeita hamar urte lehenago (ni jaio baino bederatzi hilabete lehenago hain justu) Marcus Antonius Cornelius Lipa senadoreari gertatutako pasadizo baten kontura. Haren emazteak, emakume polita bera, eta oso gaiztoa, esaten zutenez, tximino handi bat erosi omen zien feniziar saltzaile batzuei, eta oso maite omen zuen tximino hori. Cornelius Lipa senadorea jelsiak hartu zuen bere emazteak giza aurpegidun kuadrumano hari zion txeragatik, eta hil egin omen zuen. Historia hori entzuten ari nintzela halako susmo lauso bat izan nuen ni nintzela tximino hura, eta luzaro sufritu nuela itxura hartan, jausialdi baten oroitzapenez bezala. Baina gauza argi zehatzik ez nuen ezer aurkitu. Nolanahi dela ere, hipotesi hori egin nuen, egiantz handikoa baita gutxienez.

»Animalia izatea gizakia gizaki izan den bitartean egindako hobenengatik arimari jartzen zaion penitentzia da. Goragoko mailako bizialdien oroitzapena ematen zaio animalari, bere jausialdiaren sentipena bera zigor izan dezan.

»Sufrimenduak garbitu duen arimak baizik ezin dezake berriro giza izatea hartu; orduan animalia izan den bizialdietako oroitzapena galdu egiten du, orduan guztiz oneratu baina berriro, eta ezagutza hori merezi gabeko sufrikarioa izango bailitzateke halakoarentzat. Horregatik bada, bere hobenak ordaintzen ari den errudunari zaion begirune berbera beharko luke gizakiak abereentzat, era horretara, bera ere abere itxuran agertzen denean beste batzuek ere bera babes lezaten. Hain zuzen ere, horrelakoxe zerbait dio kristau moralaren esapide hark: «Ez egin inori zeuri egiterik nahiko ez zenukeenik».

»Nire metenpsikosien kontraeran ikusiko da nola izan nuen bizialdietako bakoitzean oroitzapenak berriro aurkitzeko zoria, nola transkribatu nuen berriro historia hau brontzezko oholetara, gero Egiptoko papiroetara, eta azkenik, askoz ere geroago, Alemaniako pergaminoetara, gaur bertan ere erabiltzen dudana honetara.

»Dotrina honen ondorio filosofikoak ateratzea baizik ez zait geratzen.

»Filosofia guztiek egin dute topo arimaren gerokoa zein izango den argitu beharraren ara-

zoarekin. Gaur egun nagusi den kristau dogmak erakusten duenez, Jainkoak paradisu batean bilduko ditu zintzoak, eta infernura bidaliko ditu gaiztoak, deabruarekin batera erre daitezzen.

»Gaur egungo zentzu modernoak, ordea, ez du sinesten patriarka aurpegiko Jainko horretan, zintzoen arimak oiloak txitoak bezala bere hegopean babesten; eta arrazoiak ezeztatu egiten ditu, gainera, kristau dogmak.

»Paradisuak ezin baitu, izan ere, inon egon, eta infernuak ere ez:

»Zeren gurea bezalako munduz beterik baitago espazio mugagabea;

»Zeren lur hau sortu zenetik hemen izan diren belaunaldiak mundu honek bezala biztanleak dituzten gainerako ezin konta ahalako munduen kopuruaz biderkatzen baldin badira, hain arima kopuru ikaragarri eta ezinezkoa emango luke, biderkatzailea mugagabea denez, non Jainkoa bera ere nahastu egingo bailitzateke, zalantzarik gabe, buruz nahi den argia izanda ere, eta gauza bera gertatuko litzaioke Deabruari ere, eta hala aski egoera gogaikarria eratuko litzateke;

»Zeren zintzoen arima kopurua infinitua izanik, eta gauza bera gaiztoen arimena, eta infinitua espazioa ere, paradisu infinitua beharko litzateke eta infernu infinitua orobat, horientzat guztientzat, eta horrenbestez gertatuko litzateke alde guztietan legokeela paradisia eta alde guztietan infernua ere, inon ez, alegia.

»Metenpsikosiaren sinestea berriz ez du ezeztatzen arrazoiak:

»Arima, sugetik zerriarengana, zerriarengandik txoriarengana, txoriarengandik zakurrarengana igarorik, tximinoarengana eta gizonarengana iristen da azkenean. Eta beti hasten da berriro hutsegiteren bat duen bakoitzeko, harik eta lurrean izan daitekeen garbitasun gorenera iristen den arte, eta orduan goragoko mundu batera bidaltzen du garbitasun horrek. Era horretara animaliaz animalia eta esferarik esfera igarotzen da etengabe, harik eta azkenetan zoriontasun goreneko planetara iristen den arte; handik, ordea, beste hutsegite batek oinazerik handieneko eremuetara bidal dezake berriro, eta handik berriro bere transmigrazio katea hasarazi.

»Zirkuluak, patuaren irudi unibertsal horrek, biltzen ditu, beraz, gure bizialdien gertaerak eta horrexek gobernatzen ditu orobat munduen bila-kaerak».

VII

Nola bi modutara interpreta daitekeen Corneilleren bertso bat

Héraclius doktoreak dokumentu bitxi haren irakurtzea bukatu bazuen, bukatu, harri eta zur geratu zen — errekaridaritzatan ibili gabe erosi zuen, hamabi libera eta hamaika sosetan, Ponpeiako indusketetan aurkitutako hebrear eskuizkribu bat balitz bezala saltzen baitzuen liburuza-leak.

Lau egun eta lau gauetan doktorea ez zen atera bere langelatik, eta egonarri handiz eta hiztegien laguntzaz, nola edo ahala, eskuizkribu haren aleman eta espainol aldiak deszifratu zituen, zeren greziera, latina eta italiera pixka bat baldin bazekien ere, alemanez eta espainie-raz ez baitzekien ezer. Nolanahi ere, zentzu oke-

rreko makurrik handienak egin izango zituen bel-
durrez, bere adiskide errektoreari eskatu zion,
oso ondo ezagutzen baitzituen hizkuntza horiek
biak, bere itzulpena irakurtzeko mesedez. Atse-
gin handiz egin zion hori errektoreak; baina hiru
egun eman zituen lanari seriotan heltzeko, hala-
koxe barre algaraz hasten baitzen doktoreak
egindako itzulpena irakurtzen hasten zen bakoit-
tzeko, non bihotzekoa ere eman baitzion ia.
Halako barregurak zergatik, galdetu baitzioten:

— Zergatik? —erantzun zuen—, hiru arrazoi
daude: 1. Héraclius nire lagun prestuaren aurpe-
gia bera, barrez leherraraztekoa; 2. Haren itzul-
pen barrez leherraraztekoa, jatorrizko testuaren
antza gitarrak haize errota batena adina baitu
gutxi gorabehera; eta 3. Testua bera, burutik
pasa ere egin daitekeen gauzarik barregarriena
baita.

Oi, errektore setatia! Hura ez zuen ezerk kon-
bentzituko. Etor zitekeen eguzkia eta bizarra eta
ileak erre, kandela bat zela esango zuen hark!

Héraclius Gloss, berriz, esan beharrik ere ez
dut poz jarioz zegoela, argitasunez beterik, eral-

daturik — eta denbora guztian errepikatzen zuen Paulinek bezala

«*Je vois, je sens, je crois, je suis désabusé*»

eta hori esaten zuen bakoitzeko, errektoreak moztu egiten zion, esanez «*désabusé*» bi hitzetan behar zela idatzi, bukaeran s bat jarritz:

«*Je vois, je sens, je crois, je suis des abusés*».

VIII

**Erregea bera baino erregezaleago
edota aita santua baino elizazaleago
izan daitekeen bezalaxe,
nola bihur daitekeen bat
metenpsikosistago Pitagoras bera baino**

Zein ere den itsasoan galdu eta itsaso zabalean, baltsa hauskor baten gainean galdurik, ez mastarik, ez oihalik, ez iparrorratzik ez itxaropenik, dena galduta, gau eta egun luzez ibili eta bat-batean horrenbeste desiratzen zuen itsasertza ikusten duenaren poza, poz hori ez zen ezer Héraclius Gloss doktorea filosofien itsaskiak hain luzaro ziurgabetasunen baltsan hara-hona erabi-

li eta azkenik metenpsikosiaren portuan garaile eta argiturik sartu zenean zuen pozaren aldean.

Dotrina haren egiak hain gogor jo zuen non oso-osorik beretu baitzuten azken-azkeneko ondorioetaraino. Ez zuen ezer ilun gertatzen zitzaionik, eta egun gutxiren buruan, gogoetaren gogoetaz eta kalkuluaren kalkuluz, kalkulatu zuen halako urtetan hildako gizona zein datatan azalduko zen berriro lurrian. Bazekien, hutsaren hurrengo gorabeheratxoren batekin, zein datatan transmigratzen zuen arima batek maila apalagoko izakietara, eta azkeneko giza bizialdian egindako ongiaren eta gaizkiaren halako batuketa moduko bat eginez, gai zen arima hori suge baten, zerri baten, zamari baten, idi baten, zakur baten, elefante baten edo tximino baten gorputzean noiz sartuko zen zehatz esateko. Arima bera bere goren mailako bizialdira itzultzea aldi jakin beti berdinetan gertatzen zen, lehenago zein hoben egin zuen axola ez ziola.

Zigorraren maila, erruaren araberakoa betiere, ez zetzan animalia gisa egin beharreko erbestealdiaren luze-laburrean, arima horrek piztia nazkagarriren baten gorputzean egin

behar zuen egonaldi luze edo labur berean baik. Piztien mailaketa sugearengandik eta zerriarengandik hasten zen behetik eta tximinoa zuren gorenean, «hitzik ez duen gizona baita», esaten zuen doktoreak; — horri bere betiko umore onaz erantzuten zion errektoreak esanez ezen, arrazoi modu berari jarraituz, hitz egiteko gauza zen tximino bat zela Héraclius Gloss.

IX

Aurkia eta ifrentzua

Héraclius doktoreak pozetan eman zituen aurkikuntza harrigarri hura egin zuen ondoko egunak. Pozkariotan bizi zen — zoramendetan zegoen gainditutako oztopoengatik, argitutako misterioengatik, bete zitzaizkion itxaropen handiengatik.

Metenpsikosiak zeru bat bailitzan inguratzen zuen. Errezel oihal bat bat-batean erdi-erditik urratu eta bere begiak gauza ezezagunetarako zabaldu zitzaizkiola iruditzen zitzaion.

Bere zakurra bere ondoan eserarazten zuen mahaian, buruz buruko solas luzeak izaten zituen harekin tximinia ondoan, animalia errugabearen begian lehenago izandako bizialdien misterioa atzeman nahiz.

Hala eta guztiz ere, bi puntu beltz ikusten zituen bere zorientasunean: Dekano jauna eta Errektore jauna, hain zuzen.

Dekano jaunak haserre bizian jasotzen zituen bizkarrak Héracliusek dotrina metenpsikosistara bihurtu nahi zuen bakoitzean, eta errektoreak zertan esanik ez zituen txantxarik bihurrienez zirikatzen zuen. Hori batez ere, ez zen onez eramatekoa. Doktoreak bere sinestea azaltzen zuen orduko, zentzu beretik ekiten zion errektore deabruzko hark; apostolu handi baten hitza entzuten ari den jarraitzailearena egiten zuen, eta izan zitezkeen eta animalia genealogiarik sinestezinezkoenak asmatzen zituen inguruko pertsona guztientzat: «Horrela —esaten zuen—, Labonde apaizak, katedraleko kanpai joleak, meloia baizik ezin zuen izan bere lehenengo transmigratioaz gero», eta geroztik oso gutxi aldatu bide da, goizean eta gauean kanpai hori jo baizik ez

baitu egin, jaio ere haren azpian baita jaioa. Rosencroix, Santa Eulaliako lehenengo bikarioa, intxaurrak botatzen dituen belea izana zen inondik ere, haren iritzian, halakoxearen jantziak eta izaera gorde baitzituen gorde ere. Gero, bat-batean modurik makurrenean paperak trukaturik, Bocaille jauna, farmazialaria, ibis endekatu bat baizik ez zela esaten zuen, zeren tresneria berezia behar izaten baitzuen, Herodotok zioenez behintzat, hegazti sakratu horrek, behar izanez gero, bere moko luzeaz bere kabuz eta erraz sartzen zuen erremedio berbera sartzeko.

X

Nola izan daitekeen zuhurrago saltinbanki bat doktore jakintsu bat baino

Héraclius doktoreak animurik galdu gabe jarraitu zuen, hala ere, bere aurkikuntzetan. Handik aurrera halako esanahi misteriozko bat zuten harentzat animalia guztiek: ez zuen gehiago piztia ikusten, azal haren azpian garbitzen ari

zen gizona baizik, eta erruen ordainkizuneko azalaren azpian lehengo bizitzaldian egindako hobenak sumatzen zituen.

Balançoneko enparantzan paseatzen ari zen egun batean zurezko txosna handi bat ikusi zuen; sekulako zaratak ateratzen ziren handik, eta pailazo lokatu bat Tomahawk edo Trumoi Burrumba izeneko piztia-bezatzaile apatxe bel-durgarria lanean ikustera sartzeko deika ari zen oholtza gainetik. Héraclius asaldatu egin zen, ordaindu zituen eskatzen zituzten hamar zentimoak eta sartu egin zen. Oi arima handiak babesten dituen Fortuna! Txosna hartan sartu baizik ez zen egin, eta non ikusten duen kaiola handi bat, eta haren gainean bere begi liluratuen aurrean distiraz azaldu zitzaizkion bi hitz hauek idatzirik: «Oihaneko gizona». Zirrara moral handietako dardara urduria sentitu zuen kolpetik doktoreak, eta emozioz ikara batean hartara hurbildu zen. Tximino erraldoi bat ikusi zuen, bere ipurdi gainean eserita, jostunen edo turkiarren gisara hankak gurutzatuta, eta bere azkeneko transmigraldian zegoen giza erakusgarri bikain haren aurrean, gogoeta sakon batean

murgildu zen Héraclius Gloss, pozaren pozez zurbildurik. Minutu batzuen buruan, oihanetako gizonak, temaren temaz begira zegokion hiriko gizonaren baitan lehertu zen sinpatia eutsiezina sumaturik, nonbait, halako imintzio ikaragarriak hasi zitzaion egiten bere anaia biziberrituari, non buruko ileak erabat lazten zitzaizkiola sentitu baitzuen doktoreak. Gero, gizonik erorienaren ohorearekin ere inola ere adostu ezin zitekeen itzulipurdi bat eginik, guztien barregarri jarri zen lau eskuko herritar hura doktorearen bizar-bizarretan. Hari, ordea, ez zitzaion batere harrigarria iruditu bere antzinako hutsegiteen biktima haren alaitasuna; bestela baizik, gizonarekin berdintzen zuen beste antzekotasun bat zela iruditu zitzaion, ahaide izateko probabilitate handiagoa, eta bere jakin-min zientifikoa hainbesteraio bortiztu zitzaion non imintzioen maisu hura kosta ahala kosta erostea erabaki baitzuen, soseguz eta patxadaz ikertu ahal izateko.

Zer ohorea beretzat, zer garaipena dotrina handiarentzat, azkenean gizakiaren animalia alderdiarekin harremanetan sartzea lortzen

bazuen, tximino gaixo hari ulertu eta hark bera-
ri ulertzea lortzen bazuen!

Piztia erakusketaren jabeak bere morroiaren
goraipamen sutsuena egin zion, jakina; basa piz-
tien erakusle gisa egindako karrera luze guztian
ezagututako animaliarik bizkorren, atseginen,
apalen, gozoena huraxe; eta esaten zituenak
egia egiteko, kaiolako barroteetara hurbildu eta
eskua sarturik, tximinoak hozka egin zion segi-
tuan, txantxa eta jolas gisa. Salneurria ere izu-
tzekoa eskatu zuen, jakina, eta Héracliusek erre-
kardaritzatan ibili gabe ordaindu zuen. Gero, bi
kargalari, kaiola ikaragarri haren azpian makur-
makur eginda, aurretik zituela, bere etxerantz
abiatu zen doktorea, garaile.

XI

Non frogatzen baita Héraclius Gloss ez zela sexu indartsuaren ahuleziarik gabe-gabea

Baina etxera hurbiltzenago eta geldiago abia-
da, zeren egia filosofikoak baino askotxo ere

zailagoa zen arazo bat baitzerabilen gogoan; eta arazo hori era honetara formulatzen zen doktore gajoarentzat: «Zer trikimailu erabil nezake giza zirriborro hau etxera nire neskame Honorinaren ezkutuan sartu ahal izateko?» Hain zuzen ere, Dekano jaunaren bizkar jasoaldi beldurgarriei eta Errektore jaunaren txantxa ikaragarriei aurre egiteko ausardia eta gehiago bazuen Héraclius gaixoa ez zen horren ausart, ez eta gutxiagorik ere, Honorine neskamearen leherraldien aurrean. Zergatik zion, bada, horrenbesteko beldurra doktoreak hain bizia eta hain bere nagusiaren interesetara emana zirudien emakumetxo oraindik gazte eta jator hari? Zergatik? Galdetu zergatik makurtzen zen Herkules Onfaloren oinetara, zergatik utzi zion Sansonek Dalilari indarra eta ausardia, Bibliak dioenez ileetan zituenak, ebasten.

Damurik, egun batez doktorea hutsean geratutako maitasunugar baten etsimena landatan zehar apaltzen ari zela (zerbaitengatik egin baitzuten egin ere, Dekano jaunak eta Errektore jaunak Héracliusen bizkarretik nahikoa barre ilunabar batez etxera zihoazela), ardiak zaintzen

ari zen neskato bat topatu zuen hesi bazter batean. Beti-beti egia filosofiko soilaren bila ibilia ez zen jakintsu hark, bada, oraindik ere metenpsikosiaren misterio handia sumatzen ez-eta, oraindik ez zekiena jakin izan balu egingo zukeen bezala, ardiez arduratu eta gainerakoak utzi ordez, horra! ardiak zaintzen ari zenarekin hasi zen solasean. Berehalaxe neskame hartu zuen, eta ahulezia batek hurrengoak ekarri. Bera bilakatu zen berehala artzaintxo haren ardi, eta ahopeka zabaldua zen, landatar Dalila berri hark, Bibliakoak bezala, gizagajo fidakorregi haren ilea moztu bazuen ere, ez zuela beste horrenbestez bestelako apaindurarik gabe-gabe utzi haren kopeta.

Damurik, iragarria zuena, uste baino ere areago gertatu zen; ez al zuen ikusi oihanetako gizona bere alanbrezko etxean katigu, haserri-rik desegokienezko eztanda lehertu zen Honorine, eta bere ugazaba beldurtua guztiz epiteto itsusizko olde batean ito ondoren, ustekabean zetorkion etorkinaren kontra isuri zuen bere haserrea. Hark, ordea, horren neskame gaizki ikasiari dena barkatzeko doktoreak zituen

arrazoiak, antza, ez zituenez, oihuka, garrasika, ostikoka eta hortz karraska ekin zion; barroteei heldu eta halako imintzio desegokiak egiten zituen lehenengo aldiz ikusten zuen pertsona batentzat, non atzera egin behar izan baitzuen hark, eta, gudari bentzutua nola, halaxe joan behar izan zuen bere sukaldean babestera.

Horrela, bada, gudu zelaiaren jabe eginik, eta bere lagun adimentsuak emandako laguntzak pozturik, bere langelara eramana, eta hantxe kokarazi zituen, kaiola eta kaiolako biztanlea, mahaiaren aurrean, sutondoan.

XII

Nola bezatzaile eta doktore ez diren batere sinonimo

Begirada trukerik esanguratsuenetako bat hasi zen orduan aurrez aurre zeuden norbanako haien artean; eta astebete osoan orduak eta orduak eman zituen doktoreak egunero begien bidez (hala uste zuen berak behintzat) ekarri zuen morroi interesgarri harekin solasean. Ez

zen aski, ordea; animalia hura aske aztertu nahi baitzuen Héracliusek, haren ezkutuko sekretuak, haren gurariak, haren pentsamenduak atzeman, bere gisa ibiltzen utzi, eta haren eguneroko bizitzan parte hartuz, ahazturik zituen ohiturak berreskuratzen ikusi, eta aztarren seguruetan oinarrituz haren behinolako bizialdietako oroitzapenak ezagutu. Horretarako, ordea, zabalik behar zuen kaiolak. Eginkizun hori ez zen batere segurua, ordea. Alferrik ahalegintzen zen doktorea magnetismoaren eragina, edota gozokiena eta intxaurrena, saiatzen, Héracliusentzat kezkarriak ziren maniobratu hasten zen beti doktorea barroteetara gehiegitxo hurbiltzen zen bakoitzeko. Hala bada, egun batean, aspalditik torturatzen zuen desirari gehiago eutsi ezinik, tupustean aurreratu zen, giltzarrapoaren giltza biratu, eta zabal-zabal egin zuen atea, eta emozioaren emozioz taupadaka, pauso batzuk egin zituen atzera, zer gertatuko zain, eta ez zen luze joan, noski, gertatzeko ere.

Tximinoak, harriturik, zalantza egin zuen hasieran, gero, kanpoan zen jauzi batez, eta beste batez mahai gainean, eta segundo bat ez

zuen behar izan hango liburuak eta paperak hankaz gora botatzeko, eta gero beste jauzi batez doktoarearen besoetan zen, eta haren maitasun adierazpenak hain izan ziren bortitzak non, Héracliusek ile ordea izan ez balu anaia beldurgarri haren hatzetan geratuak izango baitzatezkeen haren azkeneko ileak. Tximinoa zauli bazen, ordea, doktoarea ez zen gutxiago: jo eskuin, jo ezker, aingira baten gisa irristatu zen mahaipera, erbi txakurraren gisa igaro zituen besaulkiak, eta betiere tximinoa atzean zuela, atera iritsi eta danbateko batez itxi zuen bere ostean; arnasestuka, helmugara iritsi zen lasterketa zaldiaren gisan, horma kontra hartu zuen bermea, ez erortzeko.

Eguna bukatu arte lur jota ibili zen Héraclius Gloss; hondorainoko eroraldi bat bezala sentitzen zuen bere baitan; bere maizter arduragabea eta bera egoera hartatik nola aterako ziren ideiarik ere ez zuela, horrek kezkatzen zuen gehiena. Aulki bat eraman zuen igaro ezineko ate ondora, eta behategi bihurtu zuen sarraila zuloa. Zer ikusiko eta, ai miraria, ai ustekabeko poza! Garaile zoriontsua besaulki batean etzanik

hankak sutondoan berotzen. Lehenengo poz bulkadarekin, ez zuen askorik behar doktoreak gelan sartzeko, baina gogoetak geldiarazi zuen, eta bat-bateko argi batek argitu izan balu bezala, gozotasunak ezina goseak ahal izango zuela agian, pentsatu zuen. Oraingo honetan arrazoi eman zioten gertaerek, tximino gosetuak amore eman zuen; bestela aski tximino jatorra zenez, onezkoak egin zituzten, eta egun hartatik aurrera, aspaldiko adiskide zaharrak bailiran bizi izan ziren doktorea eta tximinoa.

XIII

**Nola Héraclius Gloss doktorea
Henri IV.a Errege zintzoaren
abagune berean aurkitu zen,
bi ministro abokaturi entzunda
bi-biek arrazoi zutela iritzirik**

Egun gogoangarri hura igarota puska batera, euri jasa bortitz batek eragotzita, Héraclius doktorea ezin izan zen lorategira jaitsi, ohi zuen bezala. Goizean goizetik bere langelan eseri eta

bere tximinoa filosofiaren ikuspegitik aztertzen hasi zen; hura, aldiz, arasa baten gorenera igorik sutaurrean etzanda zegoen Pitagoras zakurrari paper pilotak bota eta bota ari zen jostaketan. Doktorea gizaki mailaz beheratuen arteko adimen mailak eta aurreramenduak aztertzen ari zen, bere aurrean zituen bi animalia haien soutil-tasun mailak konparatzen. «Zakurrarengan —ari zen esaten bere baitarako—, instintua da oraindik nagusi; tximinoarengan, berriz, arrazoibideak hartzen du gaina. Hark usaina hartzen du, entzun egiten du, bere adimenaren erdia diren organo zoragarri horiez sumatzen ditu gauzak; honek, berriz, gertaerak elkarrekin lotzen ditu, eta gogoeta egiten du». Une horretan, tximinoak, bere etsaiaren axolarik ezak eta gelditasunak urduriturik, burua hanka artean zuela lasai-lasai etzanda aldian behin begiak han goian babestuta zegoen erasotzaile urrunarenganantz jaso baizik ez baitzuen egiten, gertuagotik aztertzera joatea erabaki zuen. Bere altzari gorenetik arin-arin jauzi egin, eta hain emaro, hain emaro hasi zen hurbiltzen, non ez baitzen ezer entzuten, suaren zirtadak eta penduluaren tik-tak

hotsa baino, sekulako zarata ateratzen zuela baitzirudien langelako isiltasun handi hartan. Gero, mugimendu azkar ustekabeko batez, Pitagoras gaixoaren isats motosdunari heldu zion bi eskuez. Hark, ordea, zirkinik ere egin gabe, kua-drumanoaren mugimendu guztiak segituak zituen: Haren baretasuna amarrua baizik ez zen ordu arte harrapa ezina zuen etsai urruna ondora ekartzeko, eta tximino jaunak, sartu behar zion ziriaren pozez, haren isatsari heltzen zion une-unean, jauzi batez jaiki, eta besteak ihes egiteko astirik gabe, harrapatua zuen arerioa, ehiza zakurrari dagokion mutur sendoaz, ardie-tan begirunez izter deitzen den lekutik. Ezin da jakin borroka hura nola bukatu izango zen Héraclius bitartean sartu izan ez balitz; baina berriro bakeak egin zituenean, bere buruari galdezka ari zen, arnasestuturik esertzen zen bitartean, gauzak diren bezala harturik, bere zakurrak ez ote zuen erakutsi gertaera hartan maltzur-tasun gehiago «piztietan maltzurren» deitu ohi den hark baino, eta harri eta zur eginda geratu zen.

XIV

Nola Héracliusek ia-ia jan zituen antzinako dama galai batzuk txitxiburduntzian sartuta

Bazkaltzeko ordua zenez, doktorea bere jangelan sartu zen, eseri zen mahai aurrean, sartu zuen bere zapia xenilan, zabaldu bere ondoan eskuizkribu preziatua, eta ahora eramatear zen galeper hego ondo koipetsu eta ondo usaintsu bat, noiz eta, begiak liburu santura itzulirik, begirada pausatu zitzaion lerro apurrek distira bel-durgarriagoa egin baitzioten esku ezezagun batek Baltasar izeneko errege ospetsu baten oturuntzako gelaren horman idatzitako hiru hitz famatu haiek baino.

Hona zer ikustatu zuen doktoreak:

«... Zerk ere bizia izan duen, bazter ezak hire jakietatik, zeren abere jatea heure berdina jatea den, eta berdin erruduntzat dauzkat metenpsiosiaren egia barneratua izanik animaliak hiltzen eta jaten dituen, beren forma apalagoetan dauden gizakiak baizik ez baitira abereok, nola garaitu duen etsaia jaten duen antropofago

ankerra». Eta mahai gainean, elkarren ondoz ondo, zilarrezko orratz batek loturik, dozena erdi galeper, beren usain gozagarria airean zabaltzen ari.

Gudu bortitza izan zen izpirituaren eta sabe-laren artean, baina, esan dezagun Héracliusen aintzarako, laburra izan zela. Gizon gajoak, ezdeusturik, tentazio ikaragarri hari ezin luzaro eutsiko ziola etsirik, neskameari txilina jo, eta ahots urratu batez agindu zion kentzeko bertatik jaki nardagarri hura mahai gainetik eta ez ateratzeko handik aurrera arrautzak, esnea eta barazkiak baizik. Honorine ia erori zen hankaz gora hitz harrigarritzko haiek entzunda, protesta egin nahi izan zuen, baina ugazabaren ahots irmoa entzunik, alde egin zuen hegazti kondenatuak hartuta, kontsolagarri harturik, hala ere, baten-tzat galduan dena beste batentzat irabazian izaten dela gehienetan.

«Galeperrak! Galeperrak! Zer ote zitezkeen galeper haiek beste bizialdi batean?» galdetzen zion bere buruari Héraclius gajoak egun hartan bereziki txarra iruditu zitzaion azalorre gurinetan egin bat tristura handiz irensten zuen bitartean:

—nor izan ote zitekeen dotore, samur eta sotil aski, piztitxo pinpirin eta polit horien gorputzera igarotzeko? — ai, zein besterik, joandako mendeetako dama galaiak ezpada... eta doktorea arras zurbildu zen azkeneko hogeita hamar urteetan egunero-egunero antzinako garaietako dozena erditxo bat dama gazte ziplo bazkaldu zituela gogoratuz.

XV

Nola interpretatzen dituen Errektore jaunak Jainkoaren manamenduak

Zoritxarreko egun hartako arratsean Dekano jauna eta Errektore jauna ordu batez edo biz Héracliusen langelan solas egitera etorriak ziren. Doktoreak segituan kontatu zien zer estuasune-tan zegoen, eta segituan agertu zien orobat nola galeperrak eta jan daitezkeen gainerako animalia guztiak guztiz debekatuta zeuden beretzat, judu batentzat urdaiazpikoa egon daitekeen bezalaxe.

Dekano jaunak, egun hartan gaizki bazkaldua baitzen nonbait, neurri guztiak galdu eta halako biraoak bota zituen non doktore gaixoak, Dekanoari begirune handia bazion ere, haren itsumena deitoraturik, ez baitzekien non ezkutatu. Errektore jaunari dagokionez, berriz, bertatik onetsi zituen Héracliusen eskrupuloak, esanez alegia Pitagorasen jarraitzaile bat animalien haragiaz elikatuko balitz gerta zitekeela bere aitaren saihetsak txanpinoiekin edo aitonaren hankak trufaz lagundurik jateko arriskutan, eta erlijio ororen izpirituaren kontrako dela hori, eta kristauen Jainkoaren laugarren manamendua aipatu zion esaten ari zenaren frogagarri:

*Aita eta ama ohoratuko dituk
luzaro bizitzeko.*

— Egia esateko, ni sinestuna ez naizenez, goseak hil baino nahiago nuke Jainkoaren agindua zertxobait aldatu, edo haren lekuan beste hau jarri:

*Aita eta ama jango dituk
luzaro bizitzeko.*

XVI

Nola eskuizkribuaren 42. irakurraldiak bestelako argia ekarri zion doktoreari

Aberats batek bere ondasunetatik egunero plazer berriak eta atsegin berriak atera ditzakeen bezala, hala Héraclius doktoreak ere, eskuizkribu guztiz preziatu haren jabe zenez, uste ez zituen aurkikuntzak egiten zituen hartan irakurtzen zuen bakoitzeko.

Gau batean, dokumentu hura 42. aldiz irakurri berria zuela, bat-bateko argialdi bat jausi zitzaion, tximista bezain bizkorra.

Lehenago ikusi dugun bezala, doktorea gai zen joandako gizon bat, bere transmigraldi guztiak bukatu eta berriro lehengo itxura berean noiz agertuko zen, hutsaren hurrengo gorabehera batekin kalkulatzeko; halaxe tximistak jota bezala geratu zen eskuizkribu haren idazleak agian berriro gizonen artean bere lekua hartua zukeela gogoratu hutsarekin.

Horrela bada, filosofiaren harria topatzear dagoela uste duen alkimista bezalaxe sukarrak harturik, inon diren kalkulurik xeheenak hasi zen

egiten hipotesi haren probabilitatea aztertzeko, eta orduak eta orduak konbinaketa metenpsikostia jakintza handikoak egiten lehiatu ondoren, gizon hark bere garaikidea izan behar zuela konbentzitu zen, eta, bestela, arrazoizko biziadira berriro jaiotzeko une-unean behar zuela egon gutxienez. Héracliusek, izan ere, metenpsikostia handi haren heriotza data zehatza ezagutzeko dokumentu ziurrik ezean, ezin baitzuen ziur-ziur finkatu haren itzulerako data ere.

Beretzat gizakia baino gehiago, filosofoa ere baino gehiago, ia-ia Jainkoa ere baino gehiago zen izaki hura kausitzeko aukera izan zitekeela igarri zuen unetik beretik, aspaldi hila zela uste den aita bizirik eta zuregandik hurbil dela jakitean sentitzen den zirrara sakon horietako bat sentitu zuen doktoreak. Bere bizitza guztia Kristoren maitasunaz eta haren oroitzapenaz elikatzen igaro eta bat-batean bere Jainkoa agertu behar zaiola jakiten duen anakoreta santuak ez luke zirrara biziagorik izango Héraclius Gloss doktoreak egunen batean agian bere eskuizkribuaren egilea topatu ahal izango zuela ziur jakin zuenean izandakoa baino.

XVII

Nola moldatu zen Héraclius Gloss doktorea eskuizkribuaren egilea aurkitzeko

Handik egun batzuetara *Etoile de Balançon*-en irakurleek harriturik irakurri ahal izan zuten egunkari haren laugarren orrialdean honako iragarki hau: «Pitagoras — Erroma 184. urtea — Jupiterren irudi baten oinarrian aurkitutako oroitzapena — Filosofo — Arkitekto — Soldadu — Nekazari — Fraide — Geometra — Sendagile — Olerkari — Marinel — Etab. Egizu gogoeta eta oroi zaitez. Zure bizitzaren kondaira nire eskue-tan dago.

»Idatzi Balançoneko H.G. posta kutxara».

Doktoreak ez zuen zalantzarik berak hain suharki aurkitu nahi zuen gizonak ohar hura, beste guztientzat ulertu ezinezkoa, irakurtzen bazuen, segituan hartuko ziola ezkutuko zentzua, eta bere aurrera etorriko zitzaiola. Horrela bada, egunero-egunero, mahairatu aurretik,

posta bulegora jotzen zen H.G.-ren izenean gutunen bat hartu zuten galdezka; eta «Posta, azalpenak, zigilu ordainketak» hitzak idatzita zituen ateari bultza egiten zion unean, zirrara biziagoa izaten zuen, zalantzarik gabe, maite duen emakumearen lehenengo gutuna zabaltzera doan maiteminduak berak baino.

Tamalez, ordea, egunak aurrera zihoazen eta antz etsigarria zuten batak besteara; bulegariak erantzun bera ematen zion goizero dokto-reari, eta goizetik goizera tristeago eta adoregabeago itzultzen zen hura etxera. Balançoneko jendea, munduko herri guztiak bezala, sotila, maiseatzailea, mihi gaiztokoa, eta non-zer-berri amorratua izanik, berehala lotu zituen *Etoile* egunkarian azaldutako ohar harrigarria eta dokto-reak Posta etxera egunero egiten zituen sartu-irtenak. Horrela, hain zuzen, hartan zer misterio ezkutatuko ote zen galdezka hasi zen, eta esamesak zabaldu ziren.

XVIII

Héraclius doktoreak harridura handiz ezagutzen du eskuizkribuaren egilea

Gau batean, lokartu ezinik, goizeko ordubata-ordubiak aldera ohetik jaiki zen doktorea, eta oraindik oso ongi ulertu ez zuela iruditzen zitzaion pasarte bat irakurtzera joan zen. Etxeko oinetakoak jantzi, eta ahalik eta emekien zabaldu zuen bere gelako atea, teilatupe hartan beren erruak ordaintzen ari ziren giza-animalia kategoria guztien loa ahalik eta gutxien eragozteko. Hain zuzen, zeinahi izanik ere piztia zoriontsu haiek lehenago izandako bizi egoera, zinez esan daiteke inoiz ez zutela orain zuten sosegu eta zorion beterik izan, zeren bazka ona, ostatu ona, eta baita gainerakoa ere, aurkitzen baitzuten etxe hartan, horretarainoxe baitzen errukiorra gizon bikain haren bihotza. Zaratarik batere egin gabe iritsi zen, bada, bere langelako ateraino, eta sartu egin zen. Héraclius gizon bihoztuna zen, egiaz, ez zuen mamuen edo agerpenen beldurrik, baina gizonaren ausardia handia izanda ere, badira izualdi batzuk ausardiarik bulartsue-

nak ere balaz bezala zulatzen dituztenak, eta doktorea zutik geratu zen, zurbil, izumenak harturik, begiak sarrakioak nahasturik, ilea burugainean zut, hortzak karraska, eta burutik orporaino dardara ikaragarri batek astintzen zuela aurrean zuen ikuskari ulertezinak hartaraturik.

Laneko argia piztuta zegoen mahai gainean, eta sutaurrean, bizkarra doktorea sartzen ari zen aterantz itzulirik, nor ikusiko... Héraclius Gloss doktorea bere eskuizkribua arreta handiz irakurtzen. Ez zen zalantzarik... Bera zen, irakurtzen... Lore handiz apaindutako seda zaharrezko gelako jantzi luzea zuen bizkarrean, eta buruan, bere greziar txano belus beltzezkoa, urrez brodatua. Doktorea berehalaxe ohartu zen beste bera hura itzultzen bazen, bi Héracliusak elkarren aurrez aurre topatzen baziren, une horretan bere baitan dardaratan zegoena tximistak jota bezala eroriko zela zerraldo bere kopiaren aurrean. Une horretan, ordea, ikara urduri batek eraginik eskuak zabaldu zituen, eta zeraman esku-argia lurrera erori zen zarata batean. Iskanbila hark berebiziko jauzia eragin zion. Bestea bat-batean itzuli, eta nor ezagutuko, asaldaturik, dokto-

reak... bere tximinoa. Segundo batzuen bitartean haize erauntsiak daraman orbela bezala nahastu zitzaizkion zurrunbilotan ideiak. Gero inoiz izandako pozik biziena nagusitu zitzaion bat-batean, bertatik ohartu baitzen, hain zuzen, hantxe zuela aurrean juduek beren Mesias bezalaxe itxaron eta desiratu izandako eskuizkribuaren egilea: bere tximinoa. Pozez ia eroturik egin zuen jauzi, hartu zuen besoetan izaki gurgarri hura, eta halako oldarrez besarkatu zuen, non zinez esan baitaiteke inoiz ez duela maitale batek halako besarkada suharrik hartu bere gizonaren aldetik. Gero haren aurrez aurre eseri zen tximiniaren beste aldean, eta hari begira geratu zen eraspenez beterik goiza arte.

XIX

Nola aurkitu zen doktorea aukerarik ikaragarriena egin beharrean

Baina udako egunik ederrenak ere inoiz trumoi beldurgarriak hondatzen dituen bezalaxe, doktorearen zoriona ere bat-batean arrakalatu

zuen inon izan daitekeen burutapenik itsusienak. Aurkitua zuen bila ari zena, baina tximino bat besterik ez zen, tamalez. Elkar ulertzen zuten, zalantzarik ez, baina ezin ziren elkarrekin mintzatu: zerutik lurrera erori zen doktorea. Akabo berak hainbeste probetxu atera uste zuen elkarriketa luze haiek, akabo bien artean superstitzioaren kontra abiarazi behar zuten gurutzada eder hura. Zeren doktoreak, berak bakarrik, ez baitzuen ezjakintasunaren hidra azpiratzeko behar zen armarik. Gizon bat, apostolu bat, aitorle bat, martiri bat behar zuen —tximino batek ezin bete dituen eginkizunak, tamalez. — Zer egin?

Ahots ikaragarri batek egin zion oihu belarri ondotik: «Hil ezak».

Héracliusek dardara egin zuen. Segundo batean kalkulatu zuen ezen tximinoa hiltzen bazuen berehalaxe sartuko zela berriro jaiotzearen haur baten gorputzean. Hogeiren bat urte utzi beharko zizkion adinera iritsi arte. Hirurogeita hamar urte izango zituen orduan doktoreak. Egingarri zen hala ere. Topatuko ote zuen, ordea, gizon hura? Eta gainera bere erlijioak

debekatu egiten zion izaki bizirik hiltzea, giza hiltza bat egiteko zigorpean: eta bere arima, Héracliusena, alegia, piztia gaizto baten gorputzera joango zen, hiltzaileei gertatzen zitzaizen bezala. — Zer axola, baina? Zientziaren biktima izango zen — eta fedearen biktima! Arma erakustegi batean eskegita zeukan turkiar zimitarra handi bat hartu, eta jotzera zihoan, nola Abraham batek mendian, noiz eta gogoeta batek eskua gelditu baitzion... gizon hark bete beharreko erruen ordain aldia bukatua ez bazen, eta haur baten gorputzera ordeztu berriro ere tximino batenera itzultzen bazen, zer? Zitekeena zen, ondo zitekeena halere — ia gauza segurua. Era horretan ezertarako ez zen krimen bat eginez, ikaragarritzko zigorra irabaziko zuen doktoreak, bere kideentzat inolako probetxurik irabaziz gabe. Indarrik gabe erori zen besaulki gainean. Ondoz ondoko emozio haiek guztiek ahiturik zeukaten, eta konortea galdu zuen.

XX

Nola izan zuen doktoreak solastxo labur bat bere neskamearekin

Berriro begiak zabaldu zituenean lokiak ozpinez igurzten ari zitzaion Honorine. Goizeko zazpiak ziren. Doktorearen lehenengo pentsamendua tximinoarengana joan zen. Desagertua zen piztia hura.

— Nire tximinoa, non da nire tximinoa? —hasi zen.

— Horixe, noski, hitz egin dezagun tximino horretaz —erantzun zion neskame-etxekoandreak, haserretzeko beti prest—, a zer galera betiko galduko balitz. Bikaina piztia, alafede! Egiten ikusten dizun guztia antzeratzen du; ez nuen, bada, aurkitu lehengo egunean zure botinak janzten, eta gero gaur goizean, hortik jaso zaitudanean, eta nik al dakit zer ideia madarikatu dabilzkizun buruan azkenaldi honetan, ohean egoten uzten ez dizutenak, piztia gaizto horrek, deabrua gehiago da hori tximino baten azalpean, ez du bada jantzi zure txanoa eta gelako

jantzia, eta barrez zirudien, gainera, zuri begira, gizon bat konortea galduta ikustea barre egiteko gauza balitz bezala. Gero, ondoratu nahi izan dudanean, ez dit bada gainera jauzi egin, zital horrek, jan nahi banindu bezala. Eskerrak Jainkoari ez garen beldurtiak eta eskua oraindik azkarra daukagun; palari heldu eta bizkarreko galanta eman diot; zure gelara ihes egin du, eta han egon behar du oraindik ere bere modukoren bat asmatzen.

— Nire tximinoa jo duzu! —egin zuen garrasi doktoreak sutan—, jakin ezazu, andereñoa, etxe honetako nagusia balitz bezalaxe behar zaiola begirunea izan eta zerbitzatu hemendik aurrera.

— Horixe, etxeko nagusi izatea gutxi balitz, etxeko nagusiaren nagusi dugu hemendik aurrera —jaulki zuen marmarka Honorinek, eta sukaldera erretiratu zen, Héraclius Gloss doktorea burutik erabat eginda zegoelako uste osoan.

XXI

Nola frogatu zen aski dela samurtasunez maite den lagun bat atsekaberik handienen pisua arintzeko

Doktoreak esana zuen bezala, egun hartatik aurrera tximinoa bihurtu zen etxe hartako egiazko nagusi, eta Héraclius animalia prestu haren morroi apala bilakatu zen egiaz. Orduan eta orduan egoten zitzaion begira mugagabeko samurtasun batez; maitale baten begirune guztia zuen harekin; samurtasunaren hiztegiko adierazpen guztiak ematen zizkion edozerengatik; lagun bati heltzen zaion bezala eskutik helduz; hitz egiterakoan finko begiraturaz; bere mintzaldietan ilun samar iruditzen zitzaizkion pasarteak azalduz; piztia haren bizitza guztia konturik handienaz eta arretarik finenaz inguraturaz.

Nahi zuena egiten uzten zion tximinoari, lasai eta bare, bere adoratzaileen omena jasotzen duen jainko baten pare.

Beren goitasunak berak herriaren ergelkeria arruntaren maila baino goragoko bakartasunean bakantzen dituen buru argi guztiak bezala, Héra-

clius ere bakarrik sentitua zen ordu arte, bakar-bakarrik bere lanean, bakar-bakarrik bere itxaropenetan, bakar-bakarrik bere borroketan eta ahulaldietan, bakar-bakarrik orobat bere aurkikuntzan eta garaipenean. Oraindik ez zuen zabaldu bere dotrina herri zabalean, ezin izan zituen bere ustera ekarri bere bi lagunik mine-nak ere: Errektore jauna eta Dekano jauna. Baina horrenbestetan amets egindako filosofoa tximino haren baitan aurkitu zuen egun hartatik aurrera ez zen horren bakarrik sentitu doktorea.

Piztiak hitz egiteko gaitasunik ez izatea lehenago egindako hobenengatik baizik ez dela, eta zigor horrexengatik piztia hori iragandako bizialdietako oroitzapenez beterik dagoela sinetsirik baitzegoen guztiz, berebiziko maitasun suharra hartu zion bere lagunari, eta samurtasun horren bidez kontsolatzen zen gertatzen ari zitzaizkion zoritxar guztiez.

Hain zuzen ere azkenaldi hartan geroz eta tristeago ari zitzaion bihurtzen bizimodua dokto-reari. Dekano jauna eta Errektore jauna bakana-go etortzen zitzaizkion ikustera, eta sekulako hutsunea sortzen zuen horrek doktoarearen ingu-

ruan. Igandero afaltzera etortzeari ere utzi egin zioten, doktoreak bere mahaira bizirik izandako janaririk ateratzea debekatu zuenez gero. Bere errejimen aldaketa ere murriztasun handia ari zitzaion bilakatzen, egiaz samintzeraino inoiz. Behinola bazkaltzeko orduaren zain hain urduri jartzen zena haren beldur zen orain, ia-ia. Triste sartzen zen jangelan, ezer gozagarriren esperantzarik ez zela jakinik, eta galeper txitxiburduntzien oroitzapenak ez zuen bakean uzten gainerra han, ez zuen ordea samintzen hainbeste jan izanaren damuak, betiko uko egin izanak baizik.

XXII

Nola ohartu zen doktorea uste baino bere antz handiagoa zuela tximinoak

Goiz batean ohi ez bezalako hots batek esnatu zuen Héraclius doktorea; ohetik jauzi batez jaiki, laster bai laster jantzi eta sukaldera joan zen, sekulako garrasiak eta ostikaldiak entzuten baitziren handik.

Honorine gaiztoak, aspalditik baitzerabiltzan gogoan bere nagusiaren samurtasuna lapurtzen zion arrotzaren kontrako mendeku asmorik beltzenak eta ongi bai ongi ezagutzen baitzuen zein ziren animalia horien zaletasunak eta grinak, egun hartan trikimailuren baten bidez tximino gaixoa sukaldeko mahaiaren hankari sendo eta finko lotzea lortu zuen. Gero, ondo lotuta zeukala frogatu zuenean, sukaldearen beste aldeko muturrera joan, eta haren grina pizteko egokien zerizkion gozagarriak erakutsiz, infernuan bekatu-rik larrienak egin dituztenei baizik egiten ez zaizkien Tantaloren torturak eragiten zizkion tximinoari; eta neskame gaiztoa algara batean ari zen barrez, eta emakume baten buruak baizik ezin asma ditzakeen tortura-basakeriak ari zen irudikatzen. Giza-tximinoa amorrus bihurrikatzen zen urrutitik erakusten zizkioten janari aho-gozagarri haiek ikusita, eta mahai astunaren hankari lotuta egoteak ematen zion amorrus eragiten zizkion aieru-itsuskeriek ez zuten besterik lortzen ezpada borrero tentatzailearen poza pozagotu.

Azkenik, doktorea, nagusi zorrotza, atean azaldu zen une-unean lakio ikaragarri haren biktimak, zazpi ahalak eginik, loturik zeukaten soketatik askatzea lortu, eta Héraclius haserre-tuak esku hartu izan ez balu, Jainkoak daki zer litxarreriaz aseko ez ote zen lau eskudun Tantalohura.

XXIII

Nola ohartu zen doktorea bere tximinoak guztiz doilorki tronpatu zuela

Oraingo honetan haserreak gaina hartu zion begiruneari, eta doktoreak, tximino-filosofoari zintzurretik heldurik, garrasi batean eraman zuen bere langelara, eta metenpsikosista baten bizkarrak sekula inoiz hartu duen beroturik gorriena eman zion.

Héracliusen beso nekatuak, bada, bere anaia goi-mailakoaren antz gehiegiko zaletasunak izatea beste errurik ez zuen piztia gajoaren zintzurra zertxobait lasaitu zuenean, askatu zen hura

nagusi laidoztatuaren heldukadatik, egin zuen jauzi mahai gainetik, hartu zuen liburu baten gainetik doktorearen tabako hautsetarako kutxatila, eta bere jabearen burura jaurti zuen zabal-zabalik. Hark ozta-ozta izan zuen begiak ixteko astia, tabako hautsezko zurrunbilo hark itsutuko baitzukeen bestela, baina begiak zabaldu zitueneko desagertua zen erruduna, ustez berak idatzia zen eskuizkribua aldean zuela.

Héracliusen nahigabeak ez zuen mugarik — eta eroaren gisa abiatu zen iheslearen atzetik, pergamino preziatu hura berreskuratzeko sakrifiziorik handienak ere egiteko prest. Etxe osoa arakatu zuen, etxapetik hasi eta ganbararaino, armairu guztiak zabaldu zituen, altzari guztiak miatu. Alferrik bilaketa guztiak. Azkenean, lora-tegiko arbola baten itzalera joan zen esertzera, etsi-etsirik. Une batez irudipena zuen kolpetxo batzuk hartzen ari zela buruan, eta haizeak erauzitako hosto iharrak zirela uste zuen; non ikusten duen ordea paper pilotatxo bat bere aurreko bidean biraka. Jaso zuen — zabaldu zuen. Errukia! bere eskuizkribuaren orrietako bat zen. Burua jaso zuen, izumenak harturik, eta anima-

lia nardagarri hura ikusi zuen gisa bereko jaurti-
gaiak lasai-lasai prestatzen — eta hori egiten ari
zen bitartean egiten zuen atseginezko imintzio
zatarren hura baino zatarragorik nekez egingo
zukeen Satanek berak ere Ebarengandik hasi eta
Honorinerenganaino emakume guztiek beti eta
beti eskaini izan diguten sagarra Adanek nola
hartzen zuen ikusi zuenean. Itxura hura ikusita,
argi ezin itsusiago bat piztu zen bat-batean dok-
torearen gogoan, eta orduantxe aditu zuen
modurik itsusienean tronpatu zuela, iruzur egin
ziola, atzipetu zuela maltzur halako, ilez estali
hark, eta hura ez zela hainbeste desiratu izanda-
ko idazlea, Aita Santu edo Turkoen Nagusi izan
zitekeena baino gehiago. Obra preziatu hura
oso-osorik desagertu izango zatekeen Héracliu-
sek han ondoan lorazainek urrutiko lore multzo-
etara ura jaurtitzeko erabili ohi dituzten ponpa
horietako bat topatu izan ez balu; hartu zuen las-
ter-laster, eta gizonarena baino gehiagoko inda-
rez eraginik, halako ezustean blaitu zuen gaizto
hura non adarrik adar alde egin baitzuen ihesi,
garrasi bizitan, eta horretan, gerrako maltzurke-
ria trebe batez, atsedentxo bat hartzeko inondik

ere, aurpegi-aurpegira bota zion etsaiari pergamino urratua: eta bere lekua husturik, etxerantz joan zen lasterka.

Eskuizkribuak doktorea jo baino arinago, hura bizkarrez behera zen hanka-besoak airean, zirraren zirrarez tximistak jota bezala. Handik jaiki zenean ez zuen irain hartaz mendeku hartzeko indarrik izan; nekez bai nekez bere langelara itzuli, eta eskuizkribuak hiru orri baizik ez zituela falta ikusi zuen, ez atseginik gabe.

XXIV

Eureka

Dekano jaunaren eta Errektore jaunaren bisitak atera zuen eroraldi hartatik. Ordu bat edo biz aritu ziren hizketan, metenpsikosia behin ere aipatu gabe, baina bi lagun haiek kanpora zihozten unean Héracliusek ezin izan zuen gehiago isilik gorde.

Dekanoa bere hosalanda zabala janzten ari zen bitartean doktoreak aparte hartu zuen Errektore jauna, beldur gutxiago baitzion hari, eta

bere nahigabe guztia kontatu zion. Nola bere eskuizkribuaren egilea aurkitu uste izan zuen, nola huts egin zuen, nola bere tximino ondikozkoak modurik makurrenean tronpatu zuen, nola etsita eta abandonaturik aurkitzen zen. Eta bere ilusioen hondamena ikusirik, Héracliusek negar egin zuen. Errektoreak, emozioz, eskuak hartu zizkion; hitz egiten hastera zihoan, etxe sarrertatik Dekanoaren ahots sakona deika entzun zenean:

— Zer, bazatoz, Errektorea?

Hark, orduan, doktore errukarriari azken esku-estutu bat emanetz, irribarrez esan zion, gozo-gozo, haur gaizto bat kontsolatzeko egin ohi den bezala:

— Zaude lasai, adiskidea, nork daki, ez zara bada zeu izango eskuizkribu horren egilea.

Eta kaleko ilunpeetan murgildu zen, Héraclius atean zur eta lur eginik utzita.

Doktorea geldiro-geldiro igo zen bere langlelara, hortz artean minuturik minutu marmarka errepikatuz: «Neu naiz agian eskuizkribuaren egilea». Kontu handiz irakurri zuen berriro nola aurkitu izan zen dokumentu hori egilea bizialdi

berri batera etorri zen bakoitzeko; eta berak nola aurkitu zuen ekarri zuen gogora. Zorioneko egun haren aurreko ametsak, probidentziaren oharpen bat bezala, Uso Zaharren karrikan sartzean izandako zirrara, argi, zehatz, distiraz itzuli zitzaion hura dena. Zutik jaiki zen, luzatu zuen besoa goiargitu bat bailitzan, eta durundizko ahots batez esan zuen:

— Ni naiz, ni naiz.

Dardara bat izan zen etxe osoan, Pitagorasek aharrausi handi bat egin zuen, piztia asaldatuak tupustean esnatu ziren eta zapalartaka hasi ziren zeinek bere hizkuntzan metenpsikosiaren profeta handiaren berpizte handia ospatu nahi izan balu bezala. Eta, gizonaren baitan kabitzen ez den emozio batek harturik, eseri zen Hércules; zabaldu zuen biblia berri haren azkeneko orria, eta eraspen handiz idatzi zuen haren ondoren bere bizitzaren historia osoa.

XXV

Ego sum qui sum

Egun hartatik aurrera gaitzeko harrotasun batek hartu zuen Héraclius Gloss. Mesias Jainko Aitarengandik datorren bezala, bera Pitagora-sengandik zetorren zuzenean, edo hobeto esanda, bera zen Pitagoras, behinola filosofo haren gorputzean bizi izana. Doktoarearen genealogiak azpian uzten zituen era horretan familiarik feudalenen armarriak. Mesprezu harro batean biltzen zituen gizadiak izan dituen gizon handi guztiak, haien egitate handiak huskeria iruditzen zitzaizkion bereen aldean, eta goitasun ezin goragokoan bakartzen zen munduen eta piztien artean; bera zen metenpsikosia, eta bere etxea metenpsikosiaren tenplua.

Neskameari eta lorezainari debekatua zien animalia kaltegarritzat hartzen zirenak hiltzea. Harrak eta bareak mordoka ziren lorategian, gizon izandako asko ziren, hanka iletsuzko armiarma handien itxura harturik, beren eraldaketa nazkagarria haren langelako hormetan zehar pasearazten; horregatik esan ohi zuen

errektore gorrotagarri hark inoren kontura bizizale ziren uzki-pitxer guztiak, zeinek bere moduko metamorfosia eginik, doktore sentikorregi haren kasko gainean bilduko balira, ez ziekeela hark bizkarroi gaixo nahasi haiei gerrarik egingo. Gauza batek bakarrik kezkatzen zuen Héraclius bere gozamen harro hartan, animaliak etengabe elkar jaten ikusteak, armiarmak eulien zelatan, txoriak armiarmak harrapatzen, katuak txoriak marraskatzen, eta bere zakur Pitagoras bere hortzen parean jarri zitzaion katu bat pozarren itotzen.

Goizetik gauera bitarte guztia ematen zuen metenpsikosiak animalien maila guztietan zehar egiten zuen aurrerabide geldi etengabea behatzen. Bat-bateko argialdiak izaten zituen usterik gutxienean, horma txoriak zorrotenean mokoka ikusirik; inurriek, langile nekaezin burutsu horiek, guztiz samurtzen zuten; beren behinola-ko herabetasuna eta utzikeria zuritzeko langintza temati hartara kondematuta zeuden nagi eta alfer guztiak ikusten zituen haietan. Orduak eta orduak ematen zituen, sudurra belarraren kontra

jarrita, haiei begira, eta txunditurik zegoen haien sotiltasunaz.

Gero, Nabukodonosor bezala, lau hankatan ibiltzen zen, hautsetan iraulika aritzen zen bere zakurrarekin, bere piztiekin bizi zen, haiekin etzaten zen lurrean. Harentzat gizakia desager-tzen ari zen poliki-poliki izaditik, eta piztiak bai-zik ez zituen ikusten handik berehala. Haiei begi-ra zegoen bitartean ongi ohartzten zen haien anaia zela; haiekin baizik ez zuen hitz egiten, eta halabeharrez-edo gizakiekin hitz egitera behar-tzen zenean, zurrundurik geratzen zen arrotzen artean balego bezala, eta oso haserretzen zen, bere baitan, bere kidekoen ergeltasunagatik.

XXVI

**Zer kontatzen zen Mme Labotte,
fruitu saltzailearen
dendako erakustokiaren inguruan
Maraîcherie kaleko 26an**

Victoire andereñoa, Balançoneko fakultateko Dekanoaren sukaldaria, Gertrude andereñoa,

aipatu fakultateko Errektorearen neskamea, Anastasie andereñoa, Beaufleury, Sainte-Eulalieko apaiz jaunaren giltzaria, horra ostegun goiz batez Mme Labotte, fruitu saltzailearen dendako erakustokiaren inguruan, Maraîcherie kaleko 26an, bilduta zegoen biltzartxo.

Dama horiek, ezkerreko besoan hornidura saskia harturik, ile gainean txanotxo zuri bat, farfailaz eta hodiz apaindua, dotore-dotore jantzirik, arreta handiz ari ziren entzuten Anastasie esaten ari zitzaiena, alegia, bezperan bertan Beaufleury apaiz jaunak bost deabruk hartua zeukaten emakume bati nola egin zion exorzismoa.

Horretan, Honorine andereñoa, Héraclius doktorearen giltzaria, haize bafada bat bezalaxe sartu zen, aulki batean eseri, emozio bortitz batek arnasa estaturik, eta gero, hango guztiak nahiko artega iruditu zitzaizkionean, lehertu zen:

— Ez, azkenerako gogorregi da, nahi dutena esango dute: ez naiz geratuko etxe horretan.

Eta aurpegia bi eskuen artean gorderik, zotinka hasi zen. Handik minutu batera berriro hasi zen hizketan, lasaixeago:

— Azken finean ez du bere errua, gizajo horrek, erotuta egotea.

— Nor? —galdetu zuen Labotte andreak.

— Nagusia, nor bada, Héraclius doktorea —erantzun zuen Honorine andereñoak.

— Egia da, hortaz, Dekano jaunak esaten zuena, zure nagusia burutik nahastuta dagoela? —galdetu zion Victoire andereñoak.

— Bai, alajaina —ekin zion Anastasie andereñoak—, lehengoan Abade jaunak Rosencroix abade jaunari esan zion infernuko kondenatu bat dela; piztiak adoratzen dituela, Lutero bezalako xe gorrotagarria omen den Pitagoras-edo baten antzera.

— Zer da berririk —eten zuen Gertrude andereñoak—, zer gertatu zaizu?

— Egizu kontu —hasi zen berriro Honorine bere mantal ertzaz negar malkoak xukatuz—, nire nagusi gaixoak piztien eromena duela, aurki egingo ditu sei hilabete, eta atetik kanpora botako ninduke euli bat hiltzen ikusiko banindu, etxe horretan ia hamar urte daramadana. Gauza ona da animaliak maite izatea, baina ez da ahaztu behar guretzat eginak direla, baina doktoreak ez

ditu kontuan hartzen gizakiak, piztiak baizik ez ditu ikusten, mundu honetara haiei zerbitzera etorria dela uste du, zentzuzko pertsonak balira bezala hitz egiten die, eta esango litzateke aho-tsen bat entzuten duela haiengan, berari erantzuten. Bart, azkenik, saguak hornidurak jaten ari zitzaizkidala ohartua nintzenez, sagutegi bat ipini nien arasan. Gaur goizean, sagutegian sagu bat harrapatuta zegoela ikusirik, katuari deitu, eta hari ematera nindoan zomorro hura; non azaltzen den, ordea, ugazaba sutan, kentzen dit sagutegia eskuetatik, eta uzten du nire janari kontserben erdian, eta gero, haserretu egin naitzelako, itzultzen da, eta trapu biltzaile bat bera ere tratatzen ez den moduan tratatzen nau.

Isiltasun handi bat izan zen segundo batzuetan, gero Honorine andereñoa berriro hasi zen:

— Edozeinetara ere, nik ez diot txartzat hartzen gaixo horri, erotuta dago.

Handik bi ordutarako Balançoneko sukalde guztiek ezagutzen zuten doktoarearen eta saguaren historia. Eguerdirako hiriko handikien bazkari-ko kontakizuna zen. Zortzietan, epaile nagusiak, bere kafea edaten zuen bitartean, bere etxean

afaldu zuten sei epaileei kontatu zien; haiek, zeinek bere jarrera seriotan, amets giroan entzuten zioten, irribarrerik egin gabe eta buruari eraginez. Hamaiketan, Prefeta, jai bat ari baitzen ematen, bere kezka agertzen ari zen sei administrari txolinen aurrean, eta talderik talde bere gaiztakeriak eta gorbata zuriak erakusten ari zen Errektore jaunari iritzia eskatu zionez, hark erantzun zion:

— Zer frogatzen du horrek guztiak, Prefet jauna, ezpada La Fontaine bizirik balitz beste fabula baterako gaia bazukeela: «Filosofoaren saga» eta honela bukatuko litzatekeela ziur aski: «*Bietan abereena, ez beti uste dena*».

XXVII

**Nola Héraclius doktorea
ez zetorren bat beste Dauphin harekin,
uretatik tximino bat aterarik,
... berriro bota baitzuen,
eta norbaiten bila joan hura salba zezan**

Biharamun goizean Héraclius etxetik atera zenean, berehalaxe ohartu zen begiluzez begira-

tzen ziotela denek, eta atzera itzultzen zirela, gainera, bera ikusteko. Egiten zioten arreta hark harritu egin zuen lehendabizi; zergatik ote zen asmatzen aritu zen, eta pentsatu zuen agian berak jakin gabe zabaldu izango zela bere dotrina, eta bere herritarrak ulertzen hasixeak zirela agian. Horrela, bada, halako samurtasun handi bat etorri zitzaion bat-batean dagoeneko bere jarraitzaile suhar bihurturik ikusten zituen hiritar haiekiko, eta ezker-eskuin irribarrez agurtzen hasi zen, printze bat nola bere herriaren erdian. Atzean entzuten zituen txutxumutxuak laudoriozko surmurrak iruditzen zitzaizkion, eta pozez distiratzen zegoen errektoreak eta dekanook aurki izan behar zuten lotsarekin.

Halaxe iritsi zen Brille-ko kaietaraino. Handik pauso batzuetara haur talde bat zebilen zalapartan, eta barre handiak egiten zituzten uretara harrika; eguzkitan beren pipa erretzen ari ziren marinelek baziruditen interesaturik zeudela umekondo haien jolasean. Héraclius hurbildu zen hara, eta bat-batean atzera egin zuen, bularreran kolpe handi bat hartu balu bezala. Bazterretik hamarren bat metrora, aldika murgilduz,

aldika atereaz, katu gazte bat itotzen ari zen ibaian. Piztiatxo hura zazpi ahalak egiten ari zen bazterrera iristeko, baina burua uretatik ateratzen zuen bakoitzeko agonia harekin jostatzen ziren barrabas haietakoren batek botatako harriak berriro desagerrarazten zuen. Mutiko gaiztoak zeinek hobeto ari ziren, eta batak bestea zirikatzen zuen, eta ondo jaurtitako harriak da batek animalia jotzen zuenean, barre algarak eta poz jauziak ziren kaian; horretan harri ertz-zorrotz batek kopeta erdi-erdian jo zuen piztia, eta odol hari bat azaldu zen ile zuriaren gainetik. Horrekin oihu eta txalo zoramen bat lehertu zen borraroen artean; izu ikara bihurtu zen, ordea, bat-batean. Zurbil, amorru dardaraz, aurrean harrapatzen zuen guztia ostikoka eta ukabilka hankaz gora irauliz, otsoa artaldean bezala sartu zen doktorea umeteria haren erdian. Izumen hartan, eta horren ihes bizkorrean, haurretako batek, beldurrak nahasturik, ibaira jauzi egin eta desagertu egin zen. Héracliusek erantzi zuen azkar-azkar lebita, oinetakoak kendu, eta uretara sartu zen hura ere. Une batez indarrean igeri egiten ikusi zuten, heldu zion katutxoari galtzera

zihoan unean, eta garaie itzuli zen ibaiertzera. Iskin harri batean eseri zen, lehortu zuen, musukatu, laztandu heriotzatik salbatu zuen animalia txoa, eta besoetan seme bat balu bezala maitasunez bildurik, bi marinelen artean lehorrera ateratzen ari ziren haurrari jaramonik egin gabe, atzean sortzen ari zen iskanbilak axola ez ziola, etxerantz abiatu zen pauso handiz, oinetakoak eta lebita ibaiertzean ahaztuta.

XXVIII

**Historia honek, irakurle, frogatuko dizu
nola kidekoa kolpeetatik babestu nahiz,
uste delarik hobe dela
gizona baino katua salbatu
Auzoen herra pizten dela maiz,
nola bide guztiek Erroma duten helburu
eta metenpsikosiak ero etxean azken amai
(L'Etoile de Balançon)**

Handik bi ordura jendetza ikaragarri bat oihu eta iskanbilaz pilatu zen Héraclius Gloss dokto-
rearen leiho aurrean. Berehalaxe harrikada

erauntsi batek beirak puskatu zituen, eta atear botatzear zegoen jendetza hura kale kantoitik jendarmeak azaldu zirenean. Poliki-poliki giroa baretu zen; azkenean jendetza zein bere aldetik barreiatu zen; baina hurrengo eguna arte geratu ziren jendarmeak doktorearen etxe aurrean. Hark urduri eta berebiziko asaldutan eman zuen gau guztia. Apaizek bere kontra antolatutako azpijokoen ondorioa eta erlijio berri baten sorrerak antzinakoaren jarraitzaile tematien artean eragin ohi duen gorroto eztanda gisa ulertzen zuen jendaila haren iskanbila. Martiritzaraino sutzen zen, eta borraroen artean bere fedea aitortzeko prest sentitzen zen. Langelan sar zitezkeen piztia guztiak eraman zituen hara, eta bere zakurraren, ahuntz baten eta ardi baten artean harrapatu zuen egunak lotan, salbatu zuen katutxoak bihotzaren kontra estaturik.

Atean eman zuten kolpe bortitz batek esnatu zuen, eta Honorinek jaun guztiz serio bat sartu zuen, eta haren atzetik segurtasuneko bi agente. Haien baino atzeraxeago Prefekturako sendagi-
lea ezkututzen zen. Jaun serio hura poliziako komisario bezala aurkeztu zen, eta kortesia han-

diz berekin joateko erregutu zion Héracliusi; hark esan bezala egin zuen, zirrara handi batez. Zalgurdi bat zegoen atean zain; sartzeko agindu zioten. Gero, komisarioaren ondoan eserita, aurrean sendagilea eta polizia bat zituela, kotxezainaren ondoan eseri baitzen bestea, Juduen kalea, Udaletxeko enparantza, Birjinaren bulebarrara igaro, eta ate gainean idatzita «Ero Etxea» hitzak zituen itxura iluneko eraikuntza handi baten aurrean gelditu zirela konturatu zen Héraclius. Orduantxe ohartu zen nolako segada ikaragarrian eroria zen; bere etsaien trebezia maltzurra sumatu zuen, eta kalera irteten ahalegindu zen, bere indar guztiak baturik; bi esku indartsuk bere lekuan eserarazi zuten berriro. Ikaragarriko borroka bat hasi zen orduan Héracliusen eta zaindari zituen hiru gizonen artean; borrokan, bihurrika, joka, hozka, amorrus garrasika hasi zen; lurrean zapalduta aurkitu zen, gogor loturik, eta etxe patu gaiztoko hartara eraman zuten azkenik, atea bere atzean hots makur batez itxi zelarik.

Itxura bereziko gela estu batean sartu zuten. Tximiniak, leihoak eta ispiluak burdinsare goto-

rrak zituzten, ohea eta gelako aulki bakarra burdinazko katez loturik zeuden zorura. Ez zegoen espetxe hartako biztanleak jaso eta mugi zezakeen altzari bat ere. Gertaerek frogatu zuten, bestalde, ez zirela alferrik hartuak kontu horiek guztiak. Beretzat berri-berria zen egoitza horretan aurkitu zen bezain laster, ito behar zuen amorruek hartu zuen doktorea. Altzariak puskatzen ahalegindu zen, burdinsareak erauzten, beirak puskatzen. Ezin zuela etsirik, lurrean itzulika hasi zen, eta halako garrasi beldurgarriak botatzten zituen, non bi gizon blusaz jantzi, buruan uniforme gisako txano moduko bat zutenak, sartu baitziren ezustean, haien atzean gizon handi buru-soil, goitik behera beltzez jantzi bat zutela. Nor hark keinu bat egin zielarik, Héracliusen gainera jauzi egin eta instant batean jarri zioten bortizko atorra; eta beltzezko jaunari begiratu zioten. Hark begirada batez doktorea aztertu, eta bere laguntzaileengana itzulirik, esan zien:

— Duxa gelara.

Erdian urik gabeko aska bat zuen gela handi hotz batera eraman zuten Héraclius. Erantzi zuten, oiho batean, eta bainu aska hartan sartu

zuten; eta non zegoen konturatu ere baino lehen, gizaseme hilkor baten bizkarrera, lekurik iparraldekoenetan ere, inoiz erori zen ur izoztue-
nezko uholde izugarri batek erabat ito zuen ber-
tan. Kolpetik isildu zen Héraclius. Beltzezko gizo-
na begira zegokion oraindik ere; pultsua hartu
zion seriooki, eta esan zuen:

— Beste bat.

Beste dutxa bat jausi zen sabaitik, eta darda-
raz, itorik, arnasestuka erori zen doktorea bere
bainu aska izoztuaren barrenean. Jaso zuten,
bildu zuten estalki bero-berotan, eta bere gelako
ohean etzan zuten; hogeita hamabost orduz egin
zuen lo, lorik sakonenean.

Pultsua bare eta burua arin esnatu zen
hurrengo egunean. Zegoen egoeraz pixka
batean gogoeta egin, eta bere eskuizkribua ira-
kurtzen hasi zen, aldean eramana baitzuen. Han-
dik pixka batera beltzezko gizona sartu zen.
Mahai bat prestatua ekarri zuten, eta aurrez
aurre bazkaldu zuten elkarrekin. Doktorea, ez
baitzuen ahaztua bezperako bainua, oso lasai
eta oso zintzo portatu zen; horrelako zoritxarra
ekarri zion gaiaz hitz bat bera ere esan gabe,

luzaro mintzatu zen oso modu interesgarrian, eta ahalegin guztiak egin zituen bere zaintzaileari Greziako zazpi jakintsuak batera baino zuhurrago zela frogatu nahirik.

Alde egiterakoan, egoitza hartako lorategian ibili bat egiteko eskaini zion beltzezko gizonak Héracliusi. Patio karratu zabal bat zen, zuhaitzez landatua. Berrogeita hamarren bat lagun zebiltzan paseatzen; zein barrez ari zen, zein oihuka, zein hitzaldika, zein serio eta gogoilun.

Gizonezko garai bat ikusi zuen lehendabizi, bizar eta ile luzea, bakarrik zebilena, burumakur. Zergatik ez zekiela gizon haren zoria eza-gutzeko gogoia sartu zitzaion, eta une horretan bertan, ezezagun hark, burua jasorik, finko-finko begiratu zion Héracliusi. Gero, elkarrengana joan eta zeremonia handiz agurtu zuten elkar. Eta solasa hasi zen. Doktoreak jakin zuenez, Dago-bert Félorme deitzen zen bere laguna, eta hizkuntza bizietako irakasle zen Balançoneko ikastetxean. Ez zion sumatu garunean ezer hondaturik izan zezakeenik, eta bere buruari galdetzen ari zen zerk eraman ote zuen gizon hura halako lekura; horretan, besteak, bat-batean gelditurik,

eskutik heldu zion, eta eskua indarrez estutuz, ahopeka galdetu zion:

— Sinesten al duzu metenpsikosian?

Doktoreak zalantza egin zuen une batez, zezelka; begiradek elkar topatu zuten, eta segundo batzuetan zutik geratu ziren biak, elkarri begira. Azkenean emozioa gailendu zitzaion Héracliusi, negar malkoak atera zitzaizkion begietatik, besoak zabaldu zituen, eta elkar besarkatu zuten. Isileko solasak hasi ziren orduan, eta berehalaxe ohartu ziren argi berak argitzen zituela biak, dotrina berean hanpatuak zirela biak. Puntu bat bera ere ez zuten beren ideietan bat ez zetozenik. Baina pentsamendu berdintasun harrigarri hori egiaztatzen zuen heinean, berebiziko ondorez bitxi bat hasi zen sentitzen doktorea; zenbat eta ezezagun hura bere aurrean gehiago hazten zen, orduan eta bere buruaren estima apaltzen zela iruditzen zitzaion. Jelosiak bihotzean ausiki.

Besteak esan zuen bat-batean:

— Ni naiz metenpsikosia; nik aurkitu nituen arimen bilakaeraren legeak; nik arakatu dut gizonen patua. Ni izan nintzen Pitagoras.

Doktorea kolpetik gelditu zen, zamaua baino zuriago.

— Barkatu —esan zion—, ni naiz Pitagoras.

Eta elkarri begira geratu ziren berriro. Gizon hark jarraitu zuen:

— Filosofo, arkitekto, soldadu, nekazari, fraide, geometra, sendagile, olerkari eta marinela izan naiz.

— Ni ere bai —esan zuen Héracliusek.

— Nire bizitzaren historia latinez, grezieraz, alemanez, italieraz, espainieraz eta frantsesez idatzi dut —zioen ezezagunak.

Héracliusek berriro esan zuen:

— Nik ere bai.

Biak gelditu ziren, eta ezpata muturrak bezain zorrotz gurutzatu ziren haien begiradak.

— 184. urtean —hasi zen oihuka bestea—, Erroman bizi nintzen, eta filosofoa nintzen.

Doktoreak orduan, haize erauntsi batek astintzen duen hostoa baino dardara handiagotan, atera zuen patrikatik bere dokumentu preziatua, eta arma bat bailitzan dantzatu zuen etsaiaren sudurpean. Hark jauzi bat egin zuen atzera.

— Nire eskuizkribua —egin zuen oihu, eta besoa luzatu zuen hura hartzeko.

— Nirea da —egin zuen orro Héracliusek.

Eta gauza eztabaidatu hura harrigarritzko lastertasun batez buruaz gora jaso, eta mila bira eragiten zizkion, zein baino zein harrigarriago, arerioaren itsumustuko erasotik babesteko. Hura hortzez karraska eginez, ostikoka, marruka ari zen:

— Lapurra! Lapurra! Lapurra!

Azkenean mugimendu azkar trebe batez Héracliusek utzi nahi ez zion paperari mutur batetik heldu zion. Segundo batzuetan bakoitza bere aldera tiraka aritu ziren biak, batak zein besteak haserre eta indar berberaz, gero, ez batak ez besteak jaregiten ez ziotenez, elkarren lotura fisikoa egiten zuen eskuizkribuak, Salomon errege jakintsuak hobeto egingo ez lukeen moduan bukatu zuen haien borroka, bi puska berdinetan zatiturik, eta hala elkarrengandik hamar metrora eseri ahal izan ziren borrokalari biak, zeinek bere esku kizkurtuaz bere garaipen erdiari heltzen ziola.

Ez ziren berriro jaiki, baina elkarren indarrak neurtu ondoren berriro borrokari lotu ez lotu zalantzatan dauden bi olde elkarren arerio bezala hasi ziren elkar aztertzen.

Dagobert Félormek ekin zion lehenengo.

— Eskuizkribu horren egilea ni naizela erakusteko froga nahi baduzu —esan zuen—, horra, zuk baino lehenago ezagutzen nuen.

Héracliusek ez zuen erantzun.

Berriro hasi zen bestea:

— Eskuizkribu horren egilea ni naizela erakusteko froga nahi baduzu, horra, buruz buru errezita diezazuket idatzita dagoen zazpi hizkuntzetan.

Héracliusek ez zuen erantzun. Gogoeta sako-netan ari zen. Iraultza bat ari zitzaion gertatzen bere baitan. Ezin zitekeen zalantzarik izan, bere arerioa zen garaile; baina bere gogorik bizienaz deitu izan zuen eskuizkribuaren egile hura higuintzen ari zitzaion orain, jainko faltsu bat bailitzan. Hain zuzen ere, orain bera bere lekutik kendutako jainko bat baizik ez zelarik, jainkota-sunaren kontra ari zen oldartzen. Eskuizkribu haren egiletzat bere burua ez zuen bitartean,

irrika bizia izan zuen hura ezagutzeko; baina «Neuk idatzi dut hori, metenpsikosia ni naiz» esan zuen egunetik aurrera, ezin onartu zuen beste inork lekua kentzerik. Beren etxean beste norbait bizitzen ikusi baino erre nahiago dutenen gisan, berak bere buruarentzat jaso zuen alderera igota ezezagun bat ikusi zuen unetik, tenplua eta Jainkoa erre, metenpsikosia erre. Horrela bada, isilune luze bat utzi ondoren, ahots baxu benazko batez esan zion:

— Zu erotuta zaude.

Hitz horiek entzuten amorratuta egin zion jauzi besteak, eta beste borroka bat hasiko zen, lehenengoa baino bortitzagoa, baldin eta zaindaria etorri eta erlijiozko gerren berritzaile bi haiek zein bere egoitzara eraman ez balituzte.

Ia-ia hilabete oso batean doktorea ez zen atera bere gelatik; bakar-bakarrik igarotzen zituen egunak, burua bi eskuen artean hartuta, gogoeta guztiz sakonetan. Dekano jauna eta Errektore jauna ikustera etortzen zitzaizkion aldian behin, poliki-poliki, konparazio burutsu eta zehar aipamen kontu handiko askoren bidez, haren gogoan gertatzen ari zen lana laguntzen

zuten. Horrela jakinarazi zioten, adibidez, Dago-
bert Félorme izeneko bat, Balançoneko ikaste-
gian hizkuntz irakasle zena, burutik nahastu zela,
Pitagoras, Aristoteles eta Platoni buruz filosofiaz-
ko lan handi bat, bere ustetan berak Komodo
enperadorearen garaian hasia, idazten ari zela.

Eguzki bete-beteko goiz eder batean, azke-
nik, doktoreak, bere onera, berriro garai hobee-
tako Héraclius hura izatera bihurturik, bere bi
lagunei eskuetatik bizi-bizi heldurik jakinarazi
zien ezen beti-betiko alde batera utziak zituela
metenpsikosia, animalia aldiak eta transmigra-
zioak, eta bular kolpeak jotzen zituen bere
hutsegitea aitortuz.

Handik zortzi egunera eroetxeko ateak zabal-
du zitzaizkion.

XXIX

Nola joan daitekeen zenbaitetan, Karibdis utzi, eta Eszilara

Ondikozko etxe hartatik irtetean, ate-atean
gelditu zen une batez doktorea, eta birrikak bete

artean arnastu zuen askatasunaren airea. Gero, behinolako pauso alai berari loturik, etxera bidea hartu zuen. Bidean bost minutu zeramatzala, ikusi zuen mutiko batek ziztu luze bat egin zuen; hari beste ziztu berdin batek erantzun zion ondo-ko kale batetik. Aurrekoa bezalako beste kale-txakur bat azaldu zen lasterka, eta lehenengoak, bere lagunari Héraclius erakutsiz, oihu bizian ekin zion: «Begira piztien gizona, eroetxetik irtenda», eta bi-biak, doktoarearen atzean haren pausuarekin berdinduz, ezagutzen zituzten animalia guztien oihuak imitatzen hasi ziren, aski talentu ohargarriz imitatu ere. Aurki ziren beste dozena bat mutiko bihurri lehengoekin elkaturik, metenpsikosista ohiari segizio zaratatsu bezain ezatsegin bat antolatuz. Haietako bat doktorea baino hamar bat pauso aurrerago zihonan, ikurrin gisa erratz kirten bat hartu eta hartan inondik ere mugarri ondoren batean aurkitutako untxi larru bat loturik; haren ondoren beste hiru, danbor hotsak imitatuz, eta gero doktorea zeterren, txunditurik, bere lebita estuturik, kapelua begi gainera jaitzia, jeneral bat iduri bere gudarostearen erdian. Haren ondoren barrabas olde

hura lasterka, jauzika, zilipurdika, oihuka, marruka, miauka, irrintzika, orroka, kukurrukuka, eta beste mila gauza barregarri asmatzen, ate aurrera ateratzen ziren burgesen jostagarri. Héraclius, erabat nahasirik, geroz eta gehiago presakatzen zen. Horretan han inguruan zebilen zakur bat bere hanka artetik igaro zitzaion. Halako amorru olde bat igo zitzaion garunera dokto-reari, eta halako ostikada bortitza jaurti zion lehenago etxera eraman izango zukeen piztia gaixo hari, non oinazez uluka joan baitzen ihesi. Aupada beldurgarri bat lehertu zen Héracliusen inguruan, eta hura, burua erabat galdurik, leher gaizto egin beharrean abiatu zen lasterka, bere segizio deabruzko hura atzetik kendu ezinda.

Zurrumbilo bat bailitzan igaro zen jende aldra hura hiriko kale nagusietatik, eta doktoareen etxearen kontra hautsi zen; doktoreak, hain zuzen, etxeko atea erdi irekirik ikusita, itsumustuan sartu eta itxi egin zuen, eta lasterka utzi gabe bere langelaraino igo zen; han bere tximinoak egin zion harrera, mingaina erakutsiz hasi baitzitzaion ongietorria egiten. Mamu gaiztoren bat azaldu izan balitzaio bezala jo zuen atzera

hura ikusita. Tximino hura zen bere zoritxar guztien oroitzapena, bere eroaldiaren eta pairatu berri zituen beheratze eta laido guztien arrazoietako bat. Hartu zuen eskura zuen haritzezko aulkitxo bat, eta kolpe bakar batez hautsi zion buru hezurra kuadrumano malapartatu hari, eta opil bat balitz bezalaxe erori zen hiltzailearen oinetan. Gero, gaizkilea hil izanak lasaiturik, besaulki batean eseririk, lebitako botoiak askatzen hasi zen.

Orduantxe azaldu zen Honorine, eta ia konortea galdu zuen Héraclius ikusirik. Alaitasun hartan, ugazabari lepora jauzi egin eta bi masailetan eman zion musu, jendearen iritzian nagusiaren eta neskamearen artean dagoen urruntasuna ahazturik, horretan, nonbait, esaten zutenetz, etsenplu emana baitzion lehendik ere doktoreak.

Mutiko bihurrien saldo hura, ordea, barreiatu gabe zegoen oraindik, eta hainbestearainoko iskanbila ari ziren antolatzen ate aurrean, non Héraclius lorategira jaitsi baitzen, urduriturik.

Ikuskari guztiz zatar batek zaurt eragin zion. Honorinek, maite baitzuen ugazaba, haren eromena deitoratu arren, ustekabeko poz bat

prestatu nahi zion etxera itzultzen zenerako. Lehendik leku hartan bilduta zeuden piztia guztiak ama batek bezalaxe zaindu zituen, eta hala, animalia mota guztiek ohi duten ugalkortasuna dela medio, Noek izaki guztiak bildu zituen Kutzak Uholde Handiko ura atzeratu zenean bide zuen itxura berbera zuen lorategi hark. Halako pila nahasi bat zen, piztia elementia bat, zuhaitzak, lore multzoak, belarra, lurra bera desagerarazteraino. Zuhaitz adarrak txori erregimentuen azpian makurtzen ziren; haien azpian, berriz, zakurrak, katuak, ahuntzak, ardiak, oiloak, ahateak eta antzarak hautsetan biraka. Airearen askotako oihuz beteta zegoen, etxeaz beste aldean asaldaturik zegoen umeteriaren oihuen guztiz berdinak.

Héracliusek ezin izan zuen bere buruaren nagusi jarraitu, hori ikusita. Horma kontra ahaztuta zegoen pala bat hartu, eta Homerok kontatzen dituen egitandietako gudari ospetsuek bezala, batzuetan aurrera jauzi, besteetan atzera jauzi, ezker-eskuin kolpeka, bihotzean amorrua, hortzetan bitsa, beldurgarrizko sarraski bat egin zuen bere adiskide kalte gabekoen artean.

Oiloek horma gainetik egiten zuten hegan, katuak zuhaitzetara igotzen ziren. Bakar batek ere ez zuen barkamenik izan; esan ere ezinezko nahastea izan zen. Gero, lur guztia hildako aberez estali zenean, nekeak eneatu zuen azkenik, eta jeneral garaile bat bailitzan, sarraskia egingo dako eremuan bertan hartu zuen loak.

Biharamunean sukar hura joana zuen, hirian zehar ibili bat egin nahi izan zuen. Baina ez al zen atetik kanpora azaldu, kale ertzetan ezkutatuta zeuden umeak berriro hasi zitzaizkion jarraitzen oihuka: «Ea, ea, ea, piztien gizona, piztien laguna!» eta bezperako garrasi berak hasi ziren egiten, amai gabeko aldaerak eginez.

Doktorea itsumustuan itzuli zen. Haserreak ito behar zuen, eta gizoni eraso ezinik, betirako gorrotoa eta erruki gabeko gerra deklaratu zien abere mota guztiei. Handik aurrera ez zuen desira bat, helburu bat, kezka bat baizik izan denbora guztian: piztiak akabatzea. Goizetik gaua arte zelatan egoten zen, lakioak ipintzen zituen lortegian txoriak harrapatzeko, tranpak jartzen zituen euritako zorrotan inguruko katuak itotzeko, haren ate beti erdi zabalik zegoenak

gutuziak eskaintzen zizkien handik igarotzen ziren zakur sabelkoiei, eta bat-batean ixten zen baldin eta biktima ozarregiren batek tentaldiari men egiten bazion. Polizia-komisarioa behin baino gehiagotan etorri zen gerra erruki gabe hura gelditzeko agintzera. Auziz josi zuten; ezerk ez zuen, ordea, haren mendekua geldiarazi. Azkenean oso zabaldu zen haserrea. Beste asal-damendu bat izan zen hirian, eta zati-zati egingo zukeen jendetzak indar armatuak azaldu ez balira. Balançoneko sendagile guztiei deitu zieten Prefekturara, eta ahobatez deklaratu zuten erotuta zegoela Héraclius Gloss. Bigarren aldiz igaro zuen hiria poliziako bi agenteren artean, eta berriro ikusi zuen nola ixten zen bere atzean «Ero Etxea» idatzita zegoen etxeko ate astuna.

XXX

**«Zenbat eta eroago orduan eta barreago»
esaera hura nola ez den beti egi-egia**

Biharamun goizean egoitza hartako patiora jaitsi zen, eta nor izango han ikusi zuen lehenda-

biziko pertsona, eskuizkribu metenpsikosistaren egilea. Bi etsaiak elkarrengantz abiatu ziren begiradaz elkar neurtuz. Jendea ingurura bildu zitzairen.

Dagobert Félormek jaulki zuen:

— Hona nire bizitzako obra lapurtu nahi izan didana, nire aurkikuntzaren gloria ebatsi nahi izan didana.

Zurrumurru bat zabaldu zen jendetzaren artean.

Héracliusek erantzun zuen:

— Hona piztiak gizon eta gizonak piztia egiten dituenak.

Gero hizketan hasi ziren bi-biak, berotu ziren poliki-poliki, eta berehala ziren borrokan, lehen-dabiziko aldian bezala. Ikusleek bereizi egin zituzten.

Egun hartatik aurrera, zeinek bere jarraitzaileak bilatzeari ekin zioten, harrigarritzko tema eta lehia batez, eta handik gutxira bi alderdi elkarren kontrakotan banatuta zegoen eroetxe guztia, hain arerio suhar, amorratu eta baketu ezinak, hala ere, non ez baitzen ikusiko meten-

psikosista bat bere etsaietako baten ondotik igarotzen eta sekulako borrokaren bat hasi ez.

Topaketa odolgirozko horiek izan ez zitezten, talde bakoitzarentzako paseatzeko ordu bereiziak antolatu beharra izan zuen zuzendariak, zeren ez baita izan horren gorroto setatirik elkarren kontrako bi sektaren artean Guelfoen eta Gibelinoen arteko eskatima famatu hura izan zenez geroztik. Erabaki zuhur horri esker, bestalde, bi klan etsai horietako buruzagiak zoriontsu bizi izan ziren, beren jarraitzaileek maitaturik, entzunik, obediturik eta gurturik.

Gau batzuetan horma inguruan uluka igarotzen den zakur batek zirrara eragiten die beren ohean Héracliusi eta Dagoberti: Pitagoras zintzoa da, bere nagusiaren mendekutik mirari batez ihes eginik, haren arrastoari egoitza berri-raino jarraitu, eta sartzeko eskubidea gizonek baizik ez duten etxe hartako ateak zabaltzeko ahaleginetan.

(1875)

Ur gainean

Joan den udan landetxetxo bat nuen alokatua Sena ibaiaren ertzean, Parisetik zenbait miliatarra, eta hara joaten nintzen lotara gauero. Egun batzuen buruan auzoko bat ezagutu nuen, 30-40 urte inguruko gizaseme bat, inoiz ikusi dudan gizasemerik bitxiena inondik ere. Txalupari zahar bat zen, baina txalupari amorratua, beti uretatik hurbil, uretan beti. Txaluparen batean jaioa nonbait, eta azkeneko txalupa aldiari hilko da, hil ere, ziur.

Sena bazterrean paseatzen ari ginen batean, bere marinel bizitzako gertaera batzuk kontatzeko eskatu nion. Eta horra non nire gizon hori animatzen zaidan bat-batean, erabat aldatzen den, eta hiztun bilakatzen den, ia olerkari. Grina handi bat zerabilen bihotzean, barrua jaten ari zitzaion grina bat, eutsi ezinekoa: ibaia.

— Ai! —esan zidan—, zenbat oroitzapen horixe gure ondoan doala ikusten duzun ibai honez! Kalekumeok ez dakizue zer den ibaia. Entzun ordea, nola esaten duen arrantzale batek

hitz hori. Misteriozko gauza da harentzat, gauza sakon, ezezaguna, ispilatzeen eta fantasmagorien eremua, izatez ez diren gauzak ikusten direna, gauzez, ezagutzen ez diren hotsak entzuten direna, zergatik jakin gabe dardara egiten duzuna, hilerri batetik igarotzean bezala: hura baita, izan ere, hilerrietan makurrena, inork ez baitu han hilobirik.

Lurra mugatuta dago arrantzalearentzat, eta ilunpean, ilargirik ez denean, ibaiak mugarik ez du. Itsasoko marinela ez du horrelako gauzarik sentitzen itsasoari buruz. Itsasoa gogorra eta gaiztoa izaten da askotan, egia, baina oihu egiten du, garrasi egiten du, leiala da-eta itsaso handia; ibaia ordea, isila da eta maltzurra. Ez du errieta egiten, zaratarik gabe joaten da jarioan, eta jarioan doan uraren mugimendu amaigabe horixe Ozeanoko olatu handiak baino beldurgarriagoa da niretzat.

Ameslariak sinetsi nahi izaten dute itsasoak sekulako lurralde urdinkarak dituela bere magalean, eta itotakoak arrain handien artean ibiltzen direla han, oihan bitxien artean kristalezko haitzuloetan. Ibaiak basatan usteltzen zaren osin

beltzak baizik ez ditu. Baina ederra da goizeko eguzkitan distira egiten duenean eta ihi xuxurlariez estalita dauden ibai ertzetan plisti-plasta ari denean.

Olerkariak honela esan zuen ibaiaz ari zela:

*Itsasoko urak, zuek bai ezagutzen
historia makurrak!*

*Ur sakon, ama belaunikatuen izu eragileak,
goralditan kontatzen dizkiezuenak
Horrexek ematen dizkizue gauez,
zatozkigunean, dituzuen dei etsiak.*

Bada, nik badut ustea ihi meheek beren ahots apal hain gozo horiez xuxurlatzen dituzten historiak makurragoak direla oraindik olatuen urrumak kontatzen dituenak baino.

Baina nire oroitzapen batzuk kontatzeko eskatzen didazunez, orain dela hamar urte-edo hementxe gertatu zitzaidan abentura bat kontatuko dizut.

Gaur egun bezalaxe, andre Lafonen etxean bizi nintzen, eta nire lagunik onenetako bat, Louis Bernet, orain txaluparitza eta hark dituen

ponpeziak eta pildak alde batera utzi, eta Estatu Kontseiluan sartua dena, C... herrian kokatua zen, milia pare bat beherago. Elkarrekin afaltzen genuen egunero, batzuetan harenean, beste batzuetan gurean.

Gau batez, bakarrik eta aski nekatuta nentorrela, nire ontzi handia, hamabi oineko *océan* bat, gauez beti erabiltzen nuena, neke handiz nekarrela, segundo batzuk geratu nintzen arnasa hartzeko ihien muturretik gertu, hantxe, burdinbideko zubia baino berrehunen bat metro lehenago. Sekulako eguraldia zegoen; ilargiak distira egiten zuen, ibaiak dizdiz, aire guztia bare eta gozo zegoen. Sosegu horrek tentatu ninduen; leku hartan pipakada bat erretzea gauza ederra izango zela iruditu zitzaidan. Gogoetak ekitea ekarri zuen; aingura hartu eta ibaira bota nuen.

Txalupak, ur lasterrarekin berriro beherantz baitzihoan, katea muturreraino jaregin, eta gelditu egin zen; atzealdean eseri nintzen, nire ardi larruaren gainean, ahal nuen erosoena. Ezer ez zen entzuten, ezer ez: aldian-aldian urak ibai bazterraren kontra jotzean egindako plastada ia

entzun ezinezkoa iruditzen zitzaidan, eta ihi multzo garaixeago batzuk ikusten nituen itxura harrigarriak hartzen eta aldian behin astindu egiten zirela ziruditenak.

Ibaia lasai-lasai zegoen; niri ordea, zirrara eragiten zidan inguratzen ninduen isiltasun berebiziko hark. Piztia guztiak, igelak, apoak, zingiretako kantari gautar horiek guztiak, isilik zeuden denak. Horretan, ordea, nire eskuineta-
ra, ondo-ondoan, igel batek klon egin zuen. Ikaratu egin nintzen: isildu zen; ez nuen beste ezer entzun, eta pixka bat pipatzea deliberatu nuen, arreta bestetaratzeko; hala ere ordea, ni pipa erretzaile ezagutua izanagatik, ezin izan nuen, bigarren pipaldirako zorabioak eman zidan, eta utzi egin nuen. Kantularrean hasi nintzen; nire ahotsaren hotsa nekagarri gertatzen zitzaidan; txalupa barrenean etzan nintzen beraz eta zerura begira geratu nintzen. Alditxo batez lasai egon nintzen, baina berehalaxe ontziaren mugimendu arinek kezkatu ninduten. Sekulako balantzak egiten zituela iruditu zitzaidan, ibaiaren bazter biak joz, behin bata behin bestea; gero ikusezinezko indar batek ur hondoraino tiratzen

ziola geldiro, eta gero bat-batean jaso egiten zuela, berriro erortzen uzteko. Ekaitz baten erdi-erdian bezala astintzen ninduten, inguruan hotsak entzun nituen, jauzi batez zutitu nintzen: urak distira egiten zuen, dena bare zegoen.

Nerbioak nahasi samar nituela konturatu nintzen eta handik alde egitea erabaki nuen. Kateari tira egin nion; txalupa mugitzen hasi zen, eta handik pixka batera zerbaitek eusten ziola konturatu nintzen, indar gehiagoz tiratu nion, aingura ez zen etorri, zerbaiti kateatua zen ur azpian, eta ezin nuen jaso; berriro hasi nintzen tiraka, alferrik ordea. Orduan, arraunak hartu, txalupa itzularazi eta ibaiari goiti jarri nuen, ainguraren posizioa aldatzeko. Alferrik izan zen, kateatuta jarraitzen zuen; haserreak hartu ninduen eta amorruez astindu nuen katea. Zirkinik ere ez. Etsita eseri eta egoera hartaz pentsatzen hasi nintzen. Ezin nuen ametsik ere egin katea hura eten nezakeenik, eta ontzitik askatu ahal izango nuenik ere, sekulako katea baitzen eta nire besoa baino egur lodiago batetik baitzegoen brankatik lotuta; baina oraindik ere oso eguraldi ona zegoenez, luze baino lehen arrantzalaren bat topatu-

ko nuela iruditu zitzaidan, eta lagunduko zidala. Ustekabe hark guztiak baretu egin ninduen; eseri, eta azkenean nire pipa erre ahal izan nuen. Banuen ron botila bat ere, bizpahiru baso edan nituen hartatik, eta nire egoerak barre eragin zidan. Bero egiten zuen oso, eta, besterik ez bazen, gaua izarpean ezin igarorik ere ez nuen, kalte handirik gabe.

Horretan, kolpetxo bat entzun zen txalupa saihetsaren kontra. Asaldatu nintzen, eta izerdi hotz batek izoztu ninduen oinetatik bururaino. Ur lasterrak ekarritako egur puskaren batek eginaz, inondik ere, hots hura, baina huraxe nahikoa, eta urduritasunezko ezinegon bitxi batek hartu ninduen berriro. Kateari heldu eta ahalegin guztian tiratu nion eten beharrean. Aingurak gogor eutsi zion. Akiturik eseri nintzen berriro.

Bien bitartean, laino zuri lodi-lodi batez estali zen ibaia; ur kontra-kontra herrestatzen zen; zutituz gero ez nuen ez ibaia, ez nire oinak, ez txalupa ikusten, ihien puntak baizik ez nituen ikusten, eta gero, urrutiago, ilargiaren argiak eratzen zuen ordeka zurbila, aldika-aldika zeruraino igotzen ziren makal multzoen orban beltze-

kin. Halako zuritasun berezi batezko kotoi geruza batean gerriraino murgildurik bezala nengoen, eta ametsezko irudipenak bururatzen zitzaizkidan. Norbaitek nire txalupara igo nahi zuela hasten nintzen pentsatzen, eta ezin nuela ikusi, eta ibaia, laino itsu hark ezkututzen zidana, nire inguruan igerian zebilzkidan izaki bitxiz beterik zegokeela. Izugarritzko ondoeza sentitzen nuen; lokiak estuturik nituen, bihotza ito beharrean zebilkidan taupadaka; eta burua galdurik, igerian ihes egitea bururatu zitzaidan; gero ideia horrek izumenez ikara eragin zidan. Galdurik laino lodi hartan noraezean nindoala ikusi nuen neure burua, aurretik kendu ezin nituen belarren eta ihien artean indarka, beldurrez zotinka, ibai ertza ikusi ezinda, txalupa aurkitzen ez nuela, eta zerbaitek hanketatik ur beltz haren hondorantz tira egiten zidala iruditzen zitzaidan.

Hain zuzen ere, gutxienez bostehunen bat metro egin beharko nituen ibaian goiti, oina hartu ahal izateko belarrik edo ihirik ez zen lekuren bat aurkitzeko; hala hamarretik bederatzi aukera bazegoen laino hartan biderik ez aurki-

tzeko eta bertan itotzeko, oso igerilari ona izanagatik.

Zentzuz arrazoitzen ahaleginu nintzen. Beldurrik ez izateko gogo sendoa nuela banekien, baina bazen zerbait nire baitan borondatea ez zena, eta beste zer horrek beldurra zuen. Zeren beldur izan nintekeen galdegiten nion neure buruari; nire ni ausartak barre egiten zion nire *ni* beldurtiari, eta inoiz ez dut egun hartan bezala sumatu gure baitan ditugun bi izakari horien arteko kontrakotasuna, batek baietz, nahi zuela, besteak ezetz, aurka eginez, aurrena bat, hurrena bestea, gailentzen zirela.

Ikara ergel eta zergatik gabe hura handituz eta handituz zihoakidan, eta izu laborria bilakatu zitzaidan. Mugi ezinik nengoen, begiak zabalik, belarria adi, zain. Zeren zain? Zer nekien nik, baina gauza izugarritzakoren bat behar zuen izan. Arrain bati uretatik kanpora jauzi egitea otu izan balitzaio, sarritan gertatu ohi den bezala, besterik ez litzateke beharko, nik uste, bertan zerraldo eror nendin, konortea galdurik.

Hala eta guztiz ere, ahalegin handi bat eginik, berriro itzuli-edo nintzen ia alde egiten ari

zitzaidan zentzu onera. Nire ron botilari heldu berriro, eta zanga-zanga edan nuen. Halaxe, ideia bat bururatu zitzaidan, eta ekinahalean hasi nintzen oihuka lau haizetara. Eztarria erabat ezindu zitzaidanean, entzuten geratu nintzen. Zakur bat zaunka ari zen, oso urruti.

Berriro gehiago edan, eta naizen bezain luze etzan nintzen ontzi barreanean. Ordubete, bi ordu beharbada, egon nintzen horrela, lorik egin gabe, begiak zabalik, inguruan amesgaiztoak zebilzkidala. Ez nintzen ausartzen jaikitza, eta nahi, nahi nuen, gogotik halere; minutu bat, eta gero beste bat, atzeratzen nuen, ordea. Neure buruari esaten nion: «Ea, jaiki hadi!», eta mugitzeko ere beldur nintzen. Jaiki nintzen azkenean, kontuz baina kontuz, ezeren zaratarik egiten banuen hartan bizitza balihoakit bezala, eta karel gainetik begiratu nuen.

Ikus daitekeen ikuskaririk zoragarrien, harri-garrienak txunditurik geratu nintzen. Maitagarrien lurraldeetako fantasmagoria horietako bat zen, oso urrutiko lurraldeetatik datozen bidaiari-iek kontaktzen dizkiguten eta guk entzun eta sinesten ez dizkiegun ikuskizun horietako bat.

Bi ordu lehenago ur gainean zabalduarik zegoen lainoa ibai bazterretara atzeratua eta bildua zen poliki-poliki. Ibaia erabat libre utzirik, bazter bakoitzean hegi etenik gabe bat zuen eratua, sei-zazpi bat metro garai, ilargiaren argitara elurraren distira bikainaz distiratzen zuela. Era horretara ibai suz jantzi hau baizik ez zen ikusten bi mendi zuri haien artean; eta han goian, nire buru gainean, ilargi handi, bete, zabal bat hedatzen zen, zeru urdinkara esnezko baten erdian argi ematen.

Uretako piztia guztiak esnatuak ziren; igelak amorru batean ari ziren korroka, eta aldika-aldika, behin ezkerretatik hurrena eskuinetik, apoen ahots kobrezkoak izarretara jaurtitzen duen nota labur, beti berdin, triste hori entzuten nuen. Harritzekoa, ez nuen beldurrik gehiago; hain paisaje bereziaren erdian nengoen, egon ere, non gauzarik berezienek ere ez baininduketen harrituko.

Zenbat denbora iraun zuen horrek, ez dakit batere, azkenerako lozorroan sartua bainintzen. Berriro begiak zabaldu nituenerako ilargia ezkutatua zen, eta hodeiez beteta zegoen zerua.

Urak plisti-plasta hitsean ziharduen, haizeak jotzen zuen, hotz egiten zuen, iluntasuna sakona zen.

Geratzen zitzaidan rona edan nuen, gero dardaraz egon nintzen ihiek elkar igurztean ateratzen zuten hotsa eta ibaiaren zarata makurra entzuten. Zerbait ikusten ahalegindu nintzen, baina ezin nuen neure ontzia ere ikusi, ezta eskuak ere, begietaraino hurbildu arren.

Poliki-poliki, hala ere, ilunaren loditasuna mehetuz joan zen. Horretan nire ondotik zerbaiten irudia igarotzen zela iruditu zitzaidan, oihu bat egin nuen, ahots batek erantzun zidan, arrantzale bat zen. Deitu nion, hurbildu zen, eta nire zorigaitza kontatu nion. Orduan bere ontzia nirearen karelez karel jarri zuen, eta kateatik tiraka ekin genion biok. Aingura ez zen mugitu ere egin. Bazetorren eguna, ilun, gris, euritsu, hotz, tristurak eta ezbeharrak ekartzen dizkiguten egun horietako bat. Beste txalupa bat ikustatu nuen, deitu egin genion. Hartan zihoan gizonak ere gurekin batera ekin zion, orduan aingura mugitzen hasi zen poliki-poliki. Bazetorren gora, baina poliki, poliki, karga astunen batez

kargaturik. Azkenik multzo beltz bat ikusi genuen, eta nire karek kontrara erakarri genuen:

Andre zahar baten gorpua zen, lepotik harri handi bat zuela.

(1881?)

Magnetismoa

Gizonezkoen arteko afari baten ondoren zen, zigarro puru azkengabeen eta basotxo etengabeen orduan, ketan eta txegosteen moteltasun beroan, hainbeste janari eta likore irentsi eta nahasien ondoko buruen nahasmendu arin horretan.

Magnetismoaren gaia atera zen, Donatoren trikimailuak eta Charcot doktorearen esperientziak. Bat-batean gizaseme eszeptiko haiek, txeratsuak, inolako erlijioak axola ez zienak, gertaera bitxiak hasi ziren kontaktzen, historia sinestezi-nezkoak baina gertatuak, esaten zuten, eta superstiziozko sinesteetan erortzen ziren berriro, gauza miresgarrien azkeneko hondar hartaraxe atxikitzen ziren, magnetismoaren misterio horren deboto bilakaturik, zientziaren izenean defendatuz.

Bat bakarrik zegoen irribarrez, mutil sendo bat, neskazale eta andre-ehiztari amorratua, hain finko baitzuen gauza orotarako sinesgogor-

tasuna non ez baitzuen eztabaidarik onartzen. Trufaz errepikatzen zuen behin eta berriro:

— Berriketak, berriketak, berriketak! Ez dugu eztabaidatuko Donatoz, trikimailu egile bizkor bat baizik ez baita. Charcot jauna, berriz, halako jakintsu handia omen den hori, Edgar Poeren gisako kontu kontalaria iruditzen zait, eromen kasu bitxiez gogoeta eta gogoeta horiek berek erotua. Zer diren oraindik azaldu gabe dauden eta oraindik azaldu ez diren gertaera psikikoak aurkitu ditu, egunero aztertzen den mundu ezezagun horretan dabil, eta, ikusten dituenak betiere ulertu ezin dituenek, gehiegitxo gogoratzen da beharbada misterioen gainean elizan ematen diren azalpenek. Eta neuk entzun nahi nioke gainera hitz egiten, gerta baitaiteke zuek errepikatzen dituzuen horien oso bestelakoa izatea hark esana.

Halako erruki mugimendu moduko bat izan zen sinesgogor haren inguruan, fraide biltzar batean biraoren bat bota izan balu bezala.

Jaun haietako batek oihu egin zion.

— Izan ziren, bada, mirariak behinola.

Besteak, ordea, erantzun zion:

— Nik ukatu egiten dut hori. Zergatik ez da, bada, miraririk gehiago?

Orduan bakoitzak gertaera bat aipatu zuen, fantasiako aurrentipenak, oso urrutitik arimen artean komunikazioak izandakoak, izaki batek beste batengan ezkutuko eragina izandakoak. Eta zalantzan jarri ezinezko aitortzen ziren, deklaratzeko ziren gertaera haiek, ukatzaile tematiak, ordea, behin eta berriro «berriketak! berriketak!» errepikatzen zuela.

Azkenean jaiki, bota bere zigarroa, eta eskuak patrikan zituela:

— Begira, kontatuko dizuet neuk ere historia pare bat, eta gero azalduko dizkizuet zer eta nolakoak. Hona bada:

— Entretat-eko herrian gizonezkoak, marine-lak baitira denak, Ternuako arrantzutara joaten dira neguan denak, bakailaotara. Non, ordea, gau batez marinel haietako baten semea esnatzen den kolpetik oihuka esanez «aitta itsasoan hil zela». Lasaitu zuten muttikoa, baina berriro esnatu zen oihuka «aitta itto». Handik hilabetera jakin zen, baietz, aita hilik zela, itsas kolpe batek ontziaren zubitik eramanda. Alarguna haurraren

ametsez gogoratu zen. Miraria zela aldarrikatu zen, jende guztia emozioak hartu zuen, datak alderatu ziren, eta ezbeharrak eta ametsak bateratsu izanak zirela ikusi zen: eta hortik atera zen gau berean eta ordu berean gertatuak zirela biak. Eta horra magnetismo mirari bat non.

Kontalaria isildu egin zen. Entzuleetako batek, orduan, guztiz emozionaturik, galdetu zion:

— Eta ba al dakizu hori nola den azaltzen?

— Bai erraz, jauna, aurkitu dut ezkutuko sekretua. Gertaera horrek harritu ninduen, eta biziki kezkatu ere; nik, ordea, ikusten duzue, printzipioz ez dut sinesten. Beste batzuek sinestetik hasten diren bezala, ni neu zalantza egitetik hasten naiz; eta ezer ulertzen ez dudanean ere, orduan ere ukatu egiten dut arimen artean komunikazio telepatikorik badenik, horretarako neure suma aski dudala ziur bainago. Horrela bada, bila, bila eta bila aritu nintzen, eta kanpoan ziren marinelen emazte guztiei galdetuaren galdetuz azkenean konbentziturik geratu nintzen ez zirela zortzi egun joaten haietakoren batek, edo seme edo alabaren batek ametsetan

ikuski eta esan gabe: «aitta itsasoan hil da». Ezbehar horren etengabeko beldur izugarriak eragiten die etengabe horretaz hitz egitea eta horretan pentsatzea. Horregatik bada, hain sarri egiten diren iragarpen horietakoren bat, halabe-har soilez, betetzen baldin bada eta heriotzaren batekin batera gertatzen bada, miraria aldarrikatzen da ber-bertatik, bertatik ahazten baitira bete ez diren gainerako amets guztiak, iragarpen guztiak, zorigaitzaren profezia guztiak. Berrogeita hamarretik gora baditut jasoak, amets egileek handik zortzi egunetara gogoratu ere egiten ez zituztenak. Baina gizona egiaz hil izan balitz, orduan bertatik iratzarriko zatekeen oroimena, eta Jainkoaren eskua gorai patuko zen batzuen ustez, magnetismoa besteenez.

Erretzaileetako batek esan zuen:

— Nahikoa zuzena da, zuk diozuna, baina ea zer duzun bigarren historia hori.

— Ai! Kontuz-kontuz kontatzekoa baita nire bigarren historia. Neuri gertatua da eta ez naiz oso-oso fio neure iritziaz. Ezin baita inoiz berdin izan epaile eta epaitu. Hona, bada, historia:

Banuen nik neure mundu harremanetako jendartean emakume gazte bat, sekula hartan pentsatzen ez nuena, sekula arreta-arretaz begiratu ere ez niona, sekula bereziki begiratu gabea, esan ohi denez.

Ezdeusetakoen artean neukan sailkaturik, nahiz eta itsusia ere izan ez; begiak, sudurra, ahoa, ilea, beste edonork bezalakoak zituela iruditzen zitzaidan, halako aurpegiera hits bat, hitz batean; ustekabez baizik gogoratzen ez zaizun izakari horietako bat zen, gogoia hartan ezin pausatuta zaizuna, desira inola ere hartaratzen ez zaizuna.

Gau batez, bada, ohera aurretik nire sutondotan gutunak idazten ari nintzela, non sentitzen dudana, luma airean duzula minutu batzuek ameskeriatan geratzen zarenean burmuinak laz-tantzen dizkizun irudi prozesio horren, ideia uholde horren erdian, hots arin bat gogoan zehar, halako bihotz zirraratxo bat, guztiz arina, eta bat-batean, pentsamendu lotura zentzuzkorik batera gabe, non ikusten dudana zehatz, ukitutako banu bezalaxe ikusi, oinetatik bururaino ikusi, inolako errezelik gabe, inoiz hartan hiru

segundo segidan, haren izena burutik igarotzeko behar nuen denbora, gogoan izan gabeko emakume hori. Eta ordu arte inoiz ikusi ez nion alderdi on pila bat, halako xarma gozo bat, halako ekarrai malenkoniazko bat aurkitu nizkion bat-batetik; emakume baten xerkan jartzen zaituen halako maitasun-kezka hori piztu zidan neure baitan. Baina ez nuen luzaro gogoeta egin horretaz. Oheratu nintzen, loak hartu ninduen. Eta amets egin nuen.

Denok izango zenituzten, ezta? ezinezko ororen nagusi egiten zaituzten amets horietakoak, zabaldu ezinezko atea, ustekabeko pozak, zabaldu ezinezko besoak zabalitzen dizkizuetenak?

Gutako nork ez du, amets asaldatu, urduri, hasperenez bete horietan, eduki, estutu, berotu halako sentazio zorrotasun aparteko batez, gogoia beterik zion emakumea? Eta ohartu al zarete zer nolako gozamen gizatasunaz gaindikoak ekartzen dituzten ametsaren zori on horiek! Zein mozkor erotan murgiltzen zaituzten, zer nolako espasmo sutsuz astintzen zaituzten, zer samurtasun mugagabe, laztan, sarkor sar-

tzen dizuten bihotz barneraino, herabe eta bero-bero daukazun horrekiko errealitate bera dirudien ilusio zoragarri bortitz horretan!

Hori guztia, dena sentitu nuen, ezin ahaztuzko bortiztasun batez sentitu ere. Emakume hori neure egin nuen, hain neure, halere, non behatzetan bainuen oraindik haren azalaren gozotasun epela, buruan oraindik haren azalaren usaina, haren musuen ahogozoa ezpainetan oraindik, haren ahotsaren hotsa belarrietan oraindik, haren besarkada estuaren eraztuna gerriaren inguruan, haren samurtasunaren xarma suharra neure osotasunean oraindik, baita iratzartze gozagarri eta desliluratzaillea izan eta luzaroan ere.

Eta hiru bider berri zuen, gau hartan berean, amets hori bera.

Eguna iritsi zenean obsesio bihurtua nuen, bereturik nindukan, segundo bat bera ere ez bainuen igarotzen hartan pentsatu gabe.

Azkenean, zer egin ez nekiela, jantzi eta ikusteratara joan nintzaion. Haren eskaileretan ikaratan nengoen hunkiturik, bihotza taupadaka ari zitzai-

dan: desira bizi batek betetzen ninduen oinetatik buruko ileetaraino.

Sartu nintzen. Zut-zutik altxatu zen nire izena esaten entzun zuenean: eta finkotasun harrigarri batez gurutzatu zitzaizkigun bion begiak. Eseri nintzen.

Funtsgabekeria batzuk totalkatu nituen, berak entzun ere egiten zituenik ez ziruditenak. Ez nekien zer esan, ez zer egin; gainera oldartu nintzaion, bi besoez heltzeko, eta hain erraz, hain eroki bete ziren nire amets guztiak non bat-bateko zalantza sartu baitzitzaidan iratzarririk ote nengoen... Bi urtez izan nuen maitale...

— Eta zer ateratzen duzu horretatik ondorioz? —esan zuen ahots batek.

Kontalariak bazirudien zalantzatan zegoela.

— Ondorioz ateratzen dut... kointzidentzia dela, alafede! Nork baitaki? Zeren izan baitaiteke haren begirada bat nik erreparatu ez izana, eta, gure gogoeta ohartuak gogoan hartu gabe, gure adimenak erreparatu gabe gertatutako gauzak berriro gogorarazten dizkigun memoria-ren dei misteriozko eta oharkabeko horietako bat gau hartan berriro gogora ekarria!

— Nahi duzuna izango da —bukatu zuen solaskideetako batek—, baina horren ondoren magnetismoan sinesten ez baduzu, esker txarreko hutsa zara zu, adiskidea!

(1882ko apirilaren 5ean)

Ametsak

Lagun arteko afari bat zen, lagun zaharren artekoa. Bost ziren: idazle bat, mediku bat eta hiru ezkongabe aberats, lanbiderik gabeak.

Direnez eta ez direnez hitz egin, eta halako laxotasun bat ari zen iristen, jai ondoren agurraren aurretik izaten den laxotasun hori. Mahaiki-deetako batek, bost minutu baitzeramatzan, hitzik egin gabe, bulebar asaldatu, gas-argiz izartu, zurrumurrutsuari begira, bat-batean esan zuen:

— Goizetik gauera ezer egiten ez denean, egunak luze dira.

— Gauak ere bai —gehitu zion ondokoak—. Nik ia ez dut lorik egiten, plazerrek aspertzen naute, solasak ez dira berritzen; inoiz ez dut ideia berri bat aurkitzen, eta inorekin hizketan hasi aurretik ezer ez esateko eta ezer ez entzuteko gogo amorratu bat sentitzen dut. Ez dakit zertan eman nire gauak.

Eta hirugarren zeregin gabeak aldarrikatu zuen:

— Ederki ordainduko nuke nik egunean bi ordu, besterik ez, atseginez igarotzeko moduren bat.

Orduan, idazlea, berokia beso gainean hartua baitzuen, hurbildu zen.

— Norbaitek —esan zuen—, bizio berri bat asmatu eta bere kideei eskainiko balie, bizitza erdira laburtuko balie ere, mesede handiagoa egingo lioke halakoak gizadiari, betirako osasuna eta betirako gaztetasuna ziurtatzeko modua aurkituko balu baino.

Medikua barrez hasi zen; eta zigarro bati hozka eginez:

— Bai, horrelakoak ordea ez dira hala eta hola aurkitzen. Badira gai horretan ikertzen eta lantzen gogotik saiatuak, mundua mundu denez geroztik. Lehenengo gizonak, ordea, bat-batetik iritsi ziren osotasunera gai horretan. Guk nekez berdintzen ditugu haiek.

Hiru zeregin gabeetako batek murmurioz esan zuen:

— Lastima da!

Eta, handik minutu baten buruan, jarraitu zuen:

— Lo behintzat egin ahal izango balitz, ondo lo egin berorik eta hotzik gabe, neke handiko gauetako ezerezte horrekin lo egin, ametsik gabe lo egin...

— Zergatik ametsik gabe? —galdetu zion ondokoak.

Eta bestea berriro hasi zen:

— Ametsak ez direlako beti atseginak, eta bitxiak direlako beti, sinestezinak, elkarrekin josten ez direnak, eta lotan ezin ditugulako, gainera, gure gustukoenak gozatu. Iratzarririk egin behar da amets.

— Zerk eragozten dizu, bada? —galdetu zion idazleak.

Medikuak zigarroa jaurti zuen.

— Adiskidea, iratzarririk amets egiteko ahaltsua behar da izan, eta borondate lan handia, eta neke handia ekartzen du, horrexegatik. Egiazko ametsa, ordea, gure gogoetak ikuspegi xarmagarritan zehar egiten duen ibili hori, munduan denik eta gauzarik gozagarriena da zalan-tzarik gabe; berez etorri behar du, baina, nekez behartu gabe, eta gorputzaren ongizate betebetea behar du lagun. Amets hori eman dieza-

zuket nik, gehiegitan ez duzuela egingo agintzeko baldintzarekin.

Idazleak bizkarra jaso zuen:

— Badakit, bai, haxixa, opioa, konfitura berdea, paradisu artifizialak. Irakurria dut Baudelaire; eta proba ere egina dut droga famatu horrena; erabat gaixotu ninduen.

Baina medikua eseria zen:

— Ez, eterra, eterra baizik ez; eta gehiago esango dizut: zuek, letra gizonok, aldian-aldian erabili beharko zenukete.

Hiru aberatsak ondora hurbildu zitzaizkion.

Batek galdetu zion:

— Azaldu iezaguzu, bada, zer ondorio dituen.

Eta medikua berriro hasi zen:

— Baztertu ditzagun alde batera hitz handiak, ezta? Ni ez naiz ari ez medikuntzaz ez moralez: plazerraz ari naiz. Zuek egunero-egunero ari zarete bizitza jaten ari zaizkizuen gehiegikeriatan. Nik beste sentrazio berri bat nahi dizuet erakutsi, gizon adimentsuek baizik eduki ezin dutena, esan dezagun areago, oso gizon adimentsuek baizik ezin eduki dutena, arrisku-tsua, gure organoak neurritz goitik kitzikatzen

dituen guztia bezala, baina guztiz zoragarria. Jakin ezazue prestamen bat behar duzuela, ohitura bat alegia, eterraren ondorio bereziak bete-betean sentitu ahal izateko.

»Ondorioak ez dira haxixarenak, opioarenak eta morfinarenak bezalakoak; eta botika hori hartzetik utzi bezain laster desagertzen dira gainera; beste amets eragileen ondorioek, aldiz, ordutan eta ordutan jarraitzen dute.

»Zer sentitzen den ahalik eta zehatzen analizatzen ahaleginduko naiz. Baina ez da gauza erraza, hain baitira sotilak, ia atzeman ezinak, sentsazio horiek.

»Neuralgia bortitzez jota nengoela probatu dut nik erremedio hori, eta geroztik gehiegitxo erabili izan dut beharbada.

»Berebiziko mina nuen buruan eta lepoan, eta ezin eramanezko beroa azalean, sukar urduritasuna. Eter botila handi bat hartu, eta etzanik, handik geldiro arnasa hartzen hasi nintzen.

»Minutu batzuen buruan halako murmurio zehazgabe bat iruditu zitzaidan entzutea, gero burrunba gisako bat bilakatu zen, eta nire gorputz barru guztia arindu egiten zitzaidala irudi-

tzen zitzaidan, haizea bezain arin, lurrindu egi-
ten zitzaidala.

»Gero arimaren zurruntasun moduko bat izan
zen, halako ongizate lozorrozko bat, minak alde-
gin gabe bazen ere, ez zen min nekagarria,
ordea. Onez eramatea deliberatzen den sufri-
mendu horietako bat zen, eta ez gure gorputz
osoak estiratan bezala kontra protesta egin ohi
duen eten beharreko sufrikario horiek.

»Bularrean nuen hustasun sentsazio berezi
zoragarri hori gorputz ataletara zabaldu zen
berehalaxe, eta arin-arin bilakatu zitzaizkidan
haiek ere, haragia eta hezurak urtu eta azala
besterik geratu ez balitzait bezala, bizitzearen
gozotasuna, ongizate horretan etzanda egotea-
rena, sentitzeko behar nuen azala alegia. Ez nin-
tzela sufritzen ari, konturatu nintzen. Oinazea
joana zen, urtua, lurrindua hura ere. Eta hotsak
entzun nituen, lau ahots, bi elkarrizketa, hitzeta-
tik ezer ulertzen ez nuela. Behin hots zehazga-
beak ziren, hurrena hitz bat atzematen nuen.
Baina berehalaxe ohartu nintzen nire belarrieta-
ko burrunba handitua baizik ez zela hura. Ez
nengoen lotan, itzarrik nengoen; zehaztasun,

sakontasun, ahalmen berebiziko batez eta nire adimen ahalmenak hamar bider ahaltuagoak bilakatu izanak zekarkidan mozkor bitxi batez ulertzen nuen, sentitzen nuen, arrazoitzen nuen.

»Ez zen ametsa, haxixarekin bezala, ez ziren halako ikus-pen gaixo samarrak, opioarekin bezala; arrazonamenduaren zorrotasun miragarritzko bat baizik, bizitzako gauzak ikusteko, epaitzeko, estimatzeko modu berri bat, eta egiazko modua horixe zelako ziurtasunarekin, kontzientzia bete-betearekin gainera.

»Eta Eskriturako irudi zaharra etorri zitzaidan bat-batean gogora. Jakintzaren arbolatik jan nuela iruditzen zitzaidan, misterio guztiak argitzen zirela, hainbestearino aurkitzen bainintzen logika berri, bitxi, gezurta ezin baten mende. Eta mordoka etortzen zitzaizkidan argudioak, arrazonamenduak, frogak, berehalaxe indar handiagoko beste argudio, arrazonamendu, froga batek itzulikatzen zituenak. Nire burua ideien borroka leku bihurtua zen. Izakari goragoko bat bilakatu nintzen, mendera ezinezko adimen batez armatua, eta zoramenezko gozamena sentitzen nuen neure ahalmena frogatuta...

»Luzaro irauñ zuen horrek, luzaro. Nire eter botilaren zuloatik hartzen nuen arnasa oraindik ere. Halako batean hutsik zegoela ohartu nintzen. Eta beldurgarritzko damua sentitu nuen».

Lau gizonak batera eskatu zioten:

— Mediku jauna, ekarri bizkor litro bete eter eskatzeko errezeta!

Medikuak ordea kapelua jantzi eta erantzun zien:

— Ez horixe; zoazte beste batengana pozoitu nahi baduzue!

Eta irten egin zen.

Jaun-andreak, bihotzak hala eskatzen badi-zue?

(1882ko uztailaren 8an)

Izua

J.-K. Huysmans-i

Afal ondoren ontzi gainera igo ginen berriro. Mediterraneoak ez zuen gure aurrean ikara bat bera ere ilargi handi bareak distiraz betetzen zuen zabaltasun guztian. Ontzi zabala labain zihoan, izarrez ereina zirudien zerurantz ke bel-tzezko suge lodi bat jaurtiz; eta, gure ondotik, ura, zuri-zuri, ontzi astuna igarotzeak astindurik, helizeak irabiaturik, apar eta bits ari zen, bihurritzen ari zela zirudien, hainbeste argitasun nahasten zituen non esango bailitzateke ilargiaren argia zela irakiten.

Sei-zortziren bat ginen, isilik, miresmenez, begia gindoazen urrutiko Afrikarantz bihurturik. Ontziko kapitaina, gure artean zigarro bat erretzen ari zela, afariko solasera itzuli zen berriro bat-batean.

— Bai, beldur izan nuen egun hartan. Sei ordu egin zituen nire ontziak sabelean haitz hura

zuela. Eskerrak ikatz-ontzi ingeles batek ikusi eta gau aldera handik jaso gintuen.

Orduan, gizon handi aurpegi-erre, irudi serio-ko bat, lurralde ezezagun luzeak etengabeko arriskutan igaro dituztela sumatzen zaion horietako bat, beren begi lasaiak barren-barrenean ikusi dituzten gertaera berezietako zerbait gorde duela dirudien horietako bat, kemenez beteak diruditen gizon horietako bat, hasi zen, hitza lehendabiziko aldiz harturik:

— Zuk diozu, kapitaina, beldur izan zenuela; ez dut uste. Oker asmatu duzu hitza, eta oker zabilta izan zenuen sentipenaz. Gizon kemen-tsuak inoiz ez du beldurrik estaturik daukan arriskuaren aurrean. Hunkiturik, urduri, kezka baliteke egotea; beldurra, ordea, beste zerbait da.

Kapitainak barrez jarraitu zuen:

— Alajaina! Neuk diotsut beldur izan nuela, neuk.

Azal brontze-koloreko gizonak ahots baratzez adierazi zuen orduan:

— Utz iezadazu azaltzen! Beldurra (eta gizo-nik ausartenek ere izan dezakete beldurra), izu-

menezko gauza bat da, sentipen lazgarri bat, ari-
maren andeatzea bezala, pentsamenduaren eta
bihotzaren estura ikaragarri bat, gogoratzeak
berak larriminezko ikarak eragiten dituena. Hori
ez da gertatzen, ordea, bihoztuna bazara, ez
erasoaren aurrean, ez hil behar itzuri ezinaren
aurrean, ez bestelako arrisku modu ezagunen
aurrean: bestelako egoera berezi batzuetan ger-
tatzen da hori, arrisku zehazgabeen aurrean era-
gin misteriozko batzuk gertatzen direnean. Bel-
dur egiazkoa beste garai batzuetako ametsezko
izumenen zantzu moduko bat da. Arima herra-
tuetan sinesten duen batek, gauez mamu bat
ikusten duela iruditzen bazaio, hark sentitu
behar du beldurra beldurraren izumen guztiare-
kin.

Nik egun argi-argiz jakin nuen zer zen beldu-
rra, orain dela hamarren bat urte. Joan den
neguan sentitu nuen berriro, abenduko gau
batez.

Eta ez naiz ezusteko gutxi igaroa, gertaera
hilgarriak ziruditen makina bat igaroa baizik.
Borroka asko izan ditut. Lapurrek hiltzat eman
izan naute. Ameriketara urkatzera kondenatu

ninduten, matxinatutzat; Txinako itsasaldean ontzi batetik itsasora bota ninduten. Nire burua galdurik uste izan dudan horietako bakoitzean, berehala etsi izan naiz hartara, samurtu gabe, damurik gabe.

Beldurra ez da hori, ordea.

Nik neuk Afrikan sentitu nuen. Baina Iparreko alaba da, izatez; lainoa bezala uxatzen du eguzkiak. Eduki ondo kontuan hori, jaunak. Sortalde-tarren artean bizitza ez da ezer; bertatik hartzen da etsimena; gauak argiak dira eta ez dute herrialde hotzetan garunak atsekabetzen dituzten arrangura ilunik. Sortaldean baliteke momentuko izumena ezagutzea, baina beldurra zer den ez dakite.

Hona, bada, zer gertatu zitzaidan Afrikako lur horretan:

Uarglatik hegoalderako duna handiak igarotzen ari nintzen. Munduko parajerik berezienetako bat da hura. Badakizue nolakoa den itsasoko hondartza amaigabeetako harea trinko, zuzena. Bada, egizue irudi itsasoa bera hondar bihurturik haize-erauntsi baten erdian; egizue irudi ekaitz isil bat hauts horizko olatu geldiz betea. Mendiak

bezain gora dira, olatu horiek, guztiak desberdinak, ondokoa ez bezalakoak, itsaso amorratua bezala jasoak, baina hura baino handiagoak oraindik, eta oihal zanpatua bezala ildokatuak. Itsaso haserre, mutu eta geldi horren gainean, hegoaldeko eguzki dena irentsi beharrak beregar erruki gabe zuzena isurtzen du. Urre errautsezko uhin horietara igo behar da, berriro jaitsi, igo berriro, etengabe igo, atsedetik gabe, itzalik gabe, igo. Zaldiek korroka egiten dute, belaunetaraino sartzen dira, eta muino harrigarri horien bestaldeko maldan behera amiltzen dira irristan.

Bi lagun ginen, zortzi spahi, lau gamelu eta haien gameluzainekin. Ja ez genuen gehiago hitzik esaten, beroak eta nekeak ahiturik, eta egarriak basamortu kiskalia bera bezalaxe agorturik. Horretan gure gizonetako batek oihu moduko bat egin zuen; denak gelditu ziren; eta zirkinik egin gabe geratu ginen, lurralde galdu haietako bidaiariek ezagutzen duten gertaera azalpenik gabeko batek zurturik.

Nonbait, urrunera gabe, nondik ez zela, danbor hots bat entzuten zen, dunetako danbor misteriozkoa; danbor hots ongi bereiziak, batzuetan

zoliago, bestetan apalago, aldika geldituz, hurrena berriro bere errepika ametsezkoari ekinez.

Arabiarrak, izuaz ikaturik, elkarri begira ari ziren; batek esan zuen, bere hizkuntzan:

— Heriotza gainean dugu.

Eta horra non, bat-batean, nire laguna, ia anaia nuena, zalditik erori, buruz aurrera, eguzki kolpe batek jorik.

Eta bi orduz, alferrik hura salbatzen ahalegingtzen nintzen bitartean, danbor atxikiezin hori belarria betetzen ari zitzaidan bere hots beti-berdin, eten, ulertezinezkoaz; eta hezurretan barrena beldurra irristatzen zitzaidala sentitzen nuen, egiazko beldurra, beldur lazgarria, gorpu maite haren aurrean, hondarrezko lau mendiren arteko zulo eguzkiak kiskali hartan, oihartzun ezezagunak, hurbileneko herri frantsesetik berrehun miliatara, danborraren errepika bizkorra igortzen zigun bitartean.

Egun hartan ulertu nuen zer zen beldurra; hurrengo batean hobeto ikasi nuen, hala ere...

Kapitainak hitza eten zion kontalariari:

— Barka, jauna, baina danbor hori, zer zen, izan?

Bidaiariak erantzun zion:

— Ez dakit. Inork ez daki. Ofizialek, askotan entzuten baitute ustekabeen hots berezi hori, haizeak daramatzen harri bikor xehezko harriabar gisako batek belar iharrezko multzoren baten kontra jotzean ateratako hotsaren oihartzuna, duna arteko ibartxoek handitu, anitzez biderkatu eta guztiz zolitu ote den esan ohi dute; ikusi baita inguruan eguzkiak kiskalitako landare xeheak, pergamina bezain gogorak, direnean izaten dela beti gertaera hori.

Hotsaren lilurazko ispiatze moduko bat bidea, beraz, danbor hori. Horra dena. Baina geroago arte ez nuen nik hori ikasi.

Eta banoa bigarren zirrara aldira.

Joan den negu honetan, Frantzia ipar-ekialdeko baso batean. Bi ordu lehenago iritsi zen gaua, hainbestearino baitzegoen ilun zerua. Nekazari bat nuen gidari; nire ondoan zihoan, bidexka batetik, haize erauntsiak intziriak eragiten zizkien izaizko sabai baten azpian. Izai buruen artean hodeiak noraezean ikusten nituen, hodei

galduak, izumenen batetik ihesi balihoaz bezala. Zenbaitetan, haize kolpe ikaragarri baten eraginez, baso osoa etzaten zen alde berera, oinazeko intziri batez; eta hotzak hartzen ninduen, nire pauso bizkorragatik eta jantzi astunagatik ere.

Gu geunden lekutik oso urruti ez zegoen basozain baten etxean afaldu eta lo egin behar genuen. Ehizarako nindoan hara.

Nire gidariak begiak jasotzen zituen eta marmarka esaten zuen: «Eguraldi tristea!». Gero joan behar genuen etxekoez hitz egin zidan. Aitak bi urte lehenago ezkutuko ehiztari bat hil omen zuen, eta harrezkero, goibel omen zirudien, oroitzapenen batek sorgindurik bezala. Bere bi semeak, ezkonduak biak, berekin bizi zituen.

Oso-oso ilun zegoen. Ez nuen ezer ikusten ez aurrean, ez inguruan, eta elkar jotzen ari ziren zuhaitzen adarrek zurrumurru etengabe batez betetzen zuten gaua. Argi bat begiztatu nuen azkenean, eta berehalaxe zen nire laguna ate bat jotzen. Emakume oihu zoli batzuek erantzun ziguten. Gero giza ahots batek, ahots ito batek, galdetu zuen:

— Nor da?

Nire gidariak izena eman zuen. Sartu ginen. Ezin ahaztuzko koadroa zen hura.

Agure ile-zuri bat, ero-begia, fusila kargaturik eskuan zuela, geneukan zain sukalde erdian, eta bi morrosko handi, aizkoraz armaturik, ate zain. Zoko ilunetan bi emakume sumatu nituen, belauniko, aurpegia hormaren kontra ezkutaturik.

Azalpenak eman genizkien. Agureak arma horma kontra utzi, eta nire gela presta ziezadaten agindu zuen; gero, emakumeak mugitzen ez zirenez, brau bota zidan:

— Begira, jauna, gizon bat hil nuen, orain dela bi urte, gaur bezalako gauez. laz deitzera etorri zitzaidan. Gaur gauean ere haren zain nago.

Eta gero, irribarre eragin zidan doinu batez, gehitu zuen:

— Ez gaude, bada, lasai.

Ahal nuen bezala lasaitu nuen, noiz eta gau horretan iritsi nintzelako eta sineskeriazko izumen ikuskari hura ikusi ahal izango nuelako pozez.

Gertaera batzuk kontatu nituen, eta ia jende guztia lasaitzea lortu nuen.

Sukaldetik gertu, zakur zahar, ia itsu, bibote luzeko bat zegoen, ezagutzen den jendearen antza duten zakur horietako bat, lotan, muturra hanka artean zuela.

Kanpoan ekaitz amorratuak jotzen zuen etxetxo, eta beiratxo batetik, ate ondoan zegoen zirritu-zulo moduko batetik, zuhaitz anabasa multzoak ikusten nituen oinaztargi handien argitan haizeak astindurik.

Nire ahalegin guztiak gorabehera, nabari sumatzen nuen izumen handi batek hartuak zituela etxe hartakoak, eta isiltzen nintzen bakoitzeko, urrutira entzun nahiz jartzen ziren belarri guztiak. Beldur zentzugabe haiek ikustez asperturik, lotara laguntzeko eskatzera nindoan, baina horra non guarda zaharra, bere aulkitik jauzi egin eta, ahots galdu batez hasi zen:

— Hor da! hor da! entzuten dut!

Bi emakumeak belauniko erori ziren berriro beren zokoetan, aurpegia ezkutatu; eta semeek aizkorak hartu zituzten berriro. Berriro trankilitzen ahalegintzera nindoan, baina lotan zegoen

zakurra bertatik esnatu zen eta, burua jasorik, lepoa luzaturik, bere begi ia itzaliaz suetarantz begiratzuz, gauzez landatan bidaztiei dardara sartzen dieten alarau lazgarri horietako bat bota zuen. Begi guztiak hari begira jarri ziren, hura geldi-geldi zegoen, ikuspen batek sorgindurik baleuka bezala lau hanken gainean zutik, eta alarauka hasi zen berriro, gauza ikusezin, ezezagun beldurgarriren baten kontra, nonbait, zeren ile guztia lastu baitzitzaion. Guardiak, zurbil-zurbil, oihu egin zuen:

— Usaina hartu dio! Usaina hartu dio! Bera ere han zen hil nuenean.

Eta bi emakume zoratuak zakurrarekin batera alarauka hasi ziren, biak.

Nahi gabe ere ikara handi bat jaitsi zitzaidan bizkarretik behera. Animalia hura leku hartan, ordu hartan, jende erotu haien artean lazgarria zen ikusteko.

Horrela bada, ordu betez aritu zen zakurra uluka mugitu gabe; amets baten esturan bezala egiten zuen ulu; eta beldurra, beldur lazgarria, barreneraino ari zitzaidan sartzen; zeren beldu-

rra? Nik al dakit? Beldurra zen, horra, beldurra besterik ez.

Geldi-geldi geunden, zurbil, gertakizun izugarriren baten zain, belarria erne, bihotza taupadaka, edozein hotsek inarrosten gintuela. Eta zakurra gela inguruan itzulika hasi zen, hormetan usainka, eta intzirika denbora guztian. Erotu behar gintuen animalia hark! Horretan, hara eraman ninduen nekazariak haren gainera jauzi egin, halako izumen haserre baten gailenean bezala, eta korta txiki batera ematen zuen ate bat zabaldurik, kanpora egotzi zuen animalia hura.

Segituan isildu zen; eta oraindik ere beldurgarriagoa zen isiltasun batean murgildurik gertatu ginen denok. Eta bat-batean, aztoramendu bat bezala izan genuen denok batera: kanpoko hormaren kontra zerbait basorantz irristatzen ari zen; gero ate kontra igaro zen, esku herabe batez atea haztatuko balu bezala; gero ezer ez zen entzun, erabat erotu gintuzten bi minutuz; gero berriro itzuli zen, horma ozta-ozta ukituz berriro; eta arinki hazkatu zuen, haur batek azkazalaz hazkatuko lukeen bezala; gero buru

bat azaldu zen bat-batean zirritu-zuloko beiraren kontra, buru zuri bat, piztiak ohi dituzten bezalako begiekin. Eta hots bat atera zen haren ahotik, hots zehazgabe bat, zinkurin murmur bat.

Eta zarata ikaragarri bat lehertu zen sukaldetan. Guardia zaharrak tiro egin zuen. Eta semeak berehalaxe jauzi eginik, ate zirritua itxi zuten, mahai handia zutitu eta arasarekin tinkatuz.

Eta zinez diotsuet batere espero ez nuen tiro haren eztandarengatik halako estura sartu zitzaidala bihotzean, ariman eta gorputzean, non uste bainuen nireak egin zuela, beldurrez hiltzeko prest.

Eguna argitu arte geratu ginen, mugitu ezinik, hitz bat bera esan ezinik, esan ere ezinezko eromen batean zurturik.

Teilape baten zirrikitutik egunaren argi izpi bat ikusi genuen arte ez ginen ausartu sarrera hesia libratzera.

Horma ondoan, ate kontra, zakur zaharra zetzan, muturra bala batek puskatuta.

Itxiturapean zulo bat eginez irtena zen kortatik.

Gizon aurpegi-beltzarana isildu egin zen;
geroago esan zuen:

— Gau hartan, ordea, ez nuen inolako arriskurik izan; baina nahiago nukeen arriskurik handienei aurre egin behar izan diegan aldi guztiak berriro hasi, ate zirrituko aurpegi bizardunari tiro egin zioteneko minutu huraxe baino.

(1882ko urriaren 23an)

Otsoa

Hona zer kontatu zigun Arvilleko markes zaharrak Saint-Huberteko afari bukaeran, Ravels-eko baroiarenean.

Egun hartan orein bat ehizatzen arituak ginen. Markesa zen, afaltiarren artean, ehizaldi hartan parte hartu ez zuen bakarra, hark ez baitzuen inoiz ehizan egiten.

Oturuntza handi hark iraun zuen guztian animalia triskantzaz baizik ez zen ia hitz egin. Emakumeak berak ere interesaturik zeuden kontaktuzun odolgirozko eta sarritan sinestezinezko horietan, eta kontalariek gizonen eta piztien arteko eraso eta guduak irudikatzen zituzten, besoak jasotzen zituzten, trumoiaren gisako ahotsez kontaktzen zituzten.

Arvilleko jauna ongi mintzatzen zen, halako poesia hanpurutsu samar baina eraginkor batez. Askotan errepikatua zuen inondik ere historia hau, segidan kontaktzen baitzuen, kontatu ere, irudia ongi ekartzeko trebezia aukeratutako hitzetan inoiz zalantzarik egin gabe.

— Nik, jaunak, ez dut inoiz ehizan egin, nire aitak ere ez, aitonak ere ez, eta ezta birraitonak ere. Hura, ordea, zuek guztiok batera baino ehiza gehiago egindako baten semea zen. 1764an hil zen. Esango dizuet nola.

Jean zuen izena, ezkondua zen, nire birraitona izandako haur haren aita, eta bere anaia gazteen François d'Arville-rekin bizi zen, gure Lorrenako gazteluan, baso-basoan.

François d'Arville ezkongabe geratu zen, ehi-zarako zalez.

Urte hasieratik amaia arte ibiltzen ziren biak ehizan, atsedetik gabe, gelditu gabe, nekatu gabe. Horixe besterik ez zuten maite, ez zuten besterik ulertzen, ez zuten beste ezertaz hitz egiten, horretarako baizik ez ziren bizi.

Grina ikaragarri errukigabe horixe zuten bihotzean. Grina horrek erretzen zituen, osorik hartuak zituen, eta ez zien beste ezertarako lekurik uzten.

Debekatua zuten ehizan zebiltzan bitartean beste ezerengatik, ezergatik ere, artega zitza-ten. Nire birraitona bere aita azeri baten ehizan ari zela jaio zen, eta Jean d'Arvillek ez zuen,

horregatik, bere lasterketa gelditu, honela jaulki baizik: «Ala Jainkoa, zirtzil horrek ere bazian ehiza bukaerako turutari itxarotea!»

Haren anaia François hala ere, hura baino ere sutsuago zen horretarako. Jaikitzen zenetik, zakurrak begiratzera joaten zen, gero zaldiak, gero txori-tiroka aritzen zen gaztelu inguruan, piztia handiren bat ehizatzeako ordua iristen zen arte.

Inguruko luraldeetan Markes jauna eta Gaztea deitzen zieten, garai hartako nobleek ez baitzuten gaur egungo hala-holako nobleek bezala egiten, tituluen artean goitik beherako hierarkia bat ezarri nahi baitute; zeren markes baten semea ez baita konde, ezta bizkondearena baroi ere, jeneral baten semea jaiotzez koronel den baino gehiago. Baina gaur egungo handikeria ziztrinak onura aurkitu du konponbide horretan.

Banator berriro nire arbasoetara.

Oso handiak ziren, itxura denez, hezurtsuak, iletsuak, bortitzak eta azkarrak. Gaztea handiagoa zen zaharrena baino, eta hain zuen ozena ahotsa, non, bera ere harro zegoen esaera batek

zioenez, oihaneko hostoak inarrostean hasten baitziren denak, hark oihu egiten zuenean.

Eta haiek biak zaldira igo eta ehizara abiatzeko prestatzen zirenean, ikusteko miresgarria izango zen erraldoi haiek biak beren zaldi handien gainean igota ikustea.

Horrela, bada, 1764. urte hartako negu erdi aldera, gehiegizko hotzak izan ziren, eta otsoak oso ankertu ziren.

Nekazari berandutuei ere erasotzen zieten, gaez etxe inguruetara etortzen ziren, eguzkia ezkututzen zenetik jaikitzen zen arte uluka aritzen ziren, eta ukuiluak husten zituzten.

Eta zurrumurru bat zabaldu zen berehala. Otso erraldoi bat aipatzen zen, ile gris, ia zurikoa, dagoeneko bi haur jana, emakume bati besoa kendua, eskualde hartako ate zakur guztiak itoa, eta inolako beldurrik gabe sartzen zena itxituretan barrena, atepetik usaina hartzera joateko. Hango biztanleek esaten zutenenez, denek entzun omen zuten haren hatsa argiaren garra dardararazten. Eta handik gutxira izumena zabaldu zen probintzia osoan. Gaua zetorrenetik

inor ez zen ausartzen kanpora ateratzen. Iluntasunak piztia haren irudiak sorgindua zirudien.

Arvilleko anaiek piztia hura aurkitu eta hiltzea deliberatu zuten, eta eskualde hartako aitonen seme guztiak gonbidatu zituzten ehizaldi handietara.

Alferrik izan zen. Alferrik jotzen ziren basoak, alferrik miatzen sasiarteak, ez zuten aurkitzen. Otsoak hiltzen zituzten, hura ez ordea. Eta ehiza ondoko gau bakoitzean, mendekuz bezala, bidaztiren bati erasotzen edo ganaduren bat hiltzen zuen piztia hark, haren bila aritutako lekutik urruti betiere.

Gau batean, azkenik, Arvilleko gazteluko zerritegian sartu zen, eta bi kumerik ederrenak jan.

Bi anaiak haserrez sutu ziren, eraso hori munstro haren harrokeriatzat, iraintzat, zuzeneko erronkatzat harturik. Piztia beldurgarrienei jarraitzen ohituak zeuden ehiza zakur sendoenak hartu, eta ehizara abiatu ziren, bihotza amorruz beterik.

Egun urratzetik eguzki gorritua zuhaitz handi biluztuen atzean etzan zen arte, sasiarte guztiak jotzen aritu ziren, ezer aurkitu gabe, ordea.

Bazetozen, azkenean, biak, haserre eta etsita, beren zaldien pausoan, bazterrak sastrakaz beterik zituen bide batetik, eta harriturik zeuden otsoak beren jakintzagatik ere itzuri egin zielako, bat-batean halako errezelo misteriozko bat nagusitu zitzaielarik.

Zaharrenak zioen:

— Piztia hori ez duk nolana hiko. Gizonak nola, berdin-berdin pentsatzen duela ematen dik.

Gazteak erantzun zion:

— Beharbada bala bat bedeinkarazi beharko geniokek gure lehengusu apezpikuari, edo apai-zen bati eskatu behar diren hitzak esan ditzan.

Eta isildu egin ziren.

Jean hasi zen berriro:

— Begira eguzkia zein gorri dagoen. Otso handi horrek hondamenen bat egin behar dik gaur gauean.

Hitz horiek esan baizik ez zuen egin, zaldia asaldu zen; Françoisena oldarrean abiatu zen.

Orbelez estalitako sasitza bat zabaldu zen haien aurrean, eta piztia erraldoi bat, guztia grisa, atera zen eta ihesi abiatu zen basoan zehar.

Bi-biek halako poz marraska bat bota zuten, eta beren zaldi astunen lepo gainerantz makurturik, beren gorputz osoaren bultzadaz bultzatu zituzten aurrera, eta halako oldarrez abiarazi zituzten, beren ahotsaz, keinuaz eta ezproiaz akuilatuz, non bai baitzirudien zaldun indartsu haiek izter artean harturik zeramatzatela beren zamari astunak, hegan balihoaz bezala.

Hala zihoazen, sabela lurrerantz, sasiak zultatuz, arrailak igaroz, maldak igoz, zintzurretan behera irristatuz, eta adarra bularraren hauspo beteaz joz, gainerako jendea eta zakurrak erakartzeko.

Eta horra non, bat-batean, lasterka ero horretan, nire arbasoak kopetaz zuhaitz adar handi bat jo, eta burezur guztia arraildu; zerraldo erori zen lurrera; zaldiak, berriz, eroturik ihes egin zuen, oihana biltzen zuen ilunpean desagertzeko.

Arvilleko anaia gaztea bertan geratu, lurrera jauzi egin, bere anaia beso artean jaso, eta zau-

ritik odolarekin batera burmuina zeriola ikusi zuen.

Gorpuaren ondoan eseri zen, jarri zuen bere belaunetan buru itxuragabetu gorria, eta anaia zaharrenaren aurpegi mugimen gabeari begira geratu zen. Poliki-poliki beldurra ari zitzaion jabetzen, ordu arte inoiz sentitu ez bezalako beldur berezi bat, ilunpearen beldurra, baso mortuaren beldurra, eta mendeku hartzeko anaia hil berri zion otso amesgaiztozkoaren beldurra.

Iluntasuna loditzen ari zen, hotz bortitzak zuhaitzak kraskarazten zituen. François jaiki zen, ikaraz, han luzaroago ezin egonik, ia erkintzen ari zela sentiturik. Ez zen ezer entzuten, ez zakurren hotsik eta adarrenik, dena mutu zegoen odaiertz ikusezinean; eta gaueko isiltasun hits horrek bazuen zerbait beldurgarria, zerbait ohi ez bezalakoa.

Bere erraldoi eskuetan Joanen gorputz handia hartu, zutitu, eta zaldi zelan etzan zuen gaztelura eramateko; eta geldiro-geldiro abiatu zen oinez, gogoia nahasturik uher balu bezala, irudi ikaragarri harrigarriak oldartuko balitzaizkio bezala.

Eta, bat-batean, gaua beretzen ari zen zidorrean zehar ikaragarritzko isla bat igaro zen. Piztia zen. Laztura batek inarrosi zuen ehiztaria; gauza hotz bat, ur tanta bat bezala, jaitsi zitzaion bizkarretik behera, eta deabruak izutu-tako fraide batek nola, gurutze santuaren handi bat egin zuen, usnalarri beldurgarria bat-batean itzultze hark eroturik. Baina aurrean etzanik zuen gorpu hilera erori zitzaizkion begiak, eta kolpetik, beldurretik haserrera bat-batean aldaturik, amorru ordenagabe batez dardaratu zen.

Zaldia ziztatu zuen, bada, eta otsoari oldartu zitzaion.

Txara, erroitz eta oihan artetik jarraitu zion, ezagutzen ez zituen basoetatik igaroz, lurrera jaitsia zen gauean zehar ihesi zihoan orban zuri hartatik begia kendu gabe.

Indar eta su ezezagun batek hartua zirudien zaldiak ere. Lepoa tinko, bere aurrean zuzen zuela, zihoan galapan, zelan trabes jarria zuen hildakoaren buruak zuhaitzak, haitzak jotzen zituela. Sasiek ileak erauzten zizkioten, beko-kiak, enbor gaitzak jotzen zituela, odolez zipriz-

tintzen zituen; ezproiek zuhaitz azal zerrendak urratzen zituzten.

Eta, horretan, animalia eta zalduna biak atera ziren basotik eta ibartxo batean sartu ziren itsumustuan, ilargia mendien gainetik azaltzen ari zen une berean. Ibartxo hura harritsua zen, bi haitz handik ixten zuten, ez zuen irteerarik; eta otso inguratua itzuli egin zen.

François-ek pozezko alarau bat bota zuen orduan; oihartzunak oinaztargiaren trumoia bezala errepikatu zuen, eta zalditik jauzi egin zuen, aiztoa eskuan zuela.

Piztia zain zegoen, ilea lazturik, bizkarra biribil; begiek izarrak balira bezala egiten zioten dizdiz. Baina, gudua hasi aurretik, ehiztari indartsuak, bere anaiari oraturik, haitz baten gainean eseri zuen, eta odol orban bat baizik ez zen haren burua harri batzuek tinkaturik, belarrira oihu egin zion, gor bati hitz egiten ari balitzaio bezala:

— Begira, Jean, begira hau!

Eta munstroari oldartu zitzaion. Indarrean sentitzen zen, mendia azpikoz gora jartzeko lain, harriak esku artean ehotzeko lain. Piztiak hozka

egin nahi izan zion, sabeletik heltzeko asmoz, hark ordea lepotik heldurik zeukan, arma erabili ere gabe, eta astiro itotzen zuen, haren eztarriko hatsak eta haren bihotzaren taupadak gelditzen entzunez. Eta barre egiten zuen, eroki gozatzuz, bere besarkada ahaltzua geroz eta estuago-tuz, pozezko eromen batean oihuka:

— Begira, Jean, begira hau!

Erresistentzia guztiak amaitu ziren, otsoaren gorputza belaxka bilakatu zen. Hilik zegoen.

François-ek hartu zuen, orduan, bi besoetan, eta bere anaia zaharrenaren oinetan bota zuen, ahots samurtu batez hari esanez:

— To, to, Jean, to, hor duk!

Gero bere zela gainean bi gorpuak bata bestearen gainean jarri, eta bideari ekin zion berriro.

Barrez eta negarrez itzuli zen gaztelura, Gargantua Pantagruelen jaiotzan bezala, piztiaren hilketa kontatzean garaipen oihuak jaurtiz eta poz jauziak eginez eta anaiaren heriotza kontatzean bere bizarrak erauziz.

Eta geroago, egun hartako gertaerez berriro hitz egiten zuenean, hitzok esaten zituen askotan, begietan malkoak zituela:

— Jean gaixo horrek hura itotzen ikusi ahal izan banindu behintzat, pozik hilko zen, ziur naiz!

Nire arbaso haren alargunak ehizaren gorrotoa sartu zion bere seme zurtzari, eta hala heldu da nireganaino gorroto hori.

Arvilleko markesa isildu zen. Norbaitek galdetu zuen:

— Historia hori elezaharra da, ezta?

Kontalariak erantzun zion:

— Zin dagizut egia dela buruz buru.

Eta emakume batek ahostxo goxo batez adierazi zuen:

— Berdin dio, gauza ederra da horrelako gri-nak izatea.

(1882ko azaroaren 14an)

Menuet

Paul Bourget-i.

Zorigaitz handiek ez naute ia batere trista-tzen, esan zuen Jean Bridelle, sinesgogortzat hartua zegoen mutilzaharrak. Oso hurbiletik ikusia dut gerra; batere gupidarik gabe igarotzen nintzen gorpuen gainetik. Izadiaren edo gizonen ankerkeria bortitzek laztura eta sumindura eragin dezakete, baina ez dizute eragiten gauzatxo etsigarri batzuk ikustean bizkarrean eragiten dizun hozkirri hori.

Izan daitekeen oinazerik bortitzena ama batek haurra galtzea, edo gizon batek ama galtzea da, dudarik gabe. Hori gauza bortitza da, ikaragarria, horrek azpikoz gora jartzen zaitu, urratu egiten zaitu; baina hondamen horietatik sendatu egiten zara, odol zaurietatik bezala. Hain zuzen ere, badira topaketa batzuk, ikusi-ez ikusiz sumatzen ditugun gauza batzuk, atsekabe sekretu batzuk, zoriaren okertze batzuk, gure baitan gogoeta mundu mingarri bat eragiten

dutenak, gure aurrean bat-batean sufrimendu moralaren ate misteriozkoa zabaltzen digutenak, oinaze moral korapilatuak, sendaezinak, are sakonagoak arinak baitirudite, are erreagoak ia ezin atxikizkoak baitirudite, are zitalagoak gezurrezkoak baitirudite, halako tristura ildo bat uzten digutenak ariman, halako garraztasun zantzu bat, halako etsimen bat, luzarora baizik ezin ken dezakeguna.

Nik baditut beti begien aurrean bizpahiru gauza beste zenbaitek ziur aski erreparatu ere egingo ez lituzketenak, baina nire baitan ziztada luze mehe sendaezinak balira bezala sartu zaizkidanak.

Zuk ez didazu ulertzen beharbada sentimen bizkor horietatik geratu zaidan zirrara. Bat kon-tatuko dizut, besterik ez. Oso zaharra da, baina atzokoa balitz bezain bizia. Baliteke nire samur-tze honen errudun nire irudimena baizik ez iza-tea.

Berrogeita hamar urte ditut. Garai hartan gazte nintzen eta zuzenbide ikasketak ari nin-tzen egiten. Triste samarra, ameslari samarra, malenkoniako filosofia batez beratua nintzen,

ez nituen atsegin ez kafetegi zaratatsuak, ez lagun oihulariak, ez neska tuntunak. Goiz jaikitzen nintzen; eta goizeko zortziak aldera Luxembourg-eko mintegian bakarrik paseatzea nuen nire gozamenik handienetako bat.

Ez al duzue ezagutu, zuek, mintegi hura? Beste mende batetik ahaztuta utzitako lorategi bat bezala zen, atso xahar baten irribarre gozoa bezalako lorategi polita. Hesi hostotsuz bereziak ziren bide estu ordenatuak, bide bareak, zehazki eta arauz inausitako bi horma hostotsuren artean. Lorategi zainaren aihotz zorrotzak etengabe ezartzen zituen lerroan adar itxitura haiek; eta, zabalgunez zabalgunez, lore multzoak aurkitzen ziren, edo zuhaixka zerrendak ibilaldi bat egiten ari diren eskolaumeak bezala zerrendan jarriak, arrosa landare bikainak edo fruitu arbolazko erregimentuak.

Basotxo zoragarri horren bazter oso batean erleak bizi ziren. Haien lastozko etxe, oholetan zentzuz zabalduak eguzki aldera irekirik zituzten beren ate titare baten tamainakoak; eta bide guztietan barrena aurkitzen ziren zomorro burrunbari urre-koloreko horiek, baketegi haren

egiazko jabeak, ibilbide eta zidor haietako egiazko pasealariak.

la goizero joaten nintzen hara. Aulki batean eseri eta irakurri egiten nuen. Batzuetan, hala ere, liburua belaunetara erortzen utzi eta ametsetan hasten nintzen, nire inguruan Paris bizitzen entzuteko eta antzinako erako hostape haietan amaigabeko atsedeen bat hartzeko.

Baina berehala ohartu nintzen ez nintzela leku haietara langa zabaltzen zutenetik bertatik joaten zen bakarra, eta aldian behin aguretxo berezi bat topatzen nuen aurrez aurre lore multzo baten ertzean.

Zilarrezko belarridun oinetakoak erabiltzen zituen, galtza bularrekodunak, lebita tabakokolorea, Espainiako modura, farfaila zerrenda bat gorbata gisa, ile luzeko kapelu gris hegalezabal bat, euritea gogora ekartzen zuena.

Iharra zen, oso iharra, hezurtsua, keinukaria eta irribarretsua. Haren begi biziek betazalen mugimendu etengabe baten azpian taupadaka egiten zuten, dardaraz; eta urrezko kirtendun eskumakila bikain bat zuen beti aldean, beretzat

inondik ere oroitzapen zoragarriren bat zekarkiona.

Agure hark harritu egin ninduen hasieran, gero neurritz goitiko jakingura piztu zidan. Eta hostozko hormetatik zehar zelatatzen nuen, eta urrutitik jarraitzen nion, ikus ez nintzan basotoxen ertzean geldituz.

Eta horra non, goiz batean, bere ustez baka-
rrik zegoela, mugimendu bitxi batzuk egiten hasi
zen: jauzitxo batzuk hasieran, gero erreberentzia
bat, ondoren dantza gurutzatu oraindik aski
bizi bat dantzatu zuen bere hanka mainguz,
gero jiraka hasi zen galaiki, saltotxoka, modu
harrigarri batean higituz, bere txotxongilo gor-
putz xumea kiribilkatuz, aurre hutsera agur
samurgarri eta irrigarriak eginez. Dantzan ari
zen!

Harriduraz zurturik geratu nintzen, bietan nor
zen zoro neure buruari galdetuz, hura ala ni.

Baina bat-batean gelditu zen, antzezlaria
antzezlekuan bezala aurreratu zen, makurtu
zen, eta irribarre sotilak egiten zituen eta
musuak botatzen antzezlarien gisa, bere esku
ikaratiaz, zuhaitz inausizko bi ilaretarantz.

Eta seriotasun handiz hasi zuen berriro bere paseabidea.

Egun horretatik aurrera ez nion gehiago begia kendu; eta goizero-goizero ekiten zion berriro bere ariketa funtsik gabeko hari.

Harekin hitz egiteko gogo ero bat sartu zitzaidan. Arriskatu nintzen, eta diosal eginik, esan nion:

— Eguraldi ona dugu gaur, jauna.

Makurtu egin zen.

— Bai jauna, garai bateko eguraldi on egiazkoa hain zuzen.

Handik zortzi egunera adiskide eginak ginen, eta haren historia ezagutu nuen. Dantza irakasle izana zen Operan, Luis XV.aren garaian. Esku-makila bikain hura Clermont-eko kondearen oparia zuen. Eta dantza aipatzen zitzaionean, ez zuen hitz jarioa eteten.

Hona zer kontatu zidan egun batean:

— Ni Castris-ekin ezkondu nintzen, jauna. Egingo dizut haren ezaguera, nahi baduzu, baina oso noizean behin baizik ez da etortzen hona. Lorategi hau dugu gure atsegina eta gure bizi-

tza. Hauxe dugu lehenagoko garaietatik geratzen zaigun gauza bakarra. Iruditzen zaigu hau ez bagenu ezingo ginatekeela bizi. Zaharra eta dotorea da, ezta? Nire gaztarotik ezertan aldatu ez den giro bat arnasten dudala iruditzen zait hemen. Emazteak eta biok arratsalde guztiak igarotzen ditugu hemen. Ni, ordea, goizetik etortzen naiz, oso goiz jaikitzen naiz eta.

Bazkaldu nuen bezain laster Louxembourgeko lorategira itzuli nintzen, eta berehala ikusi nuen nire adiskidea, amonaxo beltzez jantzi bati besoa emanez, eta harengana aurkeztu ninduen. Castris zen, printzeek, erregeek, munduan maitasun urrin bat utzi zuela dirudien mende galai hark guztiak maite izan zuen dantzari handia.

Harrizko aulki batean eseri ginen. Maiatza zen. Lore usain gozo bat zebilen zirimolan bide-txo garbietan; eguzki eder bat irristatzen zen hostoen artetik, eta argitasun tanta zabalak ereiten zituen gure gainean. Castrisen jantzi beltzak argitasunez blai zirudien.

Lorategia hutsik zegoen. Alokairuko zalgurdi-entzuten hotsa entzuten zen urruti.

— Azal iezadazu, bada —esan nion nik dantzari zaharrari—, zer zen menueta?

Dardara egin zuen.

— Menueta, jauna, dantzen erregina da, eta erreginen dantza, ulertzen? Erregerik ez denez gero, menuetik ez da.

Eta batere ulertu ez nion goraipamen ditirandiko luze bat hasi zuen hizkera hanpurutsu batez. Pausuak, mugimendu guztiak, jarrerak azaltzeko eskatu nion. Nahastu egiten zen, bere ezintasunean suturik, urduri eta nahigabeturik.

Eta horretan, bat-batean, bere behinolako lagun isil begiratuarengana itzulirik:

— Elisa, nahi al duzu, arren, nahi al duzu, egingo al didazu mesede, nahi al duzu jaun honi menueta zer zen erakuts diezaiozun?

Bere begi urduriak alde guztietarantz bihurtu zituen, jaiki zen hitzik esan gabe, eta gizonaren aurrean jarri zen.

Eta ezin ahaztuzko gauza bat ikusi nuen orduan.

Haurren milikeriak eginez zebiltzan harahona, elkarri irribarre egiten zioten, balantza egiten zuten, makurtzen, jauziak egiten, antzinako mekanika apurtu samarren batek, behinola tre-bezia handiko langileren batek bere garaiko modura eginak, dantzarazten zituen bi panpina zahar bailiran.

Eta bihotza sentimen bereziz aztoratua nuela, arima melankolia esan ezinezko baten zirrara-pean nuela nengokien begira. Agerpen negargarri eta barregarri bat zirela iruditzen zitzaidan, mende baten itzal modatik joana. Barre egiteko gogoia nuen, eta negar egiteko beharra.

Bat-batean gelditu ziren. Dantzako irudiak bukatuak zituzten. Zenbait segundoz zutik geratu ziren, bata bestearen aurrean, modu harrigarri bateko keinuak eginez; eta gero zotinka besarkatu zuten elkar.

Handik hiru egunera probintziara nindoan. Geroztik ez ditut ikusi. Handik bi urtera berriro Parisa itzuli nintzenean, mintegia ezabatua zen. Zer bilakatu ote dira haiek, beren behinolako

lorategi maitatu hura, bere labirinto bideekin,
bere antzinako urrinarekin eta bere bihurgunee-
tako hostape haiekin, dena galdua?

Hilik ote dira? Kale modernoetan ote dabilta
hara-hona esperantzarik gabeko erbesteratuak
bailiran? Menuet fantastikoren bat dantzatzen
ari ote dira, argimutil espektro, hilerriren bateko
altzifreen artean, bide hilobiz inguratuetan
zehar, ilargiaren argitan?

Haien oroitzapenak sorgindurik nauka, harra-
paturik nauka, zauri bat bezala dut nire baitan.
Zergatik? Ez dakit.

Barregarri irudituko zaizue hau guztia, ezta?

(1882ko azaroaren 20an)

Saint-Michel Mendiko elezaharra

Cancaletik ikusi nuen lehendabizikoz, itsasoa landaturik dagoen laminen gaztelu hori. Zehaztasun gabe ikusi nuen, itzal grisa zero lainotsuaren kontra zutitua.

Avranches-etik ikusi nuen berriro, eguzkia sartzean. Hondar eremu mugagabea gorri zegoen, odaiertza gorri zegoen, badia neurrigabe osoa gorri zegoen; abadia maldatsua, han, jauregi fantastiko bat bezala lurretik urruti baztertua, ametsezko palazio bat bezala harrimen eragilea, uste ezin bezalako berezi eta ederra, hura baizik ez zen geratzen ia beltz hiltzen ari zen egunaren purpuretan.

Biharamun goizean eguna argitzearekin joan nintzen harantz, hondarretan zehar, begia harribitxi itzelezko, mendia bezain handi, kameu bat bezala zizelatu eta muselina bezain arin hartarantz tinkaturik. Gertuago eta miresmenak goituago sentitzen nintzen, munduan ez baita ezer,

agian, hura baino gauza harrigarriagorik eta bikainagorik.

Eta harantz-honantz ibili nintzen, txunditurik, jainko baten gela topatu izan banu bezala, zutabe arin edo astunek eusten zieten areto haietan zehar, pasabide argitara zabaldu haietan, zerura jaurtitako suziriak ziruditen ezkila dorre haietara eta dorretxo, zurrut-harri, apaindura lirain eta xarmagarritzko nahaste hartara guztira, harrizko bolanderak, granitozko farfailak, arkiteturazko maisulan itzelezko eta fin ziren haietara guztietara nire begiak jasorik.

Estasian bainengoen, behe-normandiar nekazari bat ondoratu zitzaidan, eta San Migelek deabruarekin izandako eztabaida handiaren historia kontatu zidan.

Eszeptiko burutsu batek esana du: «Jainkoak bere irudira egin zuen gizona, baina gizonak ederki eman dio ordaina».

Hitz horiek egia eterno bat dute, eta oso gauza jakingarria izango litzateke kontinente bakoitzean hango jainkoaren historia egitea, eta gure probintzietako patroien historia orobat. Beltzak idolo ankerrak ditu, gizon-jaleak; mahoma-

tar poligamoak emakumez betetzen du bere paradisua; grekoek, jende praktikoa izaki, grina guztiak jainkotu zituzten.

Frantziako herritxoek zeinek bere santu patroia du zaindari, zeinek bertako biztanleen irudira moldatua.

San Migel Behe-Normandiako zaindaria da, San Migel, aingeru distiratsu gailena, ezpataduna, zeruetako heroia, garailea, Satanen menderatzailea.

Baina hona nola ulertzen eta kontatzen duen behe-normandiar maltzur zuhurak santu handi horrek deabruarekin izandako borroka.

«Bere auzo deabruaren gaiztakerietatik babesteko, San Migelek bere kabuz jaso zuen, itsasoaren erdian, goiaingeru baten dina izango zen egoitza hau; eta horrelako santu batek baik ezin zezakeen, zinez, honelako bizilekurik eraiki beretzat.

Baina oraindik ere deabruaren hurbiltasunaren beldur zenez, itsasoa bera baino gaiztoago diren hondar higikariz inguratu zuen bere etxaldea.

Deabrua etxola apal batean bizi zen itsasertzean; baina deabruak zituen ur gaziz bustitako belardiak, uzta astunak biltzen diren lur gozo ederrak, ibar aberatsak eta eskualde hartako guztiko malda emankorrak; santuak, berriz, hondarra baizik ez zuen bere mende. Eta hala Satan aberatsa zen, eta San Migel eskale bat bezain txiro.

Urtetan barau eginik egoera horretaz aspertua zen santu hura, eta deabruarekin hautsimautsi bat egitea deliberatu zuen; ez zen, ordea, gauza erraza, Satanez beretzat nahi baitzituen bere uztak.

Sei hilabetez gogoetan aritu zen; gero, goiz batean, lehorrerantz abiatu zen. Deabrua ate aurrean zopa jaten ari zen santua ikusi zuenean; ber-bertatik joan zitzaion bidera, haren mahukaren ertzari muin egin zion, etxera sartu zuen eta zerez freskatu eskaini zion.

Katilu bat esne edan ondoren, San Migelek hartu zuen hitza.

— Tratu on bat proposatzera etorri natzaik.

Deabruak, sinesbera eta mesfidantzarik gabe, erantzun zion:

— Interesetzen zaidak.

— Hona. Hik hire lur guztiak utziko dizkidak. Satanez, kezkatu, hitz egin nahi izan zuen:

— Baina...

Santua berriro hasi zen.

— Entzun lehendabizi. Hik heure lur guztiak utziko dizkidak. Nire ardura izango duk haiek zaintzea, lan egitea, maneatzeko, eritea, ongaitzea, dena, eta uzta erdi bana banatuko diagu. Ados haiz?

Deabruak, berez nagia baitzen, ongi iritzi zion.

Mendi bakarti haren inguruan arrantzatzen diren barbarin aho-gozagarri haiek baturik ez zizkion eskatu, tratua gehigarri. San Migelek arrainak agindu zizkion.

Elkarren eskua jo zuten, alboka listu egin zuten, tratua egin zela adierazteko, eta berriro hasi zen santua.

— Begira, ez diat nahi niregatik zertaz kezka izan dezan. Aukera ezak zer nahi duan: uztatik lur gainean geratzen dena ala lur azpian geratzen dena.

— Lur gainean geratzen dena hartzen diat —
esan zuen deabruak.

— Ados nauk —esan zuen santuak.

Eta alde egin zuen.

Horrela bada, handik sei hilabetera, deabruaren sail itzelean azenarioa, arbia, tipula, terebuzza baizik ez ikusten, sustrai lodiak eta jateko onak dituzten landareak den-denak, hostoak gehienez ere abereak bazkatzeko erabiltzen direnak.

Satanentzat ez zen ezer izan, eta kontratua hautsi nahi izan zuen, San Migeli “maliziati” deituz.

Santua, ordea, labore lanetara zaletua zen; deabruarengana jo zuen berriro:

— Ziur esaten diat ez naizela horretaz gogoratu ere egin; berez gertatu duk horrela; ez duk nire erruz izan. Eta horren ordaina emateko, lur azpian geratzen den guztia hiretzat hartzeko eskaintzen diat aurten.

— Ados nauk —esan zuen Satanek.

Hurrengo udaberrian, Gaitzaren espirituaren lurralde guztiak bete-beterik zeuden gari lodiz, ezkila dorreak ziruditen olo gizenez, lihoz, koltza

ederrez, hirusta gorritz, ilarrez, azaz, orburuz, bihitan edo fruitutan eguzkitara ontzen den guztiaz.

Oraingo honetan ere ez zen ezer ere izan Satanentzat, eta erabat haserretu zen.

Bere belardiak eta bere soroak berriro hartu zituen, eta gor egin zien bere auzoaren hasibide berri guztiei.

Urte oso bat joan zen. Bere bizileku bakane-tik urrutiko lur emankorrari begira egoten zen San Migel, eta deabrua bere lanak zuzentzen, uztak jasotzen, bihia jotzen ikusten zuen. Eta amorratzen ari zen, bere ezintasunean sumindurik. Satani gehiago iruzur egin ezin zionez, haren mendeku hartzea erabaki zuen, eta hurrengo astelehenean afaltzera etortzeko gonbidatzera joan zitzaion.

— Beharbada ez duk oso zori onik izan nirekin izan dituan tratuetan —esan zion—, bazekiat, baina ez niake nahi horregatik gure artean inolako aiherkunderik izaterik, eta etorriko haiz nirekin afaltzera. Gauza onak emango dizkiat jateko.

Satanez, nagi bezain jatun ona baitzen, bertatik onartu zion. Esandako egunean, bere jantzi-

rik ederrenez jantzi eta Mendira bidea hartu zuen.

San Migelek mahai bikain baten aurrean eserarazi zuen. Oilar gandorrez eta giltzurrunez betetako opil bat atera zuten lehendabizi lukainkatarako haragi albondigekin, ondoren bi barbarin lodi gurinetan, gero indioilar zuri bat ardotan gozatutako gaztainaz betea, gero arkume izter gazitu bat, gozokia bezain guria; gero ahoan urtzen diren barazkiak eta opil gozo beroa, lurrunarekin halako gurin urrin bat zabaltzen zuena.

Sagardo huts tanta bat, apartsua eta gozoa, eta ardo gorri hordigarria, eta plater bakoitzaren ondoren zurrut bat egiten zitzaion sagar-pattar zahar gozoari.

Kutxa-zuloak bezalaxe jan eta edan zuen deabruak, hainbestearino non beharrak izan baitzituen.

Orduan, San Migelek, beldurgarri jaikirik, trumoi ahots batez egin zion oihu:

— Nire aurrean, gero! Nire aurrean, koldar hori! Nire aurrean... ausartzen haiz...

Satanek, eroturik, ihes egin zuen, eta santuak, makila bat harturik, atzetik jarraitu zion.

Areto sabai-apaletan zehar lasterka, zuta-been inguruka, airean zihoazen zurubietan gora, erlaitzetan galapan, zurrut-harriz zurrut-harri jauzika. Deabru gaixoa, arima erdiratzeko moduan gaixoturik, ihesi zebilen, santuaren etxea zikinduz. Azkenik azkeneko terrazan aurkitu zen, goren-gorenean, badia zabal-zabala bere urrutiko hiri, bere hondardi eta bere belardiekin ikusten den lekuan. Ezin zuen gehiago ihes egin, eta santuak, atzetik ostikada amorratu bat jorik, bala baten gisa jaurti zuen espazioan zehar.

Gezia bailitzan igaro zuen zerua, eta Mortaingo hiriaren aurrean erori zen azkenik astun-astun. Haren kopetako adarrak eta haren atale-tako erpeak sakoneraino sartu ziren haitzean, eta betiko gorde dira han Satanen eroriko haren aztarrenak.

Herren jaiki zen, menderen mendeko elbarri-turik; eta, Mendi zoritxarreko hura, eguzkiaren sartzean harkaitz orratz bat bezala zutitua, urrutitik ikusten zuela, ongi bai ongi ulertu zuen beti menderatuko zutela borroka berdingabe hartan, eta hanka narraska zuela aldegin zuen, bere

soroak, bere maldak, bere ibarrak eta bere belardiak etsaiari utzirik.

Eta horra nola menderatu zuen San Migelek, normandiarren zaindariak, deabrua».

Beste herri batek beste eraren batera amestuko zukeen gudu hori.

(1882ko abenduaren 19an)

Gabonetako ipuina

Bonenfant doktorea bere oroimenean bila ari zen, ahopeka errepikatuz: «Gabonetako oroitzapen bat?... Gabonetako oroitzapen bat?...»

Eta bat-batean jaulki zuen:

— Badaukat bat, eta ondo berezia gainera; harrigarrizko historia da. Mirari bat ikusia naiz! Bai, andreak, mirari bat, Gabon gauez.

Harriturik zaudete niri horrela hitz egiten entzunda, ezertan sinesten ez dudalako. Eta hala ere mirari bat ikusia naiz! Ikusi, esan nuen berriro, ikusi, neure begiez, ikusi esaten dena.

Harritu nintzen? ez; zeren zuen sinesteetan sinesten ez badut ere, fedean badut sinestea, eta badakit gauza dela mendiak mugitzeko. Adibide asko atera nezake; baina haserretu egingo zintuzketet, eta nire historiaren zirrara arintzeko arriskua izango nuke gainera.

Aitortu beharra dizuet lehendabizi ikusi nuen hark askorik konbentzitu eta erlijiora aldatu ez baninduen ere, berebiziko zirrara eragin zidala hala ere, eta laño-laño azaltzen ahaleginduko

natzaizue, auverniar baten sineskortasuna banu bezala.

Herri mediku nintzen garai hartan, eta Rollevilleko herri txikian bizi nintzen, Normandia erdi-erdian.

Izutzeko negua egin zuen urte hartan. Azaro bukaeratik bertatik hasi zuen elurra, astebetetz izotza izan ondoren. Urrutitik ikusten ziren iparretik hodei lodiak nola zetozen, eta maluta erortze zuria hasi zen.

Gau bakar batean zabaldi osoa estali zuen.

Emakumeak, beren korta karratuetan, beren zuhaitz antzigarrez hautseztatuzko errezelen atzean bakarrik, loak harturik ziruditen apar lodi arin haren metatzearen azpian.

Zarata batek ere ez zuen igarotzen landa geldia. Beleak bakarrik zebiltzan, taldeka, zeruan arku luzeak eginez, beren bidea alferrik bilatzen, denak batera alor zurbiletara jaisten eta beren moko handiez elurrari mokoka eginez.

Denbora guztian erortzen ari zen hauts haren lerratze zehazgabe beti jarraitua baizik ez zen entzuten.

Zortzi egun oso-oso iraun zuen horrek, eta elur-jasa atertu egin zuten. Bost oin lodiko estalkia zuen lurrak bizkarrean.

Eta hurrengo hiru asteetan zero argi bat, egunez kristal urdina bezalakoa, eta, gauez, antzizarrezkoak esango lirartekeen izarrez jositakoa, hain baitzen giro laborria espazio zaballean, zabaldu zen elurrezko geruza trinko, gogor, distiratsuaren gainean.

Zabaldia, hesiak, itxituretako hormak, hila zirudien denak, hotzak hila. Ez gizonik ez abereirik ez zen irteten: alkandora zuriz jantzitako borda haien tximiniek baizik ez zuten adierazten bizitza ezkutua, egurats izoztuan zuzen-zuzen goratzen ziren ke-haritzo meheen bidez.

Aldiro-aldiro zuhaitzen kraska entzuten zen, beren zurezko besoak azalaren azpian zartatu izan balitzaizkie bezala; eta, zenbaitetan, adar lodiren bat askatu eta erori egiten zen, izozte garaiezinak barneko izerdia harri bihurturik eta hariak etenik.

Han-hemenka barreiatuak zeuden bizilekuek ehunka legoaz ziruditen bata bestetik urrunduak. Ahal zen bezala bizi zen jendea. Neu baka-

rrik ahalegintzen nintzen hurbileneko bezeroengana joaten, edozein unetan zuloren batean elurperaturik geratzeko arriskutan.

Berehalaxe ohartu nintzen izumen misteriozko bat zabaldu zela eskualde osoan. Halako zigorraldiak ezin zuen, herritarren ustez, berezkoa izan. Gauez ahotsak, ziztu ozenak, iragaitzazko garrasiak entzuten zirela esaten zen.

Garrasi eta ziztu horiek ilunabarrean bidaiatzen duten hegazti migratzaileek eginak ziren inondik ere, pilaka baitzihoazen hegoalderantz ihesi. Baina zoaz asaldatuta dagoenari arrazoizko gauzarik ulerraraztera. Izumen bat ari zen jabetzen jendearen gogoaz, eta gertaera ezohikoren baten zain zeuden.

Vatinelen ola Epiventeko etxaldearen ertzean zegoen, orain ikusezin eta hutsik zegoen errege bide handiaren ondoan. Eta etxetarrak ogi gabe zeudenez, herriraino joatea deliberatu zuen errementariak. Ordu batzuk eman zituen eskualdearen erdia osatzen duten sei etxeetan hizketan, hartu zuen bere ogia, eta berriak ikasi zituen, eta landetan zabaldua zen beldur hartatik pixka bat ere bai.

Eta gaua baino lehen bideari eman zitzaion.

Horretan, hesi baten ondotik zihoala, elurretan arrautza bat ikusi ote zuen iruditu zitzaion; bai, arrautza bat hantxe utzia, munduaren gainerako guztia bezalaxe zuri-zuri. Makurtu zen, arrautza zen hain justu. Nondikoa ote zen? Nongo oiloa aterako ote zen oilategitik eta leku hartan errun arrautza? Harritu zen errementaria, ez zuen ulertzen; baina arrautza hartu, eta emazteari eraman zion.

— Tori, andrea, begira bidean aurkitu dudan arrautza bat!

Emakumeak buruari eragin zion:

— Arrautza bat bidean? Eguraldi honekin, mozkortuta zaude, ala?

— Ezetz, bada, andrea, hesi baten oinean zegoela gainera, eta beroa oraindik, izoztu gabe. Hona, tripa gainean ekarri dut, hoztu ez zedin. Zeuk jango duzu, afaritarako.

Zopa geldiro egosten ari zen eltzean jarri zuten arrautza, eta eskualdean esaten zena konstatzen hasi zen errementaria.

Emaztea zurbil-zurbil zegoen hari entzuten.

— Neuk ere entzun nituen ziztuak lehengo gau batean, tximiniatik zetoze ematen zuen.

Mahaian eseri ziren, jan zuten zopa lehenik, eta gero, senarrak bere ogian gurina zabaltzen zuen bitartean, emazteak arrautzari heldu, eta begi mesfidatiz miatu zuen.

— Eta zerbait okerrik balego arrautza honetan?

— Zer nahi duzu hor egotea?

— Nik al dakit zer?

— Tira, jan ezazu, ez ezazu ergelarena egin. Arrautza kraskatu zuen. Beste arrautza guztiak bezalakoxea zen, eta errun berria.

Zalantzaz hasi zen jaten, hozka egin, utzi, berriro hartu. Senarrak esaten zion:

— Eta, zer gustu du, e, arrautza horrek?

Emazteak ez zion erantzun, eta dena irentsi zuen; gero, bat-batean, begiak finko, latzikaraturik, izumenez iltzatu zituen bere gizonarengan, besoak jaso zituen, bihurritu zituen, eta burutik oinetaraino dardaraz, lurlean itzulika hasi zen, oihi lazgarria botaz.

Gau guztia eman zuen dardara erdiragarri haietan, ikara beldurgarriek astintzen zutela,

zalaparta izugarritan. Errementariak, geldirik eutsi ezin zionez, lotu egin behar izan zuen.

Etengabe ari zen oihu eta oihu, nekaezinezko ahots batez:

— Gorputzean daukat! Gorputzean daukat!

Biharamunean deitu ninduten. Ezagutzen diren baregarri guztiak agindu nizkion, baina inolako emaitza onik ez nuen lortu. Erotuta zegoen.

Orduan, sinetsi ere ezinezko lastertasun batez, elur handiak eragotzi gabe, landetxez landetxe zabaldu zen berria, berri bitxia: «errementariaren emaztea deabruak hartu duela!» Eta alde guztietatik inguratzen zen jendea, baina ez ziren ausartzen etxean sartzen; urrutitik entzuten zituzten haren garrasi mingarriak, hain ahots ozenez non ez bailitzateke uste izango gizakiak eginak zirenik.

Herriko apaizari abisu eman zioten. Apaiz zahar sineskor bat zen. Eliz-jantziz azaldu zen, elizakoak ematera bezala, eta eskuak luzaturik exorzismoak esan zizkion, lau gizonen artean emakumeari, ahobitsetan eta bihurrika, ohean eusten zioten bitartean.

Baina ez zioten izpiritua atera.

Gabonak iritsi ziren eta eguraldia ez zen aldatu.

Gabon bezpera goizean ikustera etorri zitzaidan apaiza.

— Andre gaixo hori gaur gaueko elizkizunera etortzea nahi nuke —esan zidan—. Baliteke Jainkoak mirari bat egitea, emakume batengandik jaio zen ordu berean.

Eta nik erantzun nion:

— Ni ados nago erabat, abade jauna. Elizkizunak bere izpiritua hunkitzen badio (eta ez dago hori baino gauza egokiagorik hura hunkitu ahal izateko), bestelako erremediorik gabe ere senda daiteke hori.

— Zu ez zara sinestuna, doktore jauna —xuxurlatu zidan apaiz zaharrak—, baina laguniezadazu, ezta? Arduratuko al zara hura ekaritzeaz?

Lagunduko niola agindu nion.

Arratsa iritsi zen, gero gaua; eta elizako kanpaia jotzen hasi zen, bere ahots kexatia espazio hitsean zehar, elurtza zuri izoztuan zehar barreiatuz.

Geldiro zetozen izaki beltzak, taldeka, kanpandorrearen brontzezko deiaren esaneko. Ilargi beteak distira bizi zurixka batez argitzen zuen odaiertz guztia, ikusgarriago bihurtzen zuen landetako lastura hitsa.

Lau gizon sendo neramatzan, eta olara joan nintzen.

Deabrutua garrasika ari zen denbora guztian, bere ohatzeari loturik. Garbi jantzi genuen, asalaturik jarkitzen zen arren, eta eraman egin genuen.

Eliza jendez beterik zegoen orain, argitua eta hotz; korukoek beren nota monotonoak jaulkitzen zituzten; sugea zurrungaka ari zen; beretterraren txilinak aldiro jotzen zuen, eliztarren mugimenduak arautuz.

Emakumea eta haren zaindariak apaiz etxe-ko sukaldean itxi nituen, eta egokien nerizkion unea noiz iritsiko zain geratu nintzen.

Jaunartzearen ondoko unea aukeratu nuen. Herritar guztiek, gizon ala emakume, beren Jainkoa hartua zuten, haren gogortasuna beratzeko. Isiltasun handi bat zegoen apaizak Jainkoaren misterioa bukatzen zuen bitartean.

Nik agindurik, atea zabaldu eta lau laguntzailak eroa ekarri zuten.

Argiak, jendetza belauniko, aldare aurrea sutan eta sagrario urre-kolorea ikusi zituenetik, halako kemenez hasi zen indarka, non ihes egin baitzigun ia, eta halako oihu ozenak bota zituen non izumenezko ikara bat zabaldu baitzen elizan; buru guztiak goratu ziren; batzuek ihes egin zuten.

Hark ez zuen emakume baten itxura ere, gure eskuetan kizkurturik eta bihurriturik, aurpegia atzera itzulia, begiak eroturik.

Aldare aurreko mailetaraino ekarri eta lurra-
ren kontra indarrez makurtuta eduki genuen.

Apaiza jaikia zen; zain zegoen. Geldirik ikusi zuenean, hartu zuen eskuetan Eguzki santua, bere urrezko izpiekin, ostia zuria erdian zuela, eta urrats batzuk eginik, bere buruaz gainera jaso zuen bi besoak luzaturik, deabrutuaren begirada aurrean jarririk.

Hura oihuka ari zen denbora guztian, begia gauza dizdizari hartan finko, tenk zuela.

Eta apaiza hain zegoen geldirik, non aise hartuko bailitzateke elizako iruditzat. Eta luzaro egon zen horrela, luzaro.

Emakume hark beldurrak hartua zirudien, zurtua; finko zegokion Eguzki santuari begira, oraindik ere berebiziko astinaldiak joz, baina iragankorrek hala ere, eta oihuka betiere, baina ez lehen bezalako ahots urragarriz.

Eta luzaro iraun zuen oraindik ere.

Esango litzateke ezin zituela begiak apaldu, ostiari lotuak zituela; intzeria besterik ez zuen egiten dagoeneko; eta gorputz zurrundua biguntzen, abailtzen ari zitzaion.

Jendetza guztia belaunikaturik zegoen, bekoa lurreraino makurturik.

Deabrotuak bizkor-bizkor jaisten zituen orain betazalak, eta gero berriro jaso, bere Jainkoaren bista ezin jasan izango balu bezala. Isilik zegoen. Eta gero, bat-batean, begiak itxirik geratu zitzaizkiola ohartu nintzen. Sonanbuluen loak hartua zuen, eguzki santu urrezko izpidunari begira luzaro egonak hipnotizaturik, barka! menderaturik, Kristo garaileak azpiraturik.

Bizi gabe atera zuten handik, apaiza berriro aldarera igotzen zen bitartean.

Eliztarrak, guztiz asaldaturik, Te Deum bat kantatzen hasi ziren, esker onez.

Eta errementariaren emazteak berrogei orduz lo egin zuen jarraian, eta haren ondoren deabruturik egondako aldiaren eta askatu zenekoaren inolako oroitzapenik gabe esnatu zen berriro.

Horra bada, andreak, nik ikusi nuen miraria.

Bonenfant doktorea isildu zen, eta gogoz kontrako ahotsez jarraitu zuen gero:

— Ezin izan nien mirari hori idatziz jasotzea ukatu.

1882ko abenduaren 25ean

Munstroen ama

Lehengo batean jende aberatsak zale diren hondartza batean Parisko emakume gazte, dotore, xarmagarri eta guztiek adorazioa eta begirunea dioten bat pasatzen ikusita gogoratu zaizkit berriro historia izugarri hura eta emakume izugarri hura.

Historia hau aspaldikoa da dagoeneko, baina honelako gauzak ez dira inoiz ahazten.

Adiskide batek probintzia bateko hiri txiki batean egonalditxo bat egitera gonbidatuta nengo. Eskualde hartako gauzak ezagutarazteko alde guztietatik erabili ninduen; entzute handiko paisajeak, gazteluak, industriak, behinolako erauzkinak erakutsi zizkidan; monumentuak, elizak, antzinako ate landuak, berebiziko gerria zuten zuhaitzak, itxura berezikoak, San Andrezen haritza eta Roqueboise-ko hagina.

Eskualde hartako ikusgarri guztiak miresmen adierazpenen artean aztertu nituenean, zer ikusi gehiago ez zela azaldu zidan etsimen aurpegia jarririk nire adiskideak. Arnasa hartu nuen.

Banuen, bada, atsedan hartzeko aukera, zuhaitzen gerizpean. Baina, horretan, oihu egin zuen bat-batean.

— A, bai! munstroen ama daukagu, ezaguturazi behar dizut hori!

— Nor? —galdetu nion nik—, munstroen ama?

Adiskidea berriro hasi zen:

— Emakume guztiz gorrotagarri bat, deabru egiazko bat, urtero, nahita, haur itxuragabeak, nazkagarriak, beldurgarriak, munstroak, hitz batean, egiten dituen, eta gero munstro-erakusleei saltzen dizkiena.

»Merkatari higuigarri horiek aldiro-aldiro etortzen dira ea beste haur mordoiloren bat egin ote duen jakitera, eta halakoa gustuko dutenean, berentzat hartzen dute amari errenta bat ordainduz.

»Hamaika kume ditu gisa horretakoak. Aberatsa da.

»Txantxetan ari naizela uste duzu, asmatzen ari naizela, gauzak puztu egiten ditudala. Ez, bada. adiskidea. Egia baizik ez dizut kontatzen, egia zehatza.

»Goazen emakume hori ikustera. Gero esango dizut nola bihurtu zen munstrogintzako fabrika».

* * *

Errebaletako auzo batera eraman ninduen.

Bide ondoko etxe pollit batean bizi zen. Apaina eta ondo zaindua. Lorategia lorez betea zen, eta usain ona zuen. Bere lanetatik erretiroa hartutako notario baten etxea esango litzateke.

Neskame batek landetxe giroko egongelaredo batean sartu gintuen, eta han agertu zen zorigaiztoko hura.

Berrogei urtetsu zituen. Aurpegiera gogorreko emakume handi bat zen, baina ongi egina, indartsua eta osasuntsua, baserritar emakume sendoaren itxura betekoa, erdi abere erdi emakume.

Bazekien zer gaitzespen zegoen berekiko, eta bazirudien apaltasun gorrotoz bete batez baizik ez zuela jendea hartzen.

Galdetu zuen:

— Zer nahi duzue, jaunak?

Nire laguna hasi zen:

— Esan didate zure azkeneko haurra jende guztia bezalaxe zela egina, ez zuela ezertan ere bere senideen antzik. Horixe ziurtatu nahi izan dut. Egia al da?

Begirada maltzur haserre bat bota zigun, eta erantzun zuen:

— Ez, bai zera!, jauna. Besteak baino ere itsusiagoa da beharbada. Ez dut batere zorte onik, ez dut zorte onik. Denak horrelakoxeak, jauna, denak horrelakoxeak, tamala da, izan al daiteke Jainko ona honen gogor munduan baka-rrik dagoen emakume gaixo batekin, izan al dai-teke?

Bizi-bizi mintzatzen zen, begiak apal, itxura hipokrita batez, beldur den piztia anker baten gisan. Bere ahotsaren doinu garratza gozatu, eta harridura eragiten zuen negarrezko hitz horiek, faltsetezko ahotsez jaulkiak, keinu mutirietarako eta otsoek bezala ulu egiteko eginagoa zirudien gorputz hezurtsu, indartsuegi, ertz moldegabe-kodun hartatik irteteak.

Nire adiskideak galdetu zion:

— Ikusi al genezake zure haurra?

Gorritu egin zela iruditu zitzaidan. Ala tronpatu egin nintzen? Une batez isilik egon ondoren ahotsa goratuz esan zuen:

— Zertarako balioko lizuke?

Burua jaso zuen, eta begirakune gogorrez begiratzen zigun, begiradan sua zuela.

Nire laguna berriro hasi zen:

— Zergatik ez diguzu erakutsi nahi? Jende askori erakusten diozu. Badakizu nori buruz ari naizen!

Asaldu bat izan zuen, eta bere ahotsa bazterturik, bere haserreari jareginik, oihu egin zuen:

— Horretara etorri zarete orduan, ezta? Niri irain egitera? Nire haurrak piztiak bezalakoak direla? Ez duzue ikusiko, ez, ez, ez duzue ikusiko; zoazte hemendik, zoazte hemendik. Ez dakit zergatik torturatu behar nauzuen guztiek honela?

Eskuak gerrian jarrita zetorkigun. Haren ahotsaren hots zakarrarekin, halako intziri gisako bat, edo miau bat hobeto, ergel baten oihu errukarria atera zen ondoko gelatik. Hezur muinetaraino sartu zitzaidan zirrara. Atzeraka gindoazen emakumearen aurrean.

Nire adiskideak zorrozki esan zuen:

— Kontuz ibili, Deabrua (Deabrua deitzen zion jendeak), kontuz ibili, egunen batean zoritxarra ekarriko dizu honek.

Haserrearen haserrez dardaraz hasi zen, ukabilak astinduz, bere onetik aterata, garrasika:

— Zoazte hemendik! Zerk ekarri behar dit zoritxarra? Alde hemendik! sinesgabe horiek!

Ate aurrean geundenean, adiskideak galdetu zidan:

— Eta? Ikusi al duzu? Zer diozu?

— Konta iezadazu piztia honen historia — erantzun nion nik.

Eta hona zer kontatu zidan handik, haizetxo mehe batek, aldiro putz eginez, itsaso bare bat bezala uhinetan kizkurtzen zituen uzta dagoeneko helduek inguratzen zuten lehengo bide nagusi zurira itzultzen ari ginen bitartean.

* * *

Neska hura neskame zen behinola landetxe batean, neskame adoretsua, prestua eta zuhu-

rra. Ez zuen maitalerik, ezagunik behintzat, ez zuen ahulezia susmorik.

Hutsegite bat izan zuen, edonork bezala, uzta bilketako gau batez, azao ebakien artean, ekaitzezko zero baten pean, aire geldi astunak labe bateko beroaz beterik dirudien eta mutilen eta nesken gorputz beltzaranak izerdiz blaitzen dituzten horietako batean.

Berehalaxe sentitu zuen haurdun zegoela, eta lotsak eta beldurrak torturatu zuten. Bere zorigaitza nola edo hala ezkutatu nahirik, bor-txaz estutzen zuen gerria, berak asmatua zuen sistema batez: halako indarrezko gerruntze moduko bat, oholtzoz eta sokaz egina. Zenbat eta gehiago hazten zitzaion sabela handitzen ari zen haurraren eraginez, orduan eta gehiago estutzen zuen estira tresna hura, martirio hura sufrituz, baina oinazea kuraia handiz eramanez, beti irribarrez eta zauli, ezer erakutsi edo susmatzen utzi gabe.

Bere sabel barruan hondatu zuen makina ondikoizko hark lotzen zuen izaki txiki hura, estutu eta itxuragabetu egin zuen, eta munstro bihurtu zuen. Haren burezur estutua punta

baten gisa atera zen, bi begiak bekokitik kanpora irtenak zituela. Soin atalak, gorputzaren kontra estuturik, mahatsondoaren aihenak bezalaxe bihurriturik hazi zitzaizkion, neurrigabe luzatu zitzaizkion, armiarma hankak bezalako behatzez bukatuak.

Bularra txiki-txiki geratu zitzaion, intxaurre bezala biribil-biribila.

Soroan erditu zen udaberri goiz batez.

Jorratzaileak, laguntzera etorririk, gorputzetik ateratzen ari zitzaion piztia ikusi zutenean, ihesi joan ziren oihuka. Eta hotsa zabaldu zen eskualdean zehar deabru bat ekarri zuela mundura. Harrezkero deitzen diote «Deabrua».

* * *

Lanetik bota zuten. Errukitik bizi izan zen, eta amodiotik ere bai agian, ezkutuan, neska ederra baitzen, eta gizon guzti-guztiak ere ez baitira infernuaren beldur.

Berak hazi zuen bere munstroa, beste alde batetik gorroto basati batez gorrotatzen zuena, eta ito izango zukeena beharbada, apaizak,

gerta zitekeen makurra aurrez sumaturik, justiziaren mehatxuaz beldurtu izan ez balu.

Horrela bada, behin, handik zebiltzan gauza bitxien erakusle batzuek kume ikaragarri haren berri entzun zuten, eta erakusteko eskatu zioten, gogoko bazuten eraman ahal izateko. Gogoko izan zuten, eta bostehun libera ordaindu zioten bertatik eskura amari. Amak, lotsa baitzuen hasieran, ez zien utzi nahi animalia suerte hura ikusten; baina dirua balio zuela eta haien gogoia pizten zuela ohartu zenean, tratuan hasi zen, liberak banan-banan eztabaidatzen, bere haurraren akatsen aipuez haiek gogoberotuz, salneurria nekazariaren tema lehiatsuaz jasoz.

Lapurreta egin ez ziezaioten, paper bat egin zuen haiekin. Eta, hartaz gainera, urtero beste lauhun libera ordaintzeko hitz eman zioten, piztia hura beren zerbitzurako hartu izan balute bezala.

Ustekabeko irabazi hark erotu zuen ama, eta harrezkero beti izan zuen gogoia halako beste ikusgarri batez erditzeko, etxe oneko andre batek bezalako errenta batzuen jabe egiteko.

Antzu ez zenez, nahi bezala lortu zuen, eta trebe bihurtu zen, dirudienez, haurdunaldian zer modutan estutzen zituen, munstro haiek izango zuten itxura nahierara erabakitzeko.

Denetik izan zuen, luzeak eta laburrak, batzuk karramarroaren gisakoak, beste batzuk muskerraren itxurakoak. Asko hil egin ziren, ama damu zen.

Justizia ahalegindu zen hartan esku hartzen, baina ezin izan zen ezer frogatu. Bakean utzi zuten, hortaz, bere ikusgarri haiek moldatzen.

Gaur egun baditu hamaika ongi biziak, sasoi onak ala txarrak gorabehera, urteko bospasei mila libera ematen diotenak. Bat bakarra falta da eramateko, erakutsi nahi izan ez zigun hori. Baina ez du luzaroan aldean edukiko, gaur egun munduan diren eskujokari eta inkaminari guztiek ezagutzen baitute, eta aldiro-aldiro etortzen baitira ezer berririk baduen begiratzeko.

Enkanteak eta guzti antolatu izan ditu haien artean, ikuskariak egiaz merezi duenean.

Nire adiskidea isildu zen. Sakoneko higuin batek hartua zidan barrena, eta amorru asaldatu bat, nire esku nuenean piztia hura ez urkatu izanaren damua ari zitzaidan jabetzen.

— Eta nor da aita? —galdetu nuen.

Hark erantzun:

— Inork ez daki. Aita edo aitak lotsor samarrak dira. Ezkutatu egiten da edo dira. Irabaziak hainbana dituzte, agian.

* * *

Gogotik atzendua nuen aspaldiko gertaera hori, harik eta lehengo horretan, oso modan dagoen hondartza batean, emakume dotore, pinpirin, xarmant, maitagarri, begirunea zioten gizonez inguratu bat ikusi nuen arte.

Hondarretan zehar nindoan, adiskide baten, bainu etxeko sendagilearen besotik. Handik hamar minutura neskame bat ikusi nuen, hondarretan itzulika ari ziren hiru haur zaintzen.

Makulutxo pare bat zegoen lurrean, eta zirra-
ra eragin zidan. Orduantxe ohartu nintzen haur-

txo haiek eragabeak, konkordunak, bihurrituak, guztiz itsusiak zirela hirurak.

Sendagileak esan zidan:

— Horra ikusi berri duzun emakume xarman-garri horren emaitzak.

Erruki sakon-sakon bat sartu zitzaidan ariman harenganako eta haur haienganako.

— Ama gaixoa! Nola egin dezake oraindik ere barre! —atera zitzaidan.

Adiskideak ihardetsi zidan:

— Ez ezazu erruki, adiskidea. Haur gaixo horiei behar zaie erruki izan. Horra azkeneko eguna arte gerria mehe edukitzearen emaitzak. Munstro horiek gerruntzeak egiten ditu. Amak ongi daki bizia arriskatzen duela horrela jokatzuz. Zer axola dio, ordea, eder jarraitzen badu, maite badute!

Eta besteaz gogoratu nintzen, landakoaz, Deabruaz, hark saldu egiten baitzituen, sortutako ikuskariak.

1883ko ekainaren 12an

Hildako baten ondoan

Hiltzen ari zen, bularretikoak hiltzen diren bezala. Egunero ikusten nuen ordu biak aldera, hoteleko leihopean itsaso barearen aurrez aurre, pasealekuko aulki batean. Alditxo batez geldigeldi geratzen zen eguzkiaren berotan, begi ilaunez Mediterraneoari begira. Aldian behin begirada bat egiten zion Menton inguratzen duen gailur lainotsuko mendi garaiari; eta gero, mugimendu bare-bare batez bere hanka luzeak, mehearen mehez galtzetako oihala inguruan kulunka zebilkien hezurak ziruditenak, bata bestearen gainka jarri, eta liburu bat zabaltzen zuen, liburu bera beti.

Eta ez zuen zirkinik egiten, irakurri, begiz eta gogoz irakurri; hiltzear zuen gorputz hura irakurtzen ari zela zirudien oso-osorik, arima guztia murgiltzen zen, galtzen zen, desagertzen zen liburu hartan, aire hozten hasiak ez tul eginarazten zion arte. Orduan, jaiki eta etxera sartzen zen.

Aleman handi bat zen, bizar-gorria, bazkaldu eta afaldu bere gelan egiten zuena, eta inorekin hitz egiten ez zuena.

Jakin-nahi lauso batek erakarri ninduen harengana. Egun batean haren ondoan eseri nintzen, neuk ere halako itzal bat izateko Musset-en olerki liburu bat harturik.

Eta *Rolla*-ren orriak begiztatzen hasi nintzen. Nire aulki-kideak, bat-batean, hitz eman zidan, frantses txukunean:

— Alemaneraz ba al dakizu, jauna?

— Batere ez, jauna.

— Lastima. Ustekabeak elkarren ondora ekarri gaituenez, gauza guztiz preziatu bat utzi, erakutsi ahal izango nizukeen bestela: hemen dudan liburu hauxe.

— Zer da, bada?

— Nire irakasle Schopenhauer-en ale bat, haren eskuzko oharrekin. Ertz guztiak haren idatziz beteak ditu, ikusten duzun bezala.

Begirune handiz hartu nuen liburu hura, eta astiro begiratu nituen marra haiek, niretzat uler-tezinak, baina lur honetan izan den amets aba-

rrakitzailerik handienaren pentsamendu hilezko-
rraren erakusgarri zirenak.

* * *

Eta Musseten bertsoek eztanda egin zidaten
oroimenean:

*Dors-tu content, Voltaire, et
ton hideux sourire
Voltige-t-il encor sur tes os décharnés?*

Eta, nahi gabe ere, Voltaireren irri makur,
haur batenaren parekoa, haren irri makur erlijio-
so, dagoeneko betirako eragina utzi duen alema-
niar filosofo haren irri jasan ezinezkoarekin kon-
paratu nuen.

Protesta egin ala haserretu, gaitzetsi ala guz-
tiz goratu, Schopenhauerrek bere erdeinuaren
eta bere desliluraren zigiluaz markaturik utzi du
betirako gizadia.

Schopenhauer bera gozatzaile desengaina-
tua izanik, sinesteak oro, itxaropenak, olertiak,
ilusioak azpikoz goratu zituen, lehiak birrindu,

arimaren uste onak erauzi, maitasuna hil, emakumearen gurtza ideala eraitsi, bihotzaren ilusioak zulatu, inoiz egin den eszeptiko lanik erraldoiena burutu zuen. Dena zulakatu du alderen beste bere irri gaiztoaz, eta dena hustu du. Eta gaur egun bertan, narda gehien diotenek ere, badirudite, nahi ezta ere, haren pentsaeraren zatiak atxikirik dituztela beren arimetan.

— Zuk, hortaz, Schopenhauer bera ezagutu zenuen?

Irribarre triste bat egin zuen.

— Hil zen arte, jauna.

Eta hari buruz hitz egin zidan, izaki berezi hark inguratzen zitzaizkion guztiei eragiten zien zirrara ia naturaz gaindikoa kontatu zidan.

Agure ororen eraitsitzaile hark frantses politikari errepublikazale doktrinario batekin izandako elkarrizketarena kontatu zidan; filosofoa ikusi nahi, eta garagardotegi zalapartatsu batean aurkitu zuen, bere ikasleen artean eserita, lehor, zimur, barre ahaztezin batez barreka, ideiak eta sinesteak hitz bakar batez hozkatuz eta urratuz, zakurrak bere jolasetan darabiltzan oihalak hozkada batez tarrantatzen dituen bezala.

Frantses horrek, izuturik, balditurik, oihuka zihoala esana errepikatu zidan:

— Deabruarekin egon naizela iruditu zait ordu honetan.

Eta jarraitu zuen:

— Irribarre beldurgarri bat baitzuen, izan ere, hilda gero ere beldur eragin ziguna. Pasarte ezezaguna da ia-ia, eta kontatuko dizut, interesa baduzu.

* * *

Eta hala hasi zen, ahots nekatu batez, ezte-laldiek aldiro eteten zutela:

— Schopenhauer hil berria zen, eta hurrengo goiza arte guztiok binan-binan beila egingo geniola erabaki zen.

Gela zabal guztiz soil, handi, ilun batean zegoen etzanda. Bi kandela zeuden piztuta gau-mahaian.

Gauerdian hartu nuen nik txanda, gure lagunetako beste batekin. Txanda hartu genien bi lagunak atera ziren, eta ohe oinean eseri ginen biok.

Hilaren aurpegia ia batere aldatu gabe zegoen. Barrez ari zen. Ongi ezagutzen genion zimurhura ezpain ertzean zuen ildokatua, eta bazurudien begiak zabaldu, mugitu, eta hitz egin behar zuela. Haren gogorazioak, edo haren gogoetek inguraturik ginduzkan; inoiz baino haren jeinua-ren giroan sartuago, hark hartuago, hura gutaz jabetuago sentitzen ginen. Haren nagusigoa gailenago iruditzen zitzaigun hilda zegoen honetan. Misteriozko zerbait zuen izpiritu paregabe haren indarrak.

Horrelako gizonen gorputzak galdu egiten dira, berek ordea iraun egiten dute, iraun; eta bihotza gelditu ondoko gauean, egiaz esaten dizut, beldurgarriak dira, jauna.

Eta, ahots apal-apalez hari buruz ari ginen hizketan, haren esanak, haren esapideak, hitz bakan batzuetan Bizitza ezezagunaren ilunbeta-ra botatako argiak diruditen esamolde horiek, gogora ekarriz.

— Hitz egin behar duela iruditzen zaidak — esan zuen nire kideak. Eta beldurra izateko asko behar ez zuen kezka batez begiratzen genion

aurpegi zurrun eta oraindik ere barre egiten ari zen hari.

Poliki-poliki geroz eta urduriago, estuago, indargabeago sentitzen ginen.

— Ez zekiat zer dudan, baina egiaz esaten diat gaixorik nagoela —zezelkatu nion.

Eta gorpuak kiratsa zuela ohartu ginen.

Beilakideak ondoko gelara joateko proposatu zidan orduan, atea zabalik utzirik, eta ongi iritzi nion.

Gau-mahaian piztuta zeuden kandeletako bat hartu eta bestea han utzirik, beste gelako beste aldean eseri ginen, geunden lekutik ohea eta hildakoa argi ikusteko moduan.

Baina gogoia hartua zigun oraindik ere; esango litzateke inguruka zebilkgula haren izate materiagabe, jaregin, aske, guztiahaldun eta menderatzailea. Eta haren gorpu desegiten hasiaren usaina ere iristen zitzaigun batzuetan, barneraino sartzen zitzaigun, nazkagarri eta zehazgabe.

Bat-batean zirrara bat sartu zitzaigun hezurretaraino: hots bat, zaratatxo bat, iritsi zen hildakoaren gelatik. Harengana joan ziren ber-ber-

tatik gure begiradak, eta orduan ikusi genuen, bai jauna, ondo eta zehatz ikusi ere, batak ala besteak, gauza zuri bat ohe gainean herrestan, tapiz gainera erortzen, eta besaulki batean azpian ezkututzen.

Ezertan pentsatzen hasi orduko zutik ginen, izumen ergel batek eroturik, ihes egiteko prest. Gero elkarri begiratu genion. Zuri-zuri ginen biok. Bihotzak taupadaka genituen, gure jantzie-tako oihala jasoko zuten moduan. Nik hitz egin nuen lehena.

— Ikusi duk?

— Bai, ikusi diat.

— Ez al dago hilda?

— Usteltzen hasia baita...?

— Zer egingo diagu?

Nire beilakideak zalantzaz esan zuen:

— Begiratzera joan beharra zagok.

Gure kandela hartu eta neu sartu nintzen lehenengoa, zoko iluneko gela handi osoa begiez aztertuz. Ezer ez zen mugitzen; eta ohe ondora hurbildu nintzen. Harridurak eta izumenak harturik geratu nintzen, ordea: Schopenhauer ez zen gehiago barrez ari! Keinu izugarriak ari zen egi-

ten, ahoa estaturik, masailak sakoneraino ildo-
katurik.

— Ez zagok hilda! —esan nuen zezelka.

Baina usain nazkagarria sudurreraino iristen
zitzaidan, ito behar ninduela. Eta ez nuen zirkinik
egiten, hari finko begira, agerpen baten aurrean
bezala neure tentutik aterata.

Nire beila-laguna, orduan, beste kandela har-
turik, hildakoaren gainera makurtu zen. Eta gero
besoa ukitu zidan, hitzik esan gabe. Haren begi-
radari jarraitu nion, eta lurrean, ohe ondoko
besaulkiaren azpian, tapiz ilunean zuri-zuri,
hozka egiteko bezala zabaldurik, Schopenhauer-
en hortz ordeak ikusi nituen.

Usteltzeak, masail hezurak askaturik, ahotik
kanpora egotziak.

Egiaz egun horretan bai beldur izan nuen nik,
jauna.

Eta eguzkia itsaso distiratzailera hurbiltzen
ari zenez, jaiki zen aleman bularretik joa, agurtu
ninduen, eta hotelera sartu zen.

(1883ko urtarrilaren 30ean)

Agerpena

Bahiketa kontuak aipatu ziren auzi gertatu-berri baten kontura. Adiskide minen arteko arrats bilera batean izan zen, Grenelle kalean, jauregitxo zahar batean, eta bakoitzak bazuen bere historia, egiazkoa zela zioena.

Horretan, Tour-Samuel-eko markes zaharra, laurogeita bi urteko agurea, jaiki, eta tximiniara arrimatu zen. Honela hasi zen, bere ahots dardarati samarraz:

— Nik ere badakit gauza bat bitxia, hain bitxia, hala ere, nire bizitzako obsesioa izan baitut. Oraintxe dira berrogeita hamasei urte gertaera hori jazo zitzaidala, eta hilabeterik ez zait igarotzen ametsetan berriro ikusi gabe. Beldurrezko marka, arrasto bat geratu zait egun hartatik, ulertzen didazue? Bai, hainbestearainoko beldur ikaragarria sentitu nuen, hamar minutuz, non halako izumen etengabe bat geratu baitzait ariman ordudanik. Ustekabeko hotsek bihotzeraino ikaratzen naute; gaueko ilunpetan ongi

zehazten ez ditudan gauzek ihes egin behar ero bat eragiten didate. Gaez beldur naiz, alegia.

Ai! Horrelako gauzarik ez nukeen inoiz aitortuko orain dudan adinera iritsia ez banintz. Orain dena esan dezaket. Batek laurogeita bi urte dituenean zilegi du irudimenezko arriskuen aurrean beldur izatea. Egiazko arriskuen aurrean nik ez dut sekula atzera egin, andreak.

Historia honek hainbesteraingo asaldatu ninduen bere garaian, halako nahasmen sakonera, hain misteriozkora, hain beldurgarrira jaurti ninduen, non ez baitut inoiz ere kontatu. Neure baitako barrenik ezkutuenean gorde izan dut, sekretu saminak, sekretu lotsagarriak, gure iza-tean zehar izan ditugun ahulezia aitoren ezin guztiak gordetzen diren barren zoko horretan alegia.

Izan zen bezalaxe kontatuko dizuet gertaera, azalpenik ematen ahalegindu gabe. Egia da azaldu daitekeela, azaldu, nire ero ordua izan ez banuen behinik behin. Ez ordea, ez nintzen erotu, eta emango dizuet horren frogara. Pentsa nahi duzuenara. Hona gertaerak, soil-soilik.

1827an izan zen, uztailean. Rouenen nengoen, soldadu.

Egun batean, kaian paseatzen ari nintzela, nor zen zehatz gogoratu gabe ere ezagun gertatzen zitzaidan gizon bat topatu nuen. Ohartzeko, gelditzeko keinada bat egin nuen, senez. Arrotz hark ere ikusi zuen keinada, begiratu zidan, eta besartean hartu ninduen.

Nire gaztetako lagun bat zen, adiskide mina izana. Baziren bost urte ikusi gabe, mende erdiz zahartua zirudien. Ile guztia zuritua zuen, eta okerturik zebilen, ahiturik bezala. Nire harriduraren zergatia ulertu zuen, eta bere bizitza kontatu zidan. Ikaragarritzko zoritxar batek eten zion bizitza guztia.

Neska batez ero-ero maitemindurik, zorionezko estasi gisako batean ezkondu zen harekin. Urtebetez gizonaz gaindiko zorion batean eta maitemin baretu gabean bizi izanik, bihotzeko gaixotasun batez hil zitzaion bat-batean, amodioak berak hilik, inondik ere.

Emazteari lur emandako egun berean alde egin zuen gaztelutik, eta Rouenen zuen jauregixora etorri zen bizitzera. Han bizi zen, bakarrik

eta etsita, saminak zuziturik, zoritxarraren zoritxarrez bere buruaz beste egitea baizik gogoan ez zerabilela.

— Honela aurkitu zaitudanez gero —esan zidan—, mesede handi bat eskatu behar dizut, nire etxetik, nire gelako, gure gelako idazmahaitik behar-beharrezko ditudan paper batzuk ekartzeara. Horrelako ardurarik ezin diot nire mendeko bati edo negozio gizon bati eskatu, guztiz zuhurra eta guztiz isila behar baitu izan. Neu, berriz, inolakoagatik ere ez nintzateke berriro etxe hartan sartuko.

»Emango dizut gela hartako giltza, neuk itxi bainuen irteterakoan, eta baita idazmahaiarena ere. Horrez gainera nire gutun bat eraman behar diozu lorezainari; hark zabalduko baitizu gazteluko sarrera.

»Baina zatoz bihar nirekin bazkaltzera, eta hitz egingo dugu horretaz.

Mesede hori egingo niola agindu nion. Pasealdi bat baizik ez zen, gainera, niretzat, haren etxaldea Rouendik bost bat legoatara baitzegoen. Ordubete beharko nuen zaldiz.

Hamarretan harenean nintzen, biharamu-
nean. Elkarrekin aurrez aurre bazkaldu genuen,
baina ez zuen hogei hitzetik gora esan. Barka-
tzeko eskatu zidan, bere zoriona zetzan gela har-
tara egin behar nuen bisitak arras nahasten
omen zuen. Bereziki urduri zegoela iruditu zitzaiz-
dan, hain zuzen, kezkatu, ariman misteriozko
guduren bat gertatu izan balitzaio bezala edo.

Azkenean zehatz-mehatz azaldu zidan zer
egin behar nuen. Giltza neraman altzariaren
eskuineko lehenengo tiraderatik gutun multzo
eta paper sorta bat hartu behar nituen.

— Eskatu beharrik ez dizut ez begiratzeko
barruan —jarraitu zuen.

la mindu ninduen hitz horiez, eta halaxe esan
nion bizi samar.

— Barka iezadazu, gehiegi ari naiz sufritzen
—zezelkatu zidan.

Eta negarrez hasi zen.

Ordubata aldera alde egin nuen handik, nire
egitekoa betetzeko.

Eguraldi distiratsua zegoen, eta trosta bizian
nindoan belardietan zehar, larretxorien kantuak

eta nire sableak botan egiten zidan hots erritmata entzuten.

Gero basoan sartu nintzen, eta pausora ekarri nuen zaldia. Zuhaitz adarrek aurpegia ferekatzen zidaten; eta aldian behin hostoren bat harrapatzen nuen hortzetan, eta gogotik murtxikatzen nuen, zergatik ez dakizula halako zorion gainezkako eta atxikiezin batez, halako indar mozkor batez betetzen zaituzten bizipoz horietako batean.

Eta gaztelutik hurbil nintzela, lorezainarentzat nuen gutunaren bila hasi nintzen sakelan, eta harriturik ohartu nintzen zigilatua zela. Hainbesteraingo harritu eta haserretu ninduen hark, non ez zuen askorik behar izan atzera itzuli eta nire egitekoak bertan behera uzteko. Gero, ordea, horrela eginez gero gizalegezkoa ez den sentiberatasun bat erakutsiko nuela otu zitzaidan. Nire adiskideak oharkabean itxia izango zuen, gainera, gutun hura, zegoen nahasmenduan egonda.

Bizileku hark azken hogeitun urteetan hutsik egona zirudien. Langa, zabalik eta usteldua, ezin jakin zitekeen nola zegoen ere zutik. Ibilbideak

belarrez bete-beteak zeuden, belarguneen ertzak ez ziren bereizten jada.

Kanpoko leiho bati ostikoka atera nuen zara-ta entzunda agure bat atera zen albo ate batetik, eta txunditurik zirudien ni ikusirik. Zalditik jaitsi eta gutuna eman nion. Irakurri zuen, irakurri zuen berriro, itzuli zuen, begiratu zidan goitik behera, sartu zuen papera patrikan, eta esan zuen:

— Zer nahi du berorrek, hortaz?

Brau erantzun nion:

— Jakingo duzu, hor zure ugazabaren agin-duak jaso baitituzu; gaztelu honetan sartu nahi dut.

Izuturik zegoela ematen zuen.

— Orduan... berorrek haren gelara nahi du joan?

Egonarria galtzen hasi nintzen.

— Bistan da! Niri galdeketaren bat-edo egite-ko asmoa duzu, ala, ausaz?

— Ez, jauna... —zezelkatu zuen—, baina... bada... gela hori ez baita zabaldu... bada... hil zenetik. Berorrek bost minutu itxaroten badit, oraintxe noa... ea...

Haserre moztu nion:

— Zer dugu, ordea, ziria sartu nahi, ala? Zuk ezin duzu sartu, zeren, begira, hona giltza.

Ez zekien zer esan.

— Bidea erakutsiko diot, hortaz, jauna.

— Erakutsiezadazu eskailera, eta utz nazazu bakarrik. Neuk aurkituko dut, zure beharrik gabe.

— Baina, jauna... hala ere.

Oraingo honetan erabat haserretu nintzen:

— Orain isil zaitez, ezta? edo nirekin izango dituzu ikustekoak.

Bortizki bazterrera bultzatu nuen eta etxean sartu nintzen.

Lehendabizi sukaldea igaro nuen, gero gizon hark bere emaztearekin bizitzeko zituen bi gela txiki. Ezkaratz zabal bat igaro nuen ondoren, eskailera igo nuen, eta nire adiskideak esandako atea ezagutu nuen.

Nekerik gabe zabaldu, eta sartu nintzen.

Gela hura hain zegoen ilun non hasieran ez bainuen ezer bereizi. Geldi geratu nintzen, inor bizi ez den gela kondenatuek, gela hilek, ohi duten lizun usain geza horrek atxikirik. Gero,

begiak poliki-poliki ilunpetara ohitu zitzaizkidan, eta nahiko zehazki ikusi nuen gela desordenatu bat, ohe handia maindirerik gabe, baina koltxoia eta bururdiak bazituena, bururdietako batek, hala ere, ukalondo baten edo buru baten aztarraren sakona zuela, norbait ganean egon berria balitz bezala.

Aulkiek nahas-mahas ziruditen. Ateetako bat, armairu batena, inondik ere, erdi zabalik geratua zela ohartu nintzen.

Lehendabizi leihora joan nintzen, argia sartzeko, eta zabaldu egin nuen; baina kanpoko leihoaren burdinkiak hain zeuden herdoilduta non ezin izan baintuen askatu.

Zartarazten ere ahalegindu nintzen, nire sableaz, baina ez nuen lortu. Alfer lan hark hase-re jartzen ninduenez, eta begiak ilunbetara erabat ohitu zitzaizkidanez, argiago ezin ikusiko nuela etsi, eta idazmahaira joan nintzen.

Besaulki batean eseri nintzen, beheratu nuen apala, eta esandako tiradera zabaldu nuen. Ertzetaraino beteta zegoen. Hiru sorta baizik ez nituen behar, banekien nola ezagutu, eta bila hasi nintzen.

Begiak erre beharrean ari nintzen helbideak igarri nahiz, eta non iruditzen zaidan nire atzean igurtziren bat-edo entzun edo, hobeto, sentitu nuela. Ez nion arretarik jarri, ustez haize lasterren batek oihalen bat mugituko zuelakoan-edo. Handik minutu batera, ordea, beste mugimendua zehatz batek halako hozkirri ezatsegin bat eragin zidan azalean. Hain zen, ordea, zentzurik gabea horregatik mendrenik ere ikaratzea, non ez bainuen burua itzuli nahi izan, neure buruarekiko lotsaz. Bilatu behar nuen bigarren gutun multzoa aurkitua nuen orduantxe, eta hirugarrena topatu berri-berria nuen, non nire bizkarraren kontra egindako hasperen handi samin batek jauzi ero bat eragiten didan, handik bi metrotaraino. Oldar horretan eskua sablearen kirtenean nuela jiratu nintzen, eta koldarraren gisa ihes egin nintzatekeen, sable hura aldean sentitu ez banu.

Emakume handi zuriz jantzi bat begira zego-kidan, segundo bat lehenago eserita nengoen besaulkiaren atzean zutik.

Soin atal guztietan zehar igaro zitzaidan ikararen ikaraz ez nuen askorik behar hankaz gora

erortzeko. Ezin baita ulertu, sentitu ez bada, horrelako izumen beldurgarri eta zentzugaberik. Urte egiten zaizu arima; bihotza ez da sentitzen, gorputz osoa belaxka bihurtzen da, belakia bailitzan, barren guztia hondoratzen zaizula esango litzateke.

Nik ez dut sinesten mamuetan; bada, horra! flakia eragin izan dit hildakoen beldur nazkagarri horrek, nire bizitzako gainerako guztian baino gehiago sufritu izan dut, sufritu bai, naturaz gaindiko beldurraren larritasun ezin eutsizko horretan.

Hitz egin izan ez balu, hilik nintzatekeen beharbada! Baina hitz egin zuen, kirioak dardararazten zituen ahots gozo samin batez hitz egin zuen. Ez nuke esango berriro neure buruaren jabe egin eta nire senera itzulia nintzenik. Ez. Asaldatuta nengoen, zertan ari nintzen ez jakiteraino; baina nire baitan dudan halako barne harrotasun horrek, nire lanbideak berez dakarren harrotasuna nonbait, ia neure gogoz kontra halako gizatasun bat gordearazten zidan. Neuretzat ikusgai jarrita nengoen, eta baita harentzat ere, zalantzarik gabe, zer ere zen hura, emaku-

me ala mamu. Geroago ohartu nintzen horretaz, zeren, egiaz diotsuet, agerpen hura izan nuen ez nuen ezertan pentsatzen. Beldurra nuen.

Hark esan zuen:

— Ai, jauna! egingo al didazu mesede handi bat!

Erantzun nahi izan nion, baina ezin izan nuen hitz bat bera ere atera. Hots sor bat atera zen nire eztarritik.

Berriro hasi zen:

— Nahi al duzu? Salba nazakezu, senda nazakezu. Sufrikario ikaragarritan nago. Sufrikario-tan, ai, sufrikariotan.

Eta emeki-emeki nire besaulkian eseri zen. Begira zegokidan.

— Nahi duzu?

— Bai —egin nion buruaz, ahotsa oraindik ere zurturik nuela.

Eta karei-oskolezko orrazi bat luzatu zidan, ahopeka esanez:

— Orraz nazazu, ai! orraz nazazu; horrek sendatuko nau; orraztu egin behar naute. Begira

nire burua... Hau sufrikarioa; eta ileok, zer mina egiten didaten!

Haren adats askatua, oso luze, oso beltza, besaulkiaren bizkarraren gainetik zintzilik lurra ukitzeraino iristen zela iruditzen zitzaidan.

Zergatik egin nuen hura? Zergatik hartu nion, hotzikara batean, orrazia, eta zergatik hartu nituen eskuan haren ile luzeak, azalean halako hotz laborrizko sentipen bat eragin zidatenak, eskutan sugeak erabili izan banitu bezala? Ez dakit.

Sentipen hori behatzetan geratu zitzaidan, eta ikara eragiten dit oraindik ere gogora etortzen zaidanean.

Orraztu nuen. Ez dakit nola eskuztatu nuen izotzezko ile hura. Bihurritu nuen, berriro lotu eta askatu nuen; zaldiaren zurdak txirikordatzen diren bezala txirikordatu nuen. Hasperen egiten zuen, burua makurtuz, zoriontsu zirudien.

Bat-batean esan zidan:

— Eskerrik asko! —eskuetatik orrazia kendu, eta erdi-zabalik ikusia nuen atetik joan zen ihesi.

Bakarrik geratu nintzelarik, amets gaiztoen ondoren esnatutakoan izaten den nahasmen

zurtu hori nuen. Gero nire senera itzuli nintzen berriro, joan nintzen korrika leihora, eta bultzada amorratu batez kanpoko leihoak puskatu nituen.

Egun-argizko olatu bat sartu zen. Izaki hura joana zen atera jauzi egin nuen. Itxirik eta tinko topatu nuen.

Ihes egin behar ero batek hartu ninduen orduan, heriozko izu ikara bat, gudueta izu ikara egiazkoa. Hartu nituen zalapartan zabalik zegoen idazmahaiko hiru sortak; igaro nuen lasterka gela guztia, launaka jaitsi nituen eskailera mailak, kanpoan aurkitu nintzen, ez dakit non, eta zaldia niregandik hamar urratsetara ikusirik, haren gainera jauzi egin eta galapan alde egin nuen handik.

Roueneraino ez nintzen gelditu, nire etxe aurreraino. Hedeak morroiari utzirik, nire gelan ezkutatu, eta hantxe geratu nintzen itxirik gogo-eta egiteko.

Ordubetez egon nintzen neure buruari antsiaz galde eta galde ea liluramenduren bat izan ote nuen. Horixe, mirariak sortzen dituzten eta Naturaz gaindiko munduak bere indar guztia zor dien kirioen eztanda horietako bat, garuna-

ren asaldamendu horietako bat zen hura, inondik ere.

Eta sinestear nengoen agerpena izan zela, nire zentzumenen hutsegite bat izan zela; leihorra ondoratu nintzen. Begiak, ustekabeen, bularrera jaitsi zitzaizkidan. Nire dolmana emakume ile luzez betea nuen, botoietan kateaturik!

Banan-banan hartu eta kanpora bota nituen hatzek ikara egiten zidatela.

Gero morroiari deitu nion. Hunkituegi sentitzen nintzen, nahasiegi, egun hartan bertan nire adiskidearenera joateko. Eta ongi gogoetatu nahi nuen, gainera, hari zer esan.

Gutunak eramana raziz nizekion, eta hartu-agiri bat egin zion eramaileari. Galdera asko egin zizkion nitaz. Oinazez nengoela esan zioten, eguzki kolpe bat izan nuela, ez dakit zer. Kezkaturik geratu zen, itxuraz.

Biharamun goizean joan nintzen harengana, eguna argitzearekin, egia esateko prest. Bezperan irtena zen, eta ez zen itzuli.

Egunean zehar berriro joan nintzen, ez zuten ikusi berriro. Astebete itxaron nuen. Ez zen azaldu gehiago. Justiziari abisu eman nion beraz.

Alde guztietan bilarazi zuten, baina ez zuten arrastorik ere aurkitu hura iragan izandakorik edo erretiratu izandakorik.

Miaketa xehea egin zen gaztelu abandonatuan. Ezer susmagarririk ez zen aurkitu.

Inolako zantzurik ez zen inolako emakumerik han ezkutatuta egon izandakorik.

Ikerketak inora ez zeramanez gero, bilaketa horiek utzi egin ziren.

Eta orain dela berrogeita hamasei uztez gero ez dut ezer jakin. Ez dakit.

(1883ko apirilaren 4an)

Hura?

Pierre Decourcelle-ri

Adiskide estimatua, ez duzula ezer ulertzen?, aditzen dizut. Erotu naizela uste duzu? Baliteke, agian, pixka bat, baina ez zuk uste dituzun arrazoiengatik.

Bai. Ezkontzera noala. Horra.

Nire ideiak eta iritziak ez dira, ordea, aldatu, horrenbestez. Legezko parekatze horri astakeria derizkiot. Ziur nago zortzi senarretatik sei adardun direla. Eta ez dute gutxiagorik merezi, beren bizitza kateatzeko, amodio libreari, munduko gauza alai eta on bakarrari, uko egiteko, etengabe emakume guztienganantz bultzatzen gaituen fantasiari hegoak ebakitzeko, eta abar eta abar, bezain ergel izan direlako. Inoiz baino ezinago gertatzen zait emakume bat maitatzea, gehiegi maiteko baititut beti gainerako guztiak ere. Mila beso, mila ezpain, mila... izamolde nahi nituzke izan izakari xarmagarri garrantzi gabeko horieta-

ko saldo oso bat aldi berean besarkatu ahal izateko.

Eta ezkondu egin behar dut hala ere.

Eta esan behar dizut, gainera, bihar emazte izango dudana ez dudala ezagutzen ere ia. Lauz-pabost bider baizik ez dut ikusi. Badakit ez zaidala desatsegin; aski dut hori zertarako dudan jakinda. Ttikia, ile-horia eta lodikotea da. Etzira-ko irrikatan egongo naiz emakume handi, beltzaran, mehe bat edukitzeko.

Ez da aberatsa. Erdi mailako familia batekoa da. Dozenaka aurkitzen dira horrelakoak, ezkontzeko egokiak, itxuraz behintzat ez onerako berezitasunik ez akatsik gabeak, burgeseria arruntean. «Lajolle andereñoa jatorra da» esaten dute. Bihar esango dute: «Jatorra da oso Raymon andrea». Alegia, asko dauden bezala, «pozik emaztetzat hartuko liratekeen» neska zintzo horietakoa da, harik eta egun batean ohartzen zaren arte hain zuzen ere gainerako emakume guztiak nahiago izango zenituzkeela aukeratu duzun huraxe baino.

Zergatik ezkondu, hortaz, esango duzu.

Lotsaz aitortzen dizut zentzugabekeria hori egitera bultzatzen nauen arrazoari bitxi gezurra dirudiena.

Bakarrik ez egoteko ezkontzen naiz!

Ez dakit nola esan ere, nola ulertarazi. Erruki izango nauzu, mesprezu izango didazu, halakoxe miserian baitago nire gogoan.

Ez dut bakarrik egon nahi gauean. Norbait sentitu nahi dut niregandik gertu, nire kontra, hitz egin dezakeen norbait, zerbait esan deza-keena, ez dio axola zer.

Haren loa eteteko aukera nahi dut izan, edozein galdera egin bat-batean, ergelkeriaren bat galdetu, ahots bat entzuteko, nire bizilekuan norbait bizi dela sentitzeko, arima bat iratzarririk sentitzeko, arrazonamendu bat lanean, nire kandela bat-batean pizturik, nire ondoan pertsona baten aurpegia ikusteko... zeren... zeren... (ez naiz ausartzen ere lotsagarrikeria hau aitortzen)... beldur bainaiz, bakar-bakarrik naize-
nean.

Ai! oraindik ez nauzu ulertzen.

Ez dut arriskuaren beldurrik. Gizon bat sartu-ko balitz, ikararik gabe hilko nuke. Ez dut arima

herratuen beldurrik; ez dut sinesten naturaz gaindiko gauzetan. Hildakoen beldurrik ez dut; izaki bat desagertzen denean erabat deusezten dela uste dut.

Hortaz...! Hortaz, bada!... Bada, hori! neure beldur naiz! beldurraren beldur; nire gogoia asaldatzen zaidanean haren esturen beldur, izumen ulertezinezko sentipen izugarri horren beldur.

Egizu barre, nahi baduzu. Izugarria da, sendaezina. Hormen beldur naiz, altzarien beldur, etxeko gauzen beldur, halako animaliazko bizitza batez pizten baitzaizkit, piztu ere. Nire pentsamenduaren nahasmendu izugarriari diot beldur, batez ere, nire arrazoiari, ihes egiten baitit, estura larri misteriozko, ikusezin batek zirriborraturik, barreiatuak.

Ariman barrena sartzen zaidan eta azalean hotzikara bat eragiten didan halako larritasun lauso bat sentitzen dut lehenik. Begiratzen dut ingurura. Ezer ez! Eta nahi nuke, bada, zerbait! Zer? Uler daitekeen zerbait. Neure beldurra ulertzen ez dudalako baitut soil-soilik beldur.

Hitz egiten dudala!, neure ahotsaren beldur naiz! Ibiltzen naizela!, ate osteko ezezagunaz,

errezel atzekoaz, armairu barrukoaz, ohe azpiko ezezagunaz naiz beldur. Eta badakit, jakin, inon ez dela ezer.

Kolpetik itzultzen naiz, atzean daukadanaz beldur, nahiz ezer ez izan, eta nik jakin.

Hasten naizela zalapartan, gehiago asaldatzen naiz; eta gela barruan ixten naiz, eta ohe barru-barruan sartzen naiz, eta maindire azpian ezkutatzen naiz; eta hantxe kuzkurturik, pilota baten gisan kiribildurik, herioan ixten ditut begiak, eta denbora amaigabe batez geratzen naiz, pentsatuz nire kandela pizturik geratu dela gau mahaian, eta itzali beharko litzatekeela. Eta ez naiz ausartzen.

Ez al da ikaragarria horrelakoa izatea?

Lehenago ez nuen horrelako ezer sentitzen. Lasai itzultzen nintzen etxera. Arimako lasaitasuna ezerk asaldatu gabe ibiltzen nintzen etxean aurrera eta atzera. Orduan esan izan balidate beldurrezko gaixotasun uste ezineko bat, zentzugabea eta ikaragarria, nagusituko zitzaidala egunen batean, barre egingo nukeen; ziurtasun osoaz zabaltzen nituen atea ilunpetan: soseguz lotaratzen nintzen, ateei morroilorik eman gabe,

eta inoiz ez nintzen jaikiko gau erdian gelako irteera guztiak ongi itxita ote nituen begiratzena.

laz hasi zen hau guztia, oso modu bitxi batez.

Udazkena zen, ilunabar heze bat. Nik afaldu eta neskameak alde egin zuenean, zer egin pentsatzen hasi nintzen. Gelan hara eta hona ibili nintzen aldi batez. Akiturik sentitzen nintzen, zergatik ez eta indarrik gabe, lanean hasteko ezgauza, irakurtzeko ere kemenik gabe. Euri mehe batek bustitzen zituen beirak; triste nengoen, batzuetan horretarako arrazoirik gabe negar egiteko gogoia ematen dizuten, zure pentsamenduaren astuntasuna arintzeko edonorekin hitz egiteko gogoia sartzen dizuten tristura horietako batez bete-betea.

Bakarrik sentitzen nintzen. Etxea hutsik iruditzen zitzaidan, inoiz baino hutsago. Bakardade mugagabe etsigarri batek inguratzen ninduen. Zer egin? Eseri nintzen. Artegatasun urduri bat sartu zitzaidan hanketan. Jaiki, eta ibiltzen hasi nintzen berriro. Baliteke sukar pixka bat izatea, zeren eskuak atzean elkarri lotuak baintuen, geldiro ibiltzen denean ohi den bezala, erretzen ari ziren batak bestea, eta ohartu egin nintzen

horretaz. Gero, nondik ez zela, hotzikara bat igaro zitzaidan bizkar osoan zehar. Kanpoko hezetasuna etxean sartzen ari zitekeela iruditu zitzaidan, eta sua piztea gogoratu zitzaidan. Piztu nuen; lehendabiziko aldia zen urte hartan. Eta berriro eseri nintzen, garrari begira. Baina geldirik ezin egonak berriro jaikiarazi ninduen, eta handik alde egin behar nuela sentitu nuen, mugitu, lagun bat bilatu.

Irten nintzen. Hiru lagunuen etxeetara joan nintzen, baina ez nituen aurkitu; gero bulebarre-ra joan nintzen, ezagutzen nuenen bat aurkituko ote nuen.

Triste zegoen alde guztietan. Espaloi bustiek distira egiten zuten. Uraren epeltasunak, hotzikara bortitzez izozten zaituzten epeltasun horietako batek, euri ukiezinaren epeltasun astunak azpian zanpaturik zeukan kalea, bazirudien gasaren garra nekatzen eta iluntzen zuela.

Pauso indarge batez nenbilen, neure buruari esan eta esan: «Inor ez diat topatuko hizketan egiteko».

Behin eta berriro begiratu nuen kafetegietan, hasi Madeleinetik eta Poissoniere-ko errebalerai-

no. Jende tristea, mahaietan eseria; beren edariak bukatzeko ere indarrik ez zutela ematen zuen.

Luzaro ibili nintzen hara-hona, eta gauerdi inguruan etxerantz abiatu nintzen berriro. Oso lasai nengoen, baina nekatuta oso. Atarizainak, nahiz hamaikak baino lehen lotara joan ohi den, segituan zabaldu zidan, ohitura ez duen bezala, eta pentsatu nuen: «Tira, beste maizterren bat ere igo berria da, nonbait».

Etxetik irteeran bi giltza itzuli eman ohi dizkiot beti ateari. Bilduta baizik ez nuen aurkitu, eta harritu ninduen. Gau aldera gutunen bat jasoko zidatela bururatu zitzaidan.

Sartu nintzen. Sua piztuta zegoen oraindik, eta argi pixka bat ere egiten zuen gelan. Kandelak bat hartu nuen, sutan piztera joateko; horretan, begiak aurrerantz begira jarri nituenean, norbait sumatu nuen nire besaulkian eserita, niri bizkarra emanez hankak berotzen.

Ez zidan beldurrik eman, bai zera, ezta gutxiagorik ere. Oso egia izan zitekeen irudikapen bat gogoratu zitzaidan, lagunak bat ni ikusteratara etorria. Atezainaren emazteak, irteeran

abisu eman niolarik, itzultzekoa nintzela esango zuen, eta giltza utzi. Eta nire itzulerako zer-nola-ko guztiak etorri zitzaizkidan berriro gogora, segundo batez: ate-sokari tira nola egin nion, nire atea bildurik baizik nola ez zegoen.

Nire lagun hura —ilea baizik ez bainion ikusten—, loak hartuko zuen su aurrean nire zain zegoela, eta banindoan esnatzera. Oso ongi ikusten nuen, esku bat eskuin aldetik zintzilik baitzuen; hankak bata bestearen gainean gurutzatuak; burua besaulkiaren ezker aldera samar makurtua; lotan zegoen seinale. Nire buruari galdetu nion: «Nor ote da?». Ez baitzen askorik ikusten gelan. Eskua luzatu nion, bizkarra ukitzeko!...

Aulkiaren zura topatu nuen! Ez zegoen inor. Hutsik zegoen besaulkia!

Hura, ikara, errukiarren!

Lehenik atzera egin nuen, izugarrizko arriskuren bat agertu izan balitzait bezala.

Gero berriro itzuli nintzen, atzean norbait nuela sentiturik; eta gero, besaulkia berriro ikusi behar nahitaezko batek atzera itzularazi ninduen berriro. Eta zutik geratu nintzen, beldurraren

beldurrez hatsanka, pentsatzeko ere gauza ez izateraino asaldaturik, ia erortzear.

Baina odol hotzeko gizona naiz, eta berehalaxe itzuli nintzen nire senera. Pentsatu nuen: «Begitazioen bat izan dut, horra». Eta begitazioez gogoetan hasi nintzen segituan. Pentsamendua laster ibiltzen baita une horietan.

Begitazio bat izan nuen —horretan zalantzarik ez zen—. Baina nire adimena erne egon zen denbora guztian, arauz eta logikaz funtzionatu zuen. Bazen, hortaz, beste akatsen bat garunaren aldetik. Begiek baizik ez zuten huts egin, eta nire pentsamenduari iruzur egin zioten. Begiek ikuspen bat izan zuten, jende sineskorrari mirarrietan sinetsarazten dioten ikuspen horietakoren bat. Ikusmenaren kirioen hutsegite bat izan zen, eta kito, odol kolpetxoren bat agian.

Eta kandela piztu nuen. Sutarantz makurtzen ari nintzen bitartean dardaraz nengoela ohartu nintzen, eta astindu bat sentitu nuen, atzetik ukitu izan banindute bezala.

Ez nengoen, ez, lasai, zalantzarik ez da.

Urrats batzuk egin nituen, ozen hitz egin nuen. Abesti pasarte batzuk kantatu nituen aho-tsa jaso gabe.

Gero bi giltza itzuliz itxi nuen gelako atea, eta ziurxeago sentitu nintzen. Ezingo zen inor sartu, behintzat.

Eseri nintzen berriro eta luzaro aritu nintzen gogoetan gertaera hari buruz; gero oheratu eta argiari putz egin nion.

Minutu batzuetan gauzak ongi joan ziren. Ahoz gora etzanda nengoen, nahiko ongi. Gero gela begiratzeko gogoia etorri zitzaidan, eta albo-ka etzan nintzen.

Suak bizpahiru txingar gorri baizik ez zuen, besaulkiaren hankak ozta-ozta argitzen zituzte-nak; eta berriro haren gainean eserita gizona ikustea iruditu zitzaidan.

Mugimendu arin batez pospolo bat piztu nuen. Huts egina nintzen berriro, ez nuen ezer ikusten.

Jaiki nintzen, hala ere, eta besaulkia nire ohe atzean ezkutatu nuen.

Berriro ilundu nuen, eta lo hartzen ahalegin-du nintzen. Bost minutu ere ez neramatzan lozo-

rroan; ametsetan, errealtatean bezain zehatz, gaueko eszena guztia ikusi nuen. Asaldaturik esnatu nintzen, eta gelan argia pizturik, ohean eserita egon nintzen, berriro lo hartzen ahalegin-
du ere egin gabe.

Bi bider hartu ninduen, hala ere, loak, nire gogoz kontra, segundo batzuetan. Bietan gauza bera ikusi nuen berriro. Eroturik nengoela uste nuen dagoeneko.

Eguna azaldu zuenean sendaturik sentitu nintzen, eta lasai-lasai egin nuen lo eguerdi ingurua arte.

Kito, bukatua zen. Sukarra izango nuen, amets gaiztoren bat, zer dakit nik? Gaixorik egona nintzela, alegia. Guztiz ergela nintzela iruditzen zitzaidan, hala ere.

Egun horretan pozik ibili nintzen. Kabaretean afaldu nuen; ikuskizuna ikustera joan nintzen, eta etxerako bidea hartu nuen gero. Baina horra non etxera hurbildu ahala halako artegatasun berezi bat jabetzen zaidan. Berriro hura ikusteko beldurra. Ez haren beldurra, eta hura han egongo zelako beldurra, ez bainuen horretan sines-
ten, baina berriro begiek huts egingo ote zidaten

beldur, begitazioaren beldur, nagusituko zitzaidan izumenaren beldur.

Ordubetik gora ibili nintzen atzera eta aurrera espaloian; gero ergelegi jokatzeko ari nintzela iruditu zitzaidan azkenerako, eta sartu nintzen. Halako arnasestuka ari nintzen non ez bainintzen gauza eskaileran gora igozeko ere. Beste hamar minutu egon nintzen nire bizilekuaren aurrean, eskailburuan; gero, ausardia alditxo bat izan nuen, kolpetik, kemenaren tinka aldi bat. Giltza sartu nuen; oldartu nintzen aurrera, eskuan kandela bat hartuta, bultzatu nuen ostiko batez nire gelako ate erdi itxia, eta begiratu asaldatu bat bota nuen tximinia aldera. Ez nuen ezer ikusi. «Ai...»

Hura lasaitasuna! Hura poza! Hura lasaitzea! Zalu nenbilen atzera eta aurrera. Baina ez nengoen ziur-ziur; aldiro ikaraturik itzultzen nintzen; zokoetako iluntasunak artega jartzen ninduen.

Gaizki lo egin nuen, hots irudipenek etengabe iratzarrik. Baina ez nuen ikusi. Bukatua zen dena!

Egun hartaz gero beldurra izaten dut gauzez bakarrik nagoenean. Hortxe sentitzen dut ikuspena, hurbil-hurbil. Ez zait berriro agertu. Ez! Zer axola dio, gainera, gauza horietan ez dut sinesten-eta, badakit-eta ezer ez dena!

Eta traba egiten dit hala ere, etengabe baitut gogoan, —esku bat eskuineko aldetik zintzilik, burua ezker aldera samar makurtua; lotan dagoen batena bezala... Tira, aski da, Jainkoarren, ez dut berriro gogora ekarri nahi!

Zer da, ordea, obsesio hau? Zergatik irauten du honenbeste? hankak su ondo-ondoan zituen!

Atsekabeturik nauka, erokeria da, baina hala xe da. Nork hark? Badakit ez dela existitzen, ez dela ezer? Nire goganbeharretan, nire beldurretan, nire larrialdietan baizik ez da existitzen! Tira, aski da!

Bai, baina alferrik ahalegintzen naiz neure buruari arrazoiak ematen, neure burua behartzen, ez naiz etxean bakarrik egoteko gauza. Ez dut berriro ikusiko, badakit, ez da berriro agertuko, bukatu ziren gauza horiek. Nire pentsamenduetan, ordea, han dago beti. Ikusezin dago, horrek ez du esan nahi, ordea, han egon ezin

daitekeenik. Han dago ate atzeetan, armairu itxian, ohe azpian, zoko ilun guztietan, itzal guztietan. Atea jiratzen badut, armairua zabaltzen badut, argia ohe azpira jaisten badut, zokoak, itzalak argitzen baditut, ez dago ja; baina nire atzean sentitzen dut orduan. Eta itzuli egiten naiz, jakinik ez dudala ikusiko, ez dudala berriro inoiz ikusiko. Baina han dago oraindik, nire atzean.

Ergelkeria da, baina izugarria da. Zer nahi duzu egitea? Ezin dut ezer egin.

Etxean bi bagina ordea, badut nirekiko, ziur naiz, ez litzatekeela gehiago egongo! Bakarrik nagoelako baitago han, bakarrik nagoelako soil-soilik.

(1883ko uztailaren 3an)

Eskua

Bermutier instrukzioko epaile jaunaren inguruan zeuden biribilean, Saint-Cloud-eko gertaera misteriozkoaz iritzia ematen ari baitzen. Hilabetea bazuen krimen argitu ezin hark Paris asaldaturik zeukala. Gai hartan inork ez zuen ezer ulertzen.

Bermutier jauna, zutik, bizkarra tximiniaren kontra, bikain, frogak biltzen, iritzi desberdin guztiak eztabaidatzen ari zen, baina ez zuen ondoriorik ateratzen.

Emakume batzuk altxatu eta harengana hurbilduak ziren, eta zutik jarraitzen zuten, begiak hitz sakonak ateratzen ari ziren epailearen aho bizarra txukun moztuan finkaturik. Emakume haiek ikaraz dar-dar egiten zuten, beren beldur jakin-minak, arima sorgintzen dien goseak bezala torturatzen zituen, izu-premia aseezinak larriturik.

Haietako bat, besteak baino zurbilago zegoen, hasi zen isil une batean:

— Izugarria da. «Naturaz goitiko» da ia. Ez da jakingo inoiz.

Epailea harengana itzuli zen:

— Bai, andrea. Aise gerta daiteke inoiz ezer ez jakitea. «Naturaz goitiko» esan duzun horri dagokionez, hemen zer ikusirik ez du. Artezia handiz prestatutako krimen bat da esku artean daukagun hau, artezia handiz burutua, hain ederki misterioz bildua non ezin soildu baitugu inguratzen duten zirkunstantzia atxiki ezinetatik. Baina neuk ere izan nuen, garai batean, egiaz tartean gauza fantastikoak ageri zirela zirudien auzi bat argitu beharra. Utzi egin behar izan nuen, gainera, argitzeko baliabiderik ez nuelarik.

Emakume pilatxo bat hasi zen, denak batera, hain bizkor non ahots guztiek bat baizik ez baitzuten egiten:

— Oi! Konta iezaguzu hori.

Bermutier jaunak irribarre egin zuen, handizki, instrukzio epaile batek irribarre egin behar duen bezala. Jarraitu zuen:

— Ez ezazue uste izan behintzat, instant batez ere gertaera honetan gizonaz goitiko ezer izan zela gogotik igaro ere egin zitzaidanik. Nik

kausa normaletan baizik ez dut sinesten. Baina ulertzen duguna adierazteko «naturaz goitiko» esamoldea erabili ordez, «azaldu ezinezkoa» esamoldeaz baliatuko bagina, askoz hobe izango litzateke. Edozeinetara ere, kontatzera noakizuen gertaera honetan, gertaera inguratzen zuten zer-nolakoek, prestameneko zirkunstantziek, eragin zidaten batez ere zirrara. Hona, bada, gertatuak:

Ajaccio-n nintzen instrukzioko epaile; hiritxo txuri-txuri bat da, alde guztietatik mendiz inguratua dagoen itsas golko zoragarri haren ertzean etzana.

Han vendetta arazoak nituen batez ere zaintzeko. Badira vendetta bikainak, izan daitezkeen dramatikoena, ankerrak, heroikoak. Han aurkitzen dira amets ere egin daitezkeen mendeku gai ederrenak, mendeetako gorrotoak, aldi batez baketuak, baina sekula ere ez itzaliak, maltzurkeria nardagarriak, azkenerako masakre eta ia-ia egitate handi bilakatzen diren hilketak. Bi urte baziren odolaren prezioa baizik aipatzen entzuten ez nuela, egin den hoben oro egin duenaren gain, haren ondorengoen gain edo haren ahai-

deen gain mendekatzera behartzen zuen Korsikako ustekeria ikaragarri hori alegia. Agureak, haurrak, lehengusuak lepoa moztuta ikusia nintzen, burua bete-betea nuen horrelako historiez.

Horrela bada, Ingeles batek golkoaren bestaldeko txalek bat urte batzuetarako alokatu zuela jakin nuen egun batean. Frantses morroi bat ekarri zuen, Marseillatik igarotzean kontratatua.

Luzaro baino lehen jende guztiak ahotan zerabilen pertsonaia bitxi hura, bere egoitzan bakarrik bizi zena eta ehizarako eta arrantzarako baizik handik ateratzen ez zena. Inorekin ez zuen hitz egiten, ez zen inoiz etortzen hirira, eta goizero-goizero ordu bat edo bi ematen zituen pistolaz edo karabinaz tiroan trebatzen.

Ipuinak eta esamesak sortu ziren hari buruz. Batzuek ziotenez, maila handiko norbait omen zen politika zela-eta bere herrialdetik ihes egina; beldurgarrizko krimen bat egin ondoren ezkutu zegoen bat omen geroago. Xehetasun bereziki izugarritzakoak ere aipatzen ziren.

Instrukzioko epaile nintzen aldetik, gizon hari buruzko berri zehatzagoak jakin nahi izan

nituen; ezin izan nuen ezer ikasi, ordea. Sir John Rowell izenez aurkezten zen.

Hurbiletik zainduz etsi behar izan nuen, beraz; baina ez zidaten ezer susmagarririk jakinarazi hari buruz.

Nolanahi ere, hari buruzko zurrumurruak gelditzen ez zirenez, handitu eta zabaldu baizik, arrotz hura neure begiaz ikustera joatea deliberratu nuen, eta aldiro haren jabegoaren inguruan ehizara joaten hasi nintzen.

Luzaro egon nintzen aukera on baten zain. Nik bota eta ingelesaren sudurraren aurreaurrean erori zen eper baten itxuran etorri zen abagune hori. Zakurrak niri ekarri zidan, baina ehiza harturik, nire oiheskeria barkatzeko eta sir John Rowelli arren hegazti hila oparitzat hartzeko eskatzera joan nintzaion.

Gizatzar ile-gorri bat zen, bizar-gorria, oso handia, halako Herkules baketsu, eratsu bat. Ez zuen ezer britainiarra esan ohi den zurruntasun horretatik, eta esker onak eta asko eman zizkidan nire opariagatik, Mantxaz bestaldeko azentudun frantses batean. Handik hilabeterako,

elkarrekin bospasei aldiz solasean jardunak ginen.

Hala bada, arrats batez, haren ate aurretik nindoala, pipa erretzen ikusi nuen, aulki batean hankalatraba eseririk, bere lorategian. Diosal egin nion, eta baso bat garagardo edatera sartzeko gonbita egin zidan. Ez nuen bi aldiz esan beharrik izan.

Ingelesen kortesia zehatz guztiarekin egin zidan harrera, gorespenez hitz egin zuen Franziaz, Korsikaz, lurralde hau, itsasertz hau guztiz atsegin zuela aitortu zuen.

Eta orduan, nik, kontu handiz, eta oso interes biziko itxuraz, galdera batzuk egin nizkion bere bizitzaz, bere asmoez. Enbarazurik gabe erantzun zidan; oso bidaiatua omen zen, kontatu zidanez, Afrikan zehar, Indietan zehar, Ameriketan zehar. Eta barrez-barrez gehitu zuen:

— Ni abentura asko izan, oh! yes.

Gero ehizaren gaia atera nuen berriro, eta xehetasunik bitxienak eman zizkidan hipopotamoaren ehizaz, tigrearenaz, elefantearenak, gorilarenaz ere.

— Animalia horiek guztiak beldurgarriak dira
—esan nion.

Irribarre egin zuen:

— O, ez! Gizona txarrena.

Eta barrez hasi zen, pozik dagoen ingeles
lodikote baten barre beteaz:

— Askotan ehizatu nik gizona ere.

Gero armez hitz egiten hasi zen, eta etxera
sartzeko eskaini zidan, sistema desberdinetako
fusilak erakutsi nahi zizkidalako.

Egongela beltzez tapizatua zuen, urrez bro-
datutako seda beltz batez. Lore hori handi
batzuk zituen han-hemenka oihal ilunaren gai-
nean, sua bezalako distiraz.

— Japoniako oihala —azaldu zuen.

Baina tarte handienaren erdian zegoen
gauza bitxi batek erakarri zidan begia. Belus
gorrizko koadro batean gauza beltz bat nabar-
mentzen zen. Hurbildu nintzen hara: esku bat
zen, giza esku bat. Ez eskuaren hezurdura, zuri
garbia, esku beltz ihartu bat baizik, aizkora kolpe
batez bezala besoaren erdi aldean zehatz ebaki-
tako hezurren gainean bere azkazal horiak, giha-

rrak agerian, eta odol orban zaharrak, kraka balitz bezalakoak zituela.

Burdinazko katetzar batek, eskumuturraren inguruan soin atal trakets hura estutuz, hari itsatsirik, elefante bat lakioan edukitzeko adinako zirgilo batez loturik zeukan eskua hormara.

— Zer da hori? —galdetu nion.

Ingelesak lasai erantzun zidan:

— Nire etsai onena zen. Amerikatik etorri zen. Sableaz moztu, eta azala harri zorrotz batez kendu, eta eguzkitan lehortu zortzi egun. A! Oso ona niretzat hori.

Giza hondakin hura ukitu nuen; erraldoi bate-na izana inondik ere. Hatzak, neurritz goitik luzeak, oraindik ere han-hemenka azal zerrendak zituzten zainez lotuak zeuden. Esku hura nazkagarria zen ikusteko, larrutua zegoen bezala, eta basatiren baten mendekua gogoratzen zuen segituan.

— Gizon hori oso indartsua zen, inondik ere —esan nion.

Ingelesak emeki esan zuen:

— O yes; baina ni indartsuagoa izan hura baino. Kate hori jarri eusteko.

Bromatan ari zela iruditu zitzaidan. Esan nion:

— Orain alferrik du kate hori, esku horrek ez du ihes egingo.

Sir John Rowell-ek serio erantzun zidan:

— Beti nahi alde egitea. Kate hori beharrezkoa.

Begirada batez haren aurpegia arakatu nuen, neure buruari galdez:

— Erotuta dago, ala adarjotzaile gaiztoen bat ote?

Baina haren aurpegiak barrendu ezin, lasai eta onginahizko jarraitzen zuen. Beste gai batez hasi nintzen hizketan, eta fusilak miretsi nizkion.

Ohartu nintzen, hala ere, hiru errebolber kargatu zeudela altzarietan jarrita, gizon hura beti erasoren baten beldurrez bizi balitz bezala.

Askotan itzuli nintzen haren etxera. Gero ez nintzen berriro joan. Ohitu egin ginen hura han izatera; pertsona arrunt bihurtu zen denentzat.

* * *

Urte oso bat joan zen. Goiz batez, azaro bukaera aldera, morroiak esnatu eta gau hartan sir John Rowell hil zutelako berria eman zidan.

Handik ordu erdira, ingelesaren etxean sartzzen ari nintzen, komisario nagusiarekin eta jendarmeriako kapitainarekin batera. Haren morroia ate aurrean zegoen, negar eta negar, bere onetatik aterata etsi-etsian. Hari hartu nion susmoa lehendabizi, baina errugabea zen.

Inoiz ez zen erruduna aurkitu ahal izan.

Sir Johnen egongelan sartzean, gorpua ikusi nuen lehen begiratuan, ahoz gora etzanda, gela erdi-erdian.

Txalekoa urratuta zegoen, mahuka erauzi bat zegoen zintzilik, borroka izugarria izan zela adierazten zuen denak.

Ingelesa itota hil zen! Haren aurpegi beltz puztu, beldurgarriak izumenezko ikara bat adierazten zuen, itxuragatik; zerbait zeukan bere hortz estutuen artean; eta lepoa, burdinazko puntaz eginak ziruditen bost zulorekin, odolez estalia zegoen.

Sendagile bat etorri zitzaigun laguntzera. Haragiak zituen hatz markak luzaro aztertu ondoren, hitz bitxiok esan zituen:

— Eskeleto batek ito duela ematen du.

Hotzikara batek igaro zidan bizkar osoa, eta hormarantz luzatu nituen begiak, behinola larrutuaren eskua ikusia nuen lekura. Ez zegoen han. Katea, etena, zintzilik zegoen.

Horretan, bada, hildakoaren gainerantz makurtu nintzen, eta haren aho estutuan desagertua zen esku haren hatz bat aurkitu nuen, hortzek bigarren hatz hezuraren paretik moztua edo, hobeto esanda, zerratua.

Gero froga bilketa egin zen. Ezer ez zen aurkitu. ez aterik, ez leihorik, ez altzaririk ez zen behartu. Bi ate-zakurretatik bat ere ez zen esnatu.

Hona hitz gutxitan morroiak adierazia:

«Hilabete bat lehenagotik-edo nagusiak artega samar zirudien. Gutun pila bat hartu zuen, eta hartu ahala erre.

»Behin baino gehiagotan, zigor bat hartu, eta eromena zirudien batez amorru bizian jo omen zuen, hormari lotua zegoen eta krimena izan

zenean, inork nola ez dakiela, handik kendu zuten esku ihartu hura.

»Oso berandu oheratzen zen, eta kontu handiz ixten zuen dena. Beti zituen armak eskura. Gauetan ozen hitz egiten aritzen zen askotan, norbaitekin errietan ari balitz bezala».

Gau hartan, hala behar-eta, ez zuen zaratarik batere egin, eta leihoak zabaltzera etorri zenean aurkitu zuen otseinak sir John hila. Inoren susmorik ez zuen.

Hildakoaz nekizkien guztiak esan nizkien epailei eta poliziako ofizialei, eta ikerketa sakon bat egin zen uharte osoan. Ez zen ezer aurkitu.

Krimena izan eta handik hiru hilabetera, ordea, amets beldurgarri bat izan nuen. Esku hura, esku beldurgarri hura, lupua edo armiarma bezala nire errezeletan eta hormetan zehar lasterka. Hiru bider esnatu nintzen, hiru bider loak hartu ninduen berriro, hiru bider ikusi nuen berriro hondakin nardagarri hura nire gelan zehar lasterka, hatzak hankak balira bezala mugituz.

Biharamunean ekarri zidaten, hilerrian, sir John Rowellen hilobiaren gainean aurkitu zutelarik; han baitzegoen lur emanik, haren familiarik

aurkitu ezin izan zenez. Hatz erakuslea falta zuen.

Hona, bada, andreak, nire historia. Gehiagorik ez dakit.

* * *

Emakumeak, asaldaturik, zurbil-zurbil zuden, dardaratan. Batek esan zuen:

— Hori ez da baina historia baten amaiera edo azalpena ere! Ez dugu lorik egingo, zure iritzian zer gertatu zen esaten ez badiguzu.

Epaileak halako irribarre serio bat egin zuen:

— Ai, andre nireak, zuen amets beldurgarri horiek hondatzera noakizue ziurrenik. Nire iritzian esku haren legezko jabea ez zegoen hilda, eta geratzen zitzaionarekin bestearen bila etorri zen. Baina ezin izan nuen asmatu nola egin zuen, adibidez. Vendetta moduko bat izan zen, alegia.

Emakumeetako batek ahopeka esan zuen:

— Ez, ezin du horrela izan.

Eta epaileak, irribarrez betiere, bukaera eman zion:

— Esan dizuet nire ustezko azalpena ez zenu-
tela atsegin izango.

(1883ko abenduaren 23an)

Adatsa

Gelako hormak hutsik zeuden, karez pinta-tuak. Horman oso goian, inor ez iristeko moduan, zulatutako leiho estu saretadun batek argitzen zuen gela argi, hits hura; eta eroak, lastozko aulki batean eseririk, begirada finko, lauso, oinazetu batez begiratzen zigun. Oso argala zen, masailak hustuak, eta ilea ia zuri, handik hilabete gutxitara zuritua izango zela uste izatekoa. Jantziek zabalegi ziruditen haren soin atal iharrentzat, haren bular estutuarentzat, haren sabel hustuarentzat. Bere gogoetak suntsituta ikusten zen gizon hura, harrak fruitua jaten duen bezala, pentsamendu batek, bere Pentsamenduak, marruskatua. Bere Eromena, bere ideia, hantxe zegoen, buru hartan, tematua, gizona hertsatzen, barrenetik suntsitzen. Poliki-poliki gorputza jaten ari zitzaion. Ideia Ikusezin, Ukiezin, Atxikiezin, Materiagabe hura haragia higatzen, odola edaten, bizitza itzaltzen ari zitzaion.

Hura misterioa, Amets batek hildako gizona!
Bihotz mina ematen zuen, bihotz mina, beldurra

eta errukia, Behargabedun hark! Zer amets berezi, beldurgarri, hilkor bizi zen denbora guztian berritzen ari ziren izur sakonez zimurtzen zuen bekoki hartan?

Sendagileak esan zidan:

— Sekulako zakarraldia izaten ditu, nik ikusi dudan erorik berezietako bat da. Eromen erotiko makabro batek joa dago. Nekrofilia moduko bat du. Bere egunkaria idatzia du gainera, eta oso garbi erakusten digu bere arimako gaixotasunaren mundua. Bere eromena ageri-agerian dago, nolabait esateko, idazki horretan. Interesa baduzu, azter dezakezu dokumentu hori.

Sendagilearen atzetik haren bulegora joan nintzen, eta gizon errukarri haren egunkaria eman zidan.

— Irakur ezazu, eta esango didazu zer derizkiozun.

Hona zer zegoen koaderno hartan.

* * *

Hogeita hamabi urte bete nituen arte bakean bizi izan nintzen, maitasunik gabe. Oso gauza

soila, ona eta erraza iruditzen zitzaidan bizitza. Aberatsa nintzen. Hainbeste gauza gustatzen zitzaizkidan non ezin bainuen ezertarako grina berezirik sentitu. Gauza ederra da bizitzea! Zoriontsu esnatzen nintzen egunero, gustatzen zitzaizkidan gauzak egiteko, eta pozik oheratzen nintzen, biharamunerako itxaropen bare batez, etorkizunak kezkarik ekarriko ez zuelako ustez.

Maitale batzuk izana nintzen, nire bihotza desiraz erotua edo haiek gozatu ondoren arima amodioz oinazetua inoiz eduki gabe. Gauza ederra da horrela bizitzea. Maite izatea hobea da, ikaragarria da, ordea. Baliteke jende guztiak ohi duen bezala maitatzen dutenek zorion suhar bat sentitzea, nirea baino apalagoa agian, zeren sinetsi ere ezin den moduan etorri baitzitzaidan niri maitasuna.

Aberatsa nintzenez, altzari zaharren eta antzinako gauzen zale nintzen; eta askotan etortzen zitzaizkidan gogora gauza haiek igurtzi zituzten esku ezezagunak, haiek miretsi zituzten begiak, haiek maite izan zituzten bihotzak, gauza horiek maitatu egiten baitira, zinez! Orduan geratzen nintzen maiz, orduak eta orduak,

iragan mendeko erlojutxo bati begira. Hain zen apaina, hain pollita, bere esmaltearekin, bere urre zizelatuarekin. Eta emakume batek bitxi fin hura edukitzeko pozean erosi zuen egunean bezalaxe zebilen oraindik ere. Sekula ez zuen eten bere taupada, sekula ez zuen gelditu bere bizitza mekanikoa, eta etengabe jarraitzen zuten bere tik-tak hura egiten, mende bat igarota ere. Nork erabili ote zuen lehendabiziko aldiz bere bularrean, bere zapietako epeltasunean, erlojuaren bihotzak emakumearen bihotzaren ondoan taupadaka egiten zuela? Zein eskuk eduki ote zuen bere hatz bero samarretan, eta gero itzuli, berritzuli, eta gero azalaren hezetasunak segundo batez lausotutako portzelanazko ertzak xukatu? Zer begik zelatatuko ote zuten haren ordutegian, itxaroten ari ziren ordua, ordu maitea, jainkozko ordua?

Nola nahiko nukeen nik ezagutu, ikusi, gauza zoragarri eta bakan hura aukeratu zuen emakumea! Hilik da! Behinolako emakumeen desira horrek guztiz harturik nauka; maitatu izan duten emakume guztiak maite ditut, urrutitik! Samurtasun igaroen historiak nahigabez betetzen dit

bihotza. Ai edertasuna, irribarreak, fereka gazteak, itxaropenak! Horrek guztiak ez al luke betirako izan behar!

Zenbat negar egin dudan, gau osoetan, garai bateko emakume gaixo haiengatik, hain samurrak, hain gozoak, besoak musu hartzeko zabaldu zituztenak, eta gaur egun hilik daudenak! Musu horiek betierarako dira! Ezpainik ezpain doaz, menderik mende, belaunaldiz belaunaldi. — Gizonek hartzen dituzte, ematen dituzte eta hil egiten dira.

Iraganak erakartzen nau, orainak izutzen, etorkizuna heriotza delako. Dolu dut egin izan den guztia; negar eragiten didate bizi izan diren guztiek; denbora gelditu nahi nuke, ordua gelditu nahi nuke. Baina denbora joan egiten da, igaro egiten da, segundoz segundo nirea den zerbait kentzen dit, atzoko ezerezari emateko. Eta ez dut berriro hori biziko.

Agur atzoko emakumeak. Maite zaituztet.

Baina ez dut zertaz kexu izan. Aurkitu dut zain nengoena, eta sinetsi ere ezinezko plazerak dastatu ahal izan ditut hari esker.

Parisen zehar nenbilen goiz eguzkitsu batez, bihotza jaietan, oina alai, begirazalearen interes zehazgabe horrez dendetan begira. Horretan XVII. mendeko italiar altzari bat begiztatu nuen zaharkin denda batean. Oso ederra zen, oso bakana. Garai hartan fama handia izan zuen Vitelli izeneko veneziar artista batek egina iritzi nion.

Eta aurrera jarraitu nuen.

Zergatik jarraitu zidan hainbestearaino altzari haren oroitzapenak, berriro atzera itzularazteraino? Denda aurrean gelditu nintzen berriro, altzaria berriro ikusteko, eta tentatu egiten ninduela sentitu nuen.

Zer gauza bitxia tentazioa! Gauza bati begiratzen diozu, eta, poliki-poliki, limurtu egiten zaitu, nahastu egiten zaitu, jabetu egiten zaizu, emakume baten aurpegia balitz bezala. Haren xarma barreneraino sartzen zaizu, haren formak, haren koloreak, haren gauza itxurak sortzen duen xarma; eta maite duzu dagoeneko, desira duzu, nahi duzu. Haren jabe izan behar bat nagusitzen zaizu, behar gozoa hasieran, herabea balitz bezala, baina hazi egiten da, oldartsu bila-

katzen da, ezin eutsizko bihurtzen da. Eta badi-rudi saltzaileek begiradaren garretan sumatzen dutela hazten ari den gurari ezkutuko hori.

Altzari hura erosi eta segituan etxera eramateko agindu nuen. Nire gelan jarri nuen.

Ai, erruki diet bildumagileak erosi berri duen gutziarekin izaten duen ezialdi hori ezagutzen ez dutenei. Fereka egiten diozu, begiaz eta eskuz, haragizkoa balitz bezalaxe; behin eta berriro haren ondora itzultzen zara, gogoan erabiltzen duzu beti, nora ere joaten baitzara, zer ere egiten baituzu: eta berriro ere etxera itzultzen zarenean, eskularru eta kapeluak erantzi ere baino lehenago, hura ikustera joaten zara, maitale baten samurtasunaz.

Zortzi egunez adoratzeko eduki nuen, egiaz, altzari hura. Une oro zabaltzen nituen ateak, tiraderak; liluramenetan maneiatzen nuen, jabe izateak dituen barne poz guztiak gozatuz.

Arratsalde batez, ordea, albo baten loditasuna haztatzen ari nintzela, han gordetegiren bat egon behar zuela ohartu nintzen. Bihotza taupadaka hasi zitzaidan, eta gau osoa eman nuen sekretuaren bila, aurkitu ezinda.

Biharamunean lortu nuen, zureriako zirrikitu batean burdin xafla bat sartuz. Ohol bat lerratu zen, eta belus beltzeko estalki baten gainean emakume baten adats zoragarri bat ikusi nuen!

Horixe, adats bat, ile hori, ia gorrizko adats bat, ilea inondik ere hondo-hondotik moztu eta urrezko hari batez loturik egina.

Txunditurik nengoen, dardaraz, asaldaturik! Urrin ia ezin atzemaneko bat, hain zaharra non bai baitzirudien usain baten arima zela, zabal-tzen zen tiradera misteriozko hartatik eta erlikia harrigarri hartatik.

Heldu nion adatsari geldiro, ia erlijiozko begirunez, eta ezkutalekutik kanpora atera nuen. Bat-batean zabaldu zen, uhin urre-kolore baten gisan lurreraino erortzeko, lodi eta arin, malgu eta distiratsu, kometa baten suzko isatsa bailitzan.

Zirrara bitxi batek hartu ninduen. Zer zen hura guztia? Noiz, nola, zergatik gorde zen ile hura altzari hartan? Zer abentura, zer drama ezkututzen zuen oroigarri hark? Nork moztu zuen? maitale batek agur egun batez? senar

batek mendeku egun batez? ala buruan eduki zituenak berak, etsimen egun batez?

Komentuan sartu beharreko batek jarri ote zuen maitasun fortuna hura han, biziaren munduan utzitako bahitura bat bailitzan? Hildako emakume gazte ederra hilobian iltzatzeko orduan gorde ote zuen, maite zuenak, haren buruko apaingarria, huraxe zuelako harengandik gorde ahal izango zuen gauza bakarra, haren gorputzetik ustelduko ez zen zati bizi bakarra, aurrerantzean maitatu eta ferekatu ahal izango zuen zati bakarra, oinaze saminetan musu eman ahal izango zion gauza bakarra?

Ez al zen gauza harrigarria ile adats hura horrela geratu izana, jaiotzatik zuen gorputzaren zatirik txikiena ere geratzen ez zenean?

Hatzen artetik irristatzen zitzaidan, azala fereka berezi batez, hildako baten ferekaz, kili-matuz. Negar egitera banindoa bezala sentitu nintzen samurturik.

Luzaro eduki nuen, luzaro, eskuetan, gero mugitzen ari zela iruditu zitzaidan, hartan gorde-rik arimaren zatiren bat geratu izan balitz bezala. Eta denborak hingatutako belusaren gainean

jarri nuen berriro, eta tiraderari bultza egin nion,
eta altzaria itxi nuen, eta kaleetan barrena abiatu
nintzen, amets egiteko.

* * *

Tristuraz beterik nindoan aurrerantz, baina
nahasmenduz beterik orobat, maitasunezko
musu baten ondoren bihotzean gelditzen zaizun
nahasmendu horrez beterik. Lehenagoko garaie-
tan bizi izana nintzela iruditzen zitzaidan, ema-
kume hura ezaguna nuela.

Eta Villon-en bertsoak etorri zitzaizkidan
ezpainetara, zotina etor daitekeen bezala:

*Dictes-moy où, ne en quel pays
Est Flora, la belle Romaine,
Archipiada, ne Thais,
Qui fut sa cousine germaine?
Echo parlant quand bruyt on maine
Dessus rivière, ou sus estan;
Qui beauté eut plus que humaine?
Mais où sont les neiges d'antan?*

.....

*La royne blanche comme un lys
Qui chantait à voix de sereine,
Berthe au grand pied, Bietris, Allys,
Harembouges qui tint le Mayne,
Et Jehanne la bonne Lorraine
Que Anglais bruslèrent à Rouen?
Où sont-ils, Vierge souveraine?
Mais où sont les neiges d'antan?*

Berriro etxera itzuli nintzenean, nire aurki-kuntza bitxi hura berriro ikusteko ezin eutsizko gogo batek hartu ninduen; eta berriro hartu nuen, eta hura ukitzean hotzikara luze bat sentitu nuen soin atal guztietan zehar.

Egun batzuetan normal egon nintzen, nolana ere, adats haren oroitzapen bizia sekula joaten ez bazitzaidan ere.

Etxera itzultzen nintzenean, hura berriro ikusi eta berriro eskuetan erabili beharra izaten nuen. Maitearen atea zabaltzen den bezalakoxe hozkiri batez birarazten nuen armairuko atea, zeren halako premia nahasi, berezi, etengabe, sensual bat bainuen nire eskuetan eta nire biho-

tzean, nire hatzak ile hilezko erreka xarmagarririk hartan bustitzeko.

Gero aski ferekatu nuenean, altzaria berriro itxia nuenean, han sentitzen nuen oraindik ere, izaki bizi bat bailitzan, ezkutuan, preso; eta hura sentitu eta berriro desiratzen nuen; ezin eutsizko premia sentitzen nuen berriro hura eskuetan hartzeko, ukitzeko, ukipen hotz, labain, haserre-garri, erogarri, zoragarri hark berriro gaixotzeraino suhar nintzan.

Hilabete bat edo bi bizi izan nintzen horrela, ez dakit zenbat. Gogoia erabat hartua zidan, sorgindua ninduen. Zorioneko nintzen, eta torturatua, maitasunaren itxaropenean bezala, maitea estutu aurretiko aitortzen ondoren bezala.

Bakarrik geratzen nintzen harekin, nire azalaren gainean sentitu ahal izateko, hartan nire ezpainak estutzeko, musu emateko, hozka egiteko. Nire aurpegiaren inguruan kiribiltzen nuen, edan egiten nuen, nire begiak urrezko uhin hartan itotzen nituen, hartan zehar eguna urre-kolorereko ikusteko.

Maite nuen! Bai, maite nuen! Hura gabe ezin nuen etsi, ezin nuen ordu bat eman hura ikusi gabe.

Eta zain nengoen... zain... zeren zain? Ez nekien. —Haren zain.

Gau batean bat-batetik esnatu nintzen, nire gelan bakarrik ez nengoelako susmoarekin.

Bakarrik nengoen, ordea, baina ezin izan nuen berriro lo hartu, eta loerre sukar bat nuen, adatsa berriro ukitzera joateko jaiki nintzen. Ohi baino leunago zegoela iruditu zitzaidan, biziago. Hildakoak itzultzen al dira berriro? Beroztzeko ematen nizkion musuek zorionez zorabiarazten ninduten; eta ohera eraman nuen, eta hantxe etzan nintzen, nire ezpainen kontra estutuz, gozatu behar den maitalea bezala.

Hildakoak berriro itzultzen dira! Hura itzuli egin da. Bai, ikusi egin dut, beso artean eduki dut, neure egin dut, garai batean bizi zenean bezalaxe, handi, ilehori, bete, titiak hotz, gerria lira baten gisa; eta ferekaz bete dut eztarritik oinetaraino haragiaren bihurgune guztietan zehar doan uhinezko lerro hori.

Bai, egunero, gauero eduki dut. Berriro itzuli da, Hildako emakumea, Hildako ederra, Adoragarria, Misteriozkoa, Ezezaguna, gauero eduki dut.

Hain handia izan nuen zoriona, non ezin izan bainuen gorde. Gizonaren indarra baino gehiagoko zorabioa sentitzen nuen haren ondoan, Atxikiezina, Ikusezina, Hila zeuretzeak ematen duen poz sakon, azaldu ezina. Inongo maitalek ez du izan hura bezain gozamen suharrik, ikaragarririk!

Ez nuen jakin nire zoriona ezkutuan gordezen. Maitasunaren maitasunez ez nuen gehiago harengandik aparte egon nahi izan. Aldean erabiltzen nuen beti, alde guztietan. Nire emaztea balitz bezala atera nuen paseatzera hirian zehar, antzokira eraman nuen, antzokiko begiratoki sare ezkutatuetera, maitalea bailitzan... Baina ikusi egin zuten... asmatu egin zuten... kendu egin zidaten... Eta kartzelan sartu naute, gaizkile bat banintz bezala. Kendu egin didate... Hau zoritxarra!...

Horretan eteten zen eskuizkribua. Eta bat-batean, medikuarengana begi aztoratuok jasozten ari nintzeneantxe, oihu beldurgarri bat, amorru ezinduzko eta desira sukarrezko orro bat entzun zen eroetxean.

— Entzuten duzu —esan zuen sendagileak—. Bost bider dutxatu behar da egunean ero lizun hori. Bertrand sarjentua ez da hildako emakumeak maite izan dituen bakarra.

— Baina... adats hori bada, izan? —galdetu nion zezelka, harridurak, izumenak eta errukiak asaldaturik.

Sendagilea jaiki zen, zabaldu zuen flaskoz eta tresnaz beteta zegoen armairu bat, eta ile horizko txinparta hari bat jaurti zidan, bere bulegoaren alderik alde, urrezko txori baten gisa hegan.

Ikara eragin zidan nire eskuetan haren ukitu ferekatzaile arina sentitzean. Eta bihotza taupadaka geratu nintzen, nazkaz eta desiraz, nazkaz krimenetan hara-hona erabilitako gauzak ukitzean bezala, eta desiraz, gauza lotsagarri eta misteriozko baten tentazioaren aurrean bezala.

Sendagileak bizkarra jaso, eta esan zuen:

— Gizonaren izpiritua edozertarako gauza da.

(1884ko maiatzaren 13an)

Tik bat

Afaltiarrak geldiro ari ziren sartzen hoteleko gela handian, eta zein bere lekuan esertzen ziren. Zerbitzariak poliki-poliki hasi zuten zerbitzua, berandu zetozenei iristeko astia emateko, eta gero platerak berriro ekarri beharrik ez izateko; eta aspaldiko bainulariek, ohitura zutenek, beren egonaldia aurreratzen ari zitzaienek, interes biziz begiratzen zuten atera, hura zabaltzen zen bakoitzeko, aurpegi berriak azaltzen ikusteko gogoz.

Horixe izaten da bainu herrietako jostagarri nagusia. Afaria arte itxaroten da egun horretan iritsiak aztertzeko, nor diren, zer egin duten, zer pentsatzen duten asmatzeko. Desira bat ibiltzen dugu gure izpirituaren inguruan, topaketa atseginak, ezagutza amultsuak, agian amodioak izateko desira. Harreman bizitza honetan, berebiziko garrantzia izaten dute ingurukoek, ezezagunek. Jakin-mina erne egoten da, sinpatia zain, eta jendetasuna lanean.

Badira astebeteko gaizki ikusiak eta hilabete-ko adiskidantzak, bestelako begiez ikusten da jendea, bainu herriko ezagutzaren ikuspegi berezitik, hain zuzen. Gauean, afaldu ondoren, ur sendatzailea borborka ari den parkeko zuhaitzen pean, ordubeteko solasaldi batean, aparteko adimena eta harrigarriko merituak aurkitzen zaizkio gizon bati, eta handik hilabeterako erabat ahaztu dira adiskide berri haiek, lehenengo egunetan hain maitagarriak zirenak.

Harreman iraunkor eta zinezkoak ere sortzen dira han, beste inon baino bizkorrago sortu ere. Egun guztian ikusten da elkar, elkar ezagutu ere oso bizkor egiten da; eta hasten ari den txera horretan aspaldiko ezagun zaharren arteko lañotasuna eta goxotasuna ere nahasten da. Gerora oroitzapen kutun samurra gordetzen da adiskidetasunaren lehen ordu horiez, arima hura ezagutu ahal izateko balio izan duten lehenengo solasaldiez, galderak egiten dituzten eta ahoak oraindik ere egiten ez dituen galderei eta gogota ezkutukoei erantzuten dieten lehenengo begirada horiez, bere bihotza zabaltzen ari zai-

zunari zuk ere zure bihotza zabalitzeak ematen duen sentipen xarmagarri horrez.

Eta bainutegiko tristurak, beti berdin diren egunen monotoniak, are beteago egiten dute ordurik ordu, txeratasunezko eztanda hori.

* * *

Arrats hartan, bada, arrats guztietan bezala, aurpegi ezezagunak noiz azalduko zain geunden denak.

Bi baizik ez ziren azaldu, baina oso bereziak biak, gizonezko bat eta emakumezko bat: aita eta alaba. Edgar Poe-ren pertsonaiak iruditu zitzaizkidan segituan; baina bazuten halako xarma bat, xarma dohakabe bat; patu gaiztoaren biktimak iruditu zitzaizkidan. Gizonezkoa oso handia eta argala zen, konkortu samarra, ilea zuri-zuria zuen, zuriegi haren aurpegiera oraindik gazterako; eta halako jite serio bat zuen bere tankeran, protestanteek mantendu ohi duten portaera zorrotz hori. Neska, hogeitalau-hogeitabost urtekoa agian, txikia zen, oso mehea hura ere, zurbila oso, halako aire nekatu, unatu, abail-

du batekin. Izaten dira pertsona batzuk bizitzako premia eta beharretarako ahulegiak diruditenak, mugitzeko, ibiltzeko, egunero egiten ditugun horiek guztiak egiteko ahulegiak diruditenak. Nahiko polita zen, haurtxo hura, agerpen baten edertasun gardenekoa; eta guztiz geldiro jaten zuen, besoa mugitzeko ere ia ezgauza balitz bezala.

Hura zen, ziur aski, urak hartzera etorria.

Nire aurrean suertatu ziren, mahaiaren beste aldean, eta berehalaxe ohartu nintzen aitak bazuela tik bat oso-oso berezia.

Zerbaiti heldu nahi zion bakoitzeko, itzuli bizkor bat egiten zion eskuak, sigi-saga erotu bat bezala, bila ari zena ukitu aurretik. Une batzuen buruan, beste aldera biratzen nuen burua, ez ikusteko, hainbesteraingo gogaitarazi baininduen mugimendu hark.

Neskak ere, jateko, ezkerreko eskuko eskularrua ez zuela kentzen ohartu nintzen.

Afal ondoren bainutegiko parkean ibili bat egitera joan nintzen. Auverniako bainu herritxo batean zen hori guztia, Châtel-Guyon-en; zintzur batean dago, mendi garaien oinean, antzinako

sumendien su sakonetatik borborka ateratzen den ur irakina azaleratzen den mendiaren oinean, alegia. Barren-barrenean, gure gainean, domoak, krater itzaliak, beren gailur ebakiak mendi sail luzeaz gainerik jasotzen. Domoen eskualdearen hasieran baitago Châtel-Guyon.

Handik urrutiago gailurren eskualdea dago, eta oraindik urrutiago amildegien eskualdea.

Puy de Dôme da domoetan garaiena, Pic du Nancy gailurretan altuena, eta Cantaleko amildegia amildegietan handiena.

Oso bero zen gau hartan. Ibilbide itzaltsu hartan luze-zabalka nenbilen, parkea azpian hartzen duen hegitxo baten gainean kasinoko musika-taldeari lehenengo abestiak jotzen entzuten.

Eta aita-alabak, urratsak geldiro eginez, nireganantz zetozela ohartu nintzen. Agur egin nien, bainu herrietan hotel-kideei agur egiten zaien bezala; eta gizonak, bertan gelditurik, galdetu zidan:

— Esango al diguzu, jauna, nora egin dezakegun ibilaldi laburtxo bat, erraza, eta polita, ahal bada; eta barka, arren, nire ausardia.

Errekatxo mehea datorren ibartxora laguntzeko eskaini nintzaien; ibar sakon bat da, zintzur estu bat bi malda harkaiztsu, basoz bete, handiren artean.

Ongi iritzi zioten.

Eta hango uraren dohainez hasi ginen, jakina, hizketan.

— Izan ere —zioen aitak—, nire alabak badu gaixotasun bitxi bat, nondik datorren ez dakiguna. Ulertu ezinezko nerbio gorabeherak izaten ditu. Batzuetan bihotzeko gaixotasuna duela uste dute, hurrengoan gibelegoa duela, hurrengoan bizkar muinekoa duela. Gaur egun esaten ari direnez, urdailekoa omen du mila modutara eta mila lekutan agertzen zaion gaixotasun-Proteo hori, urdaila omen da-eta gorputzaren galdara eta arautzaile nagusia. Nire ustez, nerbioetako gauza da batez ere. Ondo gauza tristea da, edozeinetara ere.

Haren eskuaren tik bortitza gogoratu zitzaidan segituan, eta galdetu nion:

— Herentzia kontua ez da bada izango? Zeuk ere ez al dituzu nerbioak gaixo samar?

Lasai erantzun zidan:

— Nik?... Bai zera, ez... Nik nerbioak oso bare izaten ditut beti!

Eta gero, bat-batean, pixka batean isilik egon ondoren, berriro hasi zen:

— A!, zerbait hartu nahi dudan bakoitzean eskuak egiten didan gihar zimurdura hori esan nahi duzu zuk? Hori behin izan nuen ikaragarritzeko bihotz zartada batetik datorkit. Egizu kontu bizirik ehortzi genuela haur hau!

Harridura eta hunkipenezko «A!» bat baizik ez nuen aurkitu esateko.

Eta jarraitu zuen:

Hona nola izan zen. Oso gauza soila da: Juliette-k bihotzeko gorabehera larriak zituen aspaldi samarretik. Bihotzeko gaixotasunen bat zuela uste genuen, eta edozer gerta zitekeela etsita geunden.

Egun batean hotz, bizigabe, hilik ekarri zuten. Lorategian eroria zen. Medikiak hil agiria eman zuen. Egun bat eta bi gau egon nintzen beilan; neuk sartu nuen zerraldoan, eta hilerriraino lagundu nion; han gure familiaren hilobian lur eman genion. Landa-landan izan zen, Lorrenan.

Bere bitxiekin, eskumuturrekoekin, idunekoekin, eraztunekin, niregandik jasotako opari guztiekin, eta bere lehen dantza soinekoarekin ehortzarazi nahi izan nuen.

Kontu egin zenezake nola nekarren bihotza eta zer animu nuen etxera itzuli nintzenean. Hura besterik ez nuen, emaztea aspaldi hila baitzen. Bakarrik, erdi eroturik, abaildurik sartu nintzen gelan, eta ezeren gogorazorik gabe, ezertarako indarrik ez nuela jausi nintzen besaulkian. Makina oinazetu, dardarati bat baizik ez nintzen, larrutu bat, zauri bizia ematen zuen nire arimak.

Nire gelari zaharra, Prosper, Juliette bere zerraldoan sartzen eta azken lo horretarako prestatzen lagundu zidana, sartu zen, hotsik egin gabe, eta galdetu zidan:

— Nahi al du jaunak jateko edo edateko zer-bait?

Buruaz «ez» egin nion, erantzun gabe.

— Jaunak gaizki egiten du, jarraitu zuen. Gaitzen bat gertatuko zaio jaunari. Nahi al du jaunak oheratzen lagun diezaiodan?

Nik esan nuen:

— Ez, laga nazazu.

Eta handik alde egin zuen.

Zenbat ordu joan ziren, ez dakit. Ai! zer gaua!, zer gaua hura! Hotz egiten zuen; sua itzalia zen tximinia handian; eta haizea, negu haize izoztua, izozteko haize bete-betea, ari zen leihoak astintzen, hots zorigaiztoko beti berdin batez.

Zenbat ordu joan ziren? Han nengoen, lorik gabe, ahuldurik, abaildurik, begiak zabal, hankak luze, gorputza indarge, gogoa etsimenak gorturik. Horretan sarrerako ateko ezkila handia, etxebarruko ezkila handia jo zuten.

Halako gorputz astindua hartu nuen, non aulkia puskatu egin baitzen nire azpian. Haren hots sakon astunak hilobi batean bezala egiten zuen dardar gaztelu hutsean. Goizeko ordu biak ziren. Nor etor zitekeen ordu horietan?

Eta kolpetik bi aldiz jo zuen berriro ezkilak. Etxeko otseinak ez ziren ausartzen, zirudienez, jaikitzen. Kandela bat hartu eta neu jaitsi nintzen. Galdetzera nindoan:

— Nor da?

Baina lotsatu egin nintzen beldur hori izateagatik, eta geldiro-geldiro morroilo handiari tira egin nion. Bihotza taupadaka nuen. Kolpe batez

zabaldu nuen atea, eta irudi zuri bat ikuskatu nuen ilunpean, mamu baten gisako zerbait.

Atzera egin nuen, izumenak herbaldurik, ozta-ozta zezelkatuz:

— Nor... nor... zara zu?

Ahots batek erantzun zidan:

— Ni naiz, aita.

Alaba hau zen.

Erotua nintzela iruditu zitzaidan; eta atzeraka nindoan, sartzen ari zen mamu haren aurrean; atzeraka nindoan, eskuaz, hura uxatzeko bezala, lehen ikusi didazun keinu hori eginez; keinu horrek ez dit gehiago alde egin, harrezkero.

Agerpenak esan zidan:

— Ez izan beldur, aita; ez nengoen hilda. Eratzunak ostu nahi izan dizkidate, eta hatza moztu didate; odola jariatzen hasi da, eta horrek piztu nau.

Eta egiaz odoletan zegoela ohartu nintzen.

Belauniko erori nintzen, ito beharrean, zotinka, arnasestuka.

Gero, berriro nire onera etortzen hasi nintzean, oraindik ere iristen ari zitzaidan zorion ika-ragarria ongi ulertzen ez nuela, nire gelara igoa-

razi nuen, nire besaulkian eserarazi nuen; eta Prosper-i deitu nion kolpe bortitzez, sua berriro piztu zezan, edateko zerbait presta zezan, eta laguntza eske joan zedin.

Sartu zen, bada, begiratu zion nire alabari, zabaldu zuen ahoa izumen eta beldur laborrizko estura batean, eta zerraldo erori zen ahoz gora.

Hura zen hilobia zabaldu, nire haurrari hatza moztu eta gero han utzi zuena: ezin baitzituen lapurretaren aztarrenak ezabatu. Zerraldoa bere lekuan uzteko lanik ere ez zuen hartu, ziur baitzegoen ez nuela haren susmorik hartuko, fede osoa bainion.

Ikusten duzu, bada, jauna, ondo zoritxarrekoak garena.

* * *

Isildu egin zen.

Gaua iritsia zen, ibar bakarti triste hura osorik bilduz, eta halako beldur misteriozko bat sentitzen nuen jende berezi haren ondoan, hilda gero bihurtu haren eta keinu beldurgarriak egiten zituen aita haren ondoan egonez.

Ez nekien zer esan.

— Zer gauza izugarria! —esan nuen ahopeka.

Eta handik minutu batera jarraitu nuen:

— Itzuliko al gara?, hotz egiten duela iruditzen zait.

Eta hotelerantz itzuli ginen.

(1884ko uztailaren 14ean)

Beldurra

Trena bafada batean zihoan ilunpeetan zehar.

Bakarrik nengoen, errezeletik kanpora begira ari zen agure baten aurrez aurre. Fenol usain handia zegoen inondik ere Marseillatik zetorren P.-L.-M.-ko bagoi hartan.

Ilargi gabeko gau bat zen, aire gabea, erregarria. Ez zen izar bat ere ikusten, eta abailan zihonan trenaren bafadak halako gauza bero, bigun, abailgarri, itogarri bat botatzen zigun.

Hiru ordu lehenago Paristik irtenik Frantzia erdi aldera gindoazen, igarotzen ari ginen eskualdeetatik ezer ere ikusi gabe.

Ametsezko agerpen bat bezala izan genuen bat-batean. Baso batean, su handi baten ondoran, bi gizon zutik.

Segundo batez ikusi genuen hori: Bi gizaje errukarri ziren, hala iruditu zitzaigun, zarpaz jantziak, suaren distira bizian gorri-gorri, beren aurpegi bizartsuak gureganantz itzulirik, eta, haien inguruan, drama baten antzezlekua bailitzan,

zuhaitz berdeak, berde argi dirdaitsu batez, enborrak garraren distira biziak jota, hostotza barnera isurtzen zitzaion argiak alderik alde iga-
rota, hanpatuta, bustita.

Eta ondoren dena beltz bihurtu zen berriro.

Oso ikuspen berezia izan zen, inondik ere!
Zertan ari ziren bi alderrai haiek han, baso har-
tan? Zergatik su hura gau itogarri hartan?

Nire aurrekoak erlojua atera, eta esan zidan:
— Gauerdia da doi-doi, jauna, gauza berezia
ikusi dugu.

Ados nengoen, eta solasean hasi ginen, jende
hura zer izan zitekeen: gaizkileren batzuk, fro-
gak erretzen, ala aztiak, edaberen bat presta-
tzen? Ez baita horrelako surik pizten uda bete-
beteko gauerdian, baso batean, zopa egosteko.
Zertan ari ziren, hortaz? Ez genuen ezer asmatu
ahal izan egiaren antzekorik.

Eta nire bidaia-kidea hizketan hasi zen... Agu-
rea zen, ezin izan nuen zehatz jakin zer lanbide
zuen. Bere gisakoren bat inondik ere, oso ikasia,
itxuraz andeatu samarra zirudiena.

Jakin al daiteke, ordea, jakin, nortzuk diren
zuhurrak eta nortzuk eroak, askotan arrazoiari

eromen eta erokeriari jeinu deitu beharko litzaiokeen bizitza honetan?

Esaten ari zen:

— Pozik nago hori ikusi dudalako. Minutu batzuetan, galdurik nuen sentipen bat sentitu ahal izan dut berriro!

Zein zirraragarri ote zen lurra behinola, hain misterioz betea zenean!

Ezagutzen ez denaren errezelak jasotzen diren heinean, hustu egiten da gizonen irudimena. Ez al zaizu iruditzen, jauna, gaua hutsik dagoela, beltz arrunta baizik ez dela, agerpenik ez duenez geroztik?

Esaten da: «Kito fantasiak, kito sineste bitxiak, azalpenik ez duen guztiak badu orain azalpena. Naturaz goitiko gauzen mundua ubide batek husten duen aintzira bat bezala ari da husten; zientziak egunetik egunera atzerago eramaten ditu gauza miragarrien mugak».

Ba, ni behintzat, arraza zaharrekoa naiz, sinestea atsegin duen arrazakoa. Ez ulertzera, ez bilatzera, ez jakitera ohituta zegoen behinolako arraza sinesberakoa, misterioz inguraturik ego-

tera ohitua zen eta egia soil zehatza onartzen ez duen arraza hartakoa naiz, alegia.

Bai, jauna, irudimena hustu dute, ikusezin atzemanik. Gure lurra mundu abandonatu, hustu, biluztua iruditzen zait gaur egun. Joan dira mundu hau poetiko bihurtzen zuten sines-teak.

Nola nahiko nukeen nik berriro sentitu kanposantuko horma ondotik igarotzean atso xaharrei aitaren eginarazten dien, edota aztikeriatan sinesten duten azkenak paduretako lurrin harri-garrietatik eta arima-argi iheskorretatik ihes egi-tera behartzen dituen larritasun haren hotzikara! Nola nahi nukeen sinetsi ilunpeetan igarotzen sumatzen den halako gauza lauso beldurgarriren batean.

Antzina bai izango zela gaueko iluntasuna ilun, beldurgarri, alegiazko izaki ezezagunez, alderrai gaiztoz betea zenean, zer itxura zuten jakin ezin zen baina haien beldurrak bihotza izozten zuenean, haien ahalmenak gure pentsa-menduaren bazterrak oro gainditzen zituenean, eta haien eraso itzuri ezina zenean?

Naturaz gaindiko gauzekin batera, egiazko beldurra ere ezabatu egin da lurretik, zeren ez baitzaio egiazko beldurrik ulertzen ez denari baizik. Ageriko arriskuek eragin dezakete zirrara, asaldarazi dezakete, larritasuna sor dezakete! Zer da, ordea, hori dena mamu herrari bat ikusi behar dela, hildako baten besarkada jasan behar dela, gizonaren izumenak asmatzen dituen piztia nardagarri horietakoren bat topatu behar dela pentsatze hutsak arimari eragiten dion astindua-ren aldean? Ilunpeak argiz beteak iruditzen zaizkit sorgindurik ez daudenez gero.

Eta horren froga argia duzu: beren suaren argitan agertu zaizkigun bi gizon nolabaiteko horien irudiak gehiago eragingo liguke, baso horretan bat-batean bakarrik aurkitu izan bagina, inolako arrisku egiazkoaren beldurrak baino.

Berriro errepikatu zuen:

— Ez zaio egiazko beldurrik ulertzen ez denari baizik.

Eta oroitzapen bat etorri zitzaidan bat-batean, Turgenievek igande batean Gustave Flauberten etxean kontatu zigun historia bat.

Ez dakit inon idatzi ote zuen.

Errusiar eleberrigile handi hori bezalakorik ez da izan gauza ezezagun estalien zirrara hori ariman sartzeko, eta ipuin harrigarri batean erdilunetan gauza kezkarri, ziurgabe, mehatxagarrizko mundu bat erdi-ikusten uzteko.

Harekin oso ondo sentitzen da Ikusezinaren beldur lausoa, horma atzean, ate atzean, itxurazko bizitzaren atzean dagoen ezezagunaren beldurra. Harekin, gure beldurra areagotzeko adina baizik argitzen ez duten argitasun zalantzatiek alderik alde igarotzen gaituzte bat-batean.

Batzuetan badirudi itxuraz ustekabez gertatzen diren, baina izatez borondate ezkutu maltzur batek gidatzen bide dituen egokiera bitxien, ezusteko hurbil uneen esanahia erakutsi nahi digula. Hari atxikiezin bat bezala sentitzen dugu harekin, bizitzan zehar misteriozko era batez, zentzurik aurkitzen ez diogun amets lauso batean zehar eramango bagintu bezala, garamatzana.

Ez da sartzen ausarki naturaz goitiko gauzen munduan, Edgar Poe edo Hoffman bezala; tar-

tean gauza lauso samarren bat edo gauza kezka-
garri samarren bat edo beste duten historia soi-
lak kontatzen baizik.

Hark ere halaxe esan zigun egun hartan:

— Ez zaio egiazko beldurrik ulertzen ez dena-
ri baizik.

Besaulki batean eserita, edo hobeto esanda,
barreneraino sartuta zegoen, besoak zintzilik,
hankak luze eta bigun, burua zuri-zuri, Aita eter-
noaren edo Ovidioren Ibai baten itxura ematen
zioten zilarrezko bizar eta ile uholde hartan ito-
rik.

Geldiro mintzatzen zen, esaldiei xarma ema-
ten zien halako nagitasun batez, mingain astun
samarrean hitzen doitasun kolore-bizia azpima-
rratzen zuen zalantza apur bat zuela. Haren begi
zurbil, handi, zabalak, haur baten begiak bezala
islatzen zituen bere pentsamenduaren emozio
guztiak.

Honela kontatu zigun:

Gazte zelarik Errusiako oihan batean ehizan
ari omen zen behin. Egun guztian oinez ibili

ondoren, arratsalde bukaera aldera ibai bare baten ertzero iritsi zen.

Zuhaitzen azpitik, zuhaitzetan zihoan ibaia, ur gaina belarrez beteta, ibai sakon, hotz, gardena.

Ur garden haietan murgildu behar larri bat jabetu zitzaion ehiztariari. Erantzi zen, eta ur lasterrera jauzi egin zuen. Mutil handia eta indartsua zen oso, azkarra, eta igerilari ausarta.

Gorputza ur gainean utzi zuen bare-bare, arima lasaiturik, urpeko belarrek eta sustraiek igurtziz ukitzen zutela, bere haragiaren kontra aihenen irristada arina sentitzearen pozez.

Horretan esku bat pausatu zen haren bizkarrean.

Kolpe batez itzuli, eta ikusi gosez begira ari zitzaion izakari beldurgarri bat sumatu zuen.

Emakume edo tximino eme bat ematen zen. Sekulako aurpegitzarra zuen, zimurra, keinuka eta barrez. Ezin izendatuzko bi gauza, bi titi inondik ere, zituen bere aurrean igeri, eta ile luze-luzea, nahasia, eguzkiak gorritua, orobat, aurpegiaren inguruan eta bizkar gainean igeri.

Naturaz gaindiko gauzen beldur nardagarriak, beldur izotzezkoak harrapaturik sentitu zen Turgeniev.

Ezer pentsatu gabe, gogoetarik egin gabe, ezer ulertu gabe itsumustuan hasi zen igerian bazterrerantz. Munstroak, ordea, bizkorrago egiten zuen igeri, eta lepoa, bizkarra, izterrak ukitzen zizkion, pozezko barretxoak eginez. Mutilak, beldurrez eroturik, bazterra iritsi zuen azkenik, eta lasterka batean abiatu zen basoan zehar, bere jantziak eta bere fusila hartu behar zituenik ere gogoratu gabe.

Eta izaki nardagarri hark jarraitu egiten zion, bera bezain bizkor, eta kurrinka isildu gabe.

Iheslaria, gehiago ezinean eta beldurrak heraldurik, erortzear zen ia; horretan ahuntzak zaintzen ari zen haur bat etorri zen, zigor batekin, eta giza piztia nardagarri hari joka eraso zion; hark ihes egin zuen, oinazez oihuka. Eta Turgenievek hosto artean ikusi zuen desagertzten, gorila eme bat bailitzan.

Emakume ero bat zen, hogeita hamar urtetik gora artzainen errukitik bizi zena, eta bere egunen erdiak ibaian igerian igarotzen zituena.

Errusiar idazle handiak amaitu zuen:

— Nire bizitza guztian ez dut horrelako beldurrik izan, munstro hura zer izan zitekeen ulertu ez nuelako.

Nire bidaia kidea, gertaera hori kontatua, berriro hasi zen:

— Halaxe da, ez zaio egiazko beldurrik ulertzen ez denari baizik. Ez da sentitzen izumena deitzen den arimaren asaldura hori, baldin eta beldurrarekin batera iragan mendeetako sineskeriazko ikara hartako zertxobait ez bada. Nik sentitua dut izumen hori bere izugarritasun osoan, eta oso gauza simple bategatik sentitu ere, lotsa ematen baitit esateak ere, hain baitzen gauza inozoa.

Bretainian zehar nenbilen bidaiari, bakarrik, oinez. Finistère dena ibilia nuen, landa galduak, harri sakratuen, harri sorginduen ondoan otea baizik hazten ez den lur gorriak. Bezperan Raze-ko mutur beldurgarria ikusia nuen, bi itsaso, Atlantikoa eta Mantxakoa, etengabe elkarrekin borrokan ari diren mundu zaharreko mutur hori; elezaharrez betea nuen gogoia, sineskeria eta

superstiziozko lurralde honi buruz entzun edo irakurriak nituen historiez betea.

Penmarch-etik Pont-l'Abbé-ra nindoan, gauez. Ezagutzen al duzu Penmarch? Itsas hegi ordokia, guztiz ordokia, guztiz sakona, itsasoa bera baino beherago dagoena, dirudienez. Alde guztietan ikusten da, mehatxari eta gris, itsaso hori, piztia amorratuak bailiran bitsa dariela dauden uharriz betea.

Arrantzale taberna batean afaldu, eta bi eremuren artean zuzen doan bidetik nenbilen. Oso ilun zegoen.

Aldiro-aldiri druiden harri bat edo beste, mamu zuti bat bailitzan, nola igarotzen nintzen begira geratzen zitzaidan, itxuraz, eta halako beldur lauso bat ari zitzaidan sartzen poliki-poliki; zerena? Zer nekien nik. Badira gauak izpirituek ukitzen zaituztela iruditzen zaizunak, ari-mak zergatik gabe ikara hartzen duena, bihotza beldur diodan gauza ikusezinen baten ikaraz taupadaka hasten dena.

Luzea iruditzen zitzaidan bide hura, luzea eta hutsa amaierarik gabe.

Zaratarik batere ez, olatuen zurrunga baizik, han, nire atzean, eta zarata beti berdin eta mehatxagarri horrek oso hurbil zirudien zenbaitetan, hain hurbil ere, non orpo-orpoan nuela iruditzen baitzitzaidan, bere apar frontearekin zabalduan zehar lasterka, eta ihes egiteko gogoazartzen zitzaidan, olatu haien aurrean arrapaladan ihes egiteko gogoaz.

Haizeak, bafadaka jotzen zuen behe haize batek, ziztu eragiten zien inguruko oteei. Eta oso bizkor nindoan arren, hotza nuen besoetan eta zangoetan: izumenezko hotz doilor bat.

Zer poza, orduantxe norbait topatu izan banu!

Bidea ere ozta-ozta ikusteko ilun beltz egiten zuen orain.

Eta, horretan, burrunba hots bat entzun nuen urrutitik, nire aurrean. «Begira, karrozaren bat», pentsatu nuen. Gero ez nuen gehiagorik entzun.

Handik minutu batera zehazki entzun nuen hots hura bera, hurbilago.

Ez nuen argirik ikusten, ordea; baina nire golgorako esan nuen: «Ez dute esku argirik, nonbait. Ez da harritzekoa lurralde basati honetan».

Hotsa berriro isildu zen, eta berriro hasi zen gero. Apalegia zen gurdia izateko; eta zaldiaren trosta ere ez nuen entzuten gainera, eta harritzen ninduen, gaua bare baitzegoen.

Bila eta bila ari nintzen: «Zer ote da hori?»

Bizkor zetorren, oso bizkor! Gurpil bat baizik ez nuen entzuten, egia —ez ferra hotsik ez oin hotsik, —ezer ez. Zer ote zen hura?

Ondo-ondoan zegoen; zanga batean etzan nintzen beldurrak eragindako mugimendu batez, eta orgatxo bat ikusi nuen bakarrik... ibiltzen, inork ez zeraman... esku orga bat... bakar-bakarrik...

Bihotza hain bortizki hasi zitzaidan taupadaka non belarretan unaturik geratu bainintzen, itsasorantz urrutiratzen ari zen gurpilaren itzulika hotsa entzuten. Eta ez nuen kemenik jaikitzeke, ez ibiltzeko, ez mugimendu bat egiteko; zeren hots hura berriro itzuli izan balitz, atzetik jarraitu izan balit, hantxe hilko bainintzatekeen beldurraren beldurrez.

Luze behar izan nuen nire onera berriro etortzeko, oso luze. Eta halako larritasuna erabili

nuen falta nuen bide guztian, non zaratarik txikienak era arnasa eteten baitzidan.

Ez al da ergelkeria?, esaidazu. Zer beldurra, ordea! Geroago, hartan berriro pentsatzean, ulertu nuen dena; haur bat izan, oinutsik, esku orga hura zeramana; eta ni gizon baten buruaren bila ari, hark izan behar zuen alturan!

Ulertzen duzu... lehendik bihotzean naturaz gaindiko gauzen hozkirria duzunean... bakarrik dabilen esku orga bat... Hura beldurra!

Segundo batez isildu, eta berriro hasi zen:

— Begira, jauna, oraintxe daukagu ikuskizun ondo bitxia eta izugarrizkoa: koleraren eraso hori.

Usaindu duzu bagoi hauek hanpaturik dituen fenol usaina, kolera hor nonbait den seinale.

Toulon ikusi beharra dago une honetan. Zoaz hara, ederki sentitzen da han dagoela. Eta ez du gaixotasun baten beldurrak asaldatzen jendea. Kolera bestelako gauza bat da, Ikusezina da, behinolako, lehenagoko garaietako izurria da, berriro itzuli den Izpiritu gaizto bat, bel-

durtu adina harritzen gaituena, dagoeneko desagerturik diren garaietako gauza baita, itxuraz denez.

Sendagileek barre eragiten didate beren mikrobioekin. Ez ditu zomorrotan batek izutzen pertsonak leihotik behera jauzi eragiteraino, kolerak eragiten du hori, Sortaldeko hondo-hondotik datorren izaki azalezin beldurgarriak.

Zabiltza Toulonen, jendea dantzan ari da kaleetan.

Zergatik dantza egin heriotzazko egun haueetan? Hiri inguruko landa herrietan suziriak botatzen dituzte; poz argiak pizten dira; orkestrek musika alaiak jotzen dituzte pasealeku publiko guztietan.

Han baitago, desafio egiten zaio, ez Mikrobioari, Kolerari baizik, eta ausartak nahi dute izan haren aurrean, zelatan daukazun etsai ezkutatu baten aurrean bezala. Harentzat egiten da dantza, harentzat barre, harentzat pizten dira suak, harentzat jotzen dira balsak, harentzat, alde guztietan garai bateko apaiz barbaroek konjura-tzen zuten antzinako mamu haietako bat bezala

ikusezin, mehatxakor, sumatzen den Izpiritu hiltzailearentzat.

(1884ko uztailaren 25ean)

Eroa?

Esan zidatenean «Badakizu Jacques Parent erotuta hil dela eroetxe batean», hotzikara samin bat, beldurrezko eta larritasunezko hotzikara bat, sartu zitzaidan hezurretan barrena; eta bat-batean bizi-bizi ikusi nuen, mutil handi, bitxi hura, aspalditik erotua beharbada, maniako kez-kagarria, are beldurgarria ere.

Berrogei urteko gizona zen, garaia, mehea, makurtu samara; bi begi eldarniatu, begi beltzak, beltzaren beltzez begi-ninia ere bereizten ez zitzaienak, begi mugikor, zelatari, gaixo, sorginduak. Zein izaki bitxia, kez-kagarria, bere inguruan halako egonezin bat, arimaren eta gorputzaren halako egonezin lauso bat, naturaz gaindiko eraginetan sinetsarazten duten larritasun ezin ulertuzko horietako bat zabaltzen zuena.

Bazuen tik gogaikarri bat: eskuak ezkutatzeko mania. Ia inoiz ez zien uzten, denok egiten dugun bezala, gauzak uki zitzaten, mahai gainean ibiltzen. Inoiz ez zituen eskuetan erabiltzen

hor nonbait utzitako gauzak, ia gizon guztiek duten ohiko keinu horrekin. Inoiz ez zituen estali gabe uzten bere esku luze, hezurtsu, mehe, sukarrak hartu samar haiek.

Patriketan sartzen zituen, edo galtzarbean besoak gurutzaturik gordetzen zituen. Bazurdi beldur zela ez ote zioten egingo, bere gogoz kontra, makurren bat, ez ote zioten egingo gauza lotsagarri edo barregarriren bat, libre eta beren mugimenduen jabe uzten bazituen.

Eguneroko gauza normaletarako haiez baliatu behar zuenean, astindukada bortitzez, besoaren bultzada azkarrez, erabiltzen zituen, berez ibiltzen utzi nahi ez balie bezala, berak nahi zuena egitera ukatu eta beste gauza bat egiten utzi nahi ez balie bezala. Mahaian zegoenean, hain biziro hartzen zuen bere basoa, edo sardexka edo labana non inoiz ez baitzen izaten astirik zer egin nahi zuen aurrez antz emateko.

Gau batean bere arimako gaixotasun harrigarri haren azalpena eman zidan.

Aldian behin egun batzuetarako nire etxera etortzen zen, landara, eta gau hartan bereziki asaldaturik zegoela iruditzen zitzaidan.

Ekaitza ari zen eratzen zeruan, itogarri eta beltz-beltz, sekulako beroa izan zen egun baten ondoren. Haize arin batek ere ez zituen hostoak mugitzen. Labe bafada bero bat igarotzen zen aurpegiaren gainetik, bularra arnasbehartuz. Ezin egonez nengoen, ondoezik, eta ohera joan nahi nuen.

Alde egitera nindoala ikusi zuenean, larritasun keinu batez heldu zidan Jacques Parentek besotik.

— Ez, ez! zaude pixka batean oraindik —esan zidan.

Harrituta begiratu nion, ahopeka esanez:

— Trumoi honek urduri jartzen nau.

Intziri edo, hobeto, oihu egin zuen:

— Eta ni, zer? Zaude pixka batean, mesedez, ez nuke bakarrik geratu nahi.

Aztoraturik zegoela ematen zuen.

— Zer duzu? Burutik nahasten ari zara?

— Bai, geroz eta gehiago —esan zuzen zezelka—, honelako gauetan, elektrizitatea den gauetan... Ni... beldur naiz... neure buruaren beldur... ez didazu ulertzen? Badut dohain bat... ez... ahalmen bat... ez... indar bat... Ez dakit nola

esan zer den, baina badut niregan magnetismo eragin bat hain berezia non beldur bainaiz, neure buruaren beldur, esan dizudan bezala!

Eta ikara asaldatu batez ezkututzen zituen bere esku dardaratiak jakaren azpian. Eta neu ere dardaratan sentitu nintzen, halako beldur lauso, ahaltso, ikaragarri batez. Handik alde egiteko gogoia nuen, ihes egin, hura ez ikusi gehiago, ez gehiago ikusi haren begi noraezekoa nire gain pausatzen, gero ihes egiten, sabaiaren inguruan biratzen, gelako zoko ilunen bat bilatzen, eta hartan finko geratzen, era horretara bere begirada beldurgarria ezkutatu nahi izango balu bezala.

— Ez didazu horrelakorik sekula esan —egin nion zezelka.

— Hitz egin al diot honetaz inori, bada? —hasi zen berriro—. Begira, entzun, gaur gauean ezin naiteke isilik egon. Nahiago dut dena baldin badakizu; agian lagundu egin ahal izango didazu, gainera.

Magnetismoa! Ba al dakizu zer den? Ez. Inork ez daki. Baina gauza frogatua da hala ere. Gauza aitortua da, sendagileek berek ere erabiltzen

dute; horietako ezagunenetako batek, Charcot jaunak, lanbide bezala darabil; ez dago zalantzarik, beraz, magnetismoa bada, izan.

Gizon batek, izaki batek beste bat bere borondatearen indarrez lotan jarri eta haren pentsamendua, poltsa bat ebasten den bezala, ebasteko ahalmen beldurgarri eta ulertezina du. Pentsamendua kentzen dio, arima kentzen dio alegia, arima, Ni-aren gordelekua, ezkutua, arima, atxikiezina zela uste zen gizonaren barren-barreneko hondo hori, arima, aitortu ezin diren ideien, ezkututzen den guztiaren, maite den guztiaren, gainerako gizonetatik gorde nahi den guztiaren babesleku hori, zabaldu egiten du, bortxatu egiten du, erakusgarri jartzen du, jendearen bistara jaurtitzen du! Ez al da hori gauza ankerra, kriminala, lazgarria?

Zergatik, nola gertatzen da hori? Badakigu? Zer dakigu ordea?

Dena da misterio. Gauzekin gure zentzumen argal, erdipurdiko, gaixoen bidez baizik ez dugu harremana; hain ditugu ahulak zentzumenok non inguruan dugunak badirela frogatzeko ahalmena baizik ozta-ozta duten. Dena da misterio.

Pentsa musika, arte jainkozko hori, arima azpiko-koz gora jartzen, jasotzen duen, horditzen, erotzen duen arte hori, zer da musika? Ezer ez.

Ez didazu ulertzen? Entzun. Bi gorputzek elkar jotzen dute. Aireak dardara egiten du. Dardara horiek gutxiago ala gehiago izan daitezke kopuruz, handiagoak hala txikiagoak indarrez, talka nolakoa izan den. Guk, berriz, badugu belarrian mintz mehe bat airearen dardara horiek jasotzen dituen eta garunera hots gisa igortzen dituen. Tinpanoak egiten du mugimendua hots bihurtzeko metamorfosi harrigarri hori, mirari miresgarri hori. Horra.

Musika, arte konplexu eta misteriozko, aljebra bezain zehatz eta ametsa bezain lauso hori, matematikaz eta eguratsez osatzen den arte hori, mintz puskatxo baten tasun berezi batetik baizik ez dator, hortaz. Mintz hori kendu, eta akabo hotsa, dardara bat baizik ez baita berez. Belarririk ezean, asmatuko al litzateke musika? Ez. Horixe, bada. Sekula sumatu ere egingo ez ditugun gauzez inguraturik gaude, haiek azalduko dizkiguten organoak eskas ditugulako.

Magnetismoa da horietako bat, agian. Sumatu baizik ezin egin genezake ahalmen hori, izpirituen auzotasun horretan dardaraz saiatu, erdi ikusi baizik ezin dugu izadiaren sekretu berri hori, zeren ez baitugu gure baitan hori azalduko digun tresna.

Niri dagokidanez... Niri dagokidanez, ahalmen beldurgarri bat dut. Esango litzateke beste izaki bat dudala nire baitan sartua, etengabe ihes egin nahi didana, nire borondatearen kontra jokatu nahi duena, nire baitan mugitzen dena, barrutik jaten nauena, ahitzen nauena. Zer izaki da? Ez dakit, baina bi gara nire gorputz gaixo honetan, eta bestea izaten da, beste hori, askotan indartsuena, gaur gauean adibidez.

Jendeari begiratzea aski dut, opioa isuri izan banie bezalaxe lokarrarazteko. Eskuak luzatzea aski dut gauza ikaragarriak... ikaragarriak gertarazteko. Bazeneki! Bai. Bazeneki! Nire ahalmen hau ez da gizonetara bakarrik iristen, animalietara ere bai, eta baita ... gauzetara ere...

Torturaturik eta izaturik nauka horrek. Askotan etorri izan zait begiak zulatzeko eta eskuak mozteko gogoia.

Baina orain... Dena jakin dezazun nahi nuke. Begira. Oraintxe erakutsiko dizut... ez gizonarengan... alde guztietan egiten den bezala, animalia batengan baizik.

Deitu Mirzari.

Urrats handiz zebilen hara-hona, burtzoratuaren itxuraz, eta golkoan ezkutaturik baitzituen, handik atera zituen eskuak. Beldurgarri iruditu zitzaizkidan, bi ezpata biluztu izan balitu bezala.

Eta itsu-itsuan bete nuen haren esana, haren mendeko, izumenaren dardaraz, ikusteko desira ezin eutsi batek barnetik jango banindu bezala. Atea zabaldu, eta etxe sarreran etzanda zegoen zakur emeari ziztu egin nion. Berehalaxe entzun nuen eskaileretan gora haren azkazalen hots itsumustuzkoa, eta han azaldu zen, pozik, isatsari eraginez.

Besaulki batean esertzeko agindu nion kei-nuz; jauzi batez igo zen, eta Jacques ferekak egiten hasi zitzaion begira-begira.

Hasieran urduri ematen zuen; dardara egiten zuen, gizon haren begirada finkotik ihes egiteko beste alde batera begiratzen zuen, geroz eta beldur handiagoak hartua ematen zuen. Bat-

batean ikararen ikaraz hasi zen, zakurrek ikara egiten duten bezala. Gorputz guztia astintzen zitzaion, hozkirri luzez inarrosirik, eta ihes egin nahi izan zuen. Gizonak, ordea, eskua buruan jarri zion, eta animaliak, gauean landetan entzuten diren ulu luze horietako bat bota zuen, ukitu harekin.

Neu ere pisutsu, zorabiatuak sentitzen nintzen, ontzi batera igotzean bezala. Altzariak makurtzen, hormak mugitzen ikusten nituen.

— Aski da, Jacques, aski da —esan nion zezelka.

Hark, ordea, ez zidan entzuten, Mirzari begira zegoen gelditu gabe, era beldurgarri batez. Mirza begiak ixten ari zen, eta burua erortzen utzi zuen, loak hartzean ohi den bezala. Jacques niregana itzuli zen:

— Egina dago —esan zuen—, begira orain.

Eta, bere musuzapia gelaren beste aldera jaurtirik, zakurrari esan zion:

— Ekarri!

Animalia jaiki zen, eta balantzaka, itsua balitz bezala estropezuka, hankak elbarriek ohi dituzten bezala arrastaka eramanez, hormaren kon-

tra orban zuri bat eratzen zuen zapia zegoen lekuraino joan zen. Behin eta berriro ahalegindu zen muturrean hartzen, baina alboan egiten zuen hozka, ikusiko ez balu bezala. Harrapatu zuen azkenik, eta lehengo zakur sonanbuluaren balantza berberak eginez itzuli zen berriro.

Izua hezurretaraino sartzeko gauza zen hura ikustea. Jacquesek agindu zion:

— Etzan!

Zakurra etzan egin zen. Gero, zakurrari kope-ta ukituz, esan zion:

— Erbia hor, harrapa, harrapa.

Eta animalia, etzanda jarraituz, lasterka egiten ahalegindu zen, ametsetan ari diren zakurrek ohi duten bezala mugitu zen, eta muturra zabaldu gabe zaunka txiki batzuk egin zituen, bentrilokuo baten gisako zaunkak.

Jacquesek eroturik zirudien. Izerdia zerion kopetatik behera.

— Xaxa, xaxa nagusiari —egin zion oihu.

Zakurrak bizpahiru astindu handi izan zituen. Esango litzateke ez zuela nahi, borrokan ari zela. «Xaxa», errepikatu zion. Eta orduan zakurra, jai-kirik, nireganantz abiatu zen, eta ni hormarantz

atzeraka, beldur ikaraz, hanka jasorik, zakurra jotzeko, atzera eragiteko.

Jacquesek agindu zion:

— Hona, etorri hona segituan.

Zakurra harenganantz itzuli zen. Eta zakurra-ri burua bi eskuez igurzten hasi zen, ikus ezinezko loturaren batzuetatik askatzen ari balitz bezala.

Mirzak berriro begiak zabaldu zituen.

— Bukatu da —esan zuen Jacquesek.

Ez nintzen ausartzen zakurra ukitzen, eta atea zabaldu nion, joan zedin. Geldiro joan zen, ikaraz, ahiturik, eta haren azkazalak berriro eskaileretan entzun nituen.

Jacques nireganantz etorri zen:

— Hori ez da dena. Gehien beldurtzen naue-na beste hau da, begira. Gauzek ere obeditu egi-ten didate.

Mahai gainean bazen halako sastakai-labana-edo bat, liburuetako orriak zabaltzeko erabiltzen nuena. Eskua hartarantz luzatu zuen. Bazirudien narraska zihoala eskua, geldiro-geldiro labana-rantz hurbiltzen, eta bat-batean labana bera ikusi nuen, zinez ikusi, ikara egiten, mugitzen,

geldiro irristatzen, bera bakarrik, mahaiko zura-
ren gainetik, gelditurik zain zeukan eskurantz,
eta haren hatzen azpian geratu zen.

Beldurrez oihuka hasi nintzen. Neuk ere
erotu behar nuela iruditu zitzaidan, baina haren
ahotsaren hots zoliak kolpetik baretu ninduen.

Jacques berriro hasi zen esaten.

— Gauza guztiak etortzen dira horrela niregan-
antz. Horregatik edukitzen ditut eskuak gor-
dean. Zer den hau. Magnetismoa, elektrizitate
indarra, imana? Ez dakit, baina nardagarria da
guztiz.

Eta badakizu zergatik den nardagarria? Baka-
rrik nagoenean, bakarrik gelditzen naizen bakoit-
tzean, ezin dudalako gelditu inguruan dudan
guztia nireganantz erakarri gabe.

Eta egunak eta egunak ematen ditut gauzak
lekuz aldatzen, nekatu gabe ahalmen gorrotaga-
rri hau frogatzen, alde egin didan frogatzeko-
edo.

Bere esku handiak patrikan sartuak zituen
berriro, eta gauari begira zegoen. Zaratatxo bat,
ikara arin bat ematen zuen ari zela zuhaitzetan.

Euria zen, erortzen hasia.

— Beldurgarria da —esan nuen ahopeka.

— Nazkagarria da —errepikatu zuen hark.

Zurrumurru bat zabaldu zen hostadian, haize kolpe bat bezala. Eurijasa zen, erauntsi lodi uholdezkoa.

Jacques bularra jasotzen zioten arnasaldi handiz hasi zen hats hartzen.

— Utz nazazu —esan zidan—, euriak sosegatuko nau. Bakarrik egon nahi dut orain.

(1884ko irailaren 1ean)

Salgai

Eguzkia jaikitzen denean oinez abiatu eta itsaso barearen ertzean soroetan zehar ihintze-tan ibiltzea, zer mozkorraldia!

Zer mozkorraldia! Begietatik barrena sartzen zaizu argiarekin, sudurretatik barrena aire arinarekin, azaletik barrena haizearen ufarekin.

Zergatik gordetzen dugu horren oroitzapen argia, kutuna, gardena Lurrarekin izandako amodio minutu batzuez, sentipen zoragarri arin baten oroitzapena, bidearen bihurgune baten ondoren, ibar baten sarreran, erreka batean, topatutako paisajearen fereka, neska atsegingarri bat topatu izan bagenu bezala.

Gogoan dut egun bat, besteren artean. Britainiako itsasertzean zehar nindoan, Finistèreko muturrerantz. Pauso bizkorrez nindoan, ezertan pentsatu gabe, itsasgoraren ertzetik. Quimperlé inguruan zen, Britainiako alderdirik bigunen eta ederren horretan.

Udaberri goiz bat, hogeitaz gaztetzen zaituzten, itxaropen berriak ematen dizkizuten eta

gaztaroko ametsak berpizten dizkizuten goiz horietako bat.

Gariaren eta olatuen artean ozta-ozta markaturik zegoen bide batetik nindoan. Garia ez zen batere mugitzen, eta uhinak ozta-ozta. Ongi aditzen zen soro helduen usain gozoa eta uhinek hondartzan utzitako belarren itsaso usaina. Ezer-tan pentsatu gabe nindoan, beti aurrera, hamabost egun lehenago, Britainia itsasertzik itsasertz igarotzeko asmoz, hasitako bidaiari jarraituz. Indartsu, zauli, pozik eta alai sentitzen nintzen. Banindoan.

Ez nuen ezertan pentsatzen! Zertarako pentsatu poz oharkabe, sakon, haragizkoa, belarretan lasterka dabilen edo eguzkipean airean hegan egiten duen piztiaren gisako poza den ordu horietan? Urrutitik otoitz kantuak entzun nituen. Prozesioren bat, agian, igandea zen-eta. Baina mutur bat inguratu, eta mugi ezinik, txunditurik geratu nintzen. Arrantzako bost ontzi handi agertu zitzaizkidan, jendez beterik, gizonetzkoak, emakumezkoak, haurrak, Plouneveneko erromeriara zihoazela.

Itsasertzari jarraituz zihoazen, geldiro, oihal arreak pixka bat puztu, eta berriro, segituan nekaturik, mastetan behera baldan-baldan erortzen uzten zituen haizetxo bigun ito batek nekez bultza egiten ziela.

Ontzi astunak geldiro irristatzen ziren, jendez beterik. Eta guztiak abesten ari ziren. Gizonezkoek, zubian zutik, beren kapelu handiak jantzita, beren nota ozenak botatzen zituzten; emakumezkoek beren nota zoliak, eta haurren ahots meheek xirula mehearen hotsak ematen zuten deboziazko burrunba suharrean.

Bost ontzietako bidaiariek abesti bera oihukatzen zuten, haren erritmo beti berdina zerurantz igotzen zela; eta bost ontziak elkarren ondoz ondo zihoazen, bata bestetik oso hurbil.

Nire aurretik igaro ziren, ondo-ondotik, eta urruntzen ikusi nituen; haien kantua ahultzen eta isiltzen entzun nuen.

Eta amets xoragarriak hasi nintzen egiten, gazteek ohi duten bezala, haurren gisa modu xarmagarri batez.

Zein laster ihes egiten duen ametssetako adin horrek, bizitzako zorionezko adin bakar horrek!

Adin horretan ez zaude inoiz bakarrik, ez zaude inoiz triste, inoiz ez uzkur eta herabe, bakarrik zauden unetik bertatik itxaropenetan barrena bide galdurik ibiltzeko ahalmen jainkotiarra duzunean. Zer maitagarrien lurraldea, edozer gauza gertatzen dena, pentsamendu alderraiaren zorabioan! Zein ederra den bizitza ameskerien urrezko hautsaren azpian.

Horra, ordea, bukatu da hori dena!

Ametsetan hasi nintzen. Zertaz? Etengabe itxaroten den guztiaz, desiratzen den guztiaz, fortunaz, gloriarez, emakumeaz.

Eta banindoan, pauso handi bizkorrez, nire eskuaz gariaren buru horiak ferekatuz, nire hatzen pean makurtuz ilea ukitu izan banu bezala kilimak egiten zizkidatela.

Hegitxo bat inguratu, eta hondartza estu biritan batean barrenean etxe zuri bat begiztatu nuen, mailaz maila hondarretaraino jaisten ziren hiru terrazatan eraikia.

Zergatik eragin zidan etxe haren ikusteak pozezko hozkirri hura? Ba al dakit nik? Gertatzen da zenbaitetan, horrela bidaiari zabiltzala, asfaltetik ezagutzen dituzula iruditzen zaizkizun zoko-

ak topatzea, hain ezagun gertatzen baitzaizkizu, hain baitituzu bihotz-gozagarri. Izan al daiteke egiaz aurrez inoiz ikusi ez izana? han lehenago inoiz bizi ez izana? Denak erakartzen zaitu, denak xoratzen, odaiertzaren marra leunak, zuhaitzen antolamenduak, hondarraren koloreak!

Oi, zein etxe polita, bere maila altuen gainean zutik! Fruitu arbola handiak zeuden uretarantz eskailera maila erraldoiak balira bezala jaisten ziren terrazetan. Eta arbola bakoitzak bazuen buruan, urrezko koroa bat bailitzan, isats-belar sorta luze bat loretan!

Egoitza hartarako maitasunak harturik gelditu nintzen. Nola nahiko nukeen haren jabe izan, han bizi, betirako!

Atera hurbildu nintzen, bihotza gogoz taupadaka, eta langako zutikoetako batean iragarki handi bat ikusi nuen: «Salgai».

Bozkariozko ikara bat sentitu nuen, etxe hura eskaini izan balidate, eman izan balidate bezala! Zergatik? horixe, zergatik? Ez dakit!

«Salgai». Beraz, ia inorena ez zen, edonorena izan zitekeen, nirea, nirea! Zergatik poz hori,

alaitasun sakon, ulertezin hori? Banekien gainera ez nuela erosi behar! Nola ordainduko nukeen? Ez zion axola, salgai zegoen. Kaiolan den txoria jabearena da, airean den txoria nirea, beste inorena ez denez.

Lorategian sartu nintzen. Ai lorategi xarmagarria, bere oholtza elkarren gainka jarriekin, martiri gurutziltzatuen beso luzezko keretekin, bere isats-belarrezko sortekin, eta bi pikondo zahar terraza bakoitzaren amaieran.

Gorenekora igo nintzenez odaiertzari begira geratu nintzen. Hondartzatxoa nire oinetan hedatzen zen, biribil eta hondartsu, itsaso handitik, sarrera ixten zuten eta itsasoa haserre zen egunetan olatuak hautsiko zituzten hiru harkaitz astun eta ilunek bereizten zutela.

Goren-gorenean, aurrez aurre, bi harritzar erraldoi, bata zutik, bestea belarretan etzana, menhir bat eta dolmen bat, senar-emazte harri-garriak bailiran, sorginkeriaren batek hantxe geldiaraziak, oraindik ere gerora hondoratzen, xehatzen, hegan egiten, desagertzen ikustekoak ziren etxetxo salgai zegoen hari begira.

Oi dolmen zaharra eta menhir zaharra, zein maite zaituztedan!

Eta neure etxean joko nukeen bezalaxe jo nuen atea. Emakume xahar bat etorri zitzaidan zabaltzera, neskame bat, neskame xahartxo bat beltzez jantzia, buruko zapi zuriz, serora bat iduri. Ezagutzen nuela iruditzen zitzaidan, emakume hura ere.

— Zu ez zara britainiarra, ausaz?

— Ez, jauna, Lorrenatarra nauzu —erantzun zidan.

Eta jarraitu zuen:

— Etxea ikustera al zatoz?

— E, bai, jakina.

Eta barrura sartu nintzen.

Dena ezagutzen nuela iruditzen zitzaidan: hormak, altzariak. Ia harritu nintzen atarian nire makilak ez zeudelako.

Egongelan sartu nintzen; egongela polit bat zen, lasta-oihalez tapizatua; hiru leiho zabaletatik zegoen itsasora begira. Tximinia buruaren gainean Txinako pitxerrak eta emakume baten argazki handi bat. Harenganantz jo nuen segituan, ustez hura ere berehalaxe ezagutuko nuen.

lakoan. Eta bai ezagutu ere, inoiz topatu ez nuela ziur egon arren. Bera zen, bera, espero nuena, desio nuena, deitzen nuena, nire ametsak sorgintzen zizkidana. Bera, beti ibiltzen dugun hori, aurki kalean ikusiko dena, landan garien gainera eguzkitako gorri bat ikusten den orduko bidean topatuko dena, bidaian hotelera noanerako iritsia izan behar duena, igotzera noan bagoian dagoena, atea zabaltzen ari zaidan aretoan topatuko dudana.

Huraxe zen, inolako zalantzarik gabe, huraxe! Begira nituen begietan antzeman nion, aspalditik sumatua nien irribarre horretan antzeman nion.

Eta bertatik galdetu nuen:

— Nor da emakume hau?

Serora aurpegiko neskameak lehor erantzun zuen:

— Andrea.

Berriro hasi nintzen:

— Zure etxekoandrea al da?

Doinu elizkoi gogor batez erantzun zidan:

— Ez, ez jauna.

Eseri nintzen, eta esan nuen:

— Konta iezadazu hori?

Txunditurik zegoen, zirkinik gabe, isilik:
Berriro ahalegindu nintzaion:

— Etxe honen jabea da, orduan!

— Ez, ez jauna.

— Norena da hortaz etxe hau?

— Nire ugazaba Tournelle jaunarena.

Hatza argazkirantz jaso nuen.

— Eta emakume hori, nor da?

— Andrea.

— Zure ugazabaren emaztea?

— Ez, ez jauna.

— Haren maitalea?

Serorak ez zidan erantzun. Berriro ekin nion, halako jelsia batek, emakume hura aurkitu zuen gizon haren kontrako halako aiherkunde lauso batek harturik:

— Non daude orain?

— Jauna Parisen dago, baina andrea ez dakit.

Zirrara bat sentitu nuen:

— A! Ez dira elkarrekin hortaz.

— Ez, ez jauna.

Maltzur jokatu nuen; eta ahots sakon batez esan nion:

— Esaidazu zer gertatu zitzaien, agian mesederen bat egin ahal izango diot zure ugazabari. Badakit nor den emakume hau, gaiztoa da!

Neskame zaharra begira geratu zitzaidan, eta nire jarrera zabal eta zintzoa ikusita, konfiantza hartu zuen.

— Ai, jauna, emakume horrek ondo zoritxarreko egin du nire ugazaba. Italian ezagutu zuen, eta ezkondu izan balira bezala ekarri zuen. Oso ongi kantatzen zuen. Ikusteak ere errukia emateko moduan maite zuen, jauna. Eta bidaian ibili ziren eskualde honetan, iaz. Eta etxe hau aurkitu zuten; ero batek eraikia zen, egiazko ero batek, herritik bi legoatara bizi izateko. Andreak bertatik erosi nahi izan zuen, nire ugazabarekin bertan geratzeko. Eta gizonak etxea erosi, andreari atsegina emateko.

»Joan den uda osoan egon ziren, jauna, eta ia negu osoan. Eta gero, egun batean, gosaltzeko orduan, deitzen dit jaunak:

— Césarine, ba al dakizu etxekoandrea etorri den?

— Ez dakit, jauna.

»Egun osoa egon ginen zain. Nire ugazaba amorratu baten gisan zegoen. Alde guztietan bilatu genuen, ez genuen aurkitu. Alde egina zen, jauna, inoiz ez da jakin ez nora ez nola».

Oi! hura poza hartu nuena! Serorari besarkada bat emateko gogoia nuen, gerritik heldu eta gelan barrena dantza eragiteko gogoia!

Ai, alde egina zen, ihes egin zuen, alde egin zion, nazkaturik, gizonari! Hura poza nirea!

Neskame zaharra berriro hasi zen:

— Jaunak hiltzeko tristura hartu zuen, eta Parisa itzuli zen, senarra eta biok hemen, etxea saltzeko, utzirik. Hogeita mila libera eskatzen ditu.

Baina ez nion entzuten! Emakumea nuen gogoan! Eta, horretan, berriro abiatu besterik ez nuela iruditu zitzaidan, emakume hura aurkitzeko, udaberri honetan berriro eskualde hartara itzulia bide zela, etxe hura ikusteko, bere etxetxoa, berak hain maite izana, gizonik gabe ikusi ahal izateko.

Hamar libera jarri nituen atso xaharraren eskuetan, hartu nuen argazkia, eta alde egin nuen, lasterka eta kartoi hartan txertatua zen irudiari eromenez muin eginez.

Berriro bidera itzuli nintzen eta oinez abiatu nintzen berriro, emakume hari begira! Zer poza hura libre izatea, zer poza hark ihes egin izana! Ez zen dudarik gaur edo bihar, aste honetan edo hurrengoan, topatu behar nuela, bere gizonari alde egin zionez! Nire ordua iritsia zelako baitzion alde egin!

Libre zegoen, munduko bazterren batean! Topatu baizik ez nuen, dagoeneko ezagutzen nuenez.

Eta gari helduen buru makurtuak ferekatzen nituen, bularra puzten zidan itsas airea edaten nuen, eguzkia aurpegian musuka sentitzen nuen. Banindoan aurrera, banindoan zorionez erotzen, itxaropenez horditurik. Banindoan, ziur bai ziur berehalaxe topatuko nuela eta oraingotan gu bizitzeko itzuliko ginela etxe polit hartara. Zein atsegin izango zuen, oraingo honetan!

(1885eko urtarrilaren 5ean)

Emakume ezezaguna

Zorte ona izandako gertaerez hitz egiten ari ziren, eta bakoitzak bere kasu bereziak kontatzen zituen: topaketa harrigarri atsegingarriak, treneko bagoian, hotelean, atzerrian, hondartza batean. Hondartzak, hala ere, oso leku egokiak ziren amodiorako, Roger des Annettes jaunaren esanetan.

Gontran-i, isilik baitzegoen, iritzia eskatu zioten.

— Paris hobea da oraindik ere —esan zuen—. Emakumearekin gauza kuttunekin bezala gertatzen da, gehiago estimatzen da gutxien topatu uste zenuen lekuan topatuz gero, baina egiaz bereziak direnak Parisen baizik ez dira aurkitzen.

Segundo batzuk isilik egon, eta berriro hasi zen:

— Arraio! ederra da! Zoazte udaberri goiz batean gure kaleetara. Loreak bezala zabaltzen ari direla ematen dute etxe kantoietatik aurrera igarotzen diren emakumetxo horiek! Oi ikuskari polit, polit, polit hori! Bioleta usaina espaloi

ertzean; merkatariek bultzaka daramatzaten gurdi geldietan igarotzen den bioleta.

»Giro alaia izaten da hirian; eta gizonek emakumeei begiratzen diete. Arraioaren arraioa, zein tentagarri diren beren zapitxo argiekin, azala erakusten duten beren zapitxo arinekin. Hara-hona ibiltzen gara, sudurra jasorik eta gogoa erne; hara-hona ibiltzen gara, usaina hartzen, eta zelatan. Zer gauza ederra, goiz horiek!

»Urrutitik ikusten da, ehun pausotara bereizten eta ezagutzen, hurbiletik atsegin izango duzun hura. Bere kapelako lorean, bere buruaren mugimenduan, bere ibileran, sumatzen zaio. Zureganantz dator. Esaten duzu: «Kontu, horra bat» eta haren aurrera joaten zara, begiez jan behar batean.

»Dendara erosketak egitera doan neska bat ote da, elizatik datorren emakume bat ote, edo bere maitalearenera doana ote? Zer axola dio. Bularra biribila du blusa gardenaren azpian. — Oi! haren gainean jarri ahal izango balitz hatza? hatza ala ezpaina. — Begirada uzkurra ala ausarta du, burua beltzarana ala ilehoria. Zer axola dio! Bizkor-bizkor doan emakume horren ukituak

hozkirri bat eragiten dizu bizkarrean behera. Eta nola desiratzen den gaua arte, era horretan topatu dena! Egiaz diotsuet, hogeiren bat izakitxo baditut oraindik ere gogoan, era horretara behin edo hamar bider topatu eta hurbilagotik ezagutu izan banitu zoro-zoro maiteminduta edukiko ninduketenak.

»Baina, horra, itsu-itsu maite izango liratekeenak, ez dira inoiz ezagutzen. Ohartu zarete horretaz? nahiko gauza bitxia da! Aldian behin ikusten dituzu emakume batzuk ikusi hutsak desiraz abarrakitzen zaituenak. Baina ikusi besterik ez dira egiten, horiek. Nik, Parisko kaleetan ondo-ondotik igaro zaizkidan ume adoragarri horiek guztiak gogoratzen ditudanean, neure burua urkatzeko moduko amorraldiak izaten ditut. Non daude orain? Nor dira? Non topatu ahal izango nituzke berriro? Non berriro ikusi? Esan zahar batek dio askotan igarotzen garela zorionaren ondo-ondotik; horra! ni neu ziur nago behin baino gehiagotan igaro izan naizela bere haragi freskoaren beitzaz zozoa bezalaxe harrapatu ahal izango nindukeenaren ondotik».

Roger des Annettes-ek irribarrez entzun zion.
Honela erantzun zion:

Zuk bezain ongi ezagutzen dut nik hori: Begi-
ra zer gertatu zitzaidan behin: Orain dela bost
urte-edo topatu nuen lehendabiziko aldiz, Con-
cordeko zubian, emakume gazte sendo samar
bat, halako itxura... itxura... harrigarri samar
bat... hartu niona. Beltzarana zen, beltzaran lodi-
txo bat, ile distiratsuak bekokia jaten ziola, eta
bekainak bi begiak loki batetik besteraino zihoa-
kion arku bakar batean bateratzen zitzaizkiola.
Ezpain gainean bazuen bibote pixka bat, amets
eragiten zizuna... amets... mahai gainean lore
sorta bat ikusirik maite dituzun basoetan amets
egiten den bezala. Gerria oso makurtua zuen,
bularra oso irtena, erronka bat bailitzan aurkez-
tua, tentaldi bat bezala eskainia. Begia tinta
orban beltz bat bezala zen esmalte zurian. Ez
zen begi bat, zulo beltz bat baizik, zulo beltz bat
haren buruan, emakume harengana, zabaldua,
haren baitan ikusteko, harengana sartzeko beza-
la. Oi, begiratu bitxi, opako, hutsa, pentsamen-
durik gabea, eta hain ederra!

Emakume juduren bat izango zela iruditu zitzaidan. Gizon asko itzultzen ziren hura ikusita. Grazia askorik gabe balantzaka zihoan, baina burtzoragarri hala ere. Concordeko plazan zalgurdi bat hartu zuen. Ergelaren moduan geratu nintzen, Obeliskoaren ondoan; ordu arte inoiz harrapatu ninduen desirazko emoziorik gogorrenak jorik geratu nintzen.

Hiru-bat astetan erabili nuen gogoan, gero ahaztu egin nuen.

Handik sei hilabetera ikusi nuen berriro, Bakearen kalean; eta, behinola ero-ero maite izandako maitale bat berriro topatzen denean bezalako bihotz-zartada bat sentitu nuen hura ikustean. Gelditu egin nintzen nola zetorren ongi ikusteko. Nire ondotik, ia-ia ukituz, igaro zenean, labe baten aho-ahoan nengoela iruditu zitzaidan. Gero, urrutiratu zenean, aurpegian haize hozkiriak ferekatuko banindu bezalako sentipena izan nuen. Erokeriaren bat egingo ote nuen beldur nintzen, neure buruaren beldur.

Askotan azaldu zitzaidan ametsetan. Ezagutzen dituzu zuk obsesio horiek.

Urtebete joan zen berriro ikusi arte; eta gero, arrats batez, ilunabarrean, Champs-Élysées ibilbidean gora nire aurretik zihoala ezagutu nuen.

Etoileko arkua zeruaren suzko errezelean marrazten zen. Urrezko hauts bat, argitasun gorrizko laino bat zebilen airean, Parisko apoteosiak izaten diren arrats atsegingarri horietako bat zen.

Hari hitz egiteko gogo bizi batez jarraitzen nion, haren aurrean belaunikatu eta ito beharrean nindukan emozioa adierazi.

Bi aldiz pasatu nuen atzetik aurrera, eta bi aldiz atera itzuli. Bi aldiz sentitu nuen berriro, harekin topo egitean, Bakearen kalean jo ninduen berotasun suharrezko sentipen hark berak.

Begiratu egin zidan. Gero Presborg kaleko etxe batean ikusi nuen sartzen. Bi orduz egon nintzen ate batean haren zain. Ez zen atera. Atezainari galdetzea deliberatu nuen orduan. Ezer ulertzen ez zuen aurpegia jarri zidan:

— Bisitaren bat izango da —esan zuen.

Eta beste zortzi hilabete eman nituen ikusi gabe.

Eta horrela, urtarrileko goiz batez, Siberiako hotza egiten zuen goiz batez, Malesherbes kalean zehar, berotzeko-edo lasterka nindoala, non jotzen dudan topoz topo emakume bat; halako indarrez jo ere, non paketetxo bat erori baitzitzaion.

Barkatzeko eskatzera nindoan. Huraxe zen!

Harri eta zur ergeldurik geratu nintzen lehen-dabizi; gero, eskuan zekarren gauza hura berriro hari emanik, bat-batetik esan nion:

— Damu dut, baina pozik nago, andrea, horrela bultza egin dizudalako. Badira bi urte eta gehiago ezagutzen zaitudala, miresten zaitudala, norbaitek elkarren ezaguerak egin diezazkigun desirarik bortitzena nuela; eta ezin izan dut jakin nor zaren eta non bizi zaren. Barka horrela hitz egitea, baina emazu zuri agur egiteko eskubidea dutenen artekoa izateko desira suhar batek eragina dela. Horrelako sentipen batek ezin zaitu nahigabetu, ezta? Zuk ez nauzu ezagutzen. Roger des Annettes baroia naiz. Galde ezazu, onegarria naizela esango dizute. Orain, nire eskariari muzin egiten badiozu, betirako zoritxarreko egingo nauzu. Izan zaitez ona,

arren, emaidazu, esaidazu zu ikusteko moduren bat.

Finko begiratzen zidan, bere begi bitxi, hil hartaz, eta irribarrez erantzun zidan:

— Emaidazu helbidea. Ni joango naiz zure etxera.

Hain geratu nintzen harrituta, non antz ematen utzi nuen, itxura denez. Baina horrelako ustekabeetatik luze gabe oneratzan naiz beti, eta txartel bat eman nion segituan; keinu bizkor batez sartu zuen patrikan, ezkutuko txartel emateetara ohituta zegoen esku batez.

— Noiz ikusiko zaitut? —esan nion ahopeka, ausardia harturik.

Zalantza pixka bat izan zuen, kalkulu zail bat egin behar balu bezala, orduz ordu denbora zertan erabili behar zuen gogoratzeko, nonbait; eta xuxurlatu zidan:

— Igande goizean, nahi duzu?

— Bai, horixe, nahi dudala.

Eta joan egin zen, lehendabizi ni ondo arakatu, epaitu, haztatu eta aztertu ondoren, azalean zerbait, likaren bat-edo, uzten zizula ematen zuen begirada astun lauso hartaz; bai baitziru-

dien olagarroek ura zikindu eta beren ehizakiak lo arazteko erabiltzen duten isurkari lodi horietakoren bat jaurtitzen zizula.

Sekulako gogoeta lanak hartu nituen igandea arte emakume hura zer zen eta harekin zer jokaera izan behar nuen asmatzeko.

Ordaindu behar al nion? Zenbat?

Harri bitxi bat erosiko niola erabaki nuen, bitxi polit bat, zinez, erosi eta bere bitxi kutxatxoan jarri nuen, tximinia erlaitzean.

Eta haren zain geratu nintzen, oso gaizki lo egin ondoren.

Hamarrak aldera iritsi zen, lasai, pausatu, eta oso ezaguna banindu bezala luzatu zidan eskua. Eserarazi nuen, kendu nion kapela, estalkia, larruzko berokia, mahuka berokia. Eta, enbarazu pixka batez, galaixeago azaltzen hasi nintzen, ez bainuen astirik galdetzeko.

Bere aldetik ere ez zuen erregutu behar handirik izan, eta artean elkarri hogeitaz hitzik esan gabe hasia nintzen hura biluzten. Berak bakarrik jarraitu zuen nik sekula onez burutzen asmatzen ez dudan eginkizun batere erraz ez den hori. Orratzetan sastatzen bainaiz, askatu ezinezko

korapilotan nahasten ditut lokarriak, askatu orde; dena nahasten dut, dena mordoilotzen, dena atzeratzen, eta burua galtzen dut.

Ai, adiskidea, ezagutzen al duzu hori baino momentu zoragarriagorik bizitzan, emakume guztiek duten ostrukaren lotsakortasun hori ez ikararazteko, banan-banan bere oinen inguruan erortzen ari zaizkion bere zapi burrunbari guztiez zuretzat biluzten ari denari gizalegez urruti samarretik begiratzen zaion une hori baino?

Eta zer politagorik, orobat, herioak jo balitu bezala hutsik eta bigun erortzen diren jantzi gozo horiek bereizteko egiten dituzten mugimenduak baino? Zein une harrigarria eta hunkigarria haragia azaltzen denekoa, besoak biluzik, eta bularra gerruntzea erori ondoren, eta zein zirraragarria azkeneko errezelaren azpian sumatzen den gorputzaren marra!

Horra non, ordea, gauza harrigarri bat ikusten diodan, orban beltz bat, sorbalda artean; bizkarra ematen baitzidan; orban beltz handi bat, koskor bat bezala, beltz-beltza. Ez nuela begiratuko agindua nuen gainera.

Zer zen? Ezin nuen zalantzarik izan, ordea; zeren agerian zuen bibotearen, begi biak batzen zizkion bekainaren, buru oskol bat balitz bezala estaltzen zuen txima haien gogoratzeak prestatu behar baininduen ustekabe hartarako.

Harridurak hartu ninduen hala ere, eta ikuspen eta oroitzapen ondo bereziek sorgindurik bat-batean. Mila eta bat gauetako magiagile haietako bat, gizonak amildegi ezezagunetan barrena eramateko ardura duten izakari arriskugarri, gaizto haietakoren bat, iruditzen zitzaidan ari nintzela ikusten. Salomon gogoratu zitzaidan, Sabako erregina ispilu baten gainetik igaroarazten, oinaren ordeaz apatxa ote zuen ezagutzeko.

Eta... nire amodio kantua kantatu behar nuen, ahotsik ez baina, hots haritxo bat nuela ohartu nintzen, adiskidea. Barkatu, Aita Santuaren kantarien ahotsa nuen; hasieran harritu zitzaion, baina gero haserretu egin zen erabat, zeren lasterka berriro janzten ari zela, jaulki baitzuen:

— Ez zegoen zertan ni nekarazirik.

Harentzat erosia nuen eraztuna onarrarazi nahi izan nion, baina halako harrotasunez esan

zidan «Zer naizela uste duzu, jauna?» non belarrietaraino gorritu bainintzen lotsaren lotsaz. Eta beste hitz bat esan gabe alde egin zuen.

Horra bada nire abentura guztia. Txarrena, ordea, orain maiteminduta nagoela, erotzeraino maiteminduta.

Ezin dut emakume bat ikusi hura gogora etorri gabe. Gainerako guztiek gogaitarazten naute, biguintzen naute, non eta haren antza ez duten. Ezin dut musu bat eman masaila batean besarkatzen dudanaren ondoan beste haren masaila ikusi gabe, eta torturapean naukan desira asegabe honek oinaze bizitan jarri gabe.

Han da beti, nire topaketa guztietan, fereka guztietan, denak hondatzeko, denak gorrotagarri bihurtzeko. Han da beti, jantzita edo biluzik, maitale bat bailitzan; han da beti, bestearen ondoan, zutik zein etzanda, ikusgarri, baina ezin atzemaneko. Eta sinetsita nago, egiaz, emakume sorgindu bat zela, sorbalden artean sorginkutun misteriozkoren bat zuela.

Nor den? Ez dakit oraindik. Bi bider topatu dut harrezkero. Agur egin diot. Hark ordea ez dit agurrik itzuli, ezikusit egin dit. Nor da! Asiako

emakume bat, agian? Sortaldeko juduren bat,
ausaz? Judua, horixe! Horretantxe nago, judua
dela. Zergatik, ordea? Horra! Zergatik? Ez dakit!

(1885eko urtarrilaren 27an)

Ero baten gutunak

Sendagile estimatua, zure eskuetan jartzen naiz. Egizu nitaz nahi duzuna.

Argi eta garbi azalduko dizut nire izpirituaren egoera, eta zuk ikusiko duzu ea ez ote litzatekeen hobe aldi baterako osasun etxe batean sartu han zaindu nazaten, inguraturik naukaten burtzorramenduen eta sufrikarioen mende utzi baino.

Hona nire arimako gaitz berezi honen historia, luzea eta zehatza.

Jende guztia bezalaxe bizi nintzen ni, bizitza gizonaren begi zabal itsuez ikusten, harritu gabe eta ulertu gabe. Abereak bizi diren bezala bizi nintzen, denok bizi garen bezala, gure izatearen eginkizun guztiak betez, inguruan duguna aztertuz, eta ustez ikusiz, ustez jakinez, ustez ezagutzuz, harik eta egun batean hori dena gezurrezkoa dela ohartu nintzen arte.

Montesquieu-ren esaldi batek argitu zidan bat-batean pentsamendua. Hona zer dioen: «Gure makinan organo bat gehiago ala bat

gutxiago izateak arras bestelako adimena egin izango liguke.

»... Alegia, gure makina era jakin batekoa delako finkatu izan ziren lege guztiak beste era batekoak izango lirateke gure makina era jakin horretakoa izan ez balitz».

Hilabeteak eman ditut horri buruz gogoetan, hilabeteak eta hilabeteak, eta, poliki-poliki argitasun berezi bat sortu zait nire baitan, eta argitasun horrexek gaua ekarri dit.

Hain zuzen ere, gure organoak ditugu kanpoko munduaren eta gure arteko bitartekari baka-rrak. Esan nahi baita, gure baitako izatea, gure *ni*-a osatzen duena, kirio hari batzuen bitartez dagoela mundua osatzen duen kanpoko izatea-ekin harremanetan.

Baina, kanpoko izaki hori, bere proportzioen-gatik, bere iraupenagatik, bere tasun izendaezi-nezko eta barnera ezinezkoengatik, bere jato-rriatatik, bere etorkizunagatik edo bere helbu-ruengatik, bere irudi urrutikoengatik eta bere azaltzeko modu amaigabekoengatik, guretzat atxiki ezinezkoa izatez gainera, mundu horreta-tik ezagutzeko gauza garen zatitxoaz ere, urri

bezain ziurtasun gabeak dira gure organoek ematen dizkiguten berriak.

Ziurtasun gabeak, gure organoen nolakotasunaren araberakoak direlako guretzat materia-
ren ageriko tasunak.

Urriak, gure zentzuak bost baizik ez direnez, zentzu horien ikerketa alorra eta azal diezaguke-
tenaren izaera bera oso murriztuak direlako horrenbestez.

Azalduko dizut nire iritzia. — Begiak neurriak, formak eta koloreak azaltzen dizkigu. Huts egi-
ten digu hiru puntu horietan.

Neurria batez beste erditsukoa duten gauzak baizik ezin dizkigu azaldu, gizonaren tamainaren proportzioan, eta horrek eraman gaitu gauza batzuetarako handi hitza eta beste gauza batzuetarako txiki hitza erabiltzera, begiaren ahultasunak beretzat handiegia edo ñimiñoegia dena ikusten uzten ez diolako hain zuzen. Hortik ateratzen da ondorioz begiak ez dakiela eta ez duela ikusten ia ezer ere, unibertsoa ezkutaturik dagoela begiarentzat ia guztia, eta berdin espazioan bizi den izarra eta ur tanta batean bizi den piztia mikroskopikoa.

Begiaren ahalmen normala baino ehun milioi aldiz handiagoa balu ere, arnasan hartzen dugun airean era guztietako izakari ikusezinak eta inguruan ditugun planetetako biztanleak ikusteko gauza balitz ere, piztia txikiagozko arraza infinituak geratuko lirateke oraindik, eta hain mundu urrunak non ezingo bailitzateke begia haietara iritsi.

Gure proportzio ideia guztiak gezurrezkoak dira berez, handitasunean eta txikitasunean ezin baitaiteke mugarik izan.

Neurriez eta formez hartzen ditugun ustezko iritziak ez du inolako balio absoluturik, organo baten ahalmenak eta geure buruarekin egiten dugun alderaketak baizik ez baitute erabakitzen hori.

Gainera esan beharra dago begia ez dela gauza gardenak ikusteko gai. Akatsik ez duen beira batek huts eragingo lioke. Airetzat hartuko luke, airea ere ez baitu ikusten.

Eta azter dezagun kolorea.

Kolorea existitzen bada, gure begia halakoxea delako, eta gorputzek jotzen dituen argia beren baitan zurgatu eta beren izaera kimikoa-

ren arabera deskonposatzeko duten forma desberdinak garunera kolore forman igortzen dituelako existitzen da.

Zurgatze eta deskonposizio horren proportzio desberdinak dira kolorearen ñabardurak.

Organo horrek, beraz, bere ikusteko modua, edo, hobeto esanda, neurriak eta argitasunaren eta materiaren arteko erlazioak atzemateko duen bere gisako modua harrarazten dio adimenari.

Azter dezagun orain entzumena.

Begiarekin gertatzen zen baino ere mende-koago eta tronpatuago gara fantasiaz betetako organo honekin.

Elkarrekin talka egiten duten bi gorputzek astindu bat eragiten dute eguratsean. Mugimendu horrek dardara bat eragiten dio gure belarriko mintz txiki bati, eta horrek hots bihurtzen du izatez dardara bat baizik ez zena.

Izadia mutua da. Baina tinpanoak badu espazioan gertatzen diren uhin ikusezinezko dardara guztiak guretzat gauza zentzudun gisa, eta bibrazio kopuruaren arabera zentzu desberdin gisa gainera, igortzeko ahalmen mirarizko hori.

Belarritik garunera doan entzumenaren nerbioak burutzen duen metamorfosi horrek arte bitxi bat utzi digu sortzen, musika, arte guztietan poetikoen eta zehatzena, amets bat bezain zehazgabea eta aljebra bezain zehatza.

Eta zer esan dastamenaz eta usaimenaz? Ezagutuko al genituzke janarien ezaugarriak eta urrin gozoak gure sudurraren eta ahosabaiaren ahalmen harrigarri horiek ez bagenitu?

Gizona existi daiteke, hala ere, belarririk gabe, dastamenik gabe, usaimenik gabe, zarataren, ahogozoaren eta usainaren ideiarik gabe, alegia.

Beraz, organo gutxiago bagenitu, gauza zoragarri eta berezi askoren ezjakin izango ginатеke, baina organo gehiago bagenitu, frogatu ahal izateko biderik ez dugunez inoiz sumatu ere egingo ez ditugun ezin konta ahala gauza aurkituko genituzke gure inguruan.

Beraz, ezagun dena juzkatzen dugunean huts egiten dugu, eta aztertu ez dugun mundu ezezagun batez gaude inguraturik.

Beraz, ezer ez da ziur eta dena har daiteke era desberdin askotara.

Dena da gezurrezko, dena izan daiteke, dena da zalantzazko.

Adieraz dezagun bada gauza ziur hori behin-lako esaera berrituz: «Pirinioetatik hona egia, handik hara gezur».

Eta esan dezagun: gure organoan egia dena, aldamenekoan gezur.

Bi eta bik ez dute zertan lau emanik gure atmosferatik kanpo.

Egia lurraren gainean egia, urrutiago hutsegitea, eta hortik ateratzen dut ondorioz begiztatu baizik egin ez ditugun misterioak, hala nola elektrizitate indarra, hipnosia, borondatearen igorpena, sugestioa, magnetismozko gertaera guztiak, naturak horretarako organorik eman ez digulako, edo horiek ulertzeko organorik eman ez digulako, baizik ez direla guretzat ezkutuko.

Nire zentzumenek erakusten didaten guztia, nik atzematen dudana bezala, niretzat baizik ez dela horrela, eta beste bat beste era batera antolatuta balego, hori dena harentzat guztiz bestela izango litzatekeela konbentzitu ondoren, eta gero horretatik ondorio gisa gizadia beste era batera egina balitz, bizitzari buruz, gauza

guztiei buruz, guztiz gureak ez bezalako ideiak izango lituzkeela atera ondoren, hain zuzen ere gizonok sinesteetan dugun antza organoetan dugun antzetik baitator, eta irizpideen arteko desberdintasunak gure nerbio harien funtzionamenduan ditugun desberdintasun arinetatik baidarik ez baitatoz, horren guztiaren ondoren, beraz, gizonaren neurriaz goitiko gogoeta ahalegin bat egin dut inguruan dudan atzeman ezinezko munduaren susmo apur bat hartzeko.

Erotu egin naiz?

«Gauza ezezagunez bildurik nago» esan diot nire buruari. Eta nire baitan irudi egin nuen gizonak ez zuela belarririk, baina susmoa bazuela, guk beste hainbeste misterio ezkutu susmatzen ditugun bezala, hotsa badela, fenomeno akustikoak konstatatzen zituela, baina ezin zuela ez erabaki zer diren, ez nondik datozen asmatu. Eta nire inguruko gauza guztien beldurra hartu nuen, airearen beldurra, gauaren beldurra. Ia ezer ezagutzeko gauza ez garenez, eta ezerk mugarik ez duenez, zer da gainerakoa. Ezereza, ezta? Eta zer dago itxuraz ezerez den horretan?

Eta gizonaz munduaren hasieratik jabetu zen naturaz gaindiko gauzen beldur lauso hori arrazoizkoa da, zeren eta ezkutuan geratzen zaiguna baizik ez baitira, hain zuzen, naturaz gaindiko gauzak.

Orduan ulertu nuen izumena zer den. Unibertsoaren sekretuetako batera iristen ari nintzela iruditu zitzaidan.

Nire organoak bizitzen, kitzikatzen, unetxo batez ikusezinak atzematera behartzen ahalegindu nintzen.

Nire buruari esan nion: «Dena da izaki. Airean igarotzen den oihua piztia bat bezalakoxe izakia da, jaio, mugimendu bat sortu, berriro eraldatu eta hil egiten baita. Beraz, izaki gorputz gabeetan sinesten duen arima beldurtia ez dabil oker. Zer dira horiek?»

Zenbat gizonak ez dituzte sumatzen, ez dute hozkirria izaten hurbiltzen zaizkienean, ez dute ikara egiten haiek ozta-ozta ukitzen dituztenean. Baten inguruan sentitzen dira, inguruan, baina ezin dira bereizi, ez baitugu horiek ikusi ahal izango lituzkeen organorik, edo, hobeto esanda,

horiek argitara atera ahal izango lituzketen organorik.

Nik sentitzen nituen, ordea, beste inork baino gehiago, naturaz goitiko ibiltari horiek. Izakariak ala misterioak? Zer dakit nik? Ezin esango nuke zer diren, baina beti adierazi ahal izango nuke noiz diren han. Eta ikusia dut —izaki ikusezin bat ikusi— izaki horiek ikus daitezkeen heinean.

Gau osoak ematen nituen geldi-geldi, mahaian eserita, burua esku artean eta horretan pentsatzen, haietan pentsatzen. Behin baino gehiagotan iruditu zitzaidan ukiezinezko esku batek, edo hobeto esanda, atzeman ezinezko gorputz batek, ileak ozta-ozta ferekatzen zizkidala. Ez ninduen ukitzen, bere izaera haragizkoa ez duenez, pisurik gabea, ezin ezagutuzkoa baizik.

Horra bada, gau batean nire atzean zurezko zoruak kraska hots bat egiten zuela entzun nuen. Ikara sartu zitzaidan. Itzuli nintzen. Ez nuen ezer ikusi. Eta ez nuen gehiago hura gogoratu.

Biharamunean, ordea, hots bera entzun zen, ordu berean. Hainbestearino beldurtu nintzen,

non jaiki egin bainintzen, nire gelan ni bakarrik ez nengoela ziur, ziur, ziur. Baina ez zen ezer ikusten. Airea garbi-garbi zegoen, alde guztietan garden. Nire bi argimutilek zoko guztiak argitzen zituzten.

Zarata ez zen berriro hasi, eta poliki-poliki sosegatu egin nintzen; kezkatuik nengoen hala ere, eta sarritan itzultzen nintzen.

Hurrengo egunean goiz sartu nintzen gelan, ikustera zetorkidan ikusezina nola ikusi asmatu nahiz.

Eta ikusi nuen. Hil nintzen ia izuaren izuz.

Nire tximiniako eta lanparako kandela guztiak piztuta neuzkan. Jai egun baterako bezalaxe argituta zegoen gela. Mahai gaineko bi argimutitak piztuta zeuden.

Nire aurrez aurre nire ohea, haritzezko ohe zahar habedun bat. Eskuinetara tximinia. Ezkerretara atea, neuk morroiloz itxia. Atzean, armairu handi ispiludun bat. Ni neu hara begira nengoen. Begi bitxiak nituen, eta begi-niniak handituta.

Gero egunero bezala eseri nintzen.

Bezperan eta bezpera aurrean bederatziaik eta hogeita bian gertatu zen hotsa. Zain nengoen. Une hori iritsi zenean, esan ere ezinezko sentipen bat izan nuen, isurkari bat, eutsi ezinezko isurkari bat nire haragiaren zati guzti-guztietan sartu izan balitzait bezala, nire arima guztia halako izumen erdiragarri, on batez itoz. Eta kraska hotsa entzun zen berriro, nire ondo-ondotan.

Eta hain bizkor jaiki eta biratu nintzen, non erori bainintzen ia. Egunez bezalaxe ikusten zen, eta ez nuen nire burua ispiluan ikusi! Ispilua hutsik zegoen, garbi, argiz beterik, Eta ni ez nengoen barruan, nahiz eta aurrean egon. Begiak eroturik nengoen ispiluari begira. Ez nintzen ausartzen hartara hurbiltzen, bestea, ikusezina, bitartean zegoela eta hark estaltzen ninduela sumaturik.

Hura beldurra izan nuena! Eta horra non hasi nintzen berriro ispiluaren barrenean neure burua laino batean ikusten, laino batean, uraren beste aldean bezala; eta ur hori geldiro-geldiro eskuinetik ezkerrerantz mugitzen zela iruditzen zitzai-

dan, segundotik segundora nire irudia zehatzago bihurtuz. Ekliptse baten amaiera bezala zen.

Ezkutatzen ninduen gauza hark ez zuen ertz zehatzik, poliki-poliki argituz zihoan gardentasun opako bat-edo baizik.

Eta azkenean nire irudia zehatz ikusi ahal izan nuen, ispiluan begiratzen dudanean egunero ikusten dudana bezala.

Ikusi egin nuen, beraz!

Eta ez dut berriro ikusi.

Baina haren zain nago betiere, eta ohartuta nago zain egote horretan burua joan egiten zaidala.

Orduak, gauak, egunak, asteak ematen ditut nire ispiluaren aurrean, haren zain! Eta ez da etortzen.

Ohartua da, nonbait, ikusi egin nuela. Baina ni sinetsita nago beti egongo naizela haren zain, hiltzen naizen arte, etengabe egongo naizela haren zain, ispilu horren aurrean, zelatan dagoen ehiztaria bezala.

Eta, ispilu horretan, irudi eroak ikusten hasi naiz, munstroak, gorpu nazkagarriak, piztia mota beldurgarri guztiak, izaki ankerrak, eroen

gogoa harturik duten begitazio itxuragabe guztiak.

Hona nire aitortpena, sendagile estimatua. Esaidazu zer egin behar dudan.

(1885eko otsailaren 17an)

Katuei buruz

I

Cap d'Antibes

Lehengo batean, ate aurrean eserita, eguzki-eguzkitan, eguerdi-lili loratuzko saski baten aurrean, oraintsu argitaratu den liburu bat, liburu zintzo bat, gauza bitxia, eta polita gainera, Georges Duval-en *Le Tonnelier* ari nintzen irakurtzen. Katu handi zuri bat, lorezainarena, jauzi eginik belaun magalera etorri zitzaidan, eta kolpe hartaz liburua itxi zidan; alboan utzi nuen, piztia hura ferekatzeko.

Bero egiten zuen; lore berrien usain bat, usain herabea oraindik ere, aldizkako, arina, zebilen airean, eta airean zabaltzen ziren orobat aldiro han urruti ikusten nituen gailur zurietatik zetozen hozkirriak ere.

Eguzkia, ordea, kiskalgarria zen, bizia, lurra harrotu eta biziarazten duten horietakoa, bihia printzatu eta lotan diren hoziak pizten dituzten

horietakoa, eta orobat kimuak ere, hosto gazteak zabal daitezten. Katua magalean kiribilka zebilkidan, bizkarrez behera, hankak airean, erpeak itxi eta zabaldu, ezpainen azpian bere letagin zorrotzak eta bekainen arteko zirrikitu ia itxiaren artetik bere begi berdeak erakutsiz. Fereka egiten nion eta eskuetan nerabilen piztia bigun urduria, sedazko oihala bezain malgua, gozoa, beroa, ezta eta arriskutsua. Pozik egiten zuen runrunka, hozka egiteko prest, igurztea adina gustatzen baitzaio hozka egitea. Lepoa luzatzen zuen, kiribilkatzen zen, eta ukitzen ez nuenean, zutitu eta nire esku jasoaren kontra bultzatzen zuen burua.

Nik hura urduritzen eta hark ni urduritzen, zeren maite eta gorrotatu, biak egiten baititut nik piztia xoragarri eta doilor horiek. Atsegin dut ukitzea, nire eskuan igurzten nauen sedazko azal hori irristaraztea, ile horretan, larru fin, zoragarri horretan duten beroa sentitzea. Ez dago hori baino gauza guriagorik, ezerk ez dio ematen azalari sentsazio xumeagorik, finagorik, bakanagorik katu baten jantzi epel, dardaratiak baino. Baina jantzi bizi horrek ferekatzen ari nai-

zen piztia itotzeko gogo bitxi basati bat jartzen dit hatzetan. Niri hozka egin eta urratzeko duen gogoia sentitzen diot, sentitzen eta hartu egiten dut gogo hori, komunikatzen didan isurkari bat balitz bezala; nire behatz puntetatik jasotzen dut bere ile bero horretatik, eta gora eta gora igo-tzen zait nire nerbioetan barrena, nire soin ata-letan, nire bihotzeraino, bururaino, betetzen nau, azalean zehar zabaltzen zait, hortzak estua-razten dizkit. Eta denbora guzti-guztian, barne-raino sartzen zaidan eta dena hartzen nauen kili-ma bizi arina sentitzen dut nire hamar hatzen puntan.

Eta piztia hasten bada, hozka egiten badit, atzamarka egiten badit, lepotik heltzen diot, birarazten dut eta urrutira jaurtitzen dut, habai-la batez harria bezala, hain azkar eta gogor non ez baitu inoiz izaten mendeku hartzeko astirik.

Gogoan dut haurra nintzenerako ere horrela-xe maite nituela katuak, nire eskutxoetan itoa-razteko bat-bateko gogo horiekin; eta, behin, lorategiaren barreneko aldean, basorako sarre-ran, belar handietan jiraka eta biraka ari zen gauza gris bat begiztatu nuela. Zer zen ikustera

joan nintzen; katu bat zen, lakioan harrapatua, itotzen, arnasestuka, hiltzen. Bihurrika ari zen, bere erpeez lurra harrotzen zuen, jauzi egiten zuen, indarge erortzen zen, gero berriro hasten zen, eta haren hats zakar lasterrak punpa baten hotsa egiten zuen, oraindik ere entzuten dudan hots beldurgarri bat.

Banuen pala bat hartu eta lakioa moztea, banuen morroia bilatu edo aitari esatea. Ez, ez nintzen mugitu, eta bihotza taupadaka nuela, dardarazko poz anker batez ikusi nuen hiltzen; katurra zen! Zakurra izan balitz, lehenago moztuko nukeen neure haginez kobrezko haria segundo bat gehiago sufritzen utzi baino.

Eta hil zenean, ondo hil zenean, oraindik ere bero zegoela, ukitzen eta isatsetik tira egiten hasi nintzaion.



Zoragarriak dira, hala ere, zoragarriak batez ere, zeren ferekak egiten zaizkienean, gure haragiaren kontra igurtzi egiten duten bitartean,

eta sekula guri begira daudenik ez diruditen beren begi horiez begira ari zaizkigula runrunka eta kiribilka aritzen diren bitartean, ederki ikusten baitzaie beren samurtasunaren ziurgabetasuna, beren plazerraren egoismo doilorra.

Emakume batzuek ere ematen digute horrelako sentipena, amodioaren kontra igurzteko aukeratu gaituzten begi argi eta faltsuzko emakume xarmagarri, gozoek. Haien ondoan, ezpainak luzaturik besoak zabaltzen dituztenean, bihotza taupadaka besarkatzen dituzunean, haien laztan samurraren gozamen sentsual gozagarria dastatzen denean, ondo dakizu kateme bat duzula, erpeak eta letaginak dituen kateme bat, kateme doilor, azpikari, maitale etsai bat, musuez aspertzen denean hozka egingo duena.

Poeta guztiek izan dituzte atsegin katuak. Baudelairek bertso jainkotiarrez kantatu zituen. Ezaguna da haren soneto miragarria:

Les amoureux fervents et les savants austères

Aiment également, dans leur mûre
saison,

Les chats puissants et doux, orgueil de
la maison,

Qui comme eux sont frileux, et comme
eux sédentaires.

Amis de la science et de la volupté,
Ils cherchent le silence et l'horreur des
ténèbres.

L'Erèbe les eût pris pour ses coursiers
funèbres

S'ils pouvaient au servage incliner leur
fierté?

Ils prennent, en songeant, les nobles
attitudes

Des grands sphinx allongés au fond
des solitudes

Qui semblent s'endormir dans un rêve
sans fin.

Leurs reins féconds sont pleins d'étin-
celles magiques.

Et des parcelles d'or, ainsi qu'un sable
fin,

*Etoilent vaguement leurs prunelles
mystiques.*

III

Nik izan nuen behin Kateme Zuriaren palazioan bizi izandako sentipena, piztia uhintsu, misteriozko, zirrara eragile horietako bat, agian izaki guztien artean ibiltzen entzuten ez zaion izaki bakarra dena, erregina zen magiazko gaztelu batean bizi izandako sentipena, alegia.

Orain hurrengo neguan gertatu zen, Mediterraneoaren bazter honetan beronetan.

Bero itogarria egiten zuen Nizan, eta eskualde honetako biztanleak gaineko mendietan arnasa hartzera joan ahal izateko haran librearen bat ez ote zuten galdetu nuen.

Thorenc-ekoa aipatu zidaten. Ikustera joatea erabaki nuen.

Grasse-ra iritsi behar izan nuen lehendabizi, urrinen herrira, alegia; aipatuko dut egunen batean berriro herri hori, beharbada litroak bi mila liberaraino egiten duen lore urrin horiek

nola egiten diren kontatzen dudanean. Herriko hotel zahar batean igaro nuen hango arratsaldea eta gaua; erdipurdiko ostatua, janariaren kalitatea geletako garbitasuna bezain nolabaitekoa zuena; eta hurrengo goizean berriro abiatu nintzen.

Bidea mendi-mendian sartzen zen, trokarte sakonen ertzetik eta gailur antzu, zorrotz, basatien azpitik. Galdezka ari nintzen neure buruari ea udako zer egonaldi bitxi agindu zidaten han; eta atzera itzuli eta gauerako Nizara itzultzear nintzela, non ikusten dudan bat-batean nire aurrean, haran guztia ixten zuela zirudien mendixka baten tontorrean, zeruaren kontra dorreak, harresi eroriak, gaztelu hil baten arkitectura harrigarri oso baten isla marrazten zuen hondoa jotako eraikuntza zahar izugarri eta miresgarri bat. Antzina Thorenc-eko lurraldea gobernatzen zuen behinolako Tenpleko ordenaren gomendio-buru baten egoitza.

Mendia saihetsetik igaro, eta haran berde, zabal, atsedengarri bat topatu nuen. Barrenbarrenean belardiak, ur lasterrak, sahatsak; eta maldetan lerrak, zeruraino.

Gomendio egoitzaren aurrez aurre, haranaren beste aldean, baina hura baino beherago, bada jendea bizi den gaztelu bat, Quatre-Tours-eko gaztelua, 1530 inguruan eraikia. Gaur egun, ordea, Pizkundeko aztarnarik batere ez da geratzen.

Eraikuntza karratu astun eta gotorra da, itxura ahaltzukoa, ertz banatan gudurako dorre bana duena, izenak berak dioen bezala.

Egoitza hartako jabearentzat gomendiozko gutun bat neraman, eta ez zidan hotelera joaten utzi.

Haran hori guztia, zinez gozagarria, amestu ere egin daitekeen egonlekurik atsegingarrienetako bat da. Arratsa arte ibili nintzen hara-hona; gero, afaldu ondoren, prestatu zidaten gelara igo nintzen. Hormak Cordobako larru zaharrez estalita zituen areto moduko batetik igaro nintzen lehendabizi, gero beste gela batetik; kandelaren argitan dama erretratu zahar batzuk ikusi nituen laster-laster hormetan, Théophile Gautier-ek aipatu izan dituen bezalako koadroak:

*J'aime à vous voir en vos cadres ova-
les*

*Portraits jaunis des belles du vieux
temps,*

*Tenant en main des roses un peu
pâles*

*Comme il convient à des fleurs de cent
ans!*

eta gero niretzako ohea zegoen gelan sartu nintzen.

Bakarrik geratu nintzenean geldiro aztertu nuen. Paisaje urdinetan dorre arrosa-koloreak eta harribitxizko hostaila baten azpian zeuden hegaztitzar fantastikoak ageri ziren koadroz estalita zituen hormak.

Nire komuna dorretako batean zegoen. Leihoak, gela aldetik zabalak, kanpora berriz estuak, hormaren loditasun osoa hartzen zutela, saieterak baizik ez ziren, gizonak hiltzeko baliatzen ziren zirrikitu horiek, alegia. Atea itxi nuen, etzan nintzen, eta lo hartu nuen.

Ametsetan egin nuen; beti egiten da amets pixka bat egunean zehar gertatu denaz. Bidaia-tzen ari nintzen; ostatu batean sartzen nintzen eta mahaira eseririk zerbitzari bat jaietarako jantziz eta hargin bat ikusten nituen, elkarte bitxia, batere harritzen ez ninduena. Victor Hugori buruz ari ziren, hil berria baitzen, eta ni ere solasean sartzen nintzen. Azkenean atea ixten ez zen gela batera joaten nintzen lotara, eta, horretan, zerbitzaria eta hargina ikusten nituen, adreiluz horniturik, geldiro-geldiro nire oherantz zetozela.

Kolpetik esnatu nintzen, eta une batzuk behar izan nituen nire onera etortzeko; gero bezperako gertaerez gogoratu nintzen: Thorenc-era iristea, gazteluzainaren abegi ona... Berriro begiak ixtera nindoala, non ikusiko, ikusi zinez, ilunpean, gauez, nire gelaren erdian, gizonaren buruaren alturan gutxi gorabehera, suzko bi begi niri begira. Pospolo bat hartu, eta, igurzten ari nintzen bitartean, hots bat entzun nuen, hots arin bat, zapi heze bildu bat erori izan balitz bezala, eta argia piztu nuenerako ez nuen ezer

ikuski gelaren erdian zegoen mahai handi bat baikik.

Jaiki nintzen, arakatu nituen ondo bi gelak, ohe azpia, armairuak, ezer ez.

Esnatu eta gero ere pixka batean ametsetan jarraitu nuela pentsatu nuen, eta berriro hartu nuen lo, zertxobait kostata. Berriro egin nuen amets. Oraingo honetan ere bidaiari nintzen, baina Sortaldean, atsegina zaidan herrialdean. Desertu erdi-erdian bizi zen turko baten etxera iristen nintzen. Turko bikaina zen; ez arabiarra, turkoa baizik, lodia, abegikorra, xarmagarria, turkoz jantzia, turbante eta guzti, bizkarrean seda saltegi oso bat zeramana, Frantziako Antzerkiko egiazko turko bat, beraz, diban zoragarri batean gozokiak eskainiz abegi egiten zidana.

Gero beltz koxkor batek gelara eramaten ninduen —amaiera hori baitzuten nire amets guztiek—, gela zeru-urdin bat zen, urrinez gozatua, zoruan piztia larruak zabaldua zituena, eta, su aurrean —suaren ideiak deserturaino jarraitzen zidan—, aulki apal baten gainean, emakume ozta-ozta jantzi bat nire zain.

Sortaldetar itxurarik soilena zuen, izarrak zituen masailetan, bekokian eta kokotsean, begi handi-handiak, gorputz zoragarria, beltzaran samarra, baina beltzaran kolore bero burtzorgarri batekoa.

Hark begiratzen zidan eta nik pentsatzen nuen: «Honela behar du izan, nire iritzian, abegi onak. Ez litzaioke gure Ipar herrialde ergeletan, gure ezertarako ez den itxuraren zaletasunarekin, gure lotsakortasun gorrotagarriarekin, gure moral zentzugabearekin, egingo arrotzari hone-lako harrerarik».

Hurbildu nintzaion, eta hitz egin nion, baina keinuz erantzun zidan, turkoak, haren nagusiak, hain ongi zekien nire hizkuntza honetan hitz bat bera ere ez baitzekien.

Hainbat hobeto, mutu egongo baitzen, esku-tik heldu eta nire ohatzera eraman nuen, eta haren ondoan etzan nintzen... Une horietan esnatu egiten da bat beti, ordea! Esnatu nintzen, bada, eta ez nintzen askorik harritu nire eskua-ren azpian maitekiro laztantzen ari nintzen gauza bero bigun bat sentiturik.

Gero, pentsamendua argitzen ari zitzaidalarik, katu bat zela ohartu nintzen, katu handi bat nire musuaren kontra kiribilkatu eta lasai asko lotan zegoena. Hantxe utzi nuen, eta hark bezalaxe egin nuen nik ere, berriro.

Eguna argitu zuenean alde egina zen; eta amets egin nuela iruditzen zitzaidan; ez bainuen ulertzen nondik sartu ahal izango zen nire gelan, eta handik irten, atea giltzaz itxia zegoenez.

Nire abentura hori ostalari abegikor hari kontatu nionean (ez osorik), barreari eman zion, eta esan zidan:

— Katu zulotik sartu da —eta errezel bat jasorik zulo beltz biribil bat erakutsi zidan horman.

Eta orduan ikasi nuen lurralde honetako egoitza zahar gehienek dituztela horrelako pasabide estu luzeak hormetan, sototik ganbarara, neska-mearen gelatik nagusiaren gelara, katua hango errege eta nagusi egiten dutenak.

Nahi duen bezala ibiltzen da batetik bestera, gogoak ematen dion bezala arakutzen du bere jabegoa, ohe guztietan etzan daiteke, dena ikus eta entzun dezake, sekretu guztiak, etxeko ohi-tura edo lotsakizun guztiak ezagutu ditzake.

Bere etxean dago alde guztietan, alde guztietan sar baitaiteke, hotsik egin gabe ibiltzen den piztia hori, zelatari isila, horma hutsetako gau ibiltaria. Eta Baudelaireren beste bertso hauek gogoratu zitzaizkidan:

*C'est l'esprit familier du lieu,
Il juge, il préside, il inspire
Toutes choses dans son empire;
Peut-être est-il fée, - est-il Dieu?*

(1886ko otsailaren 9an)

Dibortzio kasu bat

Chassel andrearen abokatuak hartu zuen hitza:

Lehendakari jauna,

Epaile jaunak,

Zuen aurrean defendatzeko ardura dudan auzi hau medikuntzari gehiago dagokio zuzenbideari baino, eta patologiazko kasua gehiago da zuzenbide arruntekoa baino. Gertaerak oso argi daude lehen ikusian.

Gizon gazte bat, oso aberatsa, arima prestua eta suharra, bihotz eskuzabala, neska guztiz eder, eder baino gehiago, adoragarri, polit bezain graziaz bete, xarmagarri, on batez maite-mintzen da, eta ezkondu egiten da.

Aldi batez senar arduratsu eta samurtasunez bete baten gisa jokatzeko du emaztearekin, gero, ordea, baztertu egiten du, tratatu txarra ematen dio, badirudi ezin gaituzko higuina, ezin eramanezko nazka sentitzen duela emaztearentzat. Behin jo eta guzti egiten du, inolako arrazoirik gabe ez ezik, inolako aitzakiarik gabe.

Ez dizkizuet marraztuko, jaunak, haren tankerak bitxiak, inork ulertu ezin zituenak. Ez dizuet margotuko bi izakion bizimodu negargarria, ez eta emakume gazte honen samin ikaragarria ere.

Aski izango dut, konbentzi zaitezten, gizajo honek, ero gaixo honek, egunero-egunero idatzi izan duen egunkari batetik zati batzuk irakurtzea. Eroa baita aurrean duguna, jaunak, eta kasu hau are da jakingarriagoa, are interesgarriagoa, zeren oraindik aspaldi ez dela hil den eta Bavarian platonikoki erreinatu duen errege bitxiaren, printze zoritxarreko horren antza baitu gauza askotan. Eromen poetikoa deituko diot kasu honi.

Gogoan duzue zertzuk kontatu ziren printze bere gisako horrez. Bere erresumako paisajerik ederrenetan ipuinetako gazteluak eraikiarazi zituen. Gauzen eta lekuen edertasuna bera ez zuen aski, bere egoitza uste ezinezko horietan odaiertz artifizialak irudikatu, sortu zituen, antzerkian erabiltzen ziren trikimailuez, dekorazio aldaketez, baso margotuz baliatuz, ipuinetako inperioak sortu zituen, zuhaitzetako hostoak

harri bitxiak zirenak. Alpeak eta izoztegiak, estepak, eguzkiak kiskalitako basamortuak, denetik zegoen; eta gauean, egiazko ilargiaren argitan, distira elektriko fantastikoz argitzen ziren azpitik aintzirak. Aintzira horietan beltzargak ibiltzen ziren igerian, eta ontzitxoak irristatzen ziren, munduko musika jotzailerik onenek osatzen zuten orkestra batek errege eroaren arima poesiaz horditzen zuen bitartean.

Gizon horrek ez zuen emakume traturik, birjina zen. Ez zuen inoiz amets bat besterik maite izan, bere ametsa, bere jainkozko ametsa.

Arrats batean, emakume bat eraman omen zuen bere ontzira, emakume gazte, eder bat, artista handi bat, eta kantatzeko eskatu zion. Eta hark kantatu zuen, bera ere paisaje zoragarri hark, airearen gozotasun epelak, loreen usain gozoak eta printze gazte eta eder haren estasiak horditurik.

Kantatu zuen, maitasunak ukitu dituen emakumeek ohi duten bezala, eta pozez zorutzen, dardaraz, erregeren bihotz gainera erori zen, haren ezpainen bila.

Hark ordea aintzirarabota zuen, eta arraunei heldurik lehorrera itzuli zen, kantaria salbatzen zuten ala ez ardurarik ez ziola.

Guk ere, epaile jaunak, horrelakoxe kasu antz-antzeko bat dugu aurrean. Bere idazma-haiaren tiradera batean aurkitu diogun egunkariaren pasarte batzuk irakurri baizik ez dizuet egingo orain.

.....
Zein den triste eta itsusia dena, beti berdin, beti gogaikarri. Nola amesten dudan nik lur ederrago bat, prestuagoa, nabarragoa. Bai urria litzatekeela horien Jainkoaren irudimena, Jainko hori existituko balitz, edo beste leku batzuetan bestelako gauza batzuk egin izan ez balitu.

Beti basoak, basotxoak, ibaiak ibaien itxurako, zabaldiak zabaldien itxurako, dena da berdin eta monotono. Eta gizona! Gizona? Zer animalia nardagarri, gaizto, harro eta higuigarria.

.....
Maitatu egin beharko litzateke, eroki maitatu, zer maitatzen den ikusi gabe. Zeren ikustea ulertzea baita, eta ulertzea arbuiatzea da. Emakumeaz mozkortzeraino beharko litzateke maitatu,

ardoaz mozkortzen den bezala, zer edaten den ez jakiteraino. Eta edan, edan eta edan, arnasarik hartu gabe, gau eta egun!

.....
Aurkitu dut, nik uste! Badu bere baitan gauza bat ideala, mundu honetakoa ez dirudiena, eta nire ametsari hegoak jartzen dizkiona. Ai, nire ametsa, zein desberdin erakusten dizkidan izakiak, izatez direnetik. Ile-horaila da, kolore horail arin batekoa, eta baditu ileetan ñabardura azaldu ezinezko batzuk. Begi urdinak ditu! Begi urdinek baizik ez didate jasotzen arima. Emakume guztia, nire bihotzaren barrenean dudan emakume guztia, agertzen zait begian, begian bakarrik.

Oi! misterioa! Zer misterio? Begia... Hartan dago unibertso osoa, ikusi egiten baitu, islatu egiten baitu. Bere baitan du unibertsoa, gauzak eta izakiak, basoak eta itsasoak, gizonak eta piztiak, eguzki sartzeak, izarrak, arteak, dena, dena, dena ikusten, biltzen eta gordetzen du; eta oraindik ere gehiago dago bere baitan, han dago arima, han dago maite duen gizona, barre egiten duen gizona, sufritzen duen gizona! Oi! begira emakumeen begi urdinak, itsasoa bezain

sakonak, zerua bezain aldakorak, eztiak, eztiak, haize arina bezain eztiak, musika bezain eztiak, musuak bezain eztiak, eta gardenak, garbiak atzean ikusteraino, arima ikusten baita, kolorea ematen dien arima urdina, bizitzen dituen, jainkozko egiten dituen.

Bai, begiradaren kolore bera du arimak. Arima urdinak baizik ez du bere baitan ametsa, uhinei eta espazioari kendu die urdin hori.

Begia! Pentsa ezazue begian! Begia! Itxurazko bizitza edan eta hartaz bazkatzen du adimena. Mundua, kolorea, mugimendua, liburuak, koadroak, eder den guztia eta itsusi den guztia edaten du, eta ideia bihurtzen ditu. Eta begiratzeko digunean, mundu honetakoa ez den zorion baten sentipena ematen digu. Inoiz jakingo ez duguna sumarazten digu, gure pentsamenduetako errealitateak zaborkeria erdeinagarria besterik ez dela ulertarazten digu

.....

Bere ibiltzeko moduagatik ere maite dut.

«Txoria dabilenean ere, hegoak dituela sentitzen da» esan zuen olerkariak.

Bera igarotzen denean, emakume arruntak ez bezalako beste arraza batekoa dela sentitzen da, arraza arinago eta jainkotiarrago batekoa.

.....

Bihar ezkontzen naiz... Beldur naiz... hainbeste gauzen beldur naiz.

.....

Bi piztia, bi zakur, bi otso, bi azeri, basoan zelatari dabilta, eta elkar topatzen dute. Bat arra da, bestea emea. Arremetu egiten dira. Arrazari, beren arrazari, itxura, ilea, neurria, mugimenduak eta ohiturak hartu dituzten arrazari iraunaraztera behartzen dituen berezko piztia senak hartaratuta arremetzen dira.

Piztia guztiek egiten dute berdin, zergatik ez dakitela!

Guk ere bai

.....

Horixe egin dut ezkonduz, emearenganantz bultzatzen gaituen bulkada ergel horren agindua bete.

Nire emaztea da. Idealetan desiratu izan dudan bitartean burutzear zegoen amets burutu ezina izan da niretzat. Nire besoetan eduki

dudan segundotik bertatik, nire esperantza guztiei huts emateko izadiak baliatu duen izakia baizik ez da izan.

Huts eman dit? —Ez. Eta hala ere aspertu nau, ezin ukitzeraino, eskuaz edo ezpainez fereka bat ezin egiteraino aspertu ere, bestela ezin adierazizko nazka batek hartzen baitit bihotza, ez bere nazkak, nazka goitiarrago batek baizik, nazka handiago, arbuiatzaileago batek, amodiozko besarkadaren nazkak, hain makurra baita, izan ere, non gauza lotsagarri ezkutatu beharrekoa bihurtu baita pertsona sotil diren guztientzat, ahapeka, koloreak gorriturik baizik aipatzen ez dena

.....
Ez dut nahi nire emaztea berriro nigana etortzen ikusi nahi, irribarreak, begiradaz eta besoez deitzen didala. Ezin dut. Haren besarkadak zeruraino jasoko ninduela uste nuen lehen. Behin gaixo egon zen, sukar igarokor batez, eta giza ustelduren hats arin, mehe, ia atxikiezina sumatu nuen haren arnasan. Erabat asaldatu nintzen!

Ai! haragia, simaur erakargarri bizia, ibiltzen, pentsatzen, hitz egiten, begiratzen eta irribarre

egiten duen ustelkia, janari guztiak hartitzen diren lekua, arima bezala arrosa-kolorea, polita, tentagarria, engainagarria dena

.....

Zergatik dute loreak bakarrik horren usain ona, lore handi distiratsu zein zurbilek, haien ñabardurek ikaraz jartzen baitidate bihotza eta asaldatu egiten baitizkidate begiak? Hain dira ederrak, hain egitura finak, hain askotarikoak eta hain sentzualak, organoak balira bezala erdi irekiak, ahoak baino tentagarriago, eta hutsak, beren ezpain bihurtu, ertz horzduneko, haragitsuekin, bakoitzaren baitan bere urrin berezia sortzen duen bizi hazi batez hautsezaturik.

Loreak bakarrik ugaltzen dira, loreak bakarrik mundu osoan, beren arraza bortxatu ezinezkoa zikindu gabe, beren inguruan beren maitasunaren intsentsu jainkotiarra, beren fereken izerdi usaintsua, bere gorputz konpara ezinen, beren gorputz edertasun guztiez jantzien, kolore guztien dotorezia eta usain guztien erakarmen hor-digarria duten forma guztiez jantzien, esentzia lurrinduz

.....

Zati hautatuak, sei hilabete geroago

Loreak, ez lore bezala, izaki material gozagarri bezala baizik, maite ditut; emakumeak hareman bezala loreak gordetzeko ditudan negutegietan igarotzen ditut nire egunak eta nire gauak.

Nork ezagutzen du, nik ez bada, samurtasun horien gozotasun, eromen, estasi ikarati, haragizko, ideal, gizonarena baino gehiagokoa; eta nork lore miresgarrien haragi arrosa, haragi gorri, haragi zuri miragarriro desberdin, hauskor, bakan, fin, gantzutsuetan emandako musu horiek?

Baditut negutegi batzuk ni eta haien ardura duena baizik sartzen ez garenak.

Atsegin sekretuzko leku batean labaintzen den bezala sartzen naiz ni haietan. Beirazko galeria garaian, lurretik sabairaino maldan igozten diren korola itxi, erdi ireki edo zabalduzko bi multzoren artetik igarotzen naiz lehendabizi. Hori da bidaltzen didaten lehenengo laztana.

Horiek, lore horiek, nire misteriozko pasioetarako sarrera hori apaintzen duten lore horiek nire zerbitzariak dira, ez nire gogokenak.

Handik igarotzen naizenean beren distira aldakorraz eta beren hasperen freskoez agurtzen naute. Pollitak, ederrak dira, ezkerretara zortzi mailatan eta eskuinetara zortzi mailatan banatuak, eta hain elkarren kontra estutuak non bi lorategi baitirudite nire oinetaraino zabalduak.

Bihotzak taupadaka egiten dit, begia pizten zait, ikusten ditudanean, odola zainetan asaldatzen zait, arima altxatzen zait, eta eskuak dardaraz hasten zaizkit haiek ukitzeko desiraz. Aurrea jarraitzen dut. Hiru ate itxi daude galeria garai haren barren-barrenean. Aukera egin dezaket. Hiru harem ditut.

Baina orkideetara sartzen naiz maizenik, nire loeragile gogokenetara. Haien gela sabai apalekoa da, itogarria. Aire heze beroak izerditan jartzten du azala, hasperenka eztarria, eta dardaraz behatzak. Padura lurralde kiskalgarri, erigarrietatik datoz neska berezi horiek. Undinak bezain erakargarri dira, pozoia bezain hilgarri, harrigarri bitxi, asaldagarri, beldurgarri. Badira txime-

letak diruditenak, hego erraldoiekin, hanka meheekin, begiekin! Begiak baitituzte! Begira egoten zaizkit, ikusten naute, izakari harrigarri, sinestezinezko horiek, maitagarriak, lur sakratuaren, aire ukiezinaren eta munduaren amadun argi beroaren alabak. Bai, hegoak dituzte, eta margolari batek ere berdindu ezin ditzakeen begiak eta ñabardurak, amets daitezkeen xarma eta forma guztiak. Magala usaintsu eta garden barrendua dute, amodiorako zabalik, emakumeen haragi guztia baino tentagarriago. Beren gorputzñoen margo irudika ere ezinek irudi eta gozamen idealezko paradisu batera goratzen dute arima horditua. Ikara dagite bere zurtoinetan, hegan egitera balioaz bezala. Hegan egingo al dute? Ez, nire bihotza da hegalari beren inguruan, ar mistiko maitasunak torturatu bat bailitzan.

Inolako piztiaren hegalak ezin ukitu ditu. Bakarrik gaude, haiek eta ni, eraiki diedan presondegi argian. Begira egoten natzaie, so, mires ten ditut, banan-banan adoratzen ditut.

Zein diren lodi, sakon, arrosa-koloreko, desiraren ezpainak bustitzen dituen arrosa-kolore

bateko! Zein maite ditudan! Kukuluaeren ertza kizkurtua dute, eztarria baino zurbilago, eta han ezkututzen da korola, aho misteriozko, erakargarri, gozoa mihiaren azpian, jainkozko izaki xume usain oneko eta inoiz hitz egiten ez duten hauen organo sotil, miragarri eta sakratuak erakusten eta ezkututzen.

Aldian behin pasio berezi bat izaten dut hauetako batentzat, bere bizitza adina, egun batzuk, gau batzuk, irauten duena. Orduan denentzako galeriatik kendu eta Itsaso Bare handitik ekarritako zohi baten kontra ur hari bat murmurka doan beirazko gelatxo batean sartzen dut. Eta haren ondoan geratzen naiz, suhar, sukarretan, torturaturik, badakidalako heriotza hurbil duela, eta ihartzen ari dela ikusiz, nik neuretzin dudalarik, bere bizi laburra adieraz ezi-nezko fereka batean arnasten, edaten, biltzen dudan bitartean.

.....

Pasarte horiek irakurri ondoren, abokatu berriro hasi zen:

«Begiruneak ez dit uzten, epaile jaunak, ero lotsagarri idealista honen aitorten harrigarrien berri zuei ematen jarraitzen. Azaldu dizkizuedan pasarteok aski izango dituzue, nik uste, eromen histerikozko eta lotsa galduko garai honetan uste bezain bakan ez den adimen gaixotasun honen zer-nolakoak neurtzen.

»Uste osoa dut, beraz, nire bezeroak eskubide gehiago duela beste edozein emaztek baino, bere senarraren zentzumen nahaste harrigarri horrek eraman duen egoeran, dibortzioa eskatzeko».

(1886ko abuztuaren 31n)

Benta

Alpe Garaietan, izoztegien oinetan, mendien gailur zuriak ebakitzen dituzten harkaitzezko mendiarte gorrietan dauden ostatu etxe guztiek bezala, Schwabenbacheko bentak Gemmiko mendiartean dabiltzan bidaiariei babeslekua ematen die.

Sei hilabetez egoten da zabalik, Jean Hauser-en familia han bizi dela; gero, elurra pilatu eta harana bete eta Loèche-rako jaitsi-bidea ezinezko egiten duenetik, emakumeek, aitak eta hiru semeek alde egiten dute, eta Gaspard Hari gidari zaharra uzten dute etxea zaintzeko, Ulrich Kunki gidari gaztearekin, eta Sam, mendiko zakur handiarekin.

Bi gizonak eta zakurra udaberria arte gertzen dira elurrezko espetxe horretan, begien aurrean Balmhornen malda erraldoi zuria besterik ez dutela, gailur zurbil distiratsuz inguratuta, inguruan gora igotzen zaien, etxetxoak biltzen, besarkatzen duen, teilatuan pilatzen den, leiho-

etara iristen den eta atean horma egiten duen elurraren azpian itxirik, irteerarik gabe, estalita.

Hauser familiak Loëche-ra itzuli behar zuen eguna zen, negua hurbil baitzen, eta jaitsi-bidea arriskutsu ari baitzen bihurtzen.

Hiru mando atera ziren aurretik, jantziz eta fardelez kargaturik, hiru semeak gidari zituztela. Gero ama, Jeanne Hauser, eta haren alaba Louise beste mando baten gainera igo, eta bideari eman zitzaizkion haiek ere.

Aita atzerago zetorren, behera bidea hasten zen leporaino familiari lagundu behar zioten bi guardiekin batera.

Lehendabizi aintziratxoari bira eman zioten; orain izozturik zegoen, bentaren aurrean zabal-tzen den harkaitz zulo handiaren barrenean; gero haran maindirea bezain argi eta alde guz-tietatik gailur elurtuez inguratuari jarraitu zioten.

Eguzki uholde bat ari zen erortzen basamortu zuri distiratsu izoztu haren gainean, gar itsugarri hotz batez argitzen zuen; inolako bizitzarik ez zen ageri mendi itsaso hartan; inolako mugimendurik ez bakardade neurrigabe hartan; inolako hotsik ez isiltasun sakon hura asaldatzeko.

Poliki-poliki Ulrich Kungsi gidari gazteak, hanka luzeko suitzar garaiak, atzean utzi zituen Hauser aita eta Gaspard Hari zaharra, eta bi emakumeak zeramatzan mandora hurbildu zen.

Emakume gazteenak hurbiltzen ikusten zuen, begi triste batez deika ari zitzaiola ematen zuen. Nekazari gazte ile-horail bat zen; haren masaila esne-koloreak eta ile zurbilak izotz artean egindako egonaldi luzeek margulduak ziruditen.

Hura zeraman mandoraino iritsi zenean, eskua mandoaren bizkarrean jarri eta pausoa geldia gotu zuen. Hauser ama hizketan hasi zitzaion, negualdirako gomendio guztiak amai-gabeko xehetasunez emanaz. Han goian gertatzen zen lehendabiziko aldia zen, Hari zaharra, berriz, hamalau negutan geratua zen elurpean Schwarenbacheko bentan.

Ulrich Kungsi ulertuko ez balu bezala ari zen entzuten, eta neskari begiratzen zion etengabe:

— Bai, Hauser andrea —erantzuten zion aldiro-aldiro.

Haren pentsamendua urruti zegoela zirudien hala ere, eta haren aurpegi lasaiak bare jarraitzen zuen denbora guztian.

Daubeko aintzirara iritsi ziren; haren azal luze izoztua lau-lau zabaltzen zen haran barreanean. Eskuinetara Daubenhorn mendiak bere harkaitz beltz zutak erakusten zituen Wildstrubel gaineko Loemmern izoztegiko morrena erraldoien ondoan.

Loëcherako jaitsi-bidea hasten den Gemmiko lepora iritsi ahala, bitartean zuten Rodano haran sakon zabalaren beste aldeko Valaiseko Alpeen horizonte mugagabea topatu zuten bat-batean.

Eguzkitan distiraz ari ziren gailur zuri, elkarren desberdin, zapaldu edo zorrotzezko elementia bat zen, urrutian: Mischabel bere bi adarrekin, Wissehorneko mendi multzo ahaltzua, Brunneghorn astuna, Cervino mendiaren, giza hiltzaile horren, piramide garai beldurgarria, eta Dent-Blanche, panpoxa munstrozko hori.

Eta haien azpian, neurri gabeko zulo batean, amildegi beldurgarri baten hondoan, Loëche ikusi zuten, etxeek goitik Gemmik ixten eta burutzen duen eta behetik Rodanok zabaltzen

duen arrakala erraldoi horretan botatako hondar bikorrak ziruditela.

Mendi maldaren oinean ia ikusezin dagoen herritxo horretaraino mendi zutaren bizkarrean sigi-sagan, itzuli eta itzuli doan bidezidorraren ertzean gelditu zen mandoa. Emakumeek elurretara jauzi egin zuten.

Bi gizon zaharrak elkartuak zitzaizkien.

— Goazen —esan zuen Hauser aitak—, agur eta animu ona izan, datorren urtea arte, adiskideak.

— Datorren urtea arte —errepikatu zuen Hari aitak.

Besarkada bana eman zioten elkarri. Gero Hauser andreak ere masaila eskaini zien, eta neskak ere beste horrenbeste egin zuen. Ulrich Kunsiri txanda iritsi zitzaionean:

— Ez ahaztu hemen goian gaudenok —xuxurlatu zion belarrira.

— Ez —erantzun zion hark, hain apal, non entzun ez baina asmatu egin baitzion.

— Goazen, bada, agur —errepikatu zuen Jean Hauserrek—, eta ondo izan.

Eta emazteen aurrean jarriz jaisten hasi zen.

Berehala galdu ziren hirurak bidearen lehenengo bihurgunean. Eta bi gizonak Schwarenbacheko bentara itzuli ziren. Geldiro zihoazen, elkarren ondoan, hitzik esan gabe. Kito, hantxe geratuko ziren bakarrik, elkarren aurrez aurre, lauzpabost hilabetez.

Eta Gaspard Hari azkeneko neguan izandako bizimodua kontatzen hasi zen. Michel Canol-ekin egon zen; orain ordea hura zahartuxea zegoen berriro geratzeko; erraz izan baitaiteke ezbeharraren bat horren bakardade luzean. Ez ziren aspertu, bestalde; lehenengo egunetik bertatik etsitzea zen kontua; eta zeinek bere jostamoduak, jolasak, eta denbora-pasa asko asmatzen ditu azkenerako.

Ulrich Kunsik begiak beheraturik entzuten zion, gogoz Gemmiko kosketan behera herrira jaisten ari zirenei jarraituz.

Berehalaxe ikusi zuten berriro benta, ia ikusezin, hain txiki, puntutxo beltz bat elurrezko uhin ikaragarritzkoaren oinean.

Zabaldu zutenean, Sam, zakur handi ile-kizkurra, jauzika hasi zitzaien inguruan.

— Tira, seme —esan zuen Gaspard zaharrak—, ez diagu gehiago emakumerik, afaria prestatu beharra zagok, hik patatak zurituko dituk.

Eta biak, zurezko aulkitxoetan eseririk, zopasalda beratzen hasi ziren.

Biharamun goiza luze iruditu zitzaion Ulrich Kunsiri. Hari zaharra tabakoa erretzen eta sutara listu egiten ari zen; mutilak berriz etxe aurrean zegoen mendi distiratsuari begiratzen zion leihotik.

Bazkal ondoren bentatik atera eta berriro bezperako bidea eginez bi emakumeak eraman zituen mandoaren oinatzak bilatzen aritu zen. Gero Gemmiko leporaino iritsi zenean, amildegia ertzean ahozpez etzanda Loëchera begira egon zen.

Harrizko putzu hartan herritxoa ez zegoen oraindik elurrez itota, baina ez zuen urruti ere, herri inguruak babesten dituzten pinudietan doi-doi gelditua. Herriko etxe apalek belardi bateko harriak ematen zuten han goitik.

Hausertarren neska ere han zegoen orain, etxetxo gris haietako batean. Zeinetan? Ulrich

Kunsi urrutiegi zegoen zehatz bereizi ahal izateko. Nola gustatuko zitzaiokeen jaistera, oraindik ere jaitsi zitekeenez!

Baina eguzkia Wildstrubel mendiaren gailur handiaren atzean ezkutatua zen; eta mutila bentara itzuli zen berriro. Hari zaharra tabakoa erretzen ari zen. Bere laguna itzuli zela ikusirik, karta jokoan aritzeko proposatu zion; elkarren aurrez aurre eseri ziren, mahaiaren alde banatan.

Luzaro aritu ziren jokoan, briska izenez ezagutzen den joko erraz batean, gero, afaldu eta lotara joan ziren.

Hurrengo egunak ere lehenengo haren antzekoak izan ziren, argiak eta hotzak, elur berririk gabe. Gaspard zaharrak arranoen eta gailur izoztu haietara azaltzen ausartzen ziren txori bakarren zelatan ematen zituen arratsaldeak; Ulrich, berriz, egunero itzultzen zen Gemmiko lepora herria ikusteko. Gero karta jokoan, dadotara, dominora, aritzen ziren, gauzatxoak irabazten eta galtzen zituzten trabesetan, beren partida interesgarriago egiteko.

Goiz batean, Harik, lehenengo jaikia baitzen, bere lagunari deitu zion. Apar zurizko hodei ibil-

tari, sakon, arin bat ari zen jaisten inguruan, hotsik gabe, eta aparrezko gosna lodi gor baten azpian ehorzten zituen geldiro-geldiro. Lau egun eta lau gau iraun zuen horrek. Ate-leihoetatik elurra kendu beharra izan zen, pasabide bat ebaki eta maila batzuk egin hamabi orduko izotzaldi batek morrenetako granittoa baino gogorrago bihurtu zuten izotzezko hauts hartatik ateratzeko.

Handik aurrera presoak bezala bizi izan ziren, beraz, beren bizilekutik kanpora oso gutxitan irtenez. Eginbeharrak banatuak zituzten bien artean, eta arauz betetzen zituzten. Ulrich Kunsik etxe garbitzeak, arropa garbitzeak, eta garbiketaz guztiak zituen bere ardurapean. Egurra egitea ere haren kontu zen; Gaspard Harik berriz sukalde lanak egiten zituen, eta sua zaintzen zuen. Eginkizun horiek, arauzkoak eta monotonoak, karta-joko edo dado-joko luzez eteten ziren. Ez ziren behin ere haserretzen, lasaiak eta bareak baitziren biak. Larritasunik, umore txarrik, hitz mingotsik ere ez zuten behin ere, etsimenez ongi hornituak baitziren gailurretan negualdi hura emateko.

Batzuetan, Gaspard zaharra, bere fusila hartu eta orkatz bila ateratzen zen; aldian-aldian baten bat botatzen zuen. Jai izaten zen orduan Schwabenbacheko bentan, eta haragi freskozko jate handia.

Halaxe atera zen goiz batez. Kanpoko termometroak hemezortzi gradu markatzen zuen izotzez azpitik. Eguzkia jaiki gabea zenez, orkatzak Wildstrubel inguruan harrapatuko zituela espero zuen ehiztariak.

Ulrich, bakarrik geratu baitzen, hamarrak arte geratu zen ohean. Lo zalea zen berez; baina ez zatekeen ausartuko bere joerari horrela jarraitzen, gidari zaharra, oraindik ere suharra eta goiztiarra baitzen, han izan balitz.

Geldiro gosaldu zuen Samekin, hark ere su aurrean lotan ematen baitzituen egunak eta gauak; gero tristura sentitu zuen, bakardadeak beldurturik, eta eguneroko karta-jokoaren premiak larriturik, gainditu ezin duzun ohitura baten desirak hartzen zaituenean bezala.

Horrela, bada, bere lagunari bidera irteteko atera zen, laurak aldera itzultzekoa baitzen.

Elurrak berdindua zuen haran sakon guztia, arrakalak beterik, bi aintzirak ezabaturik, har-kaitz muturrak betegarri berdindurik, gailur ika-ragarrien artean upel zuri, berdin, itsugarri izoz-tu bat eraturik.

Hiru aste baziren Ulrich herria ikusten zuen amildegiaren ertzera berriro itzuli ez zela. Hara joan nahi izan zuen lehendabizi, Wildstrubelera daramaten aldapak igo aurretik. Loëche ere elur-pean zegoen orain, eta etxeak ez ziren ia bereiz-ten, estalki zurbil haren azpian ehortzirik.

Ondoren, eskuinetara biraturik, Loemmern izoztegiara jo zuen. Bere menditar pauso luzeaz zebilen, elur harria bezain gogorra bere makila-ren burdinazko muturraz joz. Puntu beltz mugi-kor baten bila ari zen bere begi zorrotzaz, urrutit-ik, zamau neurrigabe hartan.

Izoztegiaren ertzera iritsi zenean gelditu egin zen, zaharrak egiaz bide hura hartu ote zuen gal-dezka; gero morrenen ertzetik abiatu zen, pauso bizkorrago eta urduriago batez.

Eguna jaisten ari zen; elurra arrosa kolorea hartzen ari zen; haize lehor izoztu bat hasi zen, bafada bortitzez, kristalezko azalaren gainetik.

Ulrichek dei oihu zoli bat egin zuen, ozena, luzea. Mendiak lotan zeuden heriozko isiltasunean zabaldu zen ahotsa: urrutira joan zen, aparizoztuzko uhin geldi sakonen gainetik, txoriaren oihua itsasoko uhinen gainetik bezala; gero itzali egin zen, eta ezerk ez zion erantzun.

Ibiltzen hasi zen berriro. Eguzkia ezkutatua zen zeruaren distirak oraindik ere gorriturik zeuzkan gailurren atzean. Eta mutilari beldurra sartu zitzaion bat-batean. Mendi haietako isiltasuna, hotza, bakardadea, neguko hilaldia bere baitan sartzen zitzaizkiola iruditu zitzaion, odola gelditu eta izoztuko ziotela, soin atalak zurrunduko zizkiotela, izaki geldi izoztu bat bihurtuko zutela bera. Eta lasterka hasi zen, bere bizilekurrantz ihesi. Bera kanpoan zen bitartean zaharra itzulia izango zen, uste zuen. Beste bideren bat hartuko zuen; su aurrean eserita egongo zen, oinen aurrean orkatz bat hilik zuela.

Luzera gabe begiztatu zuen benta. Kerik ez zen ateratzen. Ulrichek bizkorrago egin zuen lasterka. Samek festak egiteko jauzi egin zion, baina Gaspard Haririk ez zen ageri.

Kunsi, burua nahasturik, atzeraka itzultzen zen, bere laguna zokoren batean aurkituko zuela uste balu bezala. Gero sua piztu eta zopa prestatu zuen, zaharra berriro ikusiko zuelako itxaropenean.

Aldiro-aldiri kanpora ateratzen zen, ea agertzen zen. Gaua zen, mendietako gau zurbila, mendi ostean erortzear dagoen ilargi laurden hori mehe batek odaiertzaeren ertzetik argitzen duen gau hits zuhaila.

Gero mutila barrura sartzen zen berriro, eseritzen zen, eta oinak eta eskuak berotzen zituen, gerta zitezkeen istripuetan amets eginez.

Bazitekeen Gaspardek hanka hautsi izana, zuloren batean erori izana, pauso huts bat egin eta orkatila bihurritu izana. Eta elurretan egongo zen etzanda, hotzak harturik, zurrundurik, gogoa larriturik, oihuka, galdurik, laguntza eske agian, bere eztarriko indar guztiaz gaueko isiltasunean deika eta deika.

Non, ordea? Mendia hain baitzen zabala, hain gogorra, hain arriskutsua inguru guztian, urte sasoi hartan batez ere, non hamar edo hogeitigarren beharko bailirateke, eta zortzi egunetan

ibili alde guztietan, mugagabeko eremu hartan gizon bat aurkitu ahal izateko.

Nola nahi zela ere, Gaspard Hari gauerditik ordubata bitartean azaltzen ez bazen Samekin haren bila irtetea erabaki zuen Ulrich Kunsik.

Eta prestamenak egin zituen.

Bi egunetarako janaria jarri zuen zaku batean, altzairuzko kranpoiak hartu zituen, gerriaren inguruan soka luze, mehe baina sendo bat lotu zuen, begiratu zuen nola zeuden makila burdinazko muturduna eta izotzetan mailak zula-tzeko erabiltzen den aizkoratxoa. Eta zain egon zen. Beheko sua piztuta zegoen; zakur handia zurrunga ari zen garraren argitan; erlojuak biho-tza bailitzan jotzen zituen taupadak bere zur ozenezko azalaren barruan.

Zain zegoen, belarria urrutiko hotsak entzu-teko erne, haize arinak teilatua eta hormak igurzten zituenean ikara eginez.

Gauerdia jo zuen; zirrara sentitu zuen. Gero dardaraz eta beldurturik zegoela sentitzen zue-nez, ura jarri zuen sutan, bideari eman aurretik kafe bero-bero bat edateko.

Erlojuak ordubata jo zuenean, jaiki zen, esnatu zuen Sam, zabaldu zuen atea, eta Wildstrubelerantz jo zuen. Bost orduz egin zuen gora, bere kranpoien bidez harkaitzetan gora igoz, izotzetan mailak eginez, beti aurrera, eta inoiz malkor pikoegiren batean, zakurra behean gelditzen bazitzaion, sokaz jasoz. Seiak inguruan iritsi zen Gaspard zaharra orkatzetara sarri joan ohi zen gailurretako batera.

Eguna argitu arte itxaron zuen.

Zerua zurbiltzen ari zen buru gainean; eta, bat-batean, nondik gabe jaiotzen zen argitasun bitxi batek argitu zituen kolpetik inguru guztian mila legoatan zabalitzen ziren gailur zurbilak. Esango litzateke elurretatik bertatik ateratzen zela argitasun lauso hura, gero espazioan zabalitzeko. Poliki-poliki haragiaren kolore arrosa berekoak bihurtu ziren urrutiko gailurrik garaienak, eta eguzki gorria agertu zen Bernako Alpeetako erraldoi astunen atzean.

Ulrich Kungsi bideari lotu zitzaion berriro. Ehiztari bat bezala zihoan, makurturik, aztarren bila, zakurrari «Bila, potolo, bila» esanez.

Mendian behera zihoan orain, leizeetan eta amildegietan begiratzuz, aldiro-aldiro, espazio zabal mugagabe mutuan berehalaxe hiltzen zen oihu luze batez dei eginez. Belarria lurraren kontra jartzen zuen, entzuteko; ahotsen bat entzun zuela iruditzen zitzaion, lasterka abiatzen zen, berriro deitzen zuen, ez zuen ezer entzuten, eta nekaturik esertzen zen, etsiak hartuta. Eguerdi aldera, bazkaldu zuen, eta Sami ere jaten eman zion, bera bezain nekaturik baitzegoen hura ere. Gero berriro hasi zen bila.

Gaua iritsi zenean ibiltzen ari zen oraindik, mendian berrogeita hamar kilometro eginda. Bere etxera itzultzeko handik urrutiegi zegoen, eta ibiltzen jarraitzeko nekaturik gainera, elurretan zulo bat egin zuen, eta hantxe kuzkur-tu zen bere zakurrarekin batera, eraman zuen burusi batean bildurik. Eta elkarren kontra etzan ziren, gizona eta animalia, elkarren gorputzak berotzen, eta hezurretaraino izozturik hala ere.

Ulrichek ia ez zuen lorik egin, gogoia ikuspe-
nez beteta, eta soin atalak ikaraz astindurik.

Eguna argitzera zihoala jaiki zen. Hankak zurrun zituen, burdinazko barrak balira bezala,

arima kemen gabe, esturaren esturaz oihu egiteko zorian, bihotza taupadaka, zarataren bat entzun zuela iruditzen zitzaioneko zirraraz lurre-ra erortzeko aginean.

Bera ere bakardade hartan hotzak hilko zela bururatu zitzaion orduan, eta heriotza haren beldurrak, kemena astindurik, indarrak piztu zizkion berriro.

Bentara jaisten ari zen orain, erori, zutitu, atzerago Sam, hiru hanketatik herren, zetorrela.

Arratsaldeko laurak alde arte ezin izan zuten Schwarenbachera iritsi. Etxea hutsik zegoen. Mutilak sua piztu, jan eta loak hartu zuen, hain deneaturik, non ez baitzuen ezertan ere pentsatzen.

Luzaro egon zen lotan, oso luzaro, ezin gaindituzko logale batez. Horretan, ordea, dei batek, oihu batek, izen batek «Ulrich», astindu zuen haren lozorro sakona eta jaikiarazi zuen. Ametsetan ari ote zen? Arima kezkatuen ametsetan entzuten den dei bitxi horietako bat ote zen? Ez, oraindik ere entzuten zuen, oihu zoli hura, bere belarrian sartu eta bere hatz urdurien puntaraino zabaldua. Oihua izan zen, egiaz: «Ulrich!»

deitu zuten. Norbait zegoen, etxetik hurbil. Ezin zuen zalantzarik izan.

Atea zabaldu eta eztarriaren indar guztiaz hasi zen garrasika:

— Zu zara, Gaspard!

Ezerk ez zion erantzun; ez hots bat, ez zurrumurru bat, ez intziririk, ezer ez. Gaua zen. Elurra zurbil-zurbila zegoen.

Haizea hasi zuen, harriak zartatzen dituen eta goi lur abandonatu hauetan ezer bizirik uzten ez duen haizea. Basamortuko suzko haizea baino lehorgarriago eta hilgarriago diren bolada bortizetan igarotzen zen. Ulrichek berriro oihu egin zuen:

— Gaspard! - Gaspard! - Gaspard!

Eta zain geratu zen. Dena geratu zen mutu mendian! Eta orduan izumena sartu zitzaion hezurretaraino. Jauzi batez bentan sartu zen, atea itxi zuen eta morroiloak bultzatu zituen; eta dardara batean erori zen aulki batean, bere lagunak arima askatzen zuen unean deitu ziola seguru.

Horretaz seguru zegoen, bizirik zarela edo ogia jaten ari zarela seguru egon daitekeen

bezala. Gaspard Hari zaharra bi egunez eta hiru gauetz egon zen nonbait hiltzen, zuloren batean, beren zuritiesunak lurpeko ilunpeak baino beldurgarriago egiten dituen trokarte sakon orbanik gabe horietakoren batean. Bi egun eta hiru gau eman zituen agonian, eta orduantxe hil berria zen bere lagunaz gogoratzen. Eta haren arima, Ulrich lotan zegoen bentara joan zen hegan gorputzetik askatu bezain laster, eta dei egin zion, hildakoen arimek bizien ondora joateko duten ahalmen misteriozko eta beldurgarri horren bitartez. Lotan zegoenaren arima akituaren baitan egin zuen dei, arima ahotsik gabe hark; bere azken agurrezko, eta gaitzespenezko, edo behar beste bilatu ez duen gizonarentzako madarrikaziozko garrasia.

Eta Ulrichek hantxe sentitzen zuen, hurbil-hurbil, horma atzean, itxi berria zuen atearen atzean, arima hura. Zelatan zebilen, argia dagoen leiho bat bere lumaz ukitzen duen gaueko txoria bezala; eta mutil beldurtuak ez zuen asko behar izumenaren izumenez garrasika hasteko. Ihes egin nahi zuen, eta ez zen irtetera ausartzen; ez zen ausartzen, eta ez zen gehiago

ausartuko, hantxe geratuko baitzen mamua, gau eta egun, benta inguruan, gidari zaharraren gorpua aurkitu eta kanposantu bateko lur bedeinkatua lur ematen ez zioten arte.

Eguna etorri zen, eta Kunsik ziurtasun pixka bat hartu zuen eguzkiaren etorrera distiratsuekin. Jatekoa prestatu zuen, bere zakurrarentzako zopak egin zituen, eta aulki batean geratu zen, mugitu gabe, bihotza torturatan zuela, elurretan etzanda zegoen agurea gogoratuz.

Gero, gauak berriro mendia estali zuenetik, bestelako izumen berriak jabetu zitzaizkion. Batera eta bestera zebilen orain sukalde beltz, kandela baten garrak ozta-ozta argituan, gelaren alderik alde zebilen, pauso luzez, entzuten, aurreko gaueko oihu beldurgarriak kanpoko isiltasun tristea berriro zulatuko ote zuen entzuten. Eta bakarrik sentitzen zen, zoritxarreko, inoiz inor egon den baino bakarrago. Bakarrik zegoen elurrezko basamortu mugagabe hartan, bakarrik pertsonak bizi diren lurretik bi mila metro gorago, giza etxeetatik gorago, mugitzen, burrunba egiten eta taupadak jotzen dituen bizitzatik gorago, bakar-bakarrik zeru izoztuan! Norabait

ihes egiteko gogo ero batek nahigabetzen zuen, berdin zion nora, berdin zion nola, Loëchera jaitsi, bere burua amildegian beheara botata; baina ez zen ausartzen atea zabaltzera ere, ziur baitzegoen besteak, hildakoak, bidea itxiko ziola, bera ere han goian bakarrik ez geratzearren.

Gauerdi aldera, ibiltzez nekatuta, esturak eta beldurrak deneatuta, loak hartu zuen azkenik aulki batean, leku sorgindu bati bezalakoxe beldurra baitzion oheari.

Eta bat-batean bestearen garrasi karraskariak belarriak urratu zizkion, hain zolia baitzen, non Ulrichek besoa luzatu baitzuen arima herratuari atzera eragiteko, eta bizkarrez beheara erori zen bere aulkian.

Sam, zarata hark esnaturik, uluka hasi zen, zakur izutuek egin ohi duten moduan, eta etxean itzulika hasi zen arriskua nondik zetorren bilatu nahiz. Ate ondora iritsirik, usain egin zuen, puzka eta berriro indarrez usainka, ilea lazturik, isatsa zuzen, eta orroka.

Kunsi, nahasturik, jaikia zen, eta aulkiari hanka batetik heldurik, oihuz hasi zen:

— Ez hadi sartu, ez hadi sartu, ez hadi sartu, hilko haut bestela.

Zakurrak, mehatxu horrek suturik, amorruez giten zion zaunka bere nagusiaren ahotsari erronka jotzen zion ezezagunari.

Sam poliki-poliki baretu zen, eta sutondoan etzan zen berriro, baina urduri jarraitu zuen, burua tente, begiak dizdiz, letaginen artetik orro eginez.

Ulrich ere bere oneratu zen, baina izuaren izuz indarra galtzeko zorian sentitzen zenez, patar botila baten eske joan zen armairura, eta baso mordo bat edan zuen bata bestearen ondoren. Ideiak lausotzen ari zitzaizkion; ausardia pizten zitzaion; suzko sukar bat irristatzen zitzaion zainetan barrena.

Biharamunean ia ezer ez zuen jan, alkohola edanez aski zuela. Eta egunetan egon zen segidan zahatoa bezain mozkor. Gaspar Hariren oroitzapena etortzen zitzaion unetik edaten hasten zen berriro, mozkorrak jota lurrera luze erortzen zen arte. Eta hantxe jarraitzen zuen, musuz behera, mozkor zerraldo, soin atalak akiturik, zurrungaka, bekokiak lur jota. Baina txegosten al

zuen edari erogarri suzko hura, «Ulrich!» oihu hark esnatzen zuen berriro, bala batek garezurra zulatu izan balio bezala; eta oraindik balantzati jaikitzen zen, lurrera ez erortzeko eskuak luzaturik, Sami laguntzera etor zedin deituz. Eta zakurrak, jabea bezalaxe erotzen hasia baitzirudien, atearen kontra jauzi egiten zuen, atzamarka hasten zen, bere hagin zuri luzeez hozka egiten zion, mutil gazteak, lepoa atzeraturik, burua jasota, bere gogoeta, bere oroitzapena eta bere izumen laborri hura berehala loaraziko zizkion patarra, lasterraldi baten ondoren ura bezala, zanga-zanga edaten zuen bitartean.

Hiru astetan alkohol hornidura guztia edan zuen. Mozkorraldi etengabeko hark, ordea, lo arin batez baretu baizik ez zuen egiten haren izumena, gehiago baretu ezin izan zuenean are zitalago piztu zena. Ideia finko hura, bada, hila-bete oso bateko mozkorraldiak are gehiago minberatua, bakardade guztizko hartan handituz eta handituz, daratulu baten gisan ari zitzaion barneratzen. Piztia kaiolatu bat bezalaxe ibiltzen zen orain bere bizilekuan, belarria ate kontra

jarri ea bestea oraindik han zen entzuten, eta horman zehar hari desafioka.

Eta gero, nekeak menderaturik loak hartzen zuenean, ahotsa entzuten zuen berriro, eta jauzi batez zutiarazten zuen.

Gau batean, azkenik, muturreraino bultzatu diren koldarrek ohi duten bezala, atera joan eta bat-batean zabaldu zuen, nork deitzen zion ikusi eta isiltzera behartzeko.

Hezurretaraino izoztu zuen haize bolada bat jaso zuen aurpegi-aurpegian, eta ataka itxi eta morroiloa eman zion berriro, Sam kanpora irtena zela ohartu gabe. Gero, dardaraz, suari egurra eman eta berotzeko eseri zen; bat-batean, ordea, zirrara bat izan zuen, norbait ari zen horman atzamarka negarrez.

Gutziz nahasirik oihu egin zuen:

— Hoa hortik.

Auhen luze samin batek erantzun zion.

Geratzen zitzaion arrazoimen apurra izumek eraman zion. «Hoa hortik», errepikatzen zuen itzuli eta non ezkutatu zokoren baten bila. Besteak, negarrez, etxe bira guztia egiten zuen, horma kontra igurtziz. Ulrichek baxeraz eta hor-

nizioz beterik zegoen arasarantz jauzi egin, eta gizonarena baino indar handiago batez hura jasorik, ateraino eraman zuen arrastaka, hura hesitzeko. Eta gero, geratzen ziren altzari, lastairra, kamaina, aulki eta gainerako guztiez etsaiak inguratzen zaituenean egiten den bezalaxe trabatu zuen leihoa.

Kanpokoak ordea intziri goibel luzeak botatzen zituen orain, eta mutila intziri berdinez hasi zitzaion erantzuten.

Eta egunak eta gauak joan ziren bata zein bestea uluka zirela. Bata etxearen inguruan zebilen etengabe, eta hainbesteko indarrez egiten zuen atzamarka hormaren kontra non bazi-rudien bota behar zuela; besteak, barrutik, haren mugimendu guztiak jarraitzen zituen, makurturik, belarria harriaren kontra jarririk, eta garrasi urragarriz erantzuten zien haren dei guztiei.

Gau batean Ulrichek ez zuen gehiago entzun, eta eseri egin zen, hain etenik non bertan loak hartu baitzuen.

Oroitzapen bat bera ere ez zuela esnatu zen, pentsamendu bat ere ez zuela, loaldi nekatu har-

tan bere buru guztia hustu izan balitzaio bezala.
Gose zen, jan egin zuen.

.....

Negua bukatua zen. Gemmiko lepotik igaro zitekeen berriro; eta Hauser familia beren benta-
ra itzultzeko abiatu zen.

Aldapa gorenera iritsi ziren orduko, mando gainera igo eta geroxeago topatu behar zituzten bi gizonez hasi ziren hizketan.

Harriturik zeuden haietako bat egun batzuk lehenago, bidea ibiltzeko adina zabaldu zenez gero, herrira jaitsi ez zelako, negualdiaren berri ematera.

Benta oraindik ere elurrez estalita zegoela ohartu ziren azkenik. Atea eta leihoa itxita zeuden. Ke pixka bat ateratzen zen teilatutik, eta horrexek lasaitu zuen zertxobait Hauser aita. Baina hurbildu ahala, arranoek zatitutako animalia baten hezurak ikusi zituen ate aurrean, hezurdura handi bat alde baten gainean etzana.

Denek aztertu zuten:

— Sam izan behar du —esan zuen amak.

— E, Gaspard —deitu zuen.

Oihu batek erantzun zien barrutik, piztia batek egina zirudien oihu batek. Hauser aitak berriro errepikatu zuen:

— E, Gaspard.

Lehengoa bezalako beste oihu bat entzun zen.

Hiru gizonak, aita eta bi semeak, atea zabal-tzen ahalegindu ziren. Ezin izan zuten. Ukuilu hutsetik enbor luze bat hartu zuten, ahari buru gisa erabiltzeko, eta eginahalean jaurti zuten. Zurak garrasi egin zuen, atzera eginez, oholak zatitan puskatu ziren; zarata handi batek egin zuen eztanda etxean, eta barruan, arasa eroria-ren atzean, zutik zegoen gizon bat ikusi zuten, ilea bizkarrean behera zuela, bizarra paparrean behera, begiak distiraz, eta zapi zarpak soinean.

Ez zuten ezagutu, baina Louise Hauserrek esan zuen:

— Ulrich da, ama.

Eta Ulrich zela ohartu zen ama, haren ilea zuria zen arren.

Bere ondora etortzen utzi zien, ukitzen utzi zien; baina ez zien erantzun egin zizkioten gal-

derei; Loëchera eraman behar izan zuten; sendagileek erotuta zegoela egiaztatu zuten.

Eta inork ez zuen inoiz jakin bere lagunari zer gertatu zitzaion.

Hausertarren alaba hiltzear egon zen uda hartan mendiko hotzak eragina zela esan zen makalaldi batez.

(1886ko irailaren 1ean)

Horla

(Lehen bertsioa)

Marrande doktoreak, ero-sendagile famatuen eta goratuenak, bere hiru lankide eta izadi jakintzetako lau jakintsuri bere zuzendaritzapeko ero etxera ordu beterako etortzeko erregua egin zien, bere gaixoetako bat erakutsi behar ziela eta.

Bere lagun haiek elkartu ziren bezain laster esan zien:

— Inoiz topatu dudan kasurik bitxien eta kez-kagarriena erakutsi behar dizuet. Nire bezeroari buruz zer esanik ez dizuet, gainera. Berak hitz egingo du.

Sendagileak txirrina jo zuen. Morroi batek sarrarazi zuen gizona. Oso argala zen, hilotz baten argaltasunekoa, gogoetak barrenetik jaten dituen ero batzuk argal izan ohi diren bezala, zeren pentsamendu gaixoak sukarrak edo bularrekoak baino gehiago jaten baitu gorputzaren haragia.

Bertaratuak agurtu eta eseririk, honela hasi zen:

— Jaunak, badakit zergatik bildu zaituzten hemen, eta prest nago zuei nire historia kontatzeko, nire adiskide Marrande sendagile jaunak erregutu didan bezala. Denbora luzez erotuta nengoela uste izan du. Gaur egun zalantzak ditu. Denbora gutxi barru ikusiko duzue zuek bezain adimen osasuntsua, zuek bezain argia eta zuhurra dudala, niretzako tamalez, eta zuentzat ere bai, tamalez, eta gizadi osoarentzat orobat.

Baina gertaeretatik beraietatik hasi nahi dut, gertaera soiletatik. Hona:

Berrogeita bi urte ditut. Ez naiz ezkondua, oparotasun pixka batean bizitzeko adinako fortuna dut. Sena ibaiaren ertzean, Biessard-en, Rouenetik hurbil, dudan etxalde batean bizi nintzen. Ehiza eta arrantza zalea naiz. Nire atzean, nire etxe gaineko harkaitz handien atzean, Frantziako oihanik ederrenetako bat dago, Roumareko oihana, eta munduko ibairik ederrenetako bat etxe aurrean.

Oso etxe zabala da, kanpotik zuriz margotua, polita, antzinakoa, lehen aipatu ditudan harkaitz

horietaraino igoz basoraino iristen den zuhaitz bikainezko lorategi baten erdian.

Nire etxeko langile multzoa kotxezain bat, lorezain bat, gelari bat, sukaldari bat eta aldi berean garbitzaile eta giltzazain zen emakume batez osatzen da, edo osatzen zen, hobeto esanda. Jende horrek guztiak hamar-hamasei urte zeramatzan nire etxean, ongi ezagutzen ninduen, ongi ezagutzen zuen etxea, lurraldea, nire bizigiro guztia. Zerbitzari on lasaiak ziren. Horrek badu bere garrantzia gero esango dudanerako.

Esan beharra dut, orobat, Sena ibaia, nire lorategia ukitzen duena, ontziz ibiltzeko ibaia dela Roueneraino, ziur aski badakikezuenez; eta ontzi handiak ikusten nituen egunero, bai bela ontziak bai lurrin ontziak, munduko bazter guztietatik etorriak.

Horrela bada, joan den udazkenean urtebete egin du, guztiz ondoez bitxi azaldu ezinak izan nituen bat-batean. Gau osoak iratzarririk edukitzen ninduen nerbioetako ezinegon bat izan zen lehendabizi, zaratarik txikienak ikara eragiten zidan gehiegizko urduritasun bat, alegia. Umortxartu egin nintzen. Bat-bateko haserre bortitzak

izaten nituen, zergatirik gabe. Sendagile bati deitu nion, eta potasio bromuroa eta dutxak agindu zizkidan.

Goiz eta arrats dutxatzen nintzen, bada, eta bromuro edaten hasi nintzen. Berehalaxe hasi nintzen berriro, hasi ere, lo egiten, loerrea bera baino askoz ere txarragoa zen lo batez ordea. Oheratuz batera begiak ixten nituen, eta ezdeustu egiten nintzen. Bai, ezdeusean erortzen nintzen, guztizko ezdeusean, izate osoaren heriotzan, harik eta bularrean pisu zapalgarri bat nuela, eta ahoan nire bizitza jaten ari zitzaidan beste aho bat nuelako sentipen beldurgarri batek hartatik bortizki, era urragarri batez, ateratzen ninduen arte. Haiek astinduak! Hori baino gauza lazgarriagorik ez dut ezagutu.

Irudika ezazue lotan dagoen gizon bat, hiltzen dutela, eta eztarrian labana duela esnatzen dela; eta arrastaka doala odoletan, eta ezin duela arnasa hartu, eta hiltzera doala, eta ez duela ulertzen — horra!

Kezkatzeko moduan ari nintzen argaltzen, etengabe; eta non ohartzen naizen bat-batean,

nire kotxezaina ere, aski gizon lodia, argaltzen ari zela neu bezalaxe.

Azkenean galdetu egin nion:

— Zer duzu, bada, Jean? Gaixo zaude.

— Sinetsita nago berorrek bezalakoxe gaixotasuna harrapatu dudala. Gauek hondatzen dizkidate egunak —erantzun zidan hark.

Etxean ibaiaren hurbiltasunak eragindako sukarren bat zegoela pentsatu nuen, bada, eta, ehiza aro bete-betean bageunden ere, bizpahiru hilabetetarako handik alde egitekoa nintzela, ustekabean ohartutako gertaera guztiz bitxi batek halako aurkikuntza sail harrigarri, beldurgarria ekarri zidan, non hantxe geratu bainintzen.

Gau batez egarri nintzela, baso erdi ur edan nuen, eta botila, neuk hala aginduta nire ohearen aurrean komoda gainean jarria, kristalezko estalkiraino betea zegoela ohartu nintzen.

Gau horretan lehen esan dizkizuedan amets gaizto beldurgarri horietako bat izan nuen. Piztu nuen kandela, larritasun laborri batean, eta berriro edan nahi izan nuelarik, non ohartzen naizen, harri eta zur eginik, hutsik zegoela boti-

la. Ezin nuen sinetsi begiek ikusten zutena. Edo norbait sartu zen nire gelan, edo sonanbulua nintzen bestela.

Hurrengo gauean froga berbera egin nahi izan nuen. Atea giltzaz itxi nuen, gelan inor ezin sartuko zela ziur egoteko. Loak hartu ninduen eta gauero bezala esnatu nintzen. Bi ordu lehenago hantxe ikusia nuen ur guztia edan *zuten*.

Nork edan zuen ur hura? Neuk, inondik ere, baina ziur nengoen, guztiz ziur, nire lo sakon eta mingarri hartan mugimendu bat bera ere ez nuela egin.

Trikimailuez baliatu nintzen, beraz, horrelako oharkabeko gauzarik ez nuela egiten konbentzitzeko. Gau batean Bordeleko ardo zaharrezko botila bat, katilu bat esne, nik gorroto diodana, eta zale amorratua naizen txokolate pastelak jarri nituen ur botilaren ondoan.

Ardoa eta gozoak ez zituzten ukitu. Esnea eta ura desagertu egin ziren. Egunero hasi nintzen bada edariak eta janariak aldatzen. Janari sendo trinkoak ez *zituzten* inoiz ukitu, eta isurkarietan, ura eta esnea edan *zuten* batez ere.

Zalantza mingarri hark nire baitan jarraitzen zuen ordea. Ez ote nintzen neu jaikitzen, ohar-tzeke, eta neuk edaten gorroto nituenak ere, sonanbulutako lozorroan nire zentzumenak aldatuak baitziren beharbada, eta normalean zituzten higuinak aldaturik bestelako zaletasuna hartu izan.

Beste trikimailu bat erabili nuen neure burua-
ren kontra. Nahitaez ukitu beharrak ziren gauza guztiak muselina zurizko zerrendatan bildu nituen, eta haren gainetik batistazko zapi batean bildu nituen oraindik ere.

Gero, oheratzerakoan, berunezko minaz igurtzi eta lohitu nituen eskuak, ezpainak eta biboteak.

Esnatu nintzenean garbi-garbi zeuden gauza haiek guztiak, norbaitek ukituta hala ere, zeren zapia ez baitzegoen nik utzita bezala; eta ura eta esnea edan egin zituzten gainera. Baina nire atea segurtasunezko giltzaz itxia zegoenez, eta kanpoko leihatilak badaezpada ere giltzarrapoz lotuak zirenez, inori ez zioten sartzen utziko.

Horrela bada, galdera beldurgarri hau egin nion neure buruari: Nor egoten zen, hortaz, gauero, nire ondoan?

Hau dena bizkorregi kontatzen dizuedala ohartu naiz. Irribarre egiten duzue, hartua duzue iritzia: «Erotuta dago». Deskribapen luze batez azaldu behar nizuen, bere baitan itxirik, adimena zuhur, botila bateko beiran zehar lotan zegoen bitartean desagertu den ur poxi bati begira dagoen gizonaren zirrara hori. Gauero eta goize-ro berritzen den tortura hori, eta logale menderaezin hori, eta esnatze oraindik ere beldurgarriago horiek, ongi ulertarazi behar nizkizuen.

Noan aurrera, ordea.

Horretan, bertan behera gelditu zen miraria. Ez *zuten* gehiago ezer ukitzen nire gelan. Kito. Osasunez ere hobeto nenbilen, gainera. Hasi banintzen hasi, alaitzen, non entzuten dudan nire auzoetako bat, Legite jauna, ni egona nintzen egoera berberean zegoela. Eskualde hartan sukar gaiztoen bat zebilela iruditu zitzaidan berriro. Nire kotxezaina hilabete lehenago alde egina zen, oso gaixo.

Negua joana zen, udaberria hasten ari zen. Horretan, goiz batez, nire arrosa alor inguruan paseatzen ari nintzela, non ikusten dudan, ikusi, zehatz ikusi, hurbil-hurbil, arrosarik ederrenetako baten txortena puskatzen, esku ikusezin batek bildu izan balu bezala; gero beso batek ahora eraman izan balu bezalakoxe kurba egin zuen loreak, eta aire gardenean eskegita geratu zen, bakarrik, mugitu gabe, beldurgarri, nire begietatik hiru pausotara.

Izu laborriak harturik, jauzi egin eta harrapatu nahi izan nuen. Ez nuen ezer aurkitu. Desagertu egin zen. Neure biziko amorrua hartu nuen neure buruaren kontra. Zentzuzko gizon serio batek ez ditu zilegi horrelako begitazio eroak!

Begitazioa al zen, ordea? Txortena bilatu nuen. Berehalaxe aurkitu nuen landarean, eten berria, adarrean geratu ziren bi arrosaren artean; hiru arrosa baitziren, nik ederki ikusiak.

Etxera itzuli nintzen, bada, burua nahas-nahasirik. Entzun iezadazue, jaunak, ni pertsona patxadatsua naiz; ez nuen sinesten naturaz gaindiko gauzetan, orain ere ez dut sinesten horietan; une hartatik aurrera, ordea, ziur egon

nintzen, egunaz eta gauaz ziur egon daitekeen bezala, nire inguruan bazela ikusi ezinezko norbait, ondora etorri eta gero alde egina, eta berriro zetorrena.

Handik geroxeago izan nuen horren froga.

Nire neskame eta morroien artean berebiziko haserreak pizten ziren egunero, itxuraz funtsik ez zuten baina harrezkero niretzat zentzu betebetea zuten mila arrazoirengatik.

Veneziako kristal eder bat berez puskatu zen, inork eragin gabe, jangelako arasa gainean, egun-argiz.

Gelariak sukaldariari egotzi zion errua, eta hark garbitzaileari, eta hark ez dakit nori.

Gauean itxita utzitako ateak goizean zabalik egoten ziren. Goizero esnea lapurtzen zuten sukalaurretik. —A!

Zer zen? Zer izaera zuen? Jakingura urduri batek, haserrea eta beldurra ere bazituenak, guztiz asaldaturik nindukan gau eta egun.

Baina berriro lasaitu zen etxea; eta ametsak zirela irizten hasia nintzen berriro, non zerau gertatu zen:

Uztailaren 20a zen, arratseko bederatzia. Bero egiten zuen oso; leihoa zabal zabalik utzia nuen, argia piztuta neukan mahai gainean, Musset-en liburu bat *Nuit de Mai* orrian zabaldua haren argitan, eta ni besaulki handi batean etzana nintzen, eta loak hartu ninduen.

Berrogeiren bat minutu lotan egon ondoren, berriro zabaldu nituen begiak, bestelako zirkinik ere egin gabe, halako zirrarara nahasi bitxi batek iratzarririk. Hasieran ez nuen ezer ikusi, horretan, ordea, liburuko orri bat bere kasa itzuli zela iruditu zitzaidan, berez. Leihotik ez zen haize bafada bat ere sartu. Harritu nintzen; eta zain geratu nintzen. Handik lau minutura-edo, non ikusten dudan, ikusi bai, jaunak, neure begiez, beste orri bat goratzen eta aurrekoaren gainera itzultzen, behatz batek orriak pasatuko balitu bezala. Nire besaulkiak hutsik zegoela zirudien, baina berehala konturatu nintzen han zegoela *hura!* Jauzi batez igaro nuen alderik alde gela osoa, hura harrapatzeko, ukitzeko, heltzeko, ahal baldin bazen... Besaulkia, ordea, ni hara orduko hankaz gora erori zen, nire aurretik norbaitek ihes egin izan balu bezala; mahai gaineko

argia ere erori, eta itzali egin zen, beira hautsita; eta leihoak, gaizkileren batek heldu eta bultza egin izan balio bezala, topea jo zuen... A!

Itsumustuan txilina jo eta deitu nuen. Gelaria azaldu zenean, esan nion:

— Dena bota dut hankaz gora eta dena puskatu dut. Ekariezadazu argia.

Gau hartan ez nuen lorik egin. Baina bazitekeen, hala ere, begitazioren bat gertatu izana. Esnatu nintzenean zentzua nahasia nuen oraindik ere. Ez ote nituen neuk irauli besaulkia eta argia, eroak bezala jauzi egitean?

Ez, ez nintzen ni! Ongi baino hobeto nekien, segundo batean zalantzarik ez izateko moduan. Baina hala sinetsi nahi nuen oraindik ere.

Zaudete. Izakia! Nola deituko nioke? Ikusezina? Ez, ez da aski. Horla bataiatu dut. Zergatik? Ez dakit. Horlak, beraz, ez zidan ia alde egiten. Gau eta egun nerabilen auzotar atxikiezin hura han nuelako sentipena, ziurtasuna, eta ordutik ordura, minututik minutura, bizitza kentzen ari zitzaidala orobat.

Ezin ikusi izanak amorraturik nindukan, eta nire gelako argi guztiak pizten nituen, argi hartan ikusi ahal izango banu bezala.

Ikusi nuen, ordea, azkenean.

Ez didazue sinesten. Baina ikusi nuen. Liburu bat, edozein, hartu eta haren aurrean eserita nengoan, ez irakurtzen, zelatan baizik, nire gorputz organo guztiak atzar-atzarririk, nire gertuan sumatzen nuen haren zelatan. Han baitzegoan, noski. Non ordea? Zertan ari zen? Nola atxiki?

Ohea aurrean, haritzeko ohe zahar habeduna. Eskuinean tximinia. Ezkerrean atea, kontu handiz itxia nuena. Atzean armairu ispiludun handi bat, egunero bizarra mozteko, janzteko, erabiltzen nuena, eta aurretik igarotzen nintzen bakoitzean burutik oinetara dena begiratzeko ohitura nuena.

Irakurtzen itxura egiten nuen bada, hura engainatzeko, hura ere zelatan aritzen baitzitzaidan niri; eta bat-batean nire bizkar gainetik irakurtzen ari zela sentitu nuen, ziur nengoan, han zegoela, belarria ia-ia ukitzen zidala.

Tupustean jaiki nintzen, eta bat-batean itzuli, ia-ia erori bainintzen. Eta zer?... Egun-argiz beza-

laxe ikusten zen... eta neure burua ez nuen ikusten ispiluan! Hutsik zegoen, garbi, argiz betebeterik. Nire irudia ez zegoen han... Eta aurrean nengoen... Goitik behera garbi-garbi ikusten nuen beira handia! Begiak eroturik ari nintzen hori dena ikusten, eta ez nintzen ausartzen aurrerago egiten, argi sentitzen bainuen bitartean zegoela hura, eta berriro ihes egingo zidala, baina garbi ikusten nuen haren gorputz sumaezinak nire isla xurgatzen zidala.

Hura beldurra izan nuena! Gero, bat-batean laino batean hasi nintzen ikusten nire irudia ispi-luaren barren-barrenean, laino batean, ur geruza batean barrena bezala; eta geruza hori ezkerretik eskuinerantz mugitzen ari zela iruditu zitzaidan, geldiro-geldiro, segundotik segundora nire irudia zehatzago bihurtzen zela. Eklipse baten amaiera ematen zuen. Ezkututzen ninduen zera hark ez zirudien isla zehatz-zehatza zuenik, poliki-poliki argituz zihoan gardentasun opako bat baizik.

Azkenean egunero ispiluan begiratzen nuen bezain argi eta garbi ikusi ahal izan nuen neure burua.

Ikusi nuen, bada. Harrezkero geratu zitzaidan beldurrak zirgite eragiten dit oraindik ere.

Biharamunean hemen nengoen, hemen eduki nintzaten erregutu bainuen.

Orain, bada, jaunak, bukatzera noa.

Marrande jaunak, luzaro zalantza izan ondoren, bere aldetik nire lurraldera bidaia bat egitea erabaki zuen.

Nire auzoetako hiru daude, gaur egun, nik izan nuen gaitz berak jota. Egia da?

— Egia da —erantzun zuen sendagileak.

Gauero beren gelan ura eta esnea uzteko gomendatu zenien, ea desagertzen ziren ikusteko. Halaxe egin zuten. Desagertu al ziren isurkari horiek nire etxean bezala?

Sendagileak seriotasun solemne batez erantzun zuen:

— Desagertu egin dira.

Bera, jaunak, izaki berri bat, zalantzarik gabe aurki gu ugaltu ginen bezala ugaltuko dena, azaldu da lurrean.

Irribarre egiten duzue! Zergatik? izaki hori ikusezin delako oraindik ere. Gure begia, ordea, hain da organo oihesa non ozta-ozta bereizten

baitu bizi izateko nahitaezkoa duguna ere. Txiki-
kiegi denak ihes egiten dio, handiegi denak ihes
egiten dio, urrutiegi dagoenak ihes egiten dio. Ur
tanta batean bizi diren xomorroak ez ditu ezagu-
tzen: izarrik hurbilenekoetako biztanleak, landa-
reak eta zorua ez ditu ezagutzen; gauza garde-
nak ere ez ditu ikusten.

Jar iezaiozue aurrean zilarbizirik gabeko beira
bat, akatsik gabea, ez du nabarituko, eta gaine-
ra etorriko zaigu, etxe barruan geratu eta burua
beira kontra hausten duen txoria bezala. Ez ditu
ikusten, beraz, gorputz gotor gardenak, izan,
ordea, badirenak; ez du ikusten airea, gure elika-
gaia, ez du ikusten haizea, izadian den indarrik
handiena, gizonak lurrera botatzen dituen,
etxeak eraisten dituen, zuhaitzak erauzten,
itsasoa granitozko malkorrek amilarazten dituz-
ten mendi bihurturik jaikiarazten.

Harritzekoa ote da, hortaz, gorputz berri bat,
argi izpiak geldiarazteko tasuna baizik falta ez
duena, begiak ezin ikusi izana,

Ikusten al duzue elektrizitate indarra? Baina
izan, bada!

Nik Horla izendatu dudan izaki hori, hori ere bada.

Zer den? Jaunak, lur honek gizonaren ondoren espero duena da! Gu gure jargoitik kentzera, bere mende jartzera, gu bezatzera, gutaz, gu idiez eta basurdeez bezala, elikatzera agian, datorrena.

Mendeak dira izaki hori sumatzen dela, haren beldurra dela, iragartzen dela! Ezin ikusiaren beldurra beti izan dute gure arbasoek.

Iritsi da.

Maitagarrien elezaharrak, intxixuenak, aireko zelatari atxikiezin eta gaizkileenak, hartaz ari ziren denak, hartaz ari ziren, gizon kezkatu eta ikaratzen hasiak aurrez sumaturik.

Eta zuek, jaunok, azkeneko urte hauetan egiten ari zareten guztiarekin ere, hipnotismo, sugestio, magnetismo deitzen duzuen horrekin, hura ari zarete iragartzen, hura ari zarete aurrez profetizatzen!

Esaten dizuet iritsi dela. Urduri dabil bera ere, lehenengo gizonak bezala, zer indar eta zer ahalmen duen oraindik ere ezagutzen ez duelako, baina laster ezagutuko du, lasterregi.

Eta hona, jaunak, bukatzeko, nire eskuetara iritsi den eta Rio de Janeirotik datorren egunkari zati bat: Irakurriko dizuet: «Badirudi eromen izurri bat zabaldu dela azkenaldi honetan Sao Paulo probintzian. Zenbait herritako biztanleek ihes egin dute beren lurrak eta etxeak bertan utzirik, ustez lotan dauden bitartean beren arnasatik bizi diren, eta gainera, itxura denez, ura baizik, eta inoiz edo behin esnea, edaten ez duten banpiro ikusezin batzuek esesten eta jaten dituztelakoan!»

Eta nik gehitzen dut: «Ia-ia hiltzera eraman ninduen gaixotasunak lehenengo aldiz harrapatu baino egun batzuk lehenago, oso ongi gogoratzen naiz lau mastako brasildar ontzi handi bat ikusi izana, bandera zabalik zuela, ibaian gora pasatzen... Esan dizuet nire etxea uraren ertzean dagoela... zuri-zuri... Ontzi hartan zegoen ezkutaturik, inondik ere...»

Beste ezer ez dut esateko, jaunak.

Marrande doktorea zutitu zen, eta aholpeka esan zuen:

— Nik ere ez. Ez dakit gizon hau erotuta dagoen ala biok gauden erotuta..., ala... gure ondorengoa dagoeneko iritsia den egiaz.

(1886ko urriaren 26an)

Horla

(Bigarren bertsioa)

Maiatzak 8.— Bai egun zoragarria! Nire etxe aurrean, etxea estaltzen, babesten eta itzala ematen dion albo erraldoiaren azpian belarretan etzanda eman dut goiz guztia. Maite dut leku hau, atsegin dut hemen bizitzea, hemen baititut nik nire erroak, gizona bere arbasoak jaio eta hil diren lurrera, pentsatzen denera eta jaten denera, ohituretara zein janarietara, bertako esamoldeetara, nekazarien hizkerara, zoruaren, herrien eta are airearen usainetara ere, lotzen duten erro sakon eta hauskor horiek.

Maite dut hazi naizen etxea. Nire leihoetatik Sena ibaia ikusten dut, nire lorategia ukituz, bide ostean, etxean ia-ia, doan Sena ibaia, Rouenetik Le Havrera doan Sena handi zabala, igaroz doazen ontziz betea.

Ezkerretara, han, Rouen, teilatu urdinezko hiri zabala, kanpandorre gotikoen aldra puntazorrotzaren azpian. Ezin konta ahala dira, argal zein zabal, katedraleko dorre gezia nagusi dute-

la, eta ezkilaz beteak, goiz ederretako aire urdinean jo eta beren burdinazko burrunba urruna, eguratsak, indartzen den ala ahultzen den, behin ozenago behin apalago, ekartzen didan brontzezko ahotsa nireganaino igortzen didatela.

Zein eguraldi ederra gaur goizean!

Hamaikak aldera ontzi sail luze bat, euli-txalupa baino gehiago ez zen atoi ontzi batek, ke lodi bat botaz nekearen nekez arnasestuka, zeramatzala, nire ate sarearen aurretik igaro da.

Bandera gorria zeruan kulunka zuten bi goleta ingelesen ondoren hiru mastako brasildar ontzi bikain bat zihoan, zuri-zuria, harrigarriro garbi eta distirari. Agurtu egin dut, ez dakit zergatik, halakoxe atsegina eman baitit ontzi hura ikusita.

Maiatzak 12.— Sukar apur batekin nabil azkeneko egun hauetan; mina dut, edo tristura, hobeto esanda.

Nondik ote datoz zoriona gogohiltasun eta gure konfiantza bihotz-herstura bihurtzen diguten eragin misteriozko horiek? Esango bailitzateke haien hurbiltasun misteriozkoa pairatzen

dugun ezagutu ezinezko ahaltasunez bete-betea dagoela airea, aire ikusezina. Alaitasunez beterik esnatzen naiz, eztarria kantu egiteko gogoz. — Zergatik hori?— Ur ondora jaisten naiz; eta bat-batean, ibilalditxo bat egin ondoren, atsekabeturik itzultzen naiz berriro, etxean zoritxarren bat izateko banu bezala. — Zergatik hori?— Hotzikararen batek eten ote dizkit, azala igurtziz, nerbioak, eta arima goibeldu? Hodeien itxurak, edo egunaren koloreak, gauzen kolore hain aldakorrak asaldatu ote dit gogoak, nire begietatik sarturik. Zer dakigu? Inguratzen gaituen guztiak, begiratu gabe ikusten dugun guztiak, ezagutu gabe ukitzen dugun guztiak, haztatu gabe jotzen dugun guztiak, bereizi gabe topatzen dugun guztiak, eragin bizkor, harrigarri, ulertezinak ditu gure organoetan eta, haien bidez, gure bihotzean bertan ere.

Zein den sakona ikusezinaren misterio hau! Ezin duzu zundatu gure nolabaiteko zentzumen hauez, ez txikiegi dena ez handiegi dena, ez hurbilegi dagoena ez urrunegi dagoena, ez izar bateko biztanleak ez ur tanta bateko biztanleak atzemateko gauza ez diren gure begioz... erabat

engainatzen gaituzten gure belarrioz, zeren airearen bibrazioak soinu nota gisa transmititzen baitzizkigute. Horiek baitira mugimendu hori hots bihurtzeko miraria egiten duten maitagarriak, metamorfosi horren bitartez izadiaren inarrote mutua kantari egiten duen musika sorrarazten dutenak... gure usaimenaz, zakurrarena baino ahulagoa baita... gure dastamenaz, ardo baten urteak ezagutzera ere ozta-ozta baita iristen!

Zenbat gauza aurkituko ez ote genukeen oraindik ere gure inguruan beste mirari batzuk egingo lizkiguketen beste organo batzuk bagenitu!

Maiatzak 16.— Gaixorik nago, bistan da! Joan den hilean hain ongi nengoena! Sukarra dut, sukar ikaragarria, edo gorputz-arimak, bata zein bestea, sufrikariotan jartzen dizkidan sukarrezko urduritasuna, hobeto esanda! Denbora guztian daukat arrisku mehatxagarri baten sentipen erasagarri hori, zoritxarren bat ote datorren edo heriotza hurbil ote den irudipen hori, inondik ere odolean eta haragian ernetzen ari den gaitz

oraindik ezezagun baten hasiera den susmo gaizto hori.

Maiatzak 18.— Sendagilea ikustera joan naiz, ezin nuen lorik egin eta. Pultsua bizkorregi, begiak handiturik, nerbioak bizi-bizi iruditu zaizkio, baina ez dit beldurtzeko sintomarik aurkitu. Dutzak hartu eta potasio bromuroa edan behar dut.

Maiatzak 25.— Aldakuntzarik ez! Egoera bitxia da nire hau, egiaz! Gaua hurbildu ahala ulertu ezinezko urduritasun batek hartzen nau, gauak mehatxu ikaragarriren bat ekarriko balit bezala. Bizkor-bizkor afaldu, eta irakurtzen ahalagintzen naiz; ez ditut, ordea, hitzak ulertzen; nekez baizik ez ditut bereizten hizkiak. Egongelan aurrera-atzera hasten naiz orduan, halako beldur lauso eta eutsi ezin batek, loaren beldurrak eta ohearen beldurrak, larriturik.

Hamarrak aldera nire gelara igotzen naiz. Sartzen al naiz, bi bira ematen dizkiot giltzari, eta morroiloak sartzen ditut; beldurra dut... zeren beldurra? Orain arte ezereen beldurrik ez

nuen... armairuak zabaltzen ditut, ohe azpian begiratzen dut; entzuten egoten naiz... entzuten... zer?... Harritzekoa al da, bada, gaixotasun batek, odolaren zirkulazioko arazoren batek, nerbio zain bat gaitzitu izanak, odol kolpe batek, gure bizi-makina markets eta hauskor honetan matxuraren bat gertatzeak gizonik alaiena ere malenkoniatsu, bipilena koldar bihurtzea? Gero, etzan eta loak hartu zain geratzen naiz, borrhoren zain egongo nintzatekeen bezala. Izumenez egoten naiz loa noiz etorriko, bihotza taupadaka hasten zait, eta hankak dardaraz; gorputz osoa hartzen dit ikarak ohe estalkien berotasunean, harik eta bertan behera erortzen naizen arte atsedenean, ur geldizko osin batean hantxe itozteko eroriko banintz bezala. Ez dut sentitzen nola datorren, behinola bezala, lo maltzur hori, nire hurbilean ezkutaturik zelatan dagokidana, burutik heldu, begiak itxi eta deuseztatu nahi nauena.

Bizpahiru orduz egiten dut lo, asko jota; gero amets batek —ez— eldarnio batek harrapatzen nau. Badakit etzanda nagoela eta lotan... halaxe sentitzen dut eta badakit... eta norbait datorki-

dala, begira geratzen zaidala, ukitzen nauela, ohe gainera igotzen dela, nire bular gainean belaunikatu eta bere eskuez lepotik heldurik estutzen... estutzen... hasten dela ahal duen indar guztiaz, itotzeko.

Ahaleginak egin ditut defendatzeko, ametsetan balditzen gaituen ezintasun izugarri horrek loturik; garrasi egin nahi dut, —ezin dut: — mugitu nahi dut, —ezin dut; —ahal guztiak egiten ditut, arnasestuka, zapaltzen eta itotzen ari zaidan izaki hori uxatzeko, —ezin!

Eta horretan asaldaturik esnatzen naiz, izerditan blai. Kandela bat pizten dut. Bakarrik nago.

Gauero berritzen den krisi horren ondoren, soseguan hartzen dut lo azkenik, goiza argitzen duen arte.

Ekainak 2.— Egoera okerragoan nago oraindik. Zer dut, baina? Bromuroak ez dit ezer egiten; dutxak hartzeak ez dit ezer egiten. Orain dela gutxi gorputza nekatzeko, lehendik ere hain leher egina eduki arren, Roumareko basora joan naiz ibili bat egitera. Hango haize fresko, arin, gozo, belarren eta hostoen usainez beteak zai-

netan odol berri bat, bihotzean kemen berri bat isurtzen zidala iruditu zait lehendabizi. Ehiza bide handi batetik jo dut, eta gero La Bouillerrantz hartu dut, bide estu batetik, zeruaren eta nire artean sabai berde, ia beltz bat eratzen zuten bi zuhaitz multzoren artean.

Ikara bat izan dut bat-batean, ez hotzak eragina, larritasun ikara bitxi bat baizik.

Pausoa bizkortu dut, baso hartan bakarrik nengoelako kezkatu, bakartasun handi hark inolako arrazoirik gabe, ergelaren moduan, beldurtu. Horretan, norbaitek orpoz orpo, ia ukituz, jarraitzen zidala iruditu zait.

Kolpetik itzuli naiz. Bakarrik nengoen. Ibilbide luze, zabal, hutsa, beldurtzeko moduan hutsa, baizik ez dut ikusi atzean; eta beste aldetik ere begiak iristen zireneraino luzatzen zen, dena berdin, beldurgarri.

Begiak itxi ditut. Zergatik? Eta orpo baten gain biraka hasi naiz, zibaren gisa. Ia erori nintzen; zabaldu ditut berriro begiak; zuhaitzek dantza egiten zuten, lurrak kulunka; eseri beharra izan dut. Eta ez nekien nondik etorri naizen, gainera! Zein ideia bitxia! Bitxia! Ideia bitxia! Ez

nintzen ezertaz gogoratzen. Eskuinera jo dut, eta basoaren erdi-erdira eramán nauen ibilbidera itzuli naiz berriro.

Ekainak 3.— Beldurgarrizko gaua izan dut. Aste batzuetarako kanpora noa. Bidaiatxo batek mesede egingo dit, zalantzarik gabe, indarberri-tzeko.

Uztailak 2.— Banator berriro etxera. Sendatu naiz. Txango zoragarri bat egin dut gainera, Saint-Michel mendia ikusten izan naiz, ez bainuen ezagutzen.

Zer ikuspegi zoragarria, ni bezala Avranches-era ilunabarrean iritsiz gero! Herria muino baten hegian dago; eta lorategi publikora eramán ninduten, alde zaharraren bukaerara. Oihu bat atera zitzaidan harriduraren harriduraz. Neurri oroz gaindiko badia bat zabaltzen zen aurrean, bista galtzeraino, urrutira laino artean galtzen ziren bi itsasertz bereizien artean; eta badia erraldoi horren erdian, urrezko zeru argitasunez betearen azpian, mendi ilun zorrotz bat zutik, hondar artean. Eguzkia sartu berria zen, eta

oraindik ere garretan zegoen odaiertzaren kontra bere gailurrean guztiz monumentu bikain bat duen harkaitz harrigarri haren isla marrazten zen.

Argia urratzearekin batera abiatu nintzen harantz. Itsas behera zegoen, bezperan bezala, eta hurbildu ahala, nire aurrean goratzen ikusten nuen miragarritzko abadia hura. Zenbait ordu oinez egin ondoren, gailur-gailurrean eliza erraldoia duen herritxoari eusten dion harritzar hartara iritsi nintzen. Kaletxo estu malkorra igarorik, Jainkoak lurrean inoiz eraiki duen egoitza gotikorik miresgarrienean sartu nintzen; hiri bat bezain zabala da, bete-beterik dago gangen azpian zapaldurik dauden gela apalez eta zutabe meheek eusten dieten galeriez. Granitozko bitxi erraldoi, farfaila bezain arina, igotzeko zurubi bihurriak dituzten dorrez eta ezkila dorre lerdenez betea, beren buru kimeraz, deabruz, ametsetako piztiez, lore munstroz beteak, elkarrekin arku brodatu finez lotuak, eguneko zero urdine-ra, gaueko zero beltzera jatorik.

Gailurrera iritsi nintzenean nirekin lagun zihoan fraideari esan nion:

— Zein ongi egon behar duzuen hemen, aita!

— Haize asko egiten du —erantzun zidan, eta solasean hasi ginen gora zetorren itsasoari, hondarretan zehar lasterka hondartza altzairuzko koraza batez estaltzen ari zen itsasoari, begira.

Eta historiak kontatzen hasi zitzaidan fraidea, hango historia zaharrak, elezaharrak, elezahar asko.

Elezahar horietako batek txunditu ninduen. Hango biztanleek, mendikoek, diotenez, gauetan hizketan entzuten omen da hondarretan, eta gero bi ahuntz entzuten omen dira marraka, bata ozen, bestea apal. Sinesgogorren iritzian itsasoko hegaztiak omen dira, batzuetan ahuntzen marrakak baitirudite, bestetan gizakiaren kexuak; baina arrantzale berantiarrek zin dagite egiaz topatu izan dituztela, itsasaldien artean, mundutik hain urruti jaurtitako herritxo haren inguruan hara-hona, burua inoiz ikusten ez zaion artzain zahar bat, kapusaiaz estalirik erabiltzen baitu beti, eta haren atzetik, hura gidari dutela, gizon aurpegiko aker bat eta emakume aurpegi-ko ahuntz bat, biak ile zuri luzez estaliak, eten-gabeko erasian, hizkuntza ezezagun batean

elkarri errietan eta, aldiro bat-batean isildu eta, indar guztiaz marraka hasten.

— Sinesten al duzu horretan —galdegin nion fraideari.

— Ez dakit nik —erantzun zidan.

Eta berriro hasi nintzaion:

— Munduan gutaz besterik balitz ez al genituzke dagoeneko aspalditik ezagutu izango? nola ez zenituzkeen ikusiko zuk? nola ez nituzkeen ikusiko nik?

Hark erantzun zidan:

— Ikusten al dugu existitzen diren gauzen ehun milarena ere? Begira, horra haizea bera, izadian den indarrik handiena, jendea lurrera botatzen duena, etxeak eraisten dituen, zuhaitzak erauzten dituen, itsasoa malkorrak amilarratzen dituzten mendi bihurturik jaikiarazten duena eta itsasontziak uharrietara jaurtitzen dituen, haize hiltzaile, ziztugile, intziri egile, orro egile hori, ikusi al duzu, ikusi ahal dezakezu? Eta bada, izan.

Isilik geratu nintzen arrazoibide soil haren aurrean. Gizon hura jakintsua zen, edo ergel bat, bestela. Ezin esango nuke ziur; baina isildu egin

nintzen. Esaten ari zena, askotan nuen neuk ere pentsatua.

Uztailak 3.— Gaizki egin dut lo; bada hemen, inondik ere, sukar eragileren bat, nire kotxezainak neure gaitz berbera du-eta. Bart etxerakoan, haren zurbiltasun gehiegizkoari erreparatu nion.

— Zer duzu, Jean? —galdegin nion.

— Ezin dudala atsedetik hartu, jauna. Gauek jaten dizkidate egunak. Berorrek alde egin zue-
nez geroztik, aztikeria bat balitz bezala heldu dit
honek.

Gainerako neskame-morroiek berriz ez dute gaitzik, ni, ordea, beldur naiz ez ote nauen berri-
ro harrapatuko.

Uztailak 4.— Bistan da berriro harrapatu dudala. Berriro hasi zaizkit lehenagoko zakur ametsak. Bart gauean nire gainean norbait nuela iruditu zait, nire gainera makurturik, bere ahoa nirearen kontra jarririk ezpainenatik bizitza eda-
ten ari balitzait bezala. Horixe, eztarritik ari zitzaidan bizitza ateratzen, izain bat balitz beza-
la. Gero, ase ondoren, jaiki da, eta ni hain jota,

hain etenik, hain ezdeusturik esnatu naiz, non ezin nintzen mugitu ere egin. Honek egun gehiagotan jarraitzen baldin badu, banoa ni hemendik, ziur.

Uztailak 5.— Burua galdu ote dut? Bart gertatu zaidana hain da ezohikoa, hain da bitxia, non burua nahastu egiten baitzait pentsatu hutsarekin!

Orain gauero egiten dudan bezala, giltzaz itxia nuen atea; gero, egarri bainintzen, baso erdi ur edan nuen, eta botila kristalezko tapoiraino urez beteta zegoela erreparatzea gertatu zitzaidan.

Oheratu nintzen berehala, eta nire lo beldurgarri horietako batean erori nintzen; handik bi ordutara-edo hura baino ere astindu beldurgarriago batek atera ninduen hartatik.

Irudika ezazu gizon bat lotan, hiltzen dutela, eta esnatzen dela biriketari labana bat duela, eta arrastaka doala, odoletan, eta ezin duela arnasa hartu, eta hiltzera doala, eta ez duela ulertzen, horra!

Berriro nire onera itzulirik, egarria sentitu nuen berriro; piztu nuen kandela bat, eta botila utzia nuen mahairantz joan nintzen berriro. Jaso nuen, eta ura basora bota nahi izan nuenean, ezer ez zen isuri; hutsik zegoen! Hutsik zegoen erabat! Hasieran ez nuen ezer ulertzen; gero, halako zirrara bortitza izan nuen bat-batean, non eseri beharra izan bainuen, edo erori egin nintzen, hobeto esanda, aulki batean! baina kolpetik zutitu nintzen berriro inguruan begiratzeko! eta berriro eseri nintzen, beira gardenaren aurrean harriduraz eta beldurrez burua erabat nahasturik! Begiak finko nengokion botilari begira, zerbait asmatu nahiz. Eskuak dardaraz nituen! Norbaitek edan ote zuen ura? Nork? Nik? Nik, inondik ere. Nork, bada, nik ezpada? Sonanbulua nintzen, hortaz, eta gure baitan bi izaki bizi ez ote garen pentsarazten dizun bizitza bikoitz misteriozko hori bizi nuen, jakin gabe, edota ez ote den gure baitan dugun beste izaki arrotz ezagutu eta atxiki ezin daitekeen bat, gure arima lozorroan denean gure gorputz gati-bua bizi-arazten duena, eta gorputzak, orduan, guri baino hari gehiago obeditzen diona.

Ai! nork ulertu behar dit nire estura nardagarri hau? Nork ulertu behar du burutik sano, ongi esnatuta, zuhurtziaz beterik dagoen eta lotan zegoen bitartean desagertu den ur poxi bati botila baten beiratik zehar begira dagoen gizon baten emozioa! Eta hantxe geratu nintzen, eguna argitu arte, berriro ohera itzultzen ezin ausaturik.

Uztailak 6.— Erotzen ari naiz. Berriro hustu dute botila bart gauean; —edo nik edan dut!

Ni al naiz, ordea? Ni al naiz? Nor ote naiz ni? Nor? Ai, Jaungoikoa! Erotzen ari naiz. Nork salbatuko nau?

Uztailak 10.— Froga harrigarriak egin ditut.

Bistan da, erotuta nago! Baina, hala ere...

Uztailaren 6an, ohera baino lehen, ardoa, esnea, ura, ogia eta marrubiak utzi nituen mahai gainean.

Ur guztia eta esne pixka bat edan zuten —nuen—. Ardoa, ogia eta marrubiak ukitu ere ez zituzten egin.

Uztailaren 7an berriro egin nuen froga bera, eta emaitza bera izan zen.

Uztailaren 8an ura eta esnea kendu egin nituen. Ez zuten ezer ukitu.

Uztailaren 9an, azkenik, ura eta esnea baizik ez nituen jarri mahai gainean, botilak muselina zurizko zapietan ongi bildu eta tapoiak ongi loturik. Ondoren ezpainak, bizarra, eskuak berunezko minaz igurtzirik eta lohiturik, oheratu egin nintzen.

Logale eutsi ezinak menderatu nau, eta berehala iritsi da iratzartze beldurgarria. Ez naiz batere mugitu; maindireetan ere ez zen orban bat bera ere. Jauzi batez mahaira jo dut. Botilak biltzeko zapiak garbi-garbi zeuden. Beldur dardaraz askatu ditut lokarriak. Ur guztia edan dute! Esne guztia edan dute! Ai! Jaungoiko nirea!

Berehalaxe Parisera joan behar dut.

Uztailak 12.— Paris. Azkeneko egun hauetan burutik nahasita ibili naiz. Irudimen asaldatuak bere gisa erabili nau, nonbait, non eta egiaz sonanbulu ez banaiz behintzat, edota orain arte zentzuzko azalpenik eman ez den baina, frogatu,

frogaturik dauden sugestio izeneko eragain horietakoren bat nozitu ez badut behintzat. Nolanahi dela ere, eromena izateko ez zuen asko behar nire asaldurak, eta Parisen hogeita lau ordu egitea aski izan da berriro ere nire tentu onera etortzeko.

Atzo, arimara aire berri bizigarria ekarri didaten paseo eta bisita batzuk egin ondoren, Frantziako Antzokian bukatu nuen eguna. Alexandre Dumas semearen antzerki bat jokatzeko zuten; eta idazle erne ahaltzu horrek erabat sendatu ninduen. Egia da gauza arriskutsua dela bakar-dadea barne lanera zaletuak diren buruentzat. Pentsatzen eta hitz egiten duten gizonak behar ditugu inguruan. Bakarrik luzaro geratzen garenan, mamuz betetzen dugu zuloa.

Oso alai itzuli nintzen, bulebarretan zehar, hotelera. Jendetzaren bultzaden artean, aurreko asteko izumenak, usteak gogoratu nituen, ez barre irrik gabe hala ere, nire etxe berean izaki ikus ezinezko bat bizi zela sinetsirik bainengoen, hain sinetsirik hala ere. Zein ahula dugun burua, zein erraz txunditzen den, zein erraz nahasten,

ulertu ezin dugun hutsaren hurrengo gauzaren batek jotzen gaituenerako!

Ondorioren ondorio «Zergatia ez dakidalako ez dut ulertzen» esan ordez, misterio beldurgarriak eta naturaz gaindiko ahalmenak bururatzen zaizkigu lehendabiziko gauza.

Uztailak 14.— Errepublikaren jaia. Kaleetan zehar paseatzen ibili naiz. Suziriekin eta ikurrinekin haurrak bezalaxe jostatu naiz. Ergelkeria galanta da, ordea, egun jakinetan, gobernuaren aginduz, alai izatea. Herria artalde ergel bat da, batzuetan zozo pairatsua, bestetan anker asaldua. Esaten diote: «Josta zaitez». Jostatu egiten da. Esaten diote: «Zoaz auzokoarekin borroka egitera». Borroka egitera joaten da. Esaten diote: «Emazu zure boza Enperadorearen alde». Enperadorearen alde ematen du boza. Gero esaten diote: «Emazu boza Errepublikaren alde». Eta Errepublikaren alde ematen du boza.

Buruzagiak ere beste horrenbesteko txepelak dira; baina beste gizoni obeditu ordez, printzipioei obeditzen diete; printzipioak, ordea, ezin izan daitezke zozokeria, antzu eta gezurrezko

baizik, printzipio direlakoxe, ideia ziur eta ezin aldatuzkotzat hartzen direlakoxe, non, eta ezer-taz ziur egon ezin daitekeen mundu honetan, argia irudipen hutsa baita, zarata irudipen hutsa baita.

Uztailak 16.— Arras asaldatu nauten bi gauza ikusi nituen atzo.

Nire lehengusina Sablé andrearen etxean ari nintzen afaltzen; haren senarra ehiztarien 76. erregimentuaren burua da Limogesen. Bi emakume gazte ere baziren han, bata sendagile batekin zen ezkondua: Parent doktoarearekin, oso aditua bera nerbioetako gaixotasunetan eta gaur egun hipnotismo eta sugestiozko esperimentuak egiteko bide ematen duten gertaera berezietan.

Luzaro jardun zuen Ingalaterrako zenbait jakintsuk eta Nancyko eskolako sendagileek lortu dituzten emaitza harrigarriez.

Hark aipatu zituen gertaerak hain harrigarriak iruditu zitzaizkidan, non sinesgogor azaldu bainintzen erabat haiei buruz.

— Izadiaren sekreturik handienetako bat argitzeko puntu-puntu gaude oraintxe bertan —zihoen—; lur honetako sekreturik handienetako bat, nahi dut esan; zeren badira beste sekretu garrantzi handiagoko batzuk izarretan. Gizonak pentsatzen dakienetik, eta pentsatzen duena esaten eta idazten dakienetik, bere zentzumen oihes akastunentzat atxiki ezina den misterio batek ukiturik azaldu da beti, eta beti ahalegindu izan da bere adimenaren bitartez bere organoen ezintasun hori gainditzen. Adimen hori oraindik ere bere hasi-masietan egon den bitartean, ezin ikusizko gertaera horiek izumen arrunt bat baizik ez diote eragin. Hortik sortu dira naturaz gaindiko herri-sinesteak, izpiritu herratuen, maitagarrien, mamuen, hildako itzulien eleak, Jainkoaren beraren sinestea, esango nuke nik, zeren eta jainko sortzaile-langile horren sinestea, zeinahi delarik ere horren jatorrizko erlijioa, ez baita gizonaren burmuin beldurtuak sortu dituen asmaziorik pobreen, ergelen, arbuiagarriena baizik. Voltairek esana bai egia: «Jainkoak bere irudira egin zuen gizona, baina gizonak ederki eman dio ordaina».

»Baina orain dela mende bat pasatxo, badirudi berrikuntzaren bat iristear dela. Mesmer-ek eta beste zenbaitek uste ez zen bide bat erakutsi digute, eta emaitza harrigarriak izan ditugu egiaz, azkeneko lauzpabost urte hauetan batez ere».

Nire lehengusina irribarrez ari zen, oso sinesgogor hura ere. Parent doktoreak esan zion:

— Nahi al duzu lokartu zaitzadan?

— Bai, nahi dut.

Emakumea besaulki batean eseri zen, eta sendagilea finko-finko begira geratu zitzaion, zorabiatzeko. Ni kezkatu samar sentitu nintzen bat-batean, bihotza taupadaka, eztarria estu. Sablé andrearen begiak astuntzen, ahoa dardarka hasten, bularra arnasbehartzen ikusi nuen.

Hamar minuturen buruan lotan zen.

— Jar zaitetz atzean —esan zidan sendagileak.

Eta emakumearen atzean jarri nintzen. Sendagileak bisita txartel bat jarri zion eskuetan, eta esan zion:

— Hau ispilua da, zer ikusten duzu?

Emakumeak erantzun zion:

— Lehengusua ikusten dut.

- Zertan ari da?
- Bibotea bihurritzen.
- Eta orain?
- Patrikatik argazki bat ateratzen ari da.
- Noren argazkia da?
- Berea.

Egia zen! Eta orduantxe, gau horretan bertan hotelean emana zen argazki hura.

- Nola dago argazki horretan?
- Zutik dago, eta kapelua eskuan du.
- Aski da, aski da, aski da! —esaten zuten emakume gazteek izuturik.

Baina sendagilea berriro hasi zen:

— Bihar goizean zortzietan esnatuko zara; gero lehengusuaren bila joango zara haren hotelera, eta zure senarrak eskatzen dizkizula-eta, bost mila libera alokairuan uzteko erregutuko diozu, eta hurrengo datorrenean eskatuko dizkizula.

Eta gero esnatu egin zuen.

Berriro hotelera itzultzen ari nintzen bitartean, saio bitxi hura nerabilen gogoan eta zalan-tzak sartu zitzaizkidan ez nire lehengusinarenguztizko fede on ezin susmagarritzakoaz, arreba

bat bezalaxe ezagutzen bainuen hura haurtzarotik bertatik, sendagileak egina amarrukeria izan zitekeelako baizik. Ez ote zuen eskuan ispiluren bat ezkutatuko lotan zeukan emakumeari bisita txartelarekin batera erakusteko? Lanbidez eskujokari direnek ere horrelakoxe gauzak egiten dituzte.

Hotelera itzuli eta oheratu egin nintzen, beraz.

Goiz horretan, ordea, zortzi t'erdiak aldean gelariak esnatu ninduen, esanez:

— Sablé andrea etorri da, zurekin hitz egin behar duela esanez.

Laster batean jantzi, eta harrera egin nion.

Oso artega eseri zen, begiak apal, eta beloa jaso gabe esan zidan:

— Lehengusu maitea, mesede handi bat eskatu behar dizut.

— Zer mesede, lehengusina?

— Lotsa ematen dit esateak, baina esan beharra dizut. Bost mila liberaren beharra dut, zinez beharra.

— Bai zera, zuk?

— Nik, bai, edo nire senarrak, hobeto esanda, hark eskatu baitit bilatzeko.

Hain nengoen txunditurik, non totalka eman bainizkion erantzunak. Zalantzatan nengoen ea ez ote zitzaidan txuliatzen ari Parent doktoareekin batera, ez ote zen aurrez prestatu eta ederki burututako adarjotze bat hura guztia.

Baina arretaz begiraturik, zalantza guztiak joan zitzaizkidan. Dardaraz ari zen larritasunaz, eginbehar hark ematen zion atsekabeagatik, eta eztatxia zotinka hastear zuela konturatu nintzen.

Banekien oso aberatsa zela, eta berriro esan nion:

— Nola, ordea, ez ditu zure senarrak bost mila libera eskura? Pentsa ezazu, arren. Ziur al zaude diru hori niri eskatzeko agindu dizula?

Segundo batzuetan zalantzan egon zen, bere oroimenean bilatzen neke handi bat balu bezala, eta azkenean erantzun zidan:

— Bai... bai... ziur nago.

— Idatzi egin dizu?

Zalantzatan hasi zen berriro, gogoetan. Sumatzen ari nintzen gogoeta hark eragiten zion tortura. Ez zekien. Senarrarentzat bost mila libe-

ra eskatu behar zizkidala, hori besterik ez zekien. Eta horregatik gezurra esaten ausartu zen.

— Bai, idatzi egin dit.

— Noiz baina? Zeren bart ez zenidan ezer esan.

— Gaur goizean jaso dut gutuna.

— Erakutsiko al didazu?

— Ez..., ez..., ez... gure arteko gauzak esaten zituen... gure-gure artekoak... eta... erre egin dut.

— Zure senarrak zorrak egiten ditu, hortaz.

Zalantzatan hasi zen berriro, eta gero ahapeka esan zuen:

— Ez dakit.

Nik bortitz bota nion:

— Kontua da nik ez ditudala orain bost mila libera eskura, nire lehengusina maitea.

Halako oinaze intziri bat bezala egin zuen orduan:

— Ai, ai! erregu egiten dizut, erregu egiten dizut, bila itzazu, mesedez...

Asaldaturik zegoen, eskuak biltzen zituen, erreguka ari balitzait bezala! Ahotsa doinuz alda-

tzen entzuten nion; negar egiten zuen, zezelka, hartu zuen agindu ezin eutsizkoak atsekabeturik, menderaturik.

— Arren eskatzen dizut... bazeneki zer sufrikario dudan... gaur bertan behar ditut.

Erruki hartu nion.

— Berehalaxe izango dituzu, zin egiten dizut.

— Ai! eskerrik asko, eskerrik asko! Zu bai zarela ona.

Eta ni berriro hasi nintzen:

— Gogoan al duzu zer gertatu zen atzo zure etxean?

— Bai.

— Gogoan al duzu Parent doktoreak hipnotizatu egin zintuela?

— Bai.

— Gogoan al duzu gaur goizean bost mila libera eskatzera etortzeko agindu zizula, eta orain sugestio hari obeditzen ari zarela.

Segundo batzuetan gogoetan aritu zen, eta erantzun zidan:

— Senarrak eskatu dizkit, ordea.

Ordu betez ahalegindu nintzen konbentzitu nahian, baina ezin izan nuen.

Hark alde egindakoan sendagilearenera joan nintzen lasterka. Hura ere ateratzera zihoan: eta irribarrez entzun zidan. Eta esan zidan:

— Sinesten duzu orain?

— Beharko sinetsi.

— Goazen zure lehengusinarenera.

Erdi lotan zegoen ordurako etzan-aulki batean, nekeak akiturik. Sendagileak pultsua hartu zion, egon zitzaion pixka batean begira, esku bat haren begien aurrean jasota, eta hura begiak ixten hasi zen poliki-poliki, indar magnetiko haren eraginari eutsi ezinik.

Loak hartu zuenean:

— Zure senarrak ez ditu behar bost mila libe-rak. Ahaz ezazu lehengusuari eskatu dizkiozunik, eta horrelakorik aipatzen badizu, ez diozu ezer ulertuko.

Eta esnatu egin zuen. Patrikatik diru-zorro bat atera nuen:

— Hona, lehengusina maitea, gaur goizean eskatu didazuna.

Hain harriturik geratu zen, non ez bainintzen ausartu gehiago jarraitzera. Gogorarazten ahale-gindu nintzen, baina irmo ukatu zuen, iseka egin

nahi niola iruditu zitzaion, eta ez zuen asko behar haserretzeko ere.

.....
Horra! oraintxe bertan itzulia naiz; eta ezin izan dut bazkaldu, halakoxe zirrara eragin dit izan ere esperientzia horrek.

Uztailak 19.- Gertaera hori kontatu didan askok eta askok barre egin didate. Ez dakit zer pentsatu. Zuhurrak esana baita: «Ba ote?»

Uztailak 21.- Bougival-en afaldu dut eta arraunlarien dantzan izan naiz gauean. Bistan da lekuaren eta gizonaren arabera dela dena. Grenouillère-ko uhartean naturaz goitiko gauzetan sinestea eromenik eroena litzateke... Saint-Michel mendiaren gailurrean, ordea? eta Indietan? Izugarri nozitzen dugu gure ingurunearen eragina. Datorren astean itzuliko naiz berriro etxera.

Uztailak 30.— Atzo itzuli nintzen etxera. Dena ondo dago.

Abuztuak 2.— Ezer berririk ez: aparteko eguraldia ari du egiten. Sena ibaiari begira ematen ditut egunak.

Abuztuak 4.— Liskarrak etxeko otseinen artean. Gauetan, armairuetan kristalezko basoak puskatzen dituzte, omen. Gelariak sukaldariari egozten dio errua, hark garbitzaileari, eta hark beste biei. Nor ote erruduna? Geroak esango.

Abuztuak 6.— Oraingo honetan ez nago erotuta. Ikusi egin dut... ikusi... ikusi! Ezin dut zalan-tzarik egin... ikusi egin dut!... Azkazaletan ere hotza dut oraindik... hezurretaraino sartua dut beldurra... ikusi egin dut!...

Ordu biak aldera, eguzki-eguzkitan, arrosategian paseatzen ari nintzen... loratzen hasi berriak diren udazkeneko arrosen artean.

Hiru lore bikain zituen géant des batailles arrosa lore bati begira nengoela, non ikusten dudan, argi eta garbi ikusi ere, nire ondo-ondotan, lore horietako baten txortena bihurritzen, esku ikusezin batek bihurrituko balu bezala, eta gero eteten, esku ikusezin horrek bildu izan balu

bezala. Gero beso batek ahora eraman izan balu bezalakoxe kurba egin du loreak, eta aire garde-
nean eskegita geratu da, bakarrik, mugitu gabe,
orban gorri beldurgarri baten gisan, nire begieta-
tik hiru pausotara.

Erabat asaldaturik, jauzi egin eta harrapatu
nahi izan dut. Ez dut ezer aurkitu. Desagertu
egin da. Neure biziko amorrua hartu dut neure
buruaren kontra. Zentzuzko gizon serio batek ez
ditu zilegi horrelako begitazio eroak!

Begitazioa ote zen, ordea? Txortena bilatzeko
bihurtu naiz, eta berehalaxe aurkitu dut, aurkitu
ere, landarean, eten berria, adarrean geratu
diren bi arrosaren artean.

Etxera itzuli naiz, bada, burua nahas-nahasi-
rik, zeren ziur bainago, orain, egunaz eta gauaz
ziur egon daitekeen bezala, nire inguruan bade-
la ikusi ezinezko norbait, urez eta esnez elika-
tzen dena, gauzak uki ditzakeena, hartu eta
lekuz alda ditzakeena, eta horrenbestez, gure
zentzuentzat atxikiezina bada ere, nolabaiteko
izaera material bat baduena, eta ni bezala neure
teilatupe berean bizi dena...

Abuztuak 7.— Lasai lo egin dut. Botilako ura edan du, baina loa ez dit eragotzi.

Zalantzatan nago ea erotuta ote nagoen. Oraintxe puntuan, ibai ertzean eguzkitan paseatzen ari nintzela, zalantza sartu zait nire zentzu onean ote nagoen, ez orain arte bezala halako zalantza lauso bat, zalantza zehatz egiazkoa baizik. Ni ikusia naiz, eroak; ezagutu izan ditut gai batean salbu gainerako guztietan adimentsu, argi, zuhur jarraitzen zutenak. Gauza guztiez argi hitz egiten zuten, malgu, gogoeta sakonez, eta bat-batean, eromenaren harria jotzen zuen haien gogoetak eta mila puska egiten zen, eta «eromena» deitu ohi den itsaso beldurgarri, haserrekor, uhin harroz, lainoz, ekaitzez bete horretan galtzen zen haien pentsamendua.

Egiaz erotuta nagoela erabat sinetsita nengo-ke, nire egoeraz erabat jakitun ez banintz, nire egoera zehazki ezagutuko ez banu, irizpide zehatz, doiez aztertuko ez banu. Haluzinatu arrazoizko bat-edo naiz, beraz. Ezagutzen ez den arazoren bat gertatu bide zait garunean, gaur egun fisiologialariak aztertzen eta ezagutzen ahalegintzen ari diren arazo horietakoren bat;

eta arazo horrek arrakala sakon bat sortu bide dit gogoan, ideien ordenan eta logikan. Antzeko gauzak gertatzen dira, nonbait, ametsetan, zeren ezin sinetsizko fantasmagorietan barnertzen baikara eta ez baikara batere harritzen, egiaztapen aparatua, kontrolaren zentzua, lotan dugulako; eta irudimen ahalmena, aldiz, iratzarririk eta lanean baita ari. Ez ote zait gertatuko nire garuneko teklatuaren tekla horietakoren bat gelditurik edukitzea? Gertatzen baita, hain zuzen, batzuek, istripuren bat izanda, izen berezien oroitzapena, edo aditzena, edo zenbakiena galtzea, edo data zenbakiena baizik ez galtzea. Harritzekoa al litzateke, hortaz, nire baitan haluzinazio batzuen izategabekotasuna kontrolatzeko ahalmena une honetan zurrundurik egotea!

Hori nerabilen gogoan ur ertzean nenbilela. Eguzkiak argitasunez betetzen zuen ibaia, guztiz gozagarri bihurtzen zuen lurra, biziaren maitasunez betetzen zidan begirada, enaren maitasunez, nire begien gozagarri baita haien hegada, edota ibai ertzeko belarrenganako maitasunez, nire belarrien pozgarri baita haien dardara.

Poliki-poliki ondoez azaldu ezin bat ari zitzaidan sartzen hala ere. Indar bat, iruditzen zitzaidan, indar ezkutu bat zurruntzen ari zitzaidan, gelditu egiten ninduen, ez zidan uzten aurrerago jarraitzen, atzera deitzen zidan. Maite duzun norbait etxean gaixorik utzi eta gaizkitu ote den bihozkada duzunean berriro hara itzultzeko behartzen zaituen premia atsekabetsu horixe sentitzen nuen.

Horregatik, gogoz kontra, etxera itzuli naiz, etxean albiste txarren bat, gutun edo gaztigu txarren bat izango nuen susmoz. Ez zen ezer; eta berriro ikuspen fantastiko bat izan banu baino ere harrituago eta urduriago geratu naiz oraindik.

Abuztuak 8.— Gau ikaragarria pasa dut bart. Ez da azaltzen, baina nire ondoan sentitzen dut, zelatan, niri begira, nire baitan sartzen eta niri nagusitzen, eta beldur izatekoagoa da, horrela ezkutatuta, bere presentzia ikusezin etengabea naturaz gaindiko gertakariez salatuko balu baino.

Lo egin dut, hala ere.

Abuztuak 9.— Ezer ez, baina beldurra izan dut.

Abuztuak 10.— Ezer ez; zer gertatuko da bihar?

Abuztuak 11.— Ezer ez oraindik; baina ariman sartu zaidan beldur honekin eta pentsamendu honekin ezin dut etxean jarraitu; alde egin behar dut.

Abuztuak 12, gaueko 10ak.— Egun osoan aritu naiz alde egin nahi nuela; ezin izan dut. Horren askatasun ekintza erraza eta sinplea egin nahi —irten, zalgurdira igo eta Rouenera joan—, eta ezin. Zergatik?

Abuztuak 13.— Gaixotasun batzuek harrapatzen zaituztenean, badirudi izaki fisikoaren baliabide guztiek huts egiten dutela, indar guztiak desegiten, gihar guztiak lasaitzen, hezurak haragia bezain bigun bihurtzen direla, eta haragia ura bezain jariakari. Modu harrigarri eta etsi-

garri batez sentitzen dut nik hori dena nire baitan. Ez dut ezertarako indarrik, ezertarako kemenik, ez naiz neure jabe, ez dut inolako ahalmenik nire baitan, ezta neure ganora eskuratze-ko ere. Ezin dut ezer nahi; beste norbaitek nahi du nire orde; eta nik haren esana betetzen dut.

Abuztuak 14.— Galdu naiz! Beste norbaitek hartu dit arima, eta hark gobernatzen du! Beste norbaitek agintzen dizkit egiteko guztiak, mugimendu guztiak, pentsamendu guztiak. Ni ez naiz ezer neure baitan, neuk egiten ditudan gauza guztien ikusle esklabo erabat izutu bat baino. Irten egin nahi dut. Ezin. Ez du nahi; eta etxean geratzen naiz, burua nahasirik, dardaraz, eserita naukan besaulkian. Zutitu nahi dut, jaiki besterik ez, neure jabe naizela uste izateko behintzat. Ezin! Nire aulkian iltzaturik nago, eta aulkia zoruari atxikirik, eta ez gintuzke ezerk handik jasoko.

Eta gero, bat-batean lorategi barreneraino joan, marrubiak bildu, eta jan beharra, beharra, beharra. Eta han joaten naiz. Marrubiak biltzen ditut eta jan egiten ditut! Ai, Jaungoiko nirea!

Jaungoiko nirea! Jaungoiko nirea! Jaungoikorik
ba ote? Baldin bada behintzat, aska nazazu,
salba nazazu! Iagun zakizkit! Barka! Erruki! Gra-
zia! Salba nazazu! Oi! Hau atsekabea, hau sufri-
karioa! hau izumena!

Abuztuak 15.— Horrelaxe zegoen, hain
zuzen, menderatua eta barnetik hartua nire
lehengusina ere, bost mila libera eskatzera eto-
rri zitzaidanean. Bere baitan sartua zitzaion ino-
ren borondate baten mende zegoen, beste arima
bat balu bezala, beste arima bizkarroi eta men-
deratzaile bat sartu izan balitzaio bezala. Mun-
duaren amaia al da, ausaz?

Baina nor da nire baitan agintzen duen ikuse-
zin, ezagutu ezin hori, naturaz goitiko arrazaren
bateko zelatari hori?

Badira, beraz, ikusezinak! Nola ez dira ager-
tu, ordea, mundua mundu denez gero, niri ager-
tzen zaizkidan bezain zehatz eta agerian? Nik
behintzat inoiz ez dut irakurri etxean gertatu
denaren antzeko gauzarik. Ai, alde egin ahal
banu, beste norabait joan, ihes egin eta gehiago

ez etorri ahal izango banu. Salbu nintzateke, ezin dut ordea.

Abuztuak 16.— Gaur bi orduz alde egin ahal izan dut, bere ziegako atea ustekabez zabalik aurkitu duen preso batek bezala. Bat-batean libre nintzela eta hura handik urruti zela sentitu dut. Zaldia gurdiari ahalbait lasterren lotzeko agindu dut, eta Rouenera joan naiz. Ai, zer poza bati «Rouenera!» esan eta hark obeditzea.

Liburutegiaren aurrean gelditzeko agindu diot, eta Hermann Herestauss doktorearen antzinako munduko eta mundu modernoko biztanle ezezagunei buruzko liburu handia utz diezadaten eskatu dut.

Gero, berriro nire zalgurdira igotzerakoan «Geltokira!» nahi nuen esan, baina ez dut esan, oihu batez adierazi baino, inguruan zeudenak birarazi dituen ahots ozen batez oihu egin ere: «Etxera», eta larritasunaren larritasunaz asaldaturik kotxeko aulkian erori naiz. Aurkitu egin nau eta berriro jabetu da nitaz.

Abuztuak 17.— Hau gaua! Hau gaua! Baina poztu egin beharko nukeela iruditzen zait hala ere. Goizeko ordubata arte irakurtzen aritu naiz. Hermann Herestauss, filosofia eta teogonian doktoreak gizonaren zelatan dabilzan edo gizonak ametsetan ikusi dituen izakari ikusezin guztien historia eta agerraldiak jaso ditu. Izaki horien jatorria, ingurua, ahalmena deskribatzen ditu. Baina hark deskribatuetatik batek ere ez du inguruan dabilkidanaren antzik. Esango litzateke gizonak, pentsatzen ikasi zuenetik, izan duela susmoa eta beldurra, bera baino indar handiago-ko izakari bat azalduko zela, mundu honetan bere ondorengo izango zena, eta, nagusi izango zuen hori hurbil zela sumaturik, baina nolakoa izango zen ezin asmaturik, izumen horretan, ezkutuko izakizko fantasiako mundu bat sortu duela, beldurrak sorrarazitako mamuen mundu bat.

Horrela bada, ordu bata arte irakurtzen egon ondoren, leiho zabalduaren ondoan esertzera joan naiz, bekokia eta pentsamendua iluntasu-neko haize barean freskatu ahal izateko.

Eguraldi ona zen, epel. Zein atseginak horrelako gauak behinola!

Ilargirik ez. Izarrek distira dardaratia egiten zuten zeru beltzaren atze-atzetik. Nor bizi da mundu horietan? Zer bizi era, zer eratako izaki biziak, zer eratako animaliak, zer eratako landareak dira han? Urrutiko unibertso horietan bizi eta pentsatzeko gai direnek zer dakite guk baino gehiago? Zer dezakete guk baino gehiago? Zer ikusten dute guk ezagutzen ez dugunik? Ez ote da agertuko horietakoren bat, espazioak igarorik, gure lur honetan, lur hau konkistatzeko, garai batean normandiarrek herri ahulagoak mendean hartzeko itsasoa igaro zuten bezala?

Hain baikara elbarriak, hain arma gabeak, hain ezjakinak, hain txikiak, gu, ur tanta batean birrindurik biraka ari den lokatz bikor honetan.

Amets horietan hartu ninduen lozorroak gaueko haize freskoan.

Horrela bada, berrogei minutu edo lotan egon ondoren, berriro zabaldu nituen begiak, bestelako zirkinik ere egin gabe, halako zirrara nahasi bitxi batek iratzarririk.

Hasieran ez nuen ezer ikusi, horretan, ordea, mahai gainean zegoen liburuko orri bat bere kasa itzuli zela iruditu zitzaidan, berez. Leihotik ez zen haize bafada bat ere sartu. Harritu nintzen; eta zain geratu nintzen. Handik lau minutura-edo, non ikusten dudan, ikusi bai, neure begiez, beste orri bat goratzen eta aurrekoaren gainera itzultzen, behatz batek orriak pasatuko balitu bezala. Nire besaulkia hutsik zegoen, hutsik zirudien, baina berehala konturatu nintzen han zegoela hura. Jauzi amorratu batez, bere bezatzaileari sabela zabaldu behar dion piztia asaldatu baten jauziz, igaro nuen alderik alde gela osoa, hura harrapatzeko, estutzeko, akabatzeko!... Besaulkia, ordea, ni hara orduko hankaz gora erori zen, nire aurretik norbaitek ihes egin izan balu bezala... mahaiak balantza egin zuen, haren gaineko argia ere erori eta itzali egin zen; eta leihoa, gaizkileren bat harrapatu izan balute eta esku biez leihatilei heldurik gauean barrena ihes egin balu bezala itxi zen.

Ihes egin du beraz; beldur izan du, nire beldur, berak!

Hortaz, bada... hortaz... bihar... edo etzi... edo beste edozein egunetan, nire ukabilen aurrean hartu ahal izango dut, lurraren kontra zanpatu! Ez al diete bada, zenbaitetan, zakurrek beren nagusiei hozka egiten eta itotzen?

Abuztuak 18.— Pentsatzen egon naiz egun guztian. Ai! Bai, obeditu egingo diot, haren eragin guztiei jarraituko diet, haren asmo guztiak beteko ditut, umil egingo naiz, mendeko, koldar. Bera da indartsuena. Baina iritsiko da ordua...

Abuztuak 19.— Badakit... badakit dena! Irakurri berri-berria dut *Revue du Monde scientifique* aldizkarian: «Berri bitxi bat iritsi da Rio de Janeirotik. Badirudi eromen bat, Erdi Aroan Europako herriak jo zituen eromen kutsakorraren antzeko eromen izurrite bat zabaldu dela Sao Pauloko probintzian. Herrietako biztanleek ihes egiten dute, asaldaturik, beren lurrak bertan behera utzirik, esanez ezin ikusizko izaki batzuek esesten dituztela, giza abereak balira bezala erabiltzen dituztela; izaki horiek ordea, ikusezin izanagatik, ukigarriak omen dira guztiz, banpiro

gisako batzuk omen dira, gizonak lotan dauden bitartean haien arnasatik elikatzen omen dira, eta itxura denez, horrez gainera ura eta esnea baizik ez omen dute edaten, eta gainerako elikagairik ukitu ere ez.

»Don Pedro Henriquez irakasle jauna, beste sendagile ospetsu askorekin batera, Sao Pauloko probintziarantz abiatua da eromen harrigarri horren jatorria eta izaera gertatzen den lekuan bertan aztertzeko, eta zoraldiak jotako jendetza hura berriro zentzu onera ekartzeko egokien derizkieten neurriak Enperadoreari proposatzeko».

Ai! ai! gogoan dut, gogoan dut joan den maiatzaren 8an Sena ibaian gora nire etxe aurretik igaro zen hiru mastako brasildar itsasontzia. Hain polita iruditzen zitzaidan, hain zuria, hain alaia! Han zetorren nonbait izaki hori, bere arraza sortu den lekutik! Eta ikusi egin ninduen! Nire etxea, zuria hura ere, ikusi; eta itsasontzitik ibai ertzera jauzi egin nonbait. Ai, Jaungoiko nirea!

Orain badakit, sumatzen ari naiz. Gizonaren erreinua joan da.

Iritsia da, herri ezjakinen lehenengo izualdie-
tako beldurgarria, apaiz kezkatuek konjuruak
botatzen zizkiotena, sorginek eta belagileek gau
ilunetan deitzen zioten eta oraindik azaltzen ez
zitzaiena, munduaren behin-behingo nagusi guz-
tiek hura baino mamu, izpiritu, intxixu, maitaga-
rri edo iratxo modurik munstrozkoen edo zoraga-
rrienak nahiago izan dituztena. Hasierako izume-
naren ondorioz sortutako irudi oihes horien
ondoren, zehazkiago irudikatu ahal izan dute
zentzu gehiagoko zenbaitek. Mesmer-ek suma-
tua zuen, eta sendagileek orain dela hamar urte
baino gehiago zehazki aurkitua zuten haren
ahalmena, hura ahalmen hori erabiltzen hasi
baino lehen. Jaun berriaren arma horrekin jola-
sean aritu dira: nahi misteriozko batek haren
esklabo bihurtzen den giza arima baten gain
duen nagusitasuna, alegia. Magnetismo, hipnosi,
sugestio eta nik al dakit zer, deitu diote ahalmen
horri. Haurrak bezala ikusi izan ditut ahalmen
izugarri horrekin jolasean! Zorigaitzekoak gu!
Zorigaitzekoa gizona! Etorri da, etorri da... nola
deitzen da... bere izena oihuka esaten ari zaida-
la iruditzen zait, eta ez diot entzuten... oihuka ari

da... Entzuten diot... zer?... ezin dut... berriro...
Horla... Entzun dut... bera da... Horla... iritsi da!...

Ai, saiak usoa jan du; otsoak bildotsa jan du; lehoiak bufalo adar-zorrotza jan du; gizonak azkonaz, ezpataz, sutautsaz hil du lehoia; baina guk zaldiaz eta idiaz egin dugun gauza bera egingo du gizonaz Horlak: bere gauza, bere zerbitzari eta bere janari bihurtu, bere borondatearen ahalmen soilaz. Zorigaitzekoak gu!

Batzuetan, ordea, animalia ere oldartu egiten da, eta bezatu duena hiltzen du... nik ere nahi dut... ahal izango dut... baina ezagutu egin behar da, ukitu, ikusi! Jakintsuek diotenez piztaren begiak, ez baita gurea bezalakoa, beste era batera bereizten ditu gauzak... Nire begiak, adibidez, ez du bereizten mendean harturik naukan iritsi berria.

Zergatik? A... Saint-Michel mendiko fraidearen hitzak datozkit orain gogora: «Ikusten al dugu existitzen diren gauzen ehun milarena ere? Begira, horra haizea bera, izadian den indarrik handiena, jendea lurrera botatzen duena, etxeak eraisten dituen, zuhaitzak erauzten dituen, itsasoa malkorrek amilarazten dituzten mendi

bihurturik jaikiarazten dituena eta itsasontziak uharrietara jaurtitzen dituena, haize hiltzaile, ziztugile, intziri egile, orro egile hori, ikusi al duzu, ikusi ahal dezakezu? Eta bada, izan».

Eta pentsatzen geratu nintzen oraindik: nire begia hain da ahula, hain akastuna, non ez baititu gorputz gotorrak berak ere bereizten, gardinak baldin badira, beira adibidez!... Zilarbizirik gabeko beira batek bidea itxiko balit, buruz buru joko nuke, gelan sartu eta burua beira kontra hausten duen txoriak bezala. Mila gauzak tronpatzen dute eta nahasten. Zer du, bada, harritzekoa, argiak alderik alde igarotzen duen gorputz mota berri bat bereizten ez jakiteak.

Izaki berri bat! zergatik ez? Etortzekoa zen inondik ere! zergatik izan behar genuen bada guk azkenak? Ez dugu bereizten, baina ezta gu baino lehenago sortu izan diren gainerako izaki guztiek ere. Izaera beteginagoa du, gorputz fina goa eta hobeto egina gure hau baino: gure gorputz ahul, oihesa, beti nekaturik dauden, beti baliabide konplexuegiz behartuegi dauden organoz betea, landare bat edo pitzia bat bezala airez, belarrez eta haragiz nekez elikatuz bizi

den gorputza, gaixotasunak, itxuragabetzeak, usteltzeak mendean har dezakeen abere maki-na, beti ito beharrean, doitu gabe, nola hala eta bitxi, zuhurki gaizki egina, langintza oihas eta fina, adimentsu eta bikain izatera iritsi daitekeen izaki zirriborro hau.

Banaka batzuk gara mundu honetan, ostratik hasi eta gizonarenganaino. Zergatik ez beste bat, animalia edo landare mota bat agertzen denetik hurrena agertzen denera bitarteko aldia bete denez gero?

Zergatik ez beste bat? Zergatik ez beste era bateko zuhaitzak, beren usainaz lurralde osoak beteko lituzketen lore erraldoi distiratsuak dituztenak? Zergatik ez sua, airea, lurra eta uraz gainerako beste elementuren bat? Lau dira, lau besterik ez, izakiak elikatzen dituzten elementu horiek. Lastima! Zergatik ez dira laurogei, laurehun, lau mila! Zein den pobrea, txiroa, ezdeusa, zeken emana, idor asmatua, astunki egina den-dena. Ai, zer grazia duen elefanteak, hipopotamoak, zein dotorea den gamelua!

Baina, tximeleta, esango didazue, hegan egiten dakien lorea! Ehun unibertso baino handiago

bat dut nik amets, forma, edertasuna, kolorea eta mugimendua adierazteko ere gauza ez naizen hego batzuekin. Baina ikusten ari naiz... izarririk izar dabil, izarrak bere hegadaren haizetxo armoniatsuaz freskatuz eta urrinduz... Eta han goian bizi diren herriek xoraturik eta pozaren pozaz ikusten dute nola igarotzen den!

.....

Zer dut, bada? Horlak sorgintzen nau, hark pentsarazten dizkit erokeria hauek! Nire baitan dago, nire arima ari zait bihurtzen; hil egingo dut!

Abuztuak 19.- Hilko dut. Ikusi dut! Bart gauean mahaian eserita nengoen; eta arreta handiz idazten ari nintzelako itxura egiten hasi nintzen. Banekien luze gabe etorriko zela inguruan zelatan egitera, ondo-ondora etorriko zitzaidala, agian ukitu ahal izateko moduan, heltzeko moduan agian? Eta orduan... orduan, agian etsita daudenek duten indarra izango nuen ausaz; eskuak, belaunak, bularra, kopeta, hortzak edukiko nituen hura itotzeko, birrintzeko, hozka egiteko, urratzeko.

Zentzumen guztiak erne-erne nituela nengoen haren zelatan.

Nire bi lanparak eta tximiniako zortzi kandelak piztuta neuzkan, argitasun horretan agerrarazi ahal izango banu bezala.

Nire aurrez aurre nire ohea, haritzezko ohe zahar habedun bat; eskuinera tximinia; ezkerre-ra atea, hura erakartzeko luzaro zabalik eduki ondoren kontu handiz itxia; atzean, armairu ispiludun handi bat, egunero bizarra mozteko, janzteko erabiltzen dudana, eta aurretik igarotzen naizen bakoitzean burutik oinetara dena begiratzeko ohitura dudana.

Idazten ari nintzen itxura egiten ari nintzen bada, hura engainatzeko, hura ere zelatan ari baitzitzaidan niri; eta bat-batean nire bizkar gaitetik irakurtzen ari zela sentitu nuen, ziur nengoen, han zegoela, belarria ia-ia ukitzen zidala.

Tupustean jaiki nintzen, eskuak luzaturik, eta bat-batean itzuli, ia-ia erori bainintzen. Eta zer?... Egun-argiz bezalaxe ikusten zen... eta neure burua ez nuen ikusten ispiluan! Hutsik zegoen, garbi, sakon, argiz bete-beterik. Nire irudia ez zegoen han... Eta aurrean nengoen ni...

Goitik behera garbi-garbi ikusten nuen beira handia! Begiak eroturik ari nintzen hori dena ikusten, eta ez nintzen ausartzen aurrerago egiten, argi sentitzen bainuen bitartean zegoela hura, eta berriro ihes egingo zidala, baina garbi ikusten nuen haren gorputz sumaezinak nire isla xurgatzen zidala.

Hura beldurra izan nuena! Gero, bat-batean laino batean hasi nintzen ikusten nire irudia ispiluaeren barren-barrenean, laino batean, ur geruza batean barrena bezala; eta geruza hori ezkerretik eskuinerantz mugitzen ari zela iruditu zitzaidan, geldiro-geldiro, segundotik segundora nire irudia zehatzago bihurtzen zela. Eklipse baten amaiera ematen zuen. Ezkutatzen ninduen zera hark ez zirudien isla zehatz-zehatza zuenik, poliki-poliki argituz zihoan gardentasun opako bat baizik.

Azkenean egunero ispiluan begiratzen nuen bezain argi eta garbi ikusi ahal izan nuen neure burua.

Ikusi nuen, bada. Harrezkero geratu zitzaidan beldurrak zirgit eragiten dit oraindik ere.

Abuztuak 20.— Nola hil behar dut? Ezin baitut harrapatu? Pozoia? Baina uretan nahasten ikusiko ninduke; eta gure pozoiek izango lukete eraginik, gainera, haren gorputz atxikiezonean? Ez... ez... inondik ere... Orduan?... orduan?...

Abuztuak 21.— Rouendik sarrailagile bat ekarri, eta nire gelarako burdinazko leihosare bat egiteko agindu diot, Parisen, egoitza partikular batzuek beheko solairuan lapurren beldurrez eduki ohi dituztenak bezalakoa. Horrez gainera gisa bereko ate bat ere egin behar dit. Koldartzat hartu izango nau, baina ez dit axola...

.....

Irailak 10.— Rouen, Continental hotela. Egin dut... egin dut... Baina hil ote da? Goitik behera asaldaturik nago ikusi dudana.

Atzo, alegia, sarrailagileak nire leihosarea eta burdinazko atea jarri ondoren, den-dena zabalik utzi nuen, gauerdia arte, ordurako hozten hasia izanagatik.

Horretan, han zegoela sentitu nuen, eta pozak, poz ero batek, hartu ninduen. Jaiki nin-

tzen geldiro-geldiro, eta ezker-eskuin ibili nintzen hara-hona, luzaro, ezer asma ez zezan; gero botinak erantzi eta etxeko zapatilak jantzi nituen nagi-nagi; ondoren burdinazko leihosarea itxi eta geldiro-geldiro aterantz egin nuen; atea ere bi giltza biraz itxi nuen. Berriro leihora itzulirik, giltzarrapo batez itxi eta patrikan gorde nuen giltza.

Bat-batean nire inguruan zalapartan zebilela ohartu nintzen, hark ere beldur zuela, zabaltzeko agintzen ari zitzaidala. Ia-ia amore eman nion; ez nion eman, ordea, baizik eta, atearen kontra babestuz, erdi-zabaldtu egin nuen, neu, atzeraka, ozta-ozta igarotzeko adina; eta neurez oso handia naizenez, buruaz ate burua ukitzen nuen. Ziur nengoen ezin izan zuela handik ihes egin, eta hantxe utzi nuen bakar-bakarrik, bakar-bakarrik. Hura poza! Harrapatua neukan! Lasterka beheko solairura jaitsi nintzen, eta egongelatan, nire gelaren azpi-azpian, bi argiak hartu eta tapizean, altzarietan, alde guztietan isuri nuen haietako olioak; gero su eman, eta ihes egin nuen, sarrerako ate handiakontu handiz bi giltza biraz itxirik. Eta lorategiaren barren-barrenean

erramu ereinotz multzo batean ezkutatu nintzen. Zein luze izan zen, zein luze! Dena beltz zegoen, dena mutu, dena geldi; haize bafada bat ere ez, izar bat ere ez, hodei mendiak, ikusten ez zirenak baina nire ariman hain astunak zirenak, hain astunak.

Etxera begiratzen zuen, zain. Bai luze! Uste nuen sua berez itzali izango zela, edo hark itzali izango zuela; horretan beheko leihoetako batek suaren bultzadaz eztanda egin zuen, eta gar bat, gar handi, gorri-hori, luze, malgu bat igo zen horman gora, hura igurtziz, eta sabairaino hartu zuen. Argi distira bat zabaldu zen, eta ikara bat, ikara bat ere bai, zuhaitzetan, adarretan, hostoetan. Txoriak esnatu egin ziren; zakur batek zaunka egin zuen: eguna argitzen ari zuela ematen zuen! Beste bi leiho lehertu ziren berehalaxe, eta nire etxearen azpiko alde guztia sutegi beldurgarri bat bihurturik zegoela ikusi nuen. Baina oihu ikaragarri, zoli, erdiragarri, emakume baten oihu bat, zabaldu zen gauean, eta bi sabai leiho zabaldu ziren! Etxeko otseinak ahaztuak nituen! Eta haien aurpegi erotuak eta haien eskuen imintzioak ikusi nituen!...

Orduan, izumenak harturik, herrirantz jo nuen oihuka eta garrasika:

— Lagundu! lagundu! Sua! Sua!

Ordurako bazetozen batzuk topatu nituen, eta haiekin itzuli nintzen, ikusteko.

Etxea su ikaragarri, bikain bat zen ordurako, munstrozko su bat, lur guztia argitzen, eta hartan erretzen gizonak, eta hura ere bai, hura, nire presoa, Izaki berria, nagusi berria, Horla!

Bat-batean sabai osoa erori zen hormen barrura, eta zeruraino altxatu zen gar mendi bat. Labe haren leiho zabal guztietatik suzko agoa hura ikusten nuen, eta hantxe, labe hartan, hilik izango zela pentsatzen nuen...

— Hilik? Ba ote? Haren gorputza, ordea, argiak alderik alde igarotzen zuen gorputz hura, ez ote zen, bada, izango guretarrak hiltzen dituzten bestelako baliabidez birrindu ezina?

Eta hilik ez balego?... Agian denborak baizik ezin mendera dezake Izaki ikusezin beldurgarri hori. Zertarako, bestela, gorputz garden hori, gorputz ezagutu ezin hori, Izpirituaren gorputz hori, berak ere kalteak, zauriak, gaixotasunak,

garaia baino lehen suntsitzea nozitu ahal balitza?

Garaiz aurretik suntsitu? horrexek eragina da gizonaren izumen guztia! Gizonaren ondoren, Horla. — Edozein egunetan, edozein ordutan, edozein minututan, edozein istripuz hil daitekeenaren ondoren, etorria da bere egunean, bere orduan, bere minutuan, bere izatearen muga iritsi duelako baizik hilko ez dena.

Ez... ez... dudarik ez da, dudarik ez da... ez da hil... neuk egin beharko dut, hortaz, neure buruaz beste...

.....

(1887)

Madame Hermet

Eroek biziki erakartzen naute. Pertsona horiek gogoeta bitxizko herri misteriozko batean bizi dira, lurrean ikusi duten guztia, maitatu izan duten guztia, egin izan duten guztia, gauzak gobernatzen eta gizonaren pentsaera arautzen duten lege guztiez kanpo geratzen den irudimenezko existentzia batean berriro hasten den eromenaren hodei zulaezinean.

Eroentzat ezinik ez dago, sinetsi ezinezkoa desagertu da, magiazko gauzak ohiko dira eta naturaz goitikoak etxeko. Logika, hesi zahar hori, arrazoia, harresi zahar hori, zentzuzkotasuna, ideien itxitura zahar hori, zartatu egiten dira, erori egiten dira, behea jotzen dute aske jaregiten den, fantasiaren lurralde mugagabea ihesi doan, sekulako jauziak egiten dituen eta inork gelditzen ez duen irudimenaren aurrean. Eroentzat dena gertatzen da eta dena gerta daiteke. Ez dute inolako nekerik hartzen gertaerak menderatzeko, erresistentziak makurtzeko, oztopoak kentzeko. Aski dute beren borondate iruzurgilea-

ren nahikunde bat, eta printze, enperadore edo jainko bihurtzen dira, munduko aberastasun guztien jabe bihurtzen dira, bizitzako gozagarri guztiak eskuratzen dituzte, plazer guztiak gozaten, beti indartsu dira, beti eder, beti gazte, beti maitatu! Horiek baizik ezin izan daitezke zoriontsu lur honetan, horientzat ez baita existitzen Errealitatea. Atsegin dut eroen gogo iheskorri beha egotea, hondo-hondoan erreka ezezagun bat, ez nondik datorren, ez nora doan inork ez dakiena, borborka ari den leize bati so egoten den bezala.

Arrakala horietara begira egoteak ezertarako ez du balio, ordea, ez baita inoiz jakin ahal izango nondik datorren ur hori, edo nora doan. Kanpoan dabilen ura bezalakoxea baita, gainera, azken finean, eta ikusteak ere ezer gutxi erakutsiko liguke.

Eroen gogoari begira aritzeak ere ez du ezertarako balio, zeren haien ideiarik bitxiak ere ideia ezagunak baizik ez baitira, bitxiak izanik ere, Arrazoiak kateatzen ez dituelako. Ideia horien sorburu aldartetsuak nondik darion ikusten ez dugulako harritzen gaitu ustekabeen. Ura-
ren bidean harri kozkor bat erortzea aski izan

baita, inondik ere, borborka horiek eragiteko. Eta hala eta guztiz ere biziki erakartzen naute eroek, eta beti itzultzen naiz haietara, gogoz kontra bada ere, eromenaren misterio arruntak dei egiten didalarik.

Behin batean, bada, eroetxe bat ikusten ari nintzelarik, nire gidari zihoan sendagileak esan zidan:

— Begira, kasu interesgarri bat erakutsiko dizut.

Eta gela bat zabaldurik, berrogei urte inguruko emakume bat erakutsi zidan, oraindik ederra, besaulki handi batean eserita, eskuko ispilutxo batean bere aurpegia etengabe aztertzen ari zena.

Ikusi gintuenetik bertatik, jaiki zen, joan zen gelaren beste alderaino aulki batean utzita zegoen belo baten bila, bildu zuen hartan kontu handiz aurpegia, eta guregana etorri zen berriro, gure agurrari buru keinu batez erantzunik.

— Zer moduz, bada, gaur goizean? —galdetu zion sendagileak.

Emakumeak hasperen sakon bat egin zuen.

— Oi, gaizki, oso gaizki, jauna, egunetik egunera marka handiagoak ari zaizkit egiten.

Sendagileak konbentzitu itxuraz erantzun zion:

— Bai zera, bai zera! egi-egiaz diotsut engainatuta zaudela.

Gaixoa sendagilearengana hurbildu zen, esanez:

— Ez, ziur nago. Hamar zulo kontatu ditut gaur goizean: hiru eskuineko masailean, lau ezkerrekoan eta hiru bekokian. Nazkagarria da, nazkagarria! Ezingo naiz inoren aurrera gehiago azaldu, ezta nire semearen aurrera ere, ez, ezta semearen aurrera ere! Galdurik nago, itsustu naiz betiko.

Berriro bere aulki gainera erori eta negar zotinka hasi zen.

Sendagilea, aulki bat hartu, haren ondoan eseri, eta kontsolamenduzko ahots gozo batez hasi zitzaion:

— Tira, tira, ea, erakutsiezadazu, zaude ziur ez dela ezer. Kauterio ukitu batez desagerraraziko dizutnik hori dena.

Emakumeak «Ez» erantzun zion buruari eraginez, hitz bat ere atera gabe. Sendagileak beloa ukitu nahi izan zion, hark ordea bi eskuez heldu zion, hatzak haragitan sartzeraino.

Sendagilea arren uzteko eskatzen eta ziurtasuna ematen hasi zitzaion berriro:

— Tira, tira, badakizu beti kentzen dizkizudala zulo itsusi horiek, eta nik zaindu ondoren ez direla gehiago ikusten. Erakusten ez badizkidazu, ezin sendatuko zaitut.

Ahopeka erantzun zion hark:

— Zuri bai, erakutsiko dizkizut, baina zurekin datorren beste jaun hori ez dut ezagutzen.

— Hau ere sendagilea da, nik baino hobeto zainduko zaitu honek.

Orduan erakutsi zuen, bada, aurpegia, baina lepoa jantzian barrenera sartzen zen lekuraino gorritzen zion haragia beldurrak, emozioak, ikus zezaten lotsak. Begiak apaldu eta behin ezkerre-ra behin eskuinera bihurtzen zuen aurpegia, gure begiradei ihes egiteko, eta aldi berean ahopeka ari zen:

— Ai, hau sufrikarioa horrela azaldu beharra! Nazkagarria da, ezta? Nazkagarria da?

Txunditurik nengoen hari begira, ez baitzuen ezer aurpegian, ez markarik, ez orbanik, ez zakarririk.

Nireganantz bihurtu, begiak apalik betiere, eta esan zidan:

— Nire semea zainduz harrapatu nuen gaixotasun beldurgarri hau, jauna. Hura salbatu nuen, baina ni itxuragabe geratu nintzen. Nire edertasun guztia eman nion, nire haur gaixoari. Azkenazkenean, nire eginbeharra bete nuen, kontzientzia lasai dut. Zenbat sufritzen dudan, Jainkoak baizik ez daki.

Sendagileak akuarelak margotzeko pintzeltxo bat atera zuen patrikatik.

— Utz iezadazu —esan zion—, oraintxe kenduko dizut hori dena.

Gaixoak eskuineko masaila erakutsi zion, eta ukitu arin batzuk egiten hasi zitzaion sendagilea, kolore puntutxo batzuk jarriko balizkio bezala. Ezkerreko aldean beste horrenbeste egin zion, eta gero kokotsean eta bekokian, eta esan zion:

— Begira, ez da ezer geratu, ez dago ezer!

Gaixoak ispilutxoa hartu, eta luzaro, kontu handiz, arreta bizi-biziz, bere gogoaren ahalegin

handienaz saiatu zen begira, ea zertxobait aurkitzen zuen, eta hasperen egin zuen azkenik:

— Ez, ez da askorik ikusten. Eskerrik beroenak ematen dizkizut.

Sendagilea jaikia zen. Agurtu zuen gaixoa, irteteko esan zidan eta atzetik etorri zen: eta atea itxi bezain laster, esan zidan:

— Hona zorigaitzeko gaixo honen historia makurra.

Mme. Hermet du izena. Oso andre ederra, andre pinpirina, maitatua eta pozetan bizi izana bere garaian.

Mundu honetan eutsiko dienik, gobernatuko dituenik edo bizitza honetan kontsolatuko dituenik, beren edertasuna eta besteentzat atsegingarri izan nahia baizik ez duten emakume horietako bat zen. Bere freskotasuna etengabe zaindu nahia, aurpegiari, eskuei, hortzei, erakutsi zitzakeen bere gorputzeko atal guztiei kontu egin nahiak hartzen zizkion bere ordu guztiak eta arreta guztia.

Alargun geratu zen, seme batekin. Miresmen handia jasotzen duten mundu asko duten ema-

kumeen hurrek ohi dutena bezalako hezkuntza izan zuen harenak ere. Maite zuen, ordea.

Mutikoa hazi zen; eta ama zahartzen hasi zen. Krisialdi ondorio txarrekoa iristen ikusi zuen, ez dakit. Beste askok bezala igaro ote zituen hark ere orduak eta orduak, behinola hain fina, hain gardena eta hain argia izandako azala betazpian zertxobait zimurtzen nola hasten den, oraindik ere antzematen ez diren baina egunetik egunera, hilabetetik hilabetera gehiago eta gehiago sakonduz joango diren mila marratxotan izurtzen nola hasten den begiratzen? Eta ikusi al zituen bekokiko zimur luzeak, ezerk gelditzen ez dituen suge mehe horiek, geldiro baina etengabe hazten eta hazten? Pairatu ote zuen hark ere ispiluaren tortura, zilarrezko kirtendun ispilutxoaren tortura nardagarria, mahai gainean utzi nahi eta ezina, amorrus jaurti eta berehalaxe berriro hartzen dena, gertutik ikusteko, gertuagotik ikusteko, geroz eta hurbilago datorren zahartzaroak eragiten duen hondamen gorrotagarri lasaia? Gertatu al zitzaion hari ere egun berean hamar aldiz, hogeit aldiz ere, ezkutatzea, lagunak solasean ari diren egongelatik inolako

arrazoirik gabe alde eginik, bere gelan, eta sarrailen eta morroiloen babespean, zimeltzen ari den haragi helduaren higoalana begiratzeko, oraindik ere inork, itxuraz, ez dakien baina berak, berak hain ongi ezagutzen duen gaitzak egindako aurreramendu arina etsimenez frogatzeko. Badaki non diren adinaren erasorik makurrenak, hozkadarik sakonenak. Eta ispiluak, zilar zizelatuzko koadroko ispilutxo biribilak, gauzarik makurrenak esaten dizkio, zeren hitz egiten baitu, barre egiten duela baitirudi, iseka egiten dio, eta argi esaten zer datorkion, zer miseriak gorputzean, eta zer oinaze ankerrak bere gogotetan, heriotzako eguna arte, huraxe izango baita, izan ere, askatasunaren eguna.

Egin ote du negar, burua nahasirik, eta belauniko, bekokia lurreraino makurturik, otoitz egin ote dio zahartzaroa gogorrago izan dezaten baizik gaztetasuna ematen ez dien Hari, berehalaxe kentzeko baizik edertasuna ematen ez dien Hari; egin ote dio otoitz, erregutu ote dio, beste inorentzat egin ez duena beretzat egin dezan, xarma, freskotasuna eta grazia azkeneko eguna arte utz diezaion alegia? Gero, urteei, bata bes-

tearen atzetik, bultza egiten dien Ezezagun gupidagabeari alferrik otoika eskatzen diola oharturik, erori al da, besoak bihurrituz, gelako tapizean, jo al ditu bekokiaz altzariak, bere eztarrian etsimenezko oihu lazgarriei ezin eutsirik?

Dudarik ez da horrelako torturak sufritu izan dituela. Zeren hona zer gertatu zen:

Egun batean (hogeita hamabost urte zituen orduan) bere hamabost urteko semea gaixotu egin zitzaion.

Gaixotasuna nondik zetorkion eta zer eratakoa zen oraindik ziur erabaki gabe oheratu zen.

Apaiz batek, bere irakasleak, zaintzen zuen, eta ia-ia ez zuen alde egiten ere; Mme Hermet, berriz, goizean eta gauean azaltzen zen berrien galdetzera.

Goizean, gauerako etxeko soinekoz jantzirik sartzen zen, irribarrez, ordurako usain gozoz urrindua, eta atetik galdetzen zuen:

— Zer, Georges, hobeto gabilitza?

Mutikoteak, gorri-gorri, aurpegia handiturik, eta sukarrak erre beharrean, erantzuten zion:

— Bai, amatxo, hobetoxe.

Ama unetxo batez gelan geratzen zen, droga botilei begira, eta ezpain muturrez aldiro «uf!» eginez, eta gero bat-batean hasten zen: «Ai! la ahaztu nuen presa handiko gauza bat», eta laster bai laster bazterrak husten zituen, igarotako lekuan garbitzen erabilitako usain gozoko arrasto bat utziz.

Gauean lepo hutseko jantzitan agertzen zen, goizean baino ere presatiago, norabaiteko berandu baitzen beti; eta galdera egiteko astia baizik ez zuen:

— Eta, zer esan du sendagileak?

Apaizak erantzuten zuen:

— Oraindik ez dute erabaki, Madame.

Gau batean, ordea, abadeak erantzun zuen:

— Madame, zure semeak baztanga du.

Amak beldur oihu bat bota eta ihes egin zuen.

Biharamun goizean gelaria sartu zenean, azukre errearen usain handia sentitu zuen lehenik gelan, eta begi handiak zabal-zabalik, aurpegia lo faltaz zurbil, eta estutasunez dardaraka aurkitu zuen emakumea bere ohean.

Leihatilak zabaldu zituenerako, galdezka zen Mme Hermet.

— Zer moduz dago Georges?

— Ai! bada ez oso ondo gaur, Madame.

Eguerdia arte ez zen jaiki, bi arrautza jan zituen, katilu bete terekin, gaixorik bera balego bezala, eta gero irten eta baztangaz ez kutsatze-ko nola jokatu behar zen galdetu zion farmazialari bati.

Afaltzeko ordurako ozta-ozta itzuli zen etxera, botilatxoaz karga-karga eginik, eta zuzen-zuzenean bere gelara sarturik, desinfektagarritz blai egin zen.

Apaiza jangelan zegoen zain.

Andrea ikusi al zuen, emozioz betetako ahots batez hasi zitzaion:

— Eta?

— Ai! Onik ez. Sendagilea kezkatuta dago oso.

Andrea negarrez hasi zen, eta ezin izan zuen ezer jan, hainbestearinoxe baitzegoen asaldatua.

Biharamun goizean goizetik eskatu zituen berriak; ez ziren hobeak izan, eta gelan eman

zuen egun osoa, sutontzitxo batzuetatik, ketan, usain bortitzak zeriela. Gelariak zioenez, gainera, arratsalde osoan zotinka entzuten omen zitzaion.

Aste oso bat igaro zen horrela, andrea, arratsalde erditsuan-edo, aire pixka bat hartzeko ordu bete, bi ordu baizik ateratzen ez zela.

Ordu oro eskatzen zuen orain semearen berri, eta negar zotinka hasten zen berri txarra-goak zirenean.

Hamaikagarren egunean, goizean, apaizak, ikusi nahi zuela adierazirik, aurpegia serio eta zurbil zuela sartu zen, eta andreak eskaintzen zion aulkian eseri gabe esan zion:

— Madame, zure semea oso gaizki dago, eta ikusi egin nahi zaitu.

Bertan belaunikatuz, esan zuen:

— Ai, Jaungoikoa! Jaungoikoa! Ez naiz ausartuko! Jaungoikoa! Jaungoikoa! Lagun zakizkit!

Apaiza berriro hasi zen:

— Sendagileak itxaropen urria du, Madame, eta Georges zain duzu!

Eta irten egin zen.

Bi orduren buruan, mutila hiltzen ari zela oharturik, berriro amaren galdez hasi zenez, apaiza harengana joan eta belauniko aurkitu zuen oraindik, negarrez, eta behin eta berriro errepikatzen:

— Ez dut nahi... ez dut nahi... Beldur handiegia dut... ezin dut...

Ahaleginak egin zituen erabakia hartzen laguntzen, adorea ematen, semearengana eramaten. Nerbio erasoaldi luze bat eman eta oihuka hastea baizik ez zuen lortu.

Sendagilea ilunabarrean berriro etorri zenean amaren koldarkeria haren berri eman ziotelarik, nahi ala nahi ez eramango zuela esan zuen. Baina arrazoi guztiak eman eta alfer-alferrik zenez, gerritik heldu eta semearen ondora zera-mala, ateari heldu zion eta halako indarrez heldu ere, non ezin izan baitzuen handik askatu. Gero, sendagileak askatu zuenean, haren oinetan belaunikatu zen, barkazio eske, dohakabe bat zelako erruki eske. Eta oihuka esaten zuen:

— Ez da hilko, esaidazu ez dela hilko, mesedez, esaiozu maite dudala, adoratzeko dudala, esaiozue mesedez...

Mutila agonian zegoen. Azkeneko unea zuela oharturik, amari agur esateko etortzeko ekar zezatela erregutu zuen. Hilzorian direnek batzuetan izaten duten iragarmen-edo horrez, dena ulertu zuen, dena asmatu zuen, eta esaten zuen:

— Sartzen ausartzen ez bada, erregutu iezaiozue behintzat etor dadila balkoitik nire leihora, ikus dezadan behintzat, begirada batez agur esan ahal diezaiodan, besarkatu ezin dudanez gero.

Sendagilea eta apaiza berriro joan ziren andre honengana:

— Ez duzu arriskurik —esaten zioten—, beira egongo baita zure eta haren artean.

Hori onartu zuen, burua estali zuen, hartu zuen gatz ontzi bat, egin zituen hiru pauso balkoian, eta bat-batean, aurpegia esku artean ezkutaturik, zotinka hasi zen:

— Ez... ez... ez naiz ausartuko ikusten... ez... inoiz ez... beldur handiegia diot... ez, ezin dut.

Arrastaka eraman nahi izan zuten, baina burdinei heltzen zien eta halako oihuak egiten

zituen, non kaleko ibiltariak burua jaso eta begira geratzen baitziren.

Eta hilzorian zegoena zain zegoen, begiak leiho hartarantz begira, zain zegoen, hiltzeko, bere amaren aurpegi gozo maitagarria, bere amaren aurpegi sakratua, azkenekoz noiz ikusiko.

Luzaro egon zen zain, eta gaua iritsi zen. Orduan hormara begira jarri zen, eta ez zuen hitzik gehiago esan.

Eguna argitu zuenean, hilik zegoen. Biharamunean erotuta zegoen ama.

(1887ko urtarrilaren 18an)

Hildako andrea

Eromeneraino maite izan nuen! Zergatik maitatzen dugu? Harritzekoa al da mundu honetan izaki bat baizik ez ikustea, gogoan pentsamendu bat baizik ez izatea, bihotzean desira bat baizik ez, eta hitz bat baizik ez ahoan: etengabe goraka datorren izen bat, iturri bateko ura nola, ari-maren barren-barrenetik igotzen dena, ezpaine-taraino igotzen dena, esan eta berriro esaten dena, gelditu gabe murmuriatzen dena, alde guztietan, otoitz bat bailitzan.

Ez dut kontatuko gure historia. Maitasunak bat besterik ez du, beti bera. Topatu eta maitatu egin nuen. Horra dena. Urte betez bizi izan nintzen haren samurtasunean, haren besoetan, haren laztanetan, haren begiradan, haren jantzetan, haren hitzetan, harengandik zetorren guztian bildurik, loturik, kartzelaturik, hain erabat, hala ere, non ez bainekien egunez zen ala gau, hilik nintzen ala bizirik, lur zahar honetan ala beste nonbait.

Eta horra non hil zen. Nola? Ez dakit, ez baitakit.

Bustirik itzuli zen, euri gau batez, eta biharamunean eztulka zen. Astebete-edo egin zuen eztulka, eta oheratu egin zen.

Zer gertatu zen? Ez baitakit.

Etortzen ziren medikuak, idazten zuten, joaten ziren. Ekartzen ziren sendagaiak; emakume batek edanarazten zizkion. Eskuak bero zituen, bekokia erretzen eta bustirik, begirada distiratsua eta triste. Hitz egiten nion, ez zidan erantzuten. Zer esan genion elkarri? Ez dakit. Ahaztua dut den-dena, dena! Hil egin zen, oso gogotan dut haren hats arina, haren hats arin hain ahula, azkena.

Zaintzaileak «Ai!» esan zuen. Horrekin ulertu nuen, horrekin ulertu nuen! Ez nuen besterik jakin. Ezer ere ez. Apaiz bat ikusi nuen, hitz hau esanez: «Zure maitalea». Irainka ari zitzaiola iruditu zitzaidan. Hilda zegoenez, inork ez zuen hori jakiteko eskubiderik. Kanpora bota nuen. Beste bat etorri zen, eta oso ona izan zen, oso goxoa. Negar egin nuen hilaz hitz egin zidanean.

Mila gauza galdetu zidaten hiletetarako. Ez dakit.

Zerraldoaz, berriz, oso ondo gogoratzen naiz, barruan iltzatu zuteneko mailukaden hotsak. Ai! ene Jainkoa!

Lurperatu egin zuten! Lurperatu! Hura! Zulo hartan! Batzuk etorriak ziren, lagunak. Nik ihes egin nuen. Lasterka.

Luzaro ibili nintzen kaleetan zehar. Gero etxera itzuli nintzen.

Biharamunean bidaia baterako abiatu nintzen.

Atzo, Parisa itzuli naiz berriro.

Berriro ikusi nuenean nire gela, gure gela, gure ohea, gure altzariak, bat hil denean haren heriotzaren ondoren haren bizitzatik geratzen den guztia geratua zen etxe hau guztia berriro ikusi nuenean, hainbestearainoko tristura kolpeak hartu ninduen berriro, non hutsa behar bainuen leihoa zabaldu eta nire burua kalera botatzeko. Gauza hauen artean ezin gehiago egonik, ezin egonik hura eduki zuten, hura babestu zuten eta beren zirrikitu antzeman ezinetan haren mila

atomo, haren haragiaren eta arnasaren mila atomo gorderik izan behar zituzten horma hauen artean, kapela hartu nuen, alde egiteko. Bat-batean, ordea, atera iristeko unean, hark egunero, irteerakoan, ondo jantzirik ote zegoen, botinetatik orrazkeraraino behar bezala eta polit zihoan begiratzeko burutik oinera osorik ikusteko han jarrarazia zuen sarrerako ispilu handiaren aurretik igaro nintzen.

Eta seko gelditu nintzen hura hainbeste bider islatua zuen ispilu horren aurrean. Hainbeste bider, hainbeste bider, non haren irudia ere gordea baitzukeen.

Hantxe nengoen, zutik, dardaraz, begiak finko beiran, beira lau, sakon, huts, baina hura oso-osorik edukian, hura nik adina, nire begirada grinatuak adina beretua zuen hartan. Ispilu hori maite nuela iruditu zitzaidan — ukitu nuen, — hotza zegoen! Ai! oroimena! oroimena! ispilu samin, ispilu erre, ispilu bizi, ispilu izugarria, estura guztiak sufriarazten dituen! Zorionekoak bihotzak, isla ispiluan irristatu eta ezabatzen den bezala, barnean izan duen guztia, aurretik igaro zaion guztia, haren samurtasunean, haren mai-

tasunean begiratu, miretsi izan den guztia, ahazten dienak! Hau nire sufrimendua!

Irten, eta nire gogoz kontra, ohartu gabe, nahi gabe, hilerrirantz joan nintzen. Haren hilobi guztiz soila aurkitu nuen, marmolezko gurutze bat, hitz gutxiokin: «Maitatu zuen, maitatua izan zen, eta hil zen».

Han zegoen, han azpian, ustelduta! Zer izugarrikeria! Negar zotinka hasi nintzen, bekokia lurraren kontra nuela.

Luzaro geratu nintzen han, luzaro. Gero, horretan, gaua zetorrela ohartu nintzen. Desira bitxi, ero, maitale etsiaren desira bat jabetu zitzaidan orduan. Gaua haren ondoan igaro nahi nuen, azkeneko gaua, haren hilobiaren gainean negar egiteko. Ikusi egingo ninduten, ordea, kanpora egotziko ninduten. Nola egin?

Maltzur jokatu nuen. Jaiki eta hara-hona hasi nintzen joandakoen herri hartan. Ibili eta ibili egin nuen. Zein den ttikia hiri hau, bestearen aldean, bizitzen denaren aldean! Izan, ordea, gehiago dira biziak baino, hilok. Etxe garaiak, kaleak, horrenbeste leku behar dugu, eguna ikusi, iturrietako ura, mahastietako ardoa edan

eta zabaldietako ogia janaldi berean egiten dugun lau belaunaldiontzat.

Eta hildakoen belaunaldi guztientzat, gureganaino jaitsi den gizadiaren mailadi osoarentzat, ia ezer ez, alor bat, ezer ez ia! Lurrak hartzen ditu berriro, ahazturak ezabatzen ditu. Agur!

Erabiltzen zen hilerriaren muturrean, utzita zegoen hilerria ikusi nuen bat-batean, hildako zaharrak lurrarekin erabat nahasten direna, gurutzeak ere usteltzen direna, bihar azkeneko iritsiak jarriko direna. Arrosa librez, altzifre azkar beltzez betea dago, lorategi triste bikaina, giza haragiz bazkatua.

Bakarrik nengoen, ondo bakarrik. Zuhaitz berde batean kuzkurtu nintzen. Oso-osorik ezkutatatu nintzen han, adar lodi ilunen artean.

Eta zain geratu nintzen, enborrhari atxi-atxikirik, itsasoan galdua ontzi kondar bati bezala.

Gaua beltz, oso beltz bihurtu zenean, nire babesa utzi eta emeki-emeki ibiltzen hasi nintzen, urrats geldiz, urrats sorrez, lur hildakoz bete haren gainean.

Luzaro ibili nintzen hara-hona, luzaro, luzaro. Ez nuen aurkitzen. Besoak luzaturik, begiak zabalik, eskuez, oinez, belaunez, bularraz, buruz ere, hilobiak joz bila eta bila nindoan, aurkitzen ez nuela. Ukitzen nuen, bere bidearen bila ari den itsuaren antzera haztatzen nuen, harriak, gurutzeak, burdinazko kateak, beirazko koroak, lore zimelduzko koroak ukitzen nituen! Hatzez irakurtzen nituen izenak, hizkien gainetik igaroz. Hura gaua! Hura gaua! Ez nuen aurkitzen!

Ilargirik ez! Hura gaua! Beldur nuen, beldur ikaragarria bi hilobi ilararen arteko bidezidor estu haietan! Hilobiak! hilobiak! hilobiak. Hilobiak beti! Eskuinean, ezkerrean, aurrean, inguruan, alde guztietan, hilobiak! Baten gainean eseri nintzen, ezin bainuen ibiltzen jarraitu, hainbestearaino bihurtzen baitzitzaizkidan belaunak. Bihotzaren taupadak entzuten nituen! Eta beste gauza bat ere entzuten nuen! Zer? Hots nahasi izendaezin bat! Nire buru erotuan ote zen, gau barrendu ezinean, ala lurrazpi misteriozko hartan, giza gorpuz ereindako lurrazpi hartan, hots hura? Inguruan begira ari nintzen!

Zenbat denbora egon nintzen han? Ez dakit. Izumenak gogorturik nengoen, ikararen ikaraz mozkorturik, oihuka hasteko prest, hiltzeko prest.

Eta horretan, eserita nengoen marmolezko lauza mugitzen hasi zela iruditu zitzaidan. Hori xe, mugitzen ari zen, jaso izan balute bezala. Jauzi batez ondoko hilobirantz egin nuen, eta alde egin berria nintzen harria nola zutitzen zen ikusi nuen; eta hildakoa agertu zen, hezurdura soil bat, bere bizkar okertuaz harria kentzen. Ikusten ari nintzen, oso ongi ikusten, gaua sako na bazen ere. Gurutzean irakurri ahal izan nuen: «Hemen datza Jacques Olivant, berrogeita hamaika urte zituela hila. Maite zituen bereak, gizon zintzoa eta onezkoa izan zen, eta Jaunaren bakean hil zen».

Orain bere hilobi gainean idatzita zeuden gauzak irakurtzen ari zen hildakoa ere. Gero harri bat hartu zuen bidetik, harritxo zorrotz bat, eta kontu handiz hasi zen gauza haiek karrakatzten. Erabat ezabatu zituen, astiro, bere begi hustuez ordu arte grabatuta egonak ziren lekua-ri begira; eta bere eri erakuslea izandako hezur

muturraz pospolo mutur batez hormetan idazten diren argizko marra horiek bezalako hizkiz idatzi zuen:

«Hemen datza Jacques Olivant, berrogeita hamaika urte zituela hila. Bere gogorkeriez bere aitaren heriotza bizkortu zuen, haren herentzia jaso nahiz, emaztea torturatu zuen, hurrei sufriarazi zien, auzoak tronpatu zituen, ahal zuen guztia ostu zuen, eta miserian hil zen».

Idaztea bukatu zuenean, bere lanari begira geratu zen geldirik hildakoa. Eta atzera itzulirik, hilobi guztiak zabalik zeudela ohartu nintzen, gorpu guztiak irtenak zirela, ahaideek hilobiko harrian idatzitako gezurrak ezabatuak zituztela denek, han egia jartzeko.

Eta haiek guztiak beren ahaideen borrhoro izan zirela ikusten nuen, denak gorroto zaleak, makurrak, hipokritak, gezurtiak, maltzurak, inoren izenaren maiseatzaile, bekaizti, lapur, iruzurti, lotsagarrikeria guztiak eginak zituztela, izugarrikeria guztiak eginak zituztela guraso on haiek, emazte zintzo haiek, seme jator haiek, alaba garbi haiek, merkataria neurrizko haiek, gizon eta emakume akats gabeko omen haiek.

Denak ari ziren batera idazten, beren betiereko egoitzaren ataurrean mundu honetan inork ez dakien edo ezjakin itxurak egiten dituen egia anker, izugarri, santua.

Eta nireak ere bere hilobian halaxe idatzia zukeela bururatu zitzaidan.

Eta orain jada batere beldurrik gabe, zerraldo erdi irekien artean, hildakoen gorpuen artean, hezur artean ibiliz, haren bila nindoan, berehalaxe aurkituko nuela ziur.

Urrutitik ezagutu nuen, aurpegi hil oihalez estalia ikusi gabe.

Eta lehen «Maitatu zuen, maitatua izan zen, eta hil zen» zekarren lekuan, honela zekarren orain: «Egun batez bere maitalea engainatzeko asmoz irtenik, euritan hoztu zen, eta hil egin zen».

Itxura denez, hurrengo goizean jaso ninduten, sena galdua, hilobi baten ondoan.

(1887ko maiatzaren 31an)

Gaua

Amesgaiztoa

Irrika biaz maite dut gaua. Nork bere herria edo maitalea maitatzen duen bezalaxe maite dut, oldezko maitasun sakon menderaezin batez. Nire zentzu guztiez maite dut, begiez, haiek baitute ikusten, usaimenaz, hark usaintzen baitu, belarriez, haiek entzuten baitute haren isiltasuna, nire haragi guztiaz, ilunpeak laztantzen baititu. Enarak eguzkitan, goiz argietako aire urdinean, aire beroan, aire arinean kantatzen du. Mozoloak gauean zehar ihes dagi, orban beltz espazio beltzean ibiltari, eta iluntasun mugagabeak gozaturik, horditurik, bere oihu ozen erdiragarria jaurtitzen du.

Egunak nekatu eta aspertu egiten nau. Zakarra da, eta zaratatsua. Nekez jaikitzen naiz, nagi janzten, damuz naiz irteten, eta pauso bakoitzak, mugimendu bakoitzak, keinu bakoitzak, hitz bakoitzak, pentsamendu bakoitzak karga lehergarri bat jasotzen ari banintz bezalaxe unatzen nau.

Eguzkia beheratzen denean ordea, halako poz lauso batek, nire gorputz osoaren poz batek hartzen nau. Esnatu egiten naiz, piztu egiten naiz. Itzala handituz doan heinean, oso bestelako sentitzen naiz neu ere, gazteago, kementsuago, erneago, zoriontsuago. Loditzen-loditzen ikusten dut zerutik erortzen den itzal ilun handia: ezin atxikizko, ezin barneratuzko uhin bat bailitzan itotzen du hiria, ezkututzen du, koloreak, formak ezabatzen ditu, besarkatzen ditu bere sumaezinezko ukituaz etxeak, pertsonak, monumentuak.

Hontzak bezala gozamenaren gozamenez oihuka hasteko gogoa izaten dut orduan, katuak bezala teilatuz teilatu ibiltzekoa, eta maitatzeko desira gaindi ezin bat pizten zait zainetan.

Ibiltzera joaten naiz, nahiz errebal ilunetan, nahiz Paris inguruko basoetan, eta han entzuten ditut zelatari nire arreba piztiak eta nire anaia ezkutuko ehiztariak.

Oldez maite den guztiak hil egiten zaitu azkenean. Nola azaldu ordea zer ari zaidan gertatzen? Nola ulertarazi konta dezakedala ere? Ez

dakit, ez dakit. Baina badakit horrelaxe dela. — Horra.

Atzo, beraz —atzo al zen?— bai, inondik ere, lehenago ez bazen behintzat, beste egun batean, beste hilabete batean, beste urte batean, — ez dakit. Atzo bide zen, nolana ere, eguzkia ez baita atera, ez baitu eguna argitu, ez baita eguzkia gehiago azaldu. Baina noiztik dirau gauak? Noiztik?... Nork esango du? nork jakingo du inoiz?

Atzo, bada, arratsero ohi dudan bezala atera nintzen, afal ondoren. Oso eguraldi ona zegoen, oso gozoa, oso beroa. Eta bulebarretarantz jais-ten ari nintzela, kaleko teilatuek nire gainean zeruan ebakitzen zuten ibai beltz izarrez beteari begira nengoen, egiazko ibai batek bezalaxe birarazten eta mugitzen baitzuen argizagien erreka ibiltari hark.

Dena garbi zegoen aire arinean, planetetatik hasi eta gas muturretaraino, dena. Hainbeste argi zegoen piztuta zeru goian eta hirian, non ilunpea ere argi iruditzen baitzitzaidan. Gau argitsuak pozgarriago dira eguzki beteko egunak berak baino.

Bulebarrean kafetegiak distiratan zeuden; barrez, paseatzen, edaten ari zen jendea. Antzokian sartu nintzen une batez; zein antzokitan? ez dakit. Hain argi zegoen, non tristatu egin baininduen, eta bihotza goibel samar atera nintzen galeriako urreetako argi talka bortitzagatik, kristalezko argi armiarmaren distira artifizialagatik, barandako suzko hesiagatik, argitasun faltsu gordin haren malenkoniagatik. Champs-Élysées-etara itzuli nintzen; kontzertu kafetegiek su guneak ematen zuten orbelpen. Gaztainondoek pintatuak ziruditen, argi horiak igurtzirik, zuhaitz fosforeszenteak bailiran. Eta elektrizitatezko lanpek, ilargi distiratsu zurbilen gisan, edota ilargiaren arrautzak bailiran zerutik erorita, perla erraldoiak nola, bizi-bizi, zurbil bihurtzen zituzten, beren argi nakaratu, misteriozko eta erregetiarraren pean, gas sareak, gas zikin gaiztozkoak, eta kolorezko kristalezko lore-sortak.

Garaipen arkuaren azpian gelditu nintzen, ibilbide hura, ibilbide luze, zoragarri, izarrez betea, suzko bi lerroren artean Paris aldera nola zihoan ikusteko, eta argizagiak! Argizagiak han goian, argizagi ezezagunak, espazio zabal muga-

gabean aliritzira jaurtitako argizagi ezezagun haiek, hainbeste amets, hainbeste gogoeta eragiten duten irudi bitxi horiek marrazten.

Boulogneko Basoan sartu eta luze, luze egon nintzen. Zirrara berezi batek hartua ninduen, ustekabeko emozio indar handiko batek, eromena izateko askorik behar ez zuen pentsamendua-ren bizkorraldi batek hartua.

Luzaro, luzaro ibili nintzen. Eta gero atzera itzuli nintzen.

Zer ordu zen berriro Garaipen Arkuaren azpitik igaro nintzenean? Ez dakit. Hiria loak hartzen ari zen, eta hodeiak, hodei beltz lodiak ari ziren zeruan zehar geldiro hedatzen.

Orduantxe sentitu nuen lehendabiziko aldiz gauza bakanen bat, gauza berriren bat, gertatu behar zitzaidala. Hotz egiten zuela iruditu zitzaidan, airea loditzen ari zela, gaua, nire gau maitea, astuntzen ari zela nire bihotzean. Ibilbidea hutsik zegoen orain, bi udaltzain baizik ez ziren, zalgurdien geltokian hara-hona, eta hiltzear ziruditen gas lanpek ozta-ozta argitzen zuten kalean barazki eramaileen gurdi errenkada luze bat zihoan Halles-etara. Geldiro-geldiro zihoazen,

azenarioz, arbiz eta azaz beterik. Gidariak lotan zeuden, ikusezin, zaldiek pauso bera zuten beti, aurreko gurdiari jarraituz, zaratarik gabe, zurezko zoruan zehar. Espaloiko argi bakoitzaren aurretik igarotzean, azenarioak gorritz argitzen ziren, arbiak zuriz, azak berdez, eta elkarren segidan igarotzen ziren gurdi gorri haiek guztiak, suzko gorritz, zilarrezko zuriz, esmeraldazko berdez. Jarraitu egin nien, gero rue Royaletik biratu nintzen eta bulebarretara itzuli nintzen berriro. Ez zegoen inor, ez kafetegi argiturik, beranduturren bat edo beste, presaka. Inoiz ez dut ikusi Paris horren hilik, horren hutsik. Ordularia atera nuen. Ordu biak ziren.

Ibili beharrak bultzatuta bezala nindoan. Bastillaraino joan nintzen, beraz. Hara iritsita, hura bezain gau ilunik inoiz ez nuela ezagutu ohartu nintzen, Uztaileko Koloma bera ere ez bainuen ikusten, eta haren urrezko jeinua iluntasun barenerezinean galdurik baitzegoen. Lainozko ganga espazioa bezain lodi batek itoak zituen izar guztiak, eta bazirudien lurrera jaisten ari zela, erabat deusezteko hura ere.

Lehengo bidetik itzuli nintzen. Inguru guztian ez zegoen inor. Chateau-d'Eau-ko plazan, hala ere, ia-ia topoz topo jo ninduen mozkor batek, eta han nonbait galdu zen. Denbora pixka batez haren urrats koloka zaratatsuak entzun nituen. Montmartreko faubourg aldean zalgurdi bat igaro zen, Sena alderantz. Deitu nion. Zamaltzainak ez zidan erantzun. Drouot kale inguruan emakume bat zebilen:

— Jauna, entzun.

Pausoa arindu nuen hark luzatzen zidan eskuari ihes egiteko. Gero ezer ez. Vaudeville aurrean trapu biltzaile bat espaloi bazterrak miatzen. Haren linternatxoa zoru ondo-ondoan zebilen.

— Zer ordu dugu, adiskidea? —galdetu nion.

— Nik al dakit! Erlojurik ez dut! —jaurti zidan purrustaka.

Bat-batean ohartu nintzen gas argiak itzalita zeudela. Badakit goiz itzaltzen dituztena, eguna argitu aurretik, urtaro honetan; baina eguna argitzea urruti zegoen oraindik, oso urruti!

«Ea, noan Halles-etara —pentsatu nuen—, han behintzat bizi arrastoren bat izango da eta».

Eta harantz abiatu nintzen, baina ibiltzeko lain ere ez nuen ikusten. Geldiro nindoan, basoan ibili ohi den bezala, kaleak kontatuz eta zein ziren gogoratuz.

Crédit Lyonnais aurrean zakur batek zaunka egin zuen. Grammont kaletik hartu nuen, galdu egin nintzen; noraezean ibili nintzen puska batean, gero, inguruan duen burdin hesiagatik, Burtsa ezagutu nuen. Paris lotan zegoen oso osorik, lo sakon, beldurgarri batean. Urrutiko lekuren batean, hala ere, zalgurdi bat zebilen, bat bakarra, lehentxo nire aurretik igaroa agian. Hura harrapatzen ahalegindu nintzen, haren gurpilen hotsa zetorren aldera jarraituz, kale bakar-ti beltz, beltzetan, heriotza bezain beltzetan zehar.

Berriro galdu nintzen. Non ote nengoen? Nori bururatzen zaio gas argiak horren goiz itzaltzea! Ezta oinezko bat ere, ezta berandutu bat ere, ez zelatari bat, ez ogara dagoen katuaren miaurik. Ezer ez.

Non zeuden bada udaltzainak? Nire artean pentsatu nuen: «Oihu egingo diet, eta azalduko dira». Oihu egin nuen. Inork ez zidan erantzun.

Oso ozen ari nintzen deika. Nire ahotsa oihartzunik gabe joan zen hegan, ahul, gauak, gau barrenduezin hark, itoa, mazpildua.

Garrasika hasi nintzen:

— Lagundu! lagundu! lagundu!

Nire dei etsigarriak ez zuen erantzunik izan. Zer ordu zen, bada? Atera nuen ordularia, baina pospolorik ez nuen. Ezagutzen ez nuen bezalako poz harrigarri batez entzun nuen haren mekanika xumearen tik-tak hotsa. Bazirudien bizirik zela. Ez nengoen horren bakarrik. Hura misterioa! Berriro ekin nion bideari, itsuaren gisan, hormak makilaren puntaz ukituz, eta une oro begiak zerurantz jasotzen nituen, eguna noiz argituko; zerua beltz zegoen ordea, dena beltz, hiria bera baino ere beltzago.

Zer ordu ote zen? Denbora infinitua neraman oinez —hala iruditzen zitzaidan—, hankak makurtu egiten baitzitzaizkidan nire soinaren pisuaren azpian, bularrak taupadak jotzen zizkidan, eta sekulako gosea nuen.

Topatzen nuen lehenengo kotxe sarreran txilina joko nuela erabaki nuen. Kobrezko botoiari tira egin nion, eta txilina jo zuen etxe ozenean;

modu berezian jo zuen, etxean hots ozen hura baizik ez balego bezala.

Zain egon nintzen, ez zuten erantzun, ez zuten atea zabaldu. Berriro jo nuen; berriro egon nintzen zain, —ezer ez!

Beldurtu egin nintzen! hurrengo etxebizitzara joan nintzen lasterka, eta hogeai aldiz jo nuen txilina atezainak lotan egon beharko zukeen pasabide ilunean. Baina ez zen esnatu, eta aurrerago jarraitu nuen, ateetako eraztunetatik edo botoietatik nire indar guztiaz tiraka, zabaldu nahi ez zuten ate haiek ostikoz, makilaz, eskuez kolpatuz.

Eta usterik gutxienean Halles-etara iristen ari nintzela ohartu nintzen. Halles-ak mortu zeuden, ez zaratarik, ez mugimendurik, ez kotxerik, ez gizonik, ez barazki eskutada bat, ez lore bat. Hutsik, geldi, abandonaturik, hilik!

Ikaragarrizko beldur batek hartu ninduen osorik. Zer ari zen gertatzen? Ai, Jaungoikoa, zer ari zen gertatzen?

Alde egin nuen handik. Ordua, ordea? ordua? nork esango zidan ordua? Ordulari batek ere ez zuen ordurik ematen kanpandorreetan ez monu-

mentuetan. «Nire ordulariaren beira zabalduko dut, eta hatzez haztatuko dut orratza», pentsatu nuen. Atera nuen ordularia... baina ez zuen tau-padarik jotzen... geldirik zegoen. Ezer ez, ezer ez, ikara bat ere ez hiri osoan, argitxo bat ere ez, haizearen igurtzitxo bat ere ez. Ezer ez!, ezer ez! zalgurdiaren burrunba urruna bera ere ez, ezer ez!

Ibai ertzeko kaietan nengoen, eta izotz giroa zetorren ibaitik.

Sena ibaia, ba ote zihoan oraindik?

Horixe jakin nahi izan nuen, eskailera topatu nuen, jaitsi nintzen... Ez nuen entzuten ibaiko ura zubiko arkupean borborka... Eskailera maila gehiago... gero hondarra... lokatza... gero ura... besoa busti nuen... bazebilen... bazihoan... hotz... hotz... hotz... ia izozturik... ia agorturik... ia hilik.

Eta ongi konturatzen nintzen ez nuela berriro gora igotzeko indarririk izango... eta hantxe hilko nintzela... ni ere, gosez — nekez — eta hotzez.

(1887ko ekainaren 14an)

Erretratu bat

— To, Milial! —esan zuen norbaitek inguruan.

Seinalatzen zutenari begiratu nion, aspalditik bainuen Don Juan hura ezagutzeko gogoia.

Ez zen gaztea dagoeneko. Haren ile grisak, halako gris uher batekoak, ipar herri batzuetako biztanleak erabiltzen dituzten ilezko kapeluen antza-edo zuen, eta haren bizar aski luzeak ere larruzko berokiaren itxura-edo zuen, paparrean behera erortzen zitzaiola. Emakume batekin ari zen hizketan, harenganantz makurturik, ahots apalez, begi gozo, gorazarrez eta laztanez bete batez begiratzen ziola.

Banekien haren bizitzaren berri, edo haren bizitzatik ezagutzen zena behinik behin. Maitasun suharrak izana zen, behin baino gehiagotan; eta drama bat baino gehiago gertatu zen, haren izena tartean zena. Oso gizon erakargarriaren ospea zuen, ia ezetzik eman ezinezkoa. Hura gehien goraipatzen zuten emakumeei ahalmen hori nondik zuen jakin nahiz galdetzen nienean,

gauza bera erantzuten zuten beti, une batez bila ahalegindu ondoren:

— Ez dakit... xarma du.

Egia esan, ederra ez zen. Ez zuen emakumeen bihotzaren jabe egiten direnek omen dituzten dotorezia horietatik bat ere. Interes handiz galdetzen nion neure buruari ea non gordetzen ote zuen bere liluramen hura. Hitz egiteko gatzean?... Baina inoiz ez zidaten haren hitzik aipatu, edo haren sen berezirik goretsi... Begiradan?... Litekeena... Ala ahotsean?... Batzuen ahotsak badu halako guritasun berezi bat, jarki ezin zaiona, jateko gozoak diren gauzen ahogozoa. Horrelakoei entzuteko gosea izaten da, eta horrelakoen hitzak gutziak balira bezalaxe sartzten zaizkigu gorputzean.

Adiskide bat zegoen ondoan.

— Ezagutzen al duk Milial? —galdetu nion.

— Bai.

— Laguniezaguk, hortaz, elkarren ezaguera egiten.

Handik minutu batera elkarri bostekoa eman, eta bi ateran artean solasean ari ginen. Hark esaten zuena egia zen, entzuteko atsegina, gai-

nera, hortik goragoko gauzarik batere gabea. Ahotsa ere halaxe zuen, noski, ederra, gozoa, ferekagarria, musikazkoa; baina hura baino zirrargarriagoak, itsasgarriagoak entzunda nengoen ni. Atseginez entzuten zitzaion, iturri eder batean ur jarioari begira egon lekioken bezala. Arreta berezirik ez zen behar hari jarraitzeko, inolako ezkutuko esanahirik ez zerabilen, harrapatzen aritzeko, ez zuen entzulea jakin-zain edukiko, haren arreta pizteko. Bestela baizik, barea zen haren solasa, eta ez zizun pizten ez erantzuteko edo kontra egiteko gogo bizirik, ez onespen suharrik.

Hari entzutea bezain erraza zen, bestalde, ihardespena ematea ere. Berez etortzen zen erantzuna ezpainetara, hark solasa bukatu bezain laster, eta hark esandakoak berez ahotik irtenarazi balitu bezala joaten ziren atzera erantzuneko esaldiak.

Burutazio batek, ordea, harritu ninduen bat-batean. Ordu laurden bat izango zuen ezagutzen nuela, eta aspaldiko lagun zaharra iruditzen zitzaidan dagoeneko, aspalditik ezagutzen nuela

haren guztia: haren aurpegia, haren keinuak, haren ahotsa, haren ideiak.

Une batzuk berriketan eginik, guztiz etxe-etxeko egina zirudien bat-batean. Ate guztiak zabalik zeuden gure artean, eta, bestela neure buruaz lagunik zaharrenei baizik esaten ez dizkiedanak ere esango nizkiokeen, agian, hala eskatu izan balit.

Bazen hartan misterioaren bat, zinez. Pertsonen artean izaten diren hesi itxi horiek, begikotasunak, zaletasunetan antzeko izateak, kultura intelektual bera izateak, eta etengabeko harremanak izateak askatu dituztenean denborak banan-banan eramaten dituen hesi horiek, bazi-rudien bat bera ere ez zegoela gure artean, eta ezta hura eta halabeharrak haren bidean jartzen dituen, gizon zein emakume, gainerako guztien artean ere.

Ordu erdi baten buruan bereizi ginen elkarrengandik, sarri-sarri elkar ikusiko genuela agindurik; eta bere helbidea eman zidan, bihar-mun hurrengoan haren etxean bazkaltzeko gonbita eginik.

Ordua ahaztu bainuen, goizegi iritsi nintzen; hura itzuli gabe zen oraindik. Otsein duin mutu batek egongela eder, ilun samar, bildu, gozo baterako atea zabaldu zidan. Eroso sentitu nintzen han, neure etxean banengo bezala. Zenbaitetan ez ote dut gogoratu zer eragin duen bizilekuak jendearen izaeran eta moldetasunean! Gela batzuetan ergel sentitzen da bat beti; beste batzuetan, berriz, erne sentitzen zara beti. Batzuek tristatu egiten zaituzte, argiak, zuriak, urre kolorekoak izan arren; beste batzuek alaitu egiten zaituzte, kolore bareko zapiz tapizatuta egonda ere. Gure begiak baditu, bihotzak bezalaxe, bere gorrotoak eta bere samurtasunak, askotan ohartarazi ere ohartarazten ez dizkigunak, eta gure umoreari ezkutuki, sekretuan, ezartzen dizkionak. Altzarien harmoniak, hormoneak, gela janzten duten gauzen estiloak zuzenezuzenean eragiten du gure adimenaren izaeran, basoko aireak, itsasokoak edo mendikoak gure izaera fisikoa aldatzen duen bezalaxe.

Bigungarrien azpian desagerturik zegoen etzan-aulki batean eseri nintzen, eta lumazko gosnatxo sedaz jantzi horiek eusten, biltzen,

jasotzen nindutela iruditu zitzaidan, nire gorputzaren forma eta lekua altzari horretan lehendik markatuak baleude bezala.

Eta gero begira hasi nintzen. Ezer distira berezikorik ez zen gela hartan; gauza eder apalak alde guztietan, altzari soil bakanak, Louvretik ez baina harem batetik zetozeala areago ziruditen Sortaldeko errezelak, eta, nire aurrean, emakume baten erretratua. Ez handi ez txiki, tartekoa baizik; burua eta gorputzaren goiko aldea ageri ziren, eta liburu bat zuen eskuetan. Gaztea zen, buruhas, adats leunez orraztua, irribarre triste samar batez. Buruhas zegoelako ote zen, ala haren jarrera hain zelako berezkoa, baina inoiz ez zait iruditu izan hura gela hartan zegoen bezain bere giroan inon egon zitekeenik emakume baten erretratua. Nik ezagutu ditudanak itxurakeriaz eginak dira denak, dela andreak arrandiazko jantziak dituelako, edo ondo jotzen duen orrazkera berezia duelako, edo badakiela sumatzen zaiolako noren aurrean ari den jartzan, margolariaren aurrean lehendabizi, eta geroztik izango diren begirale guztien aurrean

gero, edota ondo-ondo aukeratutako etxeko jantzi batez jarrera nagi bat hartuta dagoelako.

Batzuk zutik, itzaltsu, edertasun bete-betean, beren eguneroko bizitzan luzaro mantendu ezin izan duten halako goitasun aire batez. Beste batzuek losintxa egiten dihardute, oihalaren gelditasunetik; eta denek dute zertxobait, lore bat, bitxi bat, arroparen toles bat, ezpain izur bat, margolariak deigarri jarria. Kapelua dutela, far-faila dutela, edo ilea besterik ez, baina berehalaxe antzematen zaie berezkoa ez duten zerbait. Zer? Ezin jakin, ez baititugu ezagutu, baina halaxe sumatzen da. Nonbait bisitan baleude bezala dirudite, norbaiti atsegin eman nahiz bezala, norbaiti beren alde onak baizik erakutsi nahi ez balizkiote bezala; eta oso ongi ikasia dute beren jarrera, batzuetan apala, beste batzuetan burgoia.

Zer esan, bada, hartaz? Bere etxean zegoen, noski, eta bakarrik gainera. Bai, bakarrik zegoen, bakarrik zaudela gauza triste gozoren bat gogoratzen zaizunean bezala egiten baitzuen irribarre, eta ez norbait begira duzunean irribarre egiten den bezala. Hain zegoen, gainera, bakarrik,

eta bere etxean, non hutsunea sortzen baitzuen bizileku handi hartan guztian, erabateko hutsunea. Bera zen biztanle, berak betetzen zuen, berak bakarrik bizitzen leku hura; sar zitekeen jendea ugari, eta aritu zitekeen jende hori guztia hizketan, barrez, kantuan ere; hura, ordea, bakar-bakarrik egongo zen beti, bere irribarre bakartiarekin, eta hark baizik ez zuen biziartziko gela hura, bere erretratuko irribarrearekin.

Besterik ez bezalakoa zuen, gainera, begirada ere. Zuzen-zuzenean zetorkidan, laztanez eta finko, ikusi ikusten ez ninduela. Erretratu guztiek dakite begiratzen diegula, eta begiez erantzuten digute, ikusteko gai diren begiez, pentsatzeko gai diren begiez, bizi diren gelan sartzen garenetik handik irteten gareneraino une batez ere galdu gabe jarraitzen diguten begiez, hain zuzen.

Erretratu hark ez ninduen ikusten, ez zuen ezer ikusten, begirada zuzen-zuzen nire gain jarria bazuen ere. Baudelaireren beste bertso harrigarri hartaz gogoratu nintzen:

Et tes yeux attirants comme ceux d'un portrait.

Ezin eutsizko indarrez erakartzen baininduten, zirrara bitxi, bortitz, berri bat eragiten zidaten, inoiz bizi izandako, agian oraindik ere bizi ziren, begi pintatu haiek. Oi! Zer xarma mugagabea, igarotzen den eguratsa bezain hebaingarria, ilunabar more, arrosa eta urdin batean hiltzen ari den zerua bezain liluragarria, ondoren datorren gaua bezalatsu, zer xarma zerion koadro ilun hari, begi barrendu ezin haiei! Begi horiek, pintzel ukitu arin batzuez sortutako begi horiek, ba ote den baina ez den, emakume begirada batean azal daitekeen, gure baitan maitasuna ernarazten duen ezkutuko gauzaren misterioa dute beren baitan gorderik.

Atea zabaldu zen. Milial jauna ari zen sartzen. Berandutu izanagatik barkazioa eskatu zuen. Nik goizegi iritsi izanagatik eskatu nuen barkazioa. Eta esan nion:

— Gehiegi galdetzea al da emakume hori nor den esateko eskatzen badizut?

— Nire ama da, oso gazterik hila —erantzun zidan.

Eta orduan ulertu nuen nondik zetorkion
gizon hari bestela azaldu ezinezko erakarmen
hura!

(1888ko urriaren 29an)

Lotarakoa

Sena ibaia luze hedatzen zen nire etxe aurrean, zimur bat ere gabe, goizeko eguzkiak bernizaturik. Zilar jario eder, zabal, geldi, luze bat zen, han-hemen purpuraz orbandua; eta ibaiaz beste aldean zuhaitz handiek berde kolorezko harresi erraldoi baztergabe bat hedatzen zuten lerro-lerro urbazter guztian zehar.

Egunero berriro hasten den bizitzaren sentimena, bizitza fresko, alai, maitasunezkoarena, ikaraz ageri zen hostoetan, tupoka zebilen airean, ispiluz islatzen zen uretan.

Postariak ekarri berriak zituen egunkariak eman zizkidaten, eta ibai ertzerantz joan nintzen, urrats lasaiz, haiek irakurtzera.

Lehenengo zabaldu nuenean, hitzok erreparatu nituen: «Beren buruaz beste eginen estatistikak», eta bertan jakin nuenez, zortzi mila eta bostehundik gora pertsonak egin du bere buruaz beste aurten bertan.

Bat-batean, ikusi egin nituen! Han ikusi nuen nekearen nekez bizi az etsi dutenen sarraski

higuingarri beren gogozko hura. Odoletan ikusi nituen batzuk, masailezurra hautsirik, burezurra leherturik, bularra bala batez zulaturik, agonia geldian, hotel bateko gela batean bakar-bakarrik, beren zauriaz gogoratu gabe, beren zorigaitza baizik ez gogoan.

Besterik ere ikusi nuen, zintzurra zabalik edo sabela urraturik, oraindik ere eskuan dutela sukaldeko aiztoa edo bizarra kentzeko labana.

Besterik ere ikusi nuen, edo pospoloak bustitzen jarrita zeuden baso baten aurrean, edo txartel gorria zuen botilatxo baten aurrean eserita.

Begiak finko begiratzen zioten horri, mugitu gabe; gero edan egiten zuten; eta zain geratzen ziren; gero keinu gaizto bat jartzen zitzaientz matrailetan, zimurtzen zizkien ezpainak; izu batek galduan jartzen zizkien begiak, ez baitzekiten horrenbeste sufritu beharra zegoenik azkena heldu bitartean.

Jaikitzen ziren, gelditzen ziren, erortzen ziren, eta esku biak sabelari helduta, erretzen sentitzen zituzten barrenak, likidoaren suak janik

erraiak, pentsamendua iluntzen hasi ere egiterako.

Besterik ere ikusi nuen, hormako iltzetik, leihoko maratilatik, sabaiko gakotik, mandioko habetik, zuhaitz adarretik zintzilik, arratseko euripean. Eta, mingaina aterata, hantxe geldirik geratu arteko beren egin guztiak sumatzen nituen. Sumatzen nituen haien bihotz esturak, haien azken zalantzak, haien soka lotzeko mugimenduak, ongi ote zegoen finkatuta, lepo inguruan nola lotzen zuten eta gorputza nola uzten zuten jausten.

Besterik ere ikusi nuen, ohatze gupidagarritan etzanik, amak bere haurtxoekin, agureak goseak akabatzen, neska gazteak amodioaren esturak urraturik, denak zurrun, itolarritan, itorrik, gelaren erdian sutontzia oraindik ere ketan zela.

Eta sumatu nituen beste batzuk, gauez zubi hutsetan paseatzen. Horiek ziren tamalgarriak. Ura hots bigun batez igarotzen zen arkuen azpitik. Haiek ez zuten ikusi ikusten... sumatu egiten zuten haren usain hotza usnatuz! Desio zuten eta beldur zioten. Ez ziren ausartzen!

Baina behar zuten. Ordua jotzen zuen urrutiko kanpandorreren batean, eta bat-batean, ilunpeetako isiltasun zabalean, ibaira erortzen zen gorputz baten plastada entzuten zen, garrasi batzuk, eskuek jota urak ateratako plastadak, berehalaxe itorik. Beste batzuetan haien erorikoaren plaut hotsa baizik ez zen izaten, eurek eskuak lotu edo hanketatik harri bat erantsi zutenean.

Ai gaixoak, gaixoak, gaixoak, zenbatetan sentitu ditudan haien estura larriak, zenbatetan hil naizen haien hiltzeaz! Haien miseria guztiak ditut igaro; haien tortura guztiak pairatu, ordu betean. Haiek hartaratu dituzten samin guztiak ditut ezagutu; ni baino lehen beste inork sentitu ez duen bezala baitut nik sentitzen bizitzaren belzkeria engainagarria.

Nola ere aditu ditudan zoritxarrak hertsaturik, beren pertsonarik maiteenak galdurik, gero-izateko sarien ametsetatik edo, Jainkoa, anker izan ondoren, noizbait ere justu izango den bestelako izate baten ilusiotik iratzarririk, eta zorionaren mirariez desengainu harturik, hartatik nahikoa izan eta behin betirako bukatu nahi

dutenak tregoarik ez duen drama edo komedia lotsagarri hau.

Suizidioa! horra indarrik gehiago ez dutenen indarra, horra sinesterik gehiago ez dutenen esperantza, horra azpiratuen ausartasun gain-gainekoa! Bai, bada ate bat behintzat bizitza honentzat; beti dugu aukera ate hori zabaldu eta beste aldera igarotzeko. Naturak errukialdi bat izan du; ez gaitu kartzela batean itxi. Erruki etsientzat!

Desengainatu baizik ez direnak doazela, bada, aurrera, arima libre eta bihotza bare. Ez dute zeren beldur izanik, alde egitea libre baitute; beti baitute atzean jainko amestuek ere itxi ezin duten ate hori.

Beren gogoz hildakoen jendetza hori nerabilen gogoan: zortzi mila eta bostehundik gora urte batean. Eta munduari eskari bat igortzeko bilduak zirela iruditzen zitzaidan, erregu bat oihukatzeko, geroago, gauzak hobeto ulertzen direnean, egin ahal izango den gauza bat eskatzeko. Iruditzen zitzaidan heriotza emandako haiek guztiak, lepoa moztutako haiek guztiak, pozoitu haiek guztiak, urkatu haiek, ito haiek,

saldo beldurgarrian, botoa ematen duten herri-tarrak bezala zetoze, gizarteari esatera: «Emaiguzue heriotza gozo bat bederen! Laguniezaguzue hiltzen, bizitzen lagundu ez diguzue-nok! Begira, asko gara, badugu eskubidea askatasuna, filosofiaren independentzia eta herritar ororentzako botoa finkatuak diren egunotan. Egiguzue, bizitzari uko egin diogunoi, higuigarri eta izugarri izango ez den heriotza baten amoina».

.....
Ametsetan hasi nintzen, nire gogoetari gai hauei buruz amets bitxi misteriozkoetan zehar hara-hona ibiltzen utzirik.

Halako batean hiri eder batean nengoela iruditu zitzaidan, Paris zen: zein garaitan, ordea? Kaleetan zehar nindoan, etxeei, antzokiei, eraikuntza publikoei begira, eta hona non, plaza batean, eraikuntza handi, oso dotore, atsegin, polit bat hautematen dudana.

Harriturik geratu nintzen, zeren honela baitzegoen idatzita fatxadan, urrezko hizkitan: «Borondatezko heriotzaren obra».

Oi, gogoia mundu irreal baina izan daitekeen batean hegan hasten den esnaldiko ametsen bitxikeria! Ezerk ez nau harritzen hartatik; ez txunditzen ere, ezerk; eta fantasia jareginak ez daki gehiago bereizten zer den barregarri eta zer den hits.

Hurbildu nintzen eraikin hartara; sarrerako zerbitzariak, galtza laburretan, ataurre batean zeuden eserita, jantziak gordetzeko gela baten aurrean, elkarte baterako sarreran bezala.

Ikustera sartu nintzen. Haietako batek, jaiki-rik, esan zidan:

— Ezer nahi, jauna?

— Leku hau zer den jakin nahi nuen.

— Besterik ez?

— Ba, ez.

— Nahi al duzu, orduan, obra honetako idazkariarengana eraman zaitzadan?

Dudatan nengoen. Berriro galdetu nion:

— Ez da traba izango harentzat?

— Ez, bai zera, jauna, honen berri nahi duten pertsoneri harrera egiteko dago hemen.

— Orduan, banoa, zu aurretik.

Agure batzuk hizketan ari ziren korridore batzuetan zehar eramán ninduen; gero bulego eder batera sartu ninduen; ilun samarra, altzari beltzez jantzia zen den-dena. Gizonezko gazte, lodi, sabeltsu bat zegoen gutun bat idazten, bitartean zigarro puru bat errez; haren usainak argi erakusten zuen goi mailakoa zela.

Jaiki zen, elkar agurtu genuen, eta zerbitzariak alde egin zuenean, galdetu zidan:

— Ezertan lagun al diezazuket?

— Jauna —erantzun nion nik—, barka nire dena ikusi nahi hau. Etxe hau sekula ikusi gabe nuen. Fatxadan idatzita dauden hitz apur horiek guztiz harrigarri gertatu zaizkit: eta hemen zer egiten den nahi nuke jakin.

Irribarre egin zuen erantzun aurretik, gero, ahots apalez, pozik dagoenaren itxuraz:

— Bada, Jainkoagatik, jauna, hil nahi duten pertsonak garbi eta ez tiro, ez naiz ausartzen esatera atseginez, hiltzen dira etxe honetan.

Ez nuen bihotzeko zirrara handirik sentitu, normala eta justiziazkoa iruditu baitzitzaidan hori. Eta harriturik geratu nintzen batez ere, ideia apal, beti zerbaitetarako, humanitario, nor-

berekoikeriazko, eta egiazko askatasun ororen hertsatzaileak baizik ez dituen mundu honetan, gizarte askatu baten duin iruditzen zitzaidan horrelako eginkizun bat gauzatzea ausartu ahal izan zirelako.

Berriro ekin nion:

— Nola iritsi zarete horretara?

Hark erantzun zuen:

— Begira, jauna, suizidio kopuruak halako moduan egin zuen gora 1989ko Erakusketa Unibertsalaren ondoko bost urteetan, non premia larria sortu baitzen neurriak hartzeko. Kaleetan, jaietan, jatetxeetan, antzokietan, tren-bagoietan, Errepublikako Lehendakariaren harrera ospakizunetan, nonahi hiltzen zuen jendeak bere burua. Nik bezala ongi bizitzea atsegin dutenentzat ondo ikuskari itsusia ez ezik, oso eredu txarra zen gainera haurrentzat. Horregatik bada, leku batean zentralizatu behar izan ziren suizidioak.

— Nondik zetorren, bada, suizidioen ugaltze hori?

— Ez dakit. Oinarri-oinarrian, banago ni zahartzen ari dela mundua. Hasten da bat gau-

zak garbi ikusten, eta ezin etsi. Gobernuarekin bezalaxe gertatzen da gaur egun patuarekin, badakigu zer den; ohartzen zara alde guztietatik atzipetu zaituztela, eta alde egiten duzu. Ikusi denean probidentziak diputatu batek egingo liekeen bezalaxe egiten diela iruzur, lapurretan, tranpatan gizakiei, orduan haserretu egiten zara, eta gure ordezkari bitartekariak izendatzen ditugun bezala hiru hilabetero beste bat izendatu ezin dugunez, alde egiten duzu, oso leku txarra baita.

— Bai horixe!

— A! ni neu ez naiz kexatzen.

— Azalduko al didazu nola funtzionatzen duen zuen obrak?

— Pozik gainera. Eta zure aldetik beste norbaiti azaldu nahi badiozu, azal diezaiokezu. Hau elkarte bat da.

— Elkarte bat!!...

— Bai jauna, herrialde honetako pertsonarik entzutetsuenek, izpiriturik handienek, bururik argienek sortua.

Eta barren-barrenetik barre eginez gehitu zuen:

— Eta egiaz diotsut, oso gustura egoten gara-
la hemen.

— Hemen?

— Bai, hemen.

— Harritzen nauzu.

— Baina, Jainkoarren, elkarte honetako bazki-
deak heriotzaren beldur ez direlako, horregatik
egoten gara gustura hemen, hura baita lur hone-
tan pozen galerazlerik handiena.

— Zertarako dira, ordea, elkarte honetako
bazkide, bere burua hiltzen ez badute.

— Nornahi izan daiteke elkarte honetako baz-
kide, baina ez du horrenbestez bere buruaz
beste egiteko obligaziorik.

— Eta orduan?

— Esango dizut. Suizidio kopurua neurri gabe
gora egiten ari zenez, ematen zizkiguten ikuska-
ri higuigarriak kontuan harturik, ongintza soile-
ko elkarte bat antolatu zen, etsita zeudenak
babesteko, eta ezustez ez bada ere, gozo eta
oinaze gabe hiltzeko modua eskaini zien.

— Eta nork eman zuen honelako obra batera-
ko baimena?

— Boulanger jeneralak, aginpidean egon zen bitarte laburrean. Ez zekien ezer ukatzen. Hauxe besterik ez zuen onik egin, gainera. Horrela bada, elkarte bat antolatu zen pertsona erne, desengainatu, eszeptikoz osatua, eta Paris erdi-erdian tenplu moduko bat nahi izan zuten eraiki, heriotzaren mesprezuarri eskainia. Etxe hau leku beldurgarria izan zen hasieran, inor bertara hurbiltzen ez zena. Hori zela eta, sortzaileek, bertan biltzen baitziren, inaugurazio ekitaldi handi bat egin zuten; han izan ziren Sarah Bernhardt, Julie, Théo, Granier eta beste hainbat eta hainbat dama; eta gizonezkoetan Reszké, Coquelin, Mounet-Sully, Paulus, etab...; eta gero kontzertuak ere bai, Dumasen komediak, Mailhac-enak, Halévyrenak, Sardourenak. Batean baizik ez genuen porrot izan, Becque-ren antzerki obra batean, jendeari tristeia iruditu baitzitzaion, baina arrakasta handia izan zuen gerora Comedie-Françaisen. Hitz batean, bada, Paris osoa etorri zen. Gauza aurrerabidean zen, beraz.

— Festa artean? Bai jostatze makabroak!

— Ez, bai zera! Heriotzak ez du zertan triste izanik, berdin dion gauza bat behar du izan. Guk

alaitu egin dugu heriotza, lorez jantzi dugu, usain gozoz bildu, errazago bihurtu. Etsenplu bidez ikasten da laguntzen; ikus daiteke; ezer ez da.

— Jaietarako jendea etortzea oso ongi uler-tzen dut, baina etorri al da inor... zeratzera?

— Segituan ez, ez ziren fidatzen.

— Eta geroago?

— Geroago etorri ziren.

— Asko?

— Saldoka. Egunean berrogeitik gora ditugu. Senan ia ez da itorik gehiago aurkitzen.

— Nor hasi zen lehena?

— Elkarteko kide bat.

— Zaleren bat?

— Ez dut uste. Aspertu bat, kiebra joa, hiru hilabetetan baccara-n sekulako galerak izana.

— Egiatan?

— Bigarrena ingeles bat izan zen, gizaje xe-lebre bat. Orduan propaganda egin genuen egun-karrietan, gure prozedura kontatu genuen, era-karmena zuten hildakoak asmatu genituen. Baina mugimendu handia behartsuek ekarri zuten.

— Nola egiten duzue?

— Nahi duzu ikusi? Horretara, azalpenak emango dizkizut aldi berean.

— Bai, noski.

Bere kapelua hartu, atea zabaldu, eta irteteko esan zidan, eta gizonaekoak edozein joko-aretotan bezala jokoan ari ziren areto batera sarrazazi ninduen. Gela sail bat igaro zuen gero. Horietan berriketan ari zen jendea, alai. Oso gutxitan ikusi izan dut, ordu arte, horren elkarte bizirik, horrenbesteko mugimendua duenik, horren barretsarik.

Eta nola ni harritu egiten bainintzen:

— A! —hasi zen berriro idazkaria—, obra honek uste ezineko arrakasta du. Munduan den jende txairo guztia da bazkide, heriotza ezertan ez duela itxura emateko. Gero, behin hemen direnean, alai egoteko obligazioa dutela iruditzen zaie, beldurturik dauden itxura ez izateko. Horregatik arrailerian jarduten da, barre egiten da, txantxak egiten dira, graziaz hitz egiten da, eta graziaz mintzatzen ikasten. Gaur egun Parisen jende gehien datorren lekua, lekurik jostagarriena da, zalantzarik gabe. Emakumezkoak ere

honelakoxe eranskin bat ari dira oraintxe berentzat antolatzen.

— Eta, hala eta guztiz ere, suizidio asko duzue etxe honetan?

— Esan dizut, berrogei-berrogeita hamar egunean. Jende handikia gutxi izaten da; baina arlote jendea ugari da. Erdi mailako klaseak ere asko ematen du.

— Eta nola... egiten da?

— Asfixiaz... gozo-gozo.

— Nola?

— Guk asmatu dugun gas batez. Patentea dugu. Eraikinaren beste aldean bezeroentzako ateak daude. Hiru ate, kale txikitara ematen dutenak. Gizon bat edo emakume bat datorrenean, galdeketa egiten zaio lehendabizi; gero sorospen bat eskaintzen zaio, laguntza, babesak. Bezeroak onartzen badu, behar direnak bilatzen dira, eta askotan salbatu izan ditugu horrela.

— Nondik ateratzen duzue dirua?

— Askok daukagu. Bazkideen kuotak oso altuak dira. Eta gainera obrari emaitzak egitea ere ongi ikusia dago. Emaitzak egiten dituzten

guztien izenak *Figaro*-n argitaratzen dira. Aberatsen suizidioa mila libera da, gainera. — Eta itxuroroso hiltzen dira. Pobreen suizidioak dohainik dira.

— Nola ezagutzen dituzue pobreak?

— Ba! ba! Berehalaxe antzematen zaie, jauna! Eta behartsu ziurtagiria ekarri behar dute, gainera, beren auzoko polizia komisarioak emana. Jakingo bazenu zein gauza makurra den, haien sarrera! Nik behin baizik ez dut ikusi gure erakunde honen parte hori, eta ez naiz berriro hara itzuliko. Tokiari dagokionez, hau bezain ondo dago, hauxe bezain aberats eta eroso ia; baina hara datozenak... Hara datozenak!!! Ikusiko bazenitu iristen, agureak, pildaz jantzirik, hiltzera nola datozen; hilabetetan miseria gorrian lehertu beharrean egonda, kale kantoietan janez, kaleko txakurrak bezala; emakumeak, piltzarrez estaliak, hezur eta azal, gaixorik, elbarriturik, beren bizitza non duten ez dakitela, eta beren kasua kontatu ondoren esaten digutela: «Ikusten duzue honek ezin duela jarraitu, zeren nik ezin dut gehiagorik egin, ez dut zer irabazirik».

«Laurogeita zazpi urteko atso bat ikusi nuen behin, bere seme-alaba eta biloba guztiak galdu-rik, ordurako kale gorrian lo egiten sei aste zera-matzana. Haren emozioz gaixorik egon nintzen. Eta hainbeste eratako kasuak ditugu, azkenean, sartu eta zuzenean “Non da?” galdetzen dizute-nak kontatu gabe. Horrelakoak, barrura eramán, eta segituan bukatzen da egitekoa».

Berriro galdetu nion, bihotza uzkuratutik:

— Eta... non da, bada?

— Hemen.

Ate bat zabaldu eta jarraitu zuen:

— Sar zaitez, elkarteko bazkide direnentzat bereziki gordeta dagoen parteá da, eta hauxe da gutxien erabiltzen dena. Hamaika ezerezte bai-zik ez dugu oraindik izan hemen.

— A! Ezerezte deitzen diozue, hortaz, horri...

— Bai jauna. Sar zaitez.

Zalantzan nengoen. Sartu egin nintzen, azke-nean. Galeria guztiz atsegingarri bat zen, berote-gi moduko bat, kolore urdin motelezko, arrosa kolore apalezko, berde kolore arinezko beirategi batzuek tapizeriazko poesia girozko paisajez inguratzen zutena. Gela polit horretan baziren

etzateko aulkiak, palmondo bikainak, loreak, arrosak batez ere, baltsamu usainezkoak, liburuak mahai gainetan, *Bi Munduetako Aldizkaria*, zigarro puruak zein bere markako ontzietan, eta —harritu ninduen— Vichy gozokiak gozoki ontzi batean.

Eta nola harritu bainintzen:

— A! Ohitura handia dago solasera hona etortzeko —esan zuen nire gidariak.

Eta berriro ekin zion:

— Bezeroentzako gelak ere berdinak dira, baina altzariz soilago jantziak.

Nik galdetu nion:

— Eta nola egiten duzue?

Etzateko aulki bat erakutsi zidan, Txinako krepe apar-kolorezkoa, brodatu zuriz jantzia, ezagutzen ez nuen mota bateko zuhaixka kozkor batean azpian, haren orpoa hereza-belarrezko zerrenda batek inguratzen zuela.

Idazkariak ahots beheran jarraitu zuen:

— Nahi bezala aldatzen da lorea eta usaina, zeren gure gasak berez ezeren usainik ez duen arren, norberak maite izan duen lorearen usaina ematen dio heriotzari. Urrinekin batera zabal-

tzen da. Nahi duzu segundo batez usaintzera ematea?

— Eskerrik asko —esan nion—, baina oraindik ez...

Barrez hasi zen.

— Tira, jauna, arriskurik ez da. Neuk ere behin baino gehiagotan probatu izan dut.

Beldurra eman zidan ez ote nintzen haren aurrean koldar geratuko. Esan nion:

— Bai, nahi dut.

— Etzan zaitez *Lotarakoan*.

Urduri samar, baina eseri nintzen Txinako krepezko aulki apal hartan, etzan nintzen, eta ia besterik gabe hereza-belarraren usain gozo batek bildu ninduen. Ahoa zabaldu nuen hura hobeto hartzeko, arima loak hartua baitzen, ahazten ari zen, eta asfixiaren lehen zoraldian opio xarmatzaile oinaztarriaren pareko baten mozkor sorgingarria ari zen dastatzen.

Besoa astindu zidaten

— Ai, jauna, jauna —ari zen esaten, barrez, idazkaria— egingo nuke gustua hartu diozula.

.....

Baina, ahots bat, egiazko ahots bat, eta ez ameskerietakoa, ari zitzaidan agurtzen nekazarien hitz egiteko moduz.

— Egunon, jauna. Zer moduz gara?

Ametsak hegan alde egin zidan. Sena ibaia argi ikusi nuen eguzkipean, eta herriko basozaina, bide zidorretik zetorrela, eskuineko eskuaz bere kepi beltz zilarrezko galoiduna ukituz. Erantzun nion:

— Egunon, Marinel. Nora zoaz, ba?

— Morillons inguruan atera duten ito bat begiratzera noa. Beste bat, bere burua errekarabota duena. Badirudi, gainera, galtzak erantzi eta hankak lotzeko erabili dituela.

(1889ko irailaren 16an)

Marteko gizona

Lanean ari nintzen, eta non ematen didan abisua morroiak:

— Jauna, jaun bat etorri da eta berorrekin hitz egin nahi omen du.

— Esaiozu sartzeko.

Gizontxo bat ikusi nuen agurtzen. Ikasketa maisu makaltxo betaurrekodun baten itxura zuen, bere gorputz argala jantzi zabalegi haietara inon itsasten ez zitzaiona.

Totelka hasi zen:

— Barkamena eskatzen dizut, jauna, barkamena traba egiten dizudalako.

Esan nion:

— Eser zaitez, jauna.

Eseri zen eta berriro hasi zen:

— Jaungoiko nirea, kezkatuik naukazu, jauna, hasi naizen egiteko honengatik. Baina norbaitengana jo beharra nuen derrigor, zu besterik ez zegoen... zu besterik... Tira, ausartu egin naiz... baina egiaz... ez naiz ausartzen gehiago.

— Ausar zaitez, baina, jauna.

— Hona, bada, jauna, kontua da hitz egiten hasi orduko erotzat hartuko nauzula.

— Jainkoarren, jauna, zuk zer esan, orduan ikusiko dugu hori.

— Horixe, bada, jauna, esan behar dizudana gauza bitxia da. Baina erregu egiten dizut pentsa dezazula ez naizela eroa, hain zuzen ere, egin behar dizudan isilmandatuaren bitxitasuna neuk esaten dizudanez.

— Ea, bada, jauna, has zaitez.

— Ez jauna, ez naiz eroa, baina bestelako jendeak baino gogoeta gehiago egin eta batez besteko gogoetaren mugak baino, gutxiagatik bada ere, harago joan direnen ero airea dut. Kontu egizu, jauna, mundu honetan inork ez duela ezertaz gogoeta egiten. Bakoitzak bere gauzak zaintzen ditu, bere fortuna, bere plazerrak, bere bizitza, hitz batean, bere jostagarriak, hala nola antzerkia, pintura, musika edo politika, txepelkeriarik zabalduena horixe, edo industriako kontuak. Nork egiten du ordea gogoeta? Nork? Inork ez! Ai, abiatu naiz! Barka. Banator berriro nire ardieta.

»Badira bost urte hona etortzen ari naizela, jauna. Zuk ez nauzu ezagutzen, nik ordea, nik ondo ezagutzen zaitut... Ni ez naiz inoiz nahastetzen zure hondartzako edo zure kasinoko jendearen artean. Labarren ganean bizi naiz, biziki maite ditut Entretat-eko labar hauek. Ez dut besterik ezagutzen horren ederrik, horren osasunerako onik. Arimaren osasunerako onak, nahi dut esan. Bide miresgarri bat da zeruaren eta itsasaren artean, bide belarrez estali bat, harresi handi horren ganean doana, lur ertzean, itsasaren ganean. Belarrezko malda batean, olatuak baino ehun metro gorago etzanda, eguzki-eguzkitan, ametsetan igaro ditudanak dira nire egunik onenak. Ulertzen didazu?

— Bai, jauna, ederki ulertu ere.

— Eta orain, utziko al didazu, arren, galdera bat egiten?

— Galdetu ezazu, jauna.

— Zure iritzian, beste planetetan bizi al da inor?

Zalantzarik gabe eta harridura itxurarik gabe erantzun nion:

— Jakina, nire iritzian bai.

Alaitasun bizi batek piztu zuen, jaiki zen, eseri zen berriro, ni bere beso artean estutzeko ageriko gogo batez, eta oihu egin zuen:

— Ai! ai!, hauxe suertea, hau zoriona! Lasaitzen nauzu! Nola egin ahal izan ote dut baina zutaz zalantza? Gizona ez litzateke adimen zorrotzekoa beste munduetan jendea bizi denik sinetsiko ez balu. Tentela behar du izan gizonak, buruz motza, txepela, astoa behar du izan, uste izateko milaka milioi unibertso horiek gizona, zomorro burugabe hori, josta dadin eta harriturik gera dadin baizik ez dihardutela jiraka eta dizdizka, ez ulertzeko lurra ikusi ere ezinezko hauts bat besterik ez dela munduen hautsetan, gure izarretako bizitzaren molekula batzuk baizik ez dela sistema osoa, eta aurki hilko direla horiek ere. Begira Esne Bidea, izarrezko ibai hori, eta egin kontu orban bat baizik ez dela zabaltasun infinituan. Pentsatu horretan hamar minutu besterik ez bada ere, eta berehalaxe ulertuko duzu zergatik ez dakigun ezer, zergatik asmatzen ez dugun ezer, zergatik ulertzen ez dugun ezer. Puntutxo bat baizik ez dugu ezagutzen, hortik aurrera ez dakigu ezer, hortik kanpo ezer ez,

inongo ezer ez, eta sinetsi egiten dugu, eta baieztatu egiten dugu. Ai! ai! ai! Azalduko bali-gute bat-batetik lurraz kanpoko bizitza handia-ren sekretu hori, a zer harridura gurea! Ez, baina..., ez baina... ergela naiz neu ere, ez genu-ke ulertuko, zeren gure adimena ez baita lur honetako gauzak ulertzeko baizik egina, ezin du urrutirago iritsi, mugatua da, gure bizitza bezala, aldean garamatzen bola honetara lotua, eta kon-parazioz juzkatzen ditu gauza guztiak. Ikusten duzu, bada, nola jende guztia den inozoa, estua, eta gure adimenaren ahalmenaz uste handia duena, ozta gainditzen badu ere animalien sena. Geure gaixotasuna atzemateko beste gaitasunik ere ez dugu, gurinaren eta gariaren salneurria jakiteko eginak gara, edota bi zaldiren, bi itsa-sontziren, bi ministroren edo bi artistaren balio-az eztabaida egiteko, gehienez ere.

»Horra guztia. Lurra lantzeko eta haren gai-nean dagoenaz aski moldegabeki baliatzeko doi-doi gara gai. Berez dabilizan makinak egiten hasiak ozta-ozta gara, eta haurrak bezalaxe harritzen gara zinez goi mailako izakariak bagina aspaldiko mendeetan eginak behar genituzkeen

asmazio horietako bakoitzarekin. Ezezagunak inguraturik gaude oraindik, elektrizitatearen susmoa hartzeko ere adimenezko bizitzazko milaka urte behar izan diren une honetan ere. Iritzi berekoak al gara horretan?»

Barrez erantzun nion:

— Bai, jauna.

— Ederki, orduan. Eta zu, arduratu al zara zu inoiz Martez?

— Martez?

— Bai, Marte planetaz.

— Ez, ni ez, jauna.

— Nahi al duzu hari buruz gauzatxo batzuk esatea?

— Bai horixe, jauna, gustu handiz gainera.

— Jakingo duzu, noski, gure sistemako munduak, gure familia txiki honetakoak, eguzki nebulosatik banan-banan askatuz joan ziren gasezko eraztun primitiboak globotan kondentsatzez sortuak direla?

— Hori, jauna.

— Hortik ateratzen da urrutien dauden planetak direla zaharrenak, eta haiek izan behar dutela, horrenbestez, zibilizatuenak. Hona haien jai-

tza ordena: Urano, Saturno, Jupiter, Marte, Lurra, Artizarra, Merkurio. Onartuko didazu planeta horietan badirela biztanleak, Lurrean bezala?

— Bai noski. Zergatik uste izan Lurra salbuespena denik?

— Oso ongi. Marteko gizona Lurrekoa baino zaharragoa denez... Bizkorregi noa, ordea. Marten biztanleak badirela frogatu nahi dizut lehen-dabizi. Lurak Marteko begiraleentzat dukeen antzeko itxura du gure begietarako Martek ere. Itsasoek eremu laburragoa hartzen dute han hemen baino, eta barreiatuago daude gainera. Kolore beltzean antzematen zaie itsasoei, urak argia xurgatzen baitu, eta kontinenteek, aldiz, islatu egiten dute. Geografiazko aldakuntzak sarri gertatzen dira planeta horretan, eta horietan frogatzen dute han badela bizia. Urtaroak hemengoan antzekoak ditu, poloetan elurra du, eta aldien arabera hedatzen eta urritzen dira. Urtea oso luzea du, Lurreko sei egun eta laurogeita sei egun, Marteko sei egun eta hirurogeita zortzi egun, era honetara banatuak: ehun eta laurogeita hamaika egun udaberri, ehun eta laurogeita bat egun uda, ehun eta berrogeita bede-

ratzi udazken, eta ehun eta berrogeita zazpi negu. Horregatik, hemen baino beroago eta hemen baino hotzago egin behar du han.

Moztu egin nion.

— Barka, jauna, Marte Eguzkitik gu baino askoz urrutiago dagoenez, hemen baino hotzago egin behar du beti, nire ustez.

Nire bisitari bitxi hark suharraren suharrez egin zidan oihu:

— Oker zaude, jauna! Oker zaude, erabat oker! Gu bai gaude, gu, eguzkitik urrutiago udan neguan baino. Hotzago egiten du Mont Blanc mendiaren gailurrean haren oinean baino. Helmotzen eta Schiaparelliren beroaren teoria mekanikoa gogoraraziko dizut, gainera. Eguzkiaren beroa atmosferak duen lurrin kopuruaren mende dago batez ere. Hona zergatik: ur lurrunezko molekula batek hamasei mila aldiz xurgamen handiagoa du aire lehorrezko molekula batek baino, ur lurruna da beraz gure bero biltegia; eta Martek Lurrak baino hodei gutxiago duenez, askoz ere beroagoa eta aldi berean askoz ere hotzagoa izan behar du Lurra baino.

— Ez dizut zalantzan jartzen.

— Oso ongi. Orain, jauna, entzun iezadazu kontu handiz, mesedez.

— Horixe ari naiz egiten, jauna.

— Entzun al duzu 1884an M. Schiaparelli-k aurkitu zituen kanal famatuen berri?

— Oso gutxi.

— Nola, baina, hori! Jakin ezazu, bada, 1884an Marte Lurrari buruz oposizio egoeran zegoela, eta laurogei milioi legoatako distantziara besterik ez gugandik, M. Schiaparelli, gure mende honetako astronomialaririk gailenetakoa eta behatzailerik ziurrenetako bat denak, lerro beltz zuzen edo irudi geometriko erregularrei jarraituz eteten ziren pila bat aurkitu zuen, kontinenteak zeharkatuz Marteko itsasoak lotzen zituztenak! Bai, bai, jauna, kanal zuzenak, kanal geometrikoak, norbaitek egindako kanalak! Bai, jauna, Marten biztanleak direla, han bizi direla eta pentsatzen dutela, lan egiten dutela eta begiratzen digutela erakusten duen froga: ulertzen duzu, ulertzen?

»Handik hogeitasei hilabete geroago, berriro oposizio egoera izan zenean, berriro ikusi ziren kanal horiek, lehen baino gehiago, bai jauna. Eta

izugarrizkoak dira, ehun kilometrotik gora baitira zabal.»

Irribarrez erantzun nion:

— Ehun kilometro zabal. Langile sendoak behar dira horrelakoak zulatzeko.

— Ai, jauna, zer diozu, baina? Ez dakizu, non-bait, lana askoz ere arinagoa dela Marten Lurrean baino, Marte osatzen duten gaien dentsitatea gure gaien dentsitatearen hirurogeita bederatziren bat baizik ez dela! Hango astuntasuna gurearen hogeita hemeretzirena da ozta-ozta.

»Kilogramo bat urek hirurehun eta hirurogeita hamar gramo baizik ez du pisatzen han!»

Kopuru horiek halako ziurtasunez jaulkitzen zizkidan, kopuruak zer balio duen merkatoriaren halako uste osoz, non ezin izan bainion barreari eutsi, eta gogoan nuen Marten azukreak eta gurinak zenbat pisatzen duten galdetzeko.

Burua astindu zuen.

— Barre egiten duzu, jauna, ergeltzat hartzen nauzu orain, lehen errotzat hartu ondoren. Baina nik aipatzen dizkizudan kopuruok astronomiako edozein liburu berezitan aurkituko dituzun ber-

berak dira. Marteren diametroa gurearen ia erdia da; haren gainaldea Lurrarenaren ehuneko hogeita hiru baizik ez da; bolumena Lurraren bolumena baino sei eta erdi bider txikiagoa da, eta haren bi sateliteen lastertasunak frogatzen duenez, haren pisua hamar bider txikiagoa da gurea baino. Beraz, astuntasunaren intentsitatea masaren eta bolumenaren, hau da, pisuaren eta erditik azalera dagoen distantziaren arabera-koa denez, zalantzarik gabe ateratzen da ondorioz arintasun egoera dela nagusi planeta horretan, bizitza erabat desberdina egiten duen arintasun bat, ekintza mekanikoak guk ezagutzen ez dugun bestelako modu batez arautzen dituen, eta han nagusitasuna bizi mota hegodunei eman behar diona. Bai, jauna, Marteko izakien Erregeak hegoak ditu.

»Hegan egiten du, kontinente batetik bestera ibiltzen da, izpirituak bezala paseatzen dira beren unibertsoaren inguruan, hartara gainditu ezin duen atmosferak lotzen duela betiere, nahiz eta...

»Hala bada, irudikatzen al duzu planeta hori guk zer itxuratakoak diren susmorik ere ez

dugun landarez, zuhaitzez eta aberez betea, eta guri aingeruak bezala margotu zaizkigun izakari hegodun handiak dituela biztanleak? Ni neu ikusten ari naiz izaki horiek zabaldien eta hirien gainean han duten aire urre-kolorean hegabiraka. Zeren garai batean Marteko atmosfera gorria zela uste baitzen, baina horia da, izan, hori urre-kolore eder batekoa.

»Harritzen al zaitu orain izaki horiek ehun kilometro zabaleko kanalak zulatu ahal izanak? Eta gogoratu besterik ez duzu zer egin duen zientziak gure artean mende batetik hona... mende batetik hona... eta har ezazu gogoan Marteko biztanleak gu baino gehiago direla agian...»

Bat-batean isildu zen, begiak apaldu zituen, eta oso ahots apalez murmurikatu zuen:

— Oraintxe bai, erotzat hartuko nauzu... esaten dizudanean ia-ia ikusi nuela bat... neuk... lehengo gau batean. Badakizu, edo ez dakizu, izar usoen egunetan gaudela. 18tik 19rako gauean batez ere, sekulako piloak ikusten dira urtero; itxura denez, kometa baten hondakinen artetik-edo igarotzen gara une horretan.

»Mane-Porte-n eserita nengoen, bada, itsasoan barrena urrats bat egiten duen labar-hanka erraldoi horren gainean, eta nire buruaren gain erortzen zen mundu txikizko euri horri begira nengoen. Suziriak baino jostagarriago eta politagoak dira, jauna. Horretan nire gain-gainean ikusi nuen bat, oso hurbil, argizko globo garden bat, hegan ari ziren hegal erraldoiz inguratua, edo hegalak ikusi nituela iruditu zitzaidan behintzat, gaueko erdi-ilunpetan. Itzuliak egiten zituen, txori zauritu batek bezala, hots handi misteriozko batez bere gain itzulikatzen zen, zalantzatan zirudien, hiltzen, galdurik. Nire aurretik igaro zen. Beirazko globo handi bat zela esango litzateke, barrua dena izakari asaldatuz betea, ozta-ozta bereizten zirela, baina gobernu-rik gehiago ez duen eta olaturik olatu itzulika doan ontzi bateko eskifaia bezala aztoraturik. Eta globo bitxi hori, kurba handi bat eginik, itsasoan urruti erori zen; kanoi tiro bat bezala entzun nuen haren erorikoaren hots sakona.

»Jende guztiak entzun zuen, bestalde, zarata hori eskualde hartan, eta tximista baten ezta-datzat hartu zuen. Nik bakarrik ikusi nuen, ikusi

nuen... itsasertzean niregandik hurbil erori izan balira, Marteko biztanleak ezagutu izango genituzkeen. Ez ezazu ezer esan, hausnar ezazu, hausnar ezazu luzaro eta gero konta ezazu hori egunen batean nahi baduzu. Bai, ikusi nuen, ikusi... lehenengo aire ontzia, gogoeta egiteko gai diren ikasiek infinitura bidalitako lehenengo izar arteko ontzia... ikusi nuena Lurrak erakarritako izar uso baten hiltze hutsa ez bazen behintzat... Zeren jakina izango duzu, noski, jauna, planetek kanpora egozten dituztela espazioko mundu herratuak, guk hemen alderraiak egozten ditugun bezala. Lurrak, txikia baita eta ahula, ezin ditu gelditu bere bidean zabaltasun handi horretako ibiltari txikienak baizik.»

Zutik jarria zen, gogoia suturik, eldarniotan, besoak zabaldu eta argizagien ibiliak irudikatu nahiz.

— Kometak, jauna, gu trinkogune batzuk baizik ez garen izar hodeiaren mugetan baitabiltza, kometak, txori aske eta argitsuak, Infinituaren barren-barrenetik datoz eguzkirantz.

»Beren argizko isats erraldoiak atzetik dituztela datoz izar distiratsurantz; halako abiadaz

bizkortzen dute beren bidaia galdua non ezin baitute topatu deika dutena; igurtzi baizik ez egin ondoren espazioan zehar jaurtikitzen ditu berriro beren ererikoaren lastertasunak berak.

»Baina beren bidaia harrigarri horietakoren batean planeta ahaltsu baten hurbiletik igaro baldin badira, beren bidetik desbideratuta haren eragin eutsi ezina sentitu baldin badute, nagusi berri horrengana itzultzen dira orduan, eta handik aurrera gatibu edukitzen ditu. Beren parabola mugagabea kurba itxi bihurtzen zaie, eta horregatik kalkula dezakegu kometa periodikoaren itzulera. Jupiterrek zortzi esklabo ditu, Saturnok bat, Neptunok ere bat, eta haren kanpoko planetak ere bat, eta izar uso gudaroste bat... Tira, tira... agian lurrak mundu herratu txikitxo bat gelditzen zuen unea baizik ez dut nik ikusi...

»Agur, jauna, ez iezadazu erantzun ezer, hausnar ezazu, hausnar ezazu hau dena eta gero konta ezazu egunen batean nahi baduzu...»

Egina dago. Errentazale arrunt bat ergelago iruditzen baitzait ero hura baino.

(1889ko urriaren 10ean)

Nork jakin?

I

Ai Jainko nirea! Jainko nirea! Idatziko ote dut azkenik zer gertatu zaidan? Baina ahalko ote dut idatzi? Ausartuko ote naiz? hain baita bitxia, hain adieraz ezina, hain ulertezina, hain eroa!

Ez banengo ziur ikusi dudana, ez banengo ziur nire arrazoibideetan ez dudala inolako ahu-laldirik izan, ez dudala hutsegiterik izan nire egiaztapenetan, ez dudala makurrik izan nire oharpenen segida zorrotzean, haluzinatua ninteekeela pentsa nezake, ikuspen ezohiko baten jostailu ninteekeela. Zeren, azken-azken finean, nork baitaki?

Gaur den egunean osasun etxe batean nago; baina neure gisaz naiz hona sartua, zuhurtziaz, beldurrez! Batek bakarrik daki nire historia. Hemengo medikuak. Idatzi egin behar dut. Ez dakit oso ongi zertarako. Aldetik kentzeko, ezin

eramanezko amets gaizto bat balitz bezala sentitzen baitut nire baitan.

Hona.

Ni bakartia izan naiz beti, ameslaria, filosofo apartatu moduko bat, onginahia, gutxirekin aski zuena, gizonen kontra garraztasunik gabe eta zeruaren kontra amorrurik ez zuena. Bakarrik bizi izan naiz, beti, besteen aurrean izatean nire baitan sortzen-edo didan lotsa halako batengatik. Nola azaldu hori? Ezingo nuke. Ez diot muzin egiten jendeari, lagunekin hitz egin edo afaltzeari, baina inguruan luzaro dauzkadala sentitzen dudanean, hurbilenekoak ere, aspertu egiten naute, nekatu, urduri jartzen, eta geroz eta gogo handiagoa, gogo larri bat, hasten naiz sentitzen handik alde egin dezaten, edo neuk alde egiteko, bakarrik egoteko.

Gogo hori premia baino gehiago da, ezinbesteko halabeharra da. Eta orduan inguruan daukadan jendearen presentziak jarraituko balu, haien solasei jaramon egin gabe ere entzun bakarrik luzaroan egin beharko banie, ezbeharren bat izango nuke, inolako zalantzarik gabe.

Zer ez behar? A! Nork jakin? Aldigaitzen bat, besterik gabe? Bai! Daitekeena horixe!

Hainbestera ino gustatzen zait bakarrik egotea non ezin baitut onez eraman ezta sabai beraren aterpean lotan dauden besteen hurbiltasuna ere; ezin naiz Parisen bizi, hiltzeko zorian jartzen bainaiz denbora guztian. Aldartez herio batean naiz, eta gorputzez eta nerbioz ere hiltzen naut nire inguruan dirakien, lotan dela ere nire inguruan bizi den jendetza ikaragarri horrek. Ai! Besteen loa bera nekagarriago gertatzen zait haien solasa baino. Eta ezin dut atsedetik hartu inoiz, arrazoia ren aldiroko itzalaldi hauek eteten dituen existentziak sumatzen, sentitzen ditudalarik horma batean atzean.

Zergatik naizen horrelakoa? Nork jakin? Bali-teke oso erraza izatea arrazoia: oso bizkor nekatzten naiz nire baitan gertatzen ez den guztiaz. Eta jende askori gertatzen zaio niri bezalaxe.

Bi arraza gaude munduan. Besteen behar direnak, besteekin laketzen, denbora betetzen, atsedeten direnak eta bakardadeak hormategi ikaragarri batetik igo beharrak edo basamortua igarotzeak bezala unatzen, akitzen, deusezten

dituenak, eta, alderantziz, besteek aspertzen, arnegatzen, gogaitzen, adikatzen dituztenak, eta bakardadeak aldiz, lasaitzen dituenak, beren askatasunean eta beren pentsamenduaren fantasian soseguz bainatzen dituenak.

Funtsean dela, gertaera psikiko normal bat da hori. Batzuek kanpoan bizitzeko dohaina dute, besteek barruan bizitzekoa. Nik neuk laburra dut kanporako arreta, eta berehalaxe ahitua, eta, behin bere mugetara iristen denean, ezinegon larri bat sentitzen dut nire gorputz eta adimen guzti-guztian.

Eta hortik ondorioz etorri da oso lotu naizela, oso lotu izan naizela, bizigabeko gauzetara, izaki bizek garrantzia hartzen baitute niretzat, eta nire begietarako aurpegiak bezain atsegingarri zitzaizkidan gauza, altzari, familiako oroigarrien erdian bizimodu bakarti lantsu bat neraman mundu bat bilakatu zaidala, zitzaidala bilakaturik, etxea. Horrelakoz bete-betea nuen poliki-poliki, horrelakoz apaindua, eta pozik sentitzen nintzen han barruan, atseginez, zoriontsu, bere laztan ohitura bihurtua halako premia bare gozo bilaka-

tu den emakume amultsu baten besoetan bezala.

Bideetatik aparte bakantzen zuen lorategi eder baten erdian jasoarazia nuen etxea, hiri ateetan, behar izanez gero ere, aldian-aldian desira sentitzen nuen gizartearen baliabideak aurkitu ahal izango nituen moduan. Etxeko otsein guztiek eraikuntza urrutiratu batean zuten lotarako lekua, horma handi batek inguratzen zuen baratzearen beste aldean. Nire egoitza zuhaitz handien hostapean galdu, ezkutatu hartako isiltasunean hain atsedengarria eta hain ona gertatzen zitzaidan gauen inguratze iluna, non ordutan egoten bainintzen zalantzan, gaue-ro, oheratu ala ez, hartaz luzaroago dastatzeko.

Egun hartan Sigurd eman zuten hiriko antzokian. Lehendabiziko aldia nuen musika eta sorginkeriazko drama eder hori entzuten nuena, eta biziki laket izan zitzaidan.

Oinez nentorren etxera, urrats alaiz, soinuuko esaldiz beterik burua, eta begirada ikuspen ederez sorgindua. Beltz zegoen, beltz, errepide handia ere nekez bada nekez ikusi ere ikusten bainuen, eta gutxi falta izan nuen, behin baino

gehiagotan, bide ertzeko zangara erortzeko. Hazienda bulegotik nire etxera kilometro bete inguru da, gehixeago agian, hogei minutu, alegia, geldiro ibiliz. Goizeko ordu bata zen, ordu bata edo ordu bata t'erdi; zerua zertxobait zabaldu zen nire aurrean, eta ilargi langa agertu zen, ilargiaren azken laurdeneko ilargi langa hitsa. Lehenengo laurdeneko ilargi langa, arratseko lauretan edo bostetan jaikitzen dena, argia da, alaia, zilarrez igurtzia; gau erditik aurrera jaikitzen dena, berriz, gorraila izaten da, goibela, kezkarria; horixe da Sabbath-eko ilargi laurden egiazkoa. Lehendabizikoak, haria bezain mehe bada ere, beti botatzen du halako argitxo alai bat, bihotz pozgarri, eta itzal zehatzak marrazten ditu lurrean; azken honek berriz, halako dir-dai hilkor bat hedatzen du, hain margula non ez baitu itzalik ere egiten ia-ia.

Urrutitik begiztatu nuen nire lorategiaren masa iluna, eta ez dakit nondik sortuta etorri zitzaidan halako aldixartze bat han sartu behar nuelako pentsatze hutsarekin. Baraxtu nintzen. Oso eguraldi gozoa zegoan. Zuhaitz multzo han-

diak hilobi bat ematen zuen, eta nire etxea han hobiratua.

Zabaldu nuen ataka, eta etxerantz alde bietako platanoen adarrak arku eginik tunel garai bat eratuz ganga gisako bat eratzen zioten bidean barrena sartu nintzen, multzo ilunetatik igaroz eta ilunpe belurietan lore ontziek zertzelada zehazgabezko orban biribilak eratzen zituzten soropilen inguruz inguru.

Etxera hurbildu ahala, halako artegatasun bitxi batek hartu ninduen. Gelditu nintzen. Ez zen ezer entzuten. Haize bafadatxo bat bera ere ez zegoen hostoetan. «Zer dut, baina, nik?» pentsatu nuen. Banituen hamar urte horrela etxeratzten, inoiz kezkarik txikiena ere izan gabe. Ez nintzen beldur. Inoiz ez naiz izan beldur, gauez. Gizon bat, lapurren bat, gaizkileren bat ikusi hutsak amorru bizia sartuko lidake gorputzean, eta inolako zalantzarik gabe egingo nioke jauzi gainera. Armaturik nengoen, gainera. Errebolbera aldean nuen. Baina ez nuen ukitu ere egin, nire baitan sortzen ari zitzaidan izu hari aurre egin nahi nion eta.

Zer zen, ordea? Bihozkada bat? Ulertezina ikustera doanean gizonaren senaz jabetzen den misteriozko bihozkada, beharbada? Nork jakin?

Aurrera nindoan heinean ikarak nituen aza-lean, eta horma aurrera iritsi nintzenean, nire egoitza zabaleko ataurre itxira iritsirik, atea zabaldu eta barrura sartzeko minutu batzuk beharko nituela konturatu nintzen. Aulki batean eseri nintzen, beraz, nire salako leihopean. Han geratu nintzen, atezuan, burua hormaren kontra, begiak hostailaren ilunpetarantz zabalik. Hasierako une horietan ezer berezirik ez nuen sumatu nire inguruan. Halako zurrunga batzuk nituen belarrietan; baina askotan gertatzen zait hori. Trenak igarotzen entzungo banitu bezala iruditzen zait batzuetan, kanpai hotsak entzuten ditudala, jende multzoen pauso hotsak entzuten ditudala.

Gero zurrunga haiek zehatzago bihurtu ziren berehala, argiagoak, ezaguterrazagoak. Huts egin nuen. Ez zen nire zainen ohiko zurrumurrua belarrietan hots haiek jartzen zizkidana, oso hots berezi bat baizik, oso nahasia ordea, inolako zalantzarik gabe nire etxe barrutik zetorrena.

Hormatik zehar bereizten nuen hots jarraitu hura, nahasmendua gehiago hots baino, gauza mordo baten halako mugitze zehazgabe bat, nire altzari guztiak astindu, lekuz aldatu eta geldi-
diro arrastaka eraman izan balituzte bezala.

Ai! Aski luzaro izan nuen oraindik zalantza nire belarriaren ziurtasunaz. Baina nire etxe barruko zarata hura hobeto entzuteko belarria horma kontra jarririk, guztiz ere sinetsita geratu nintzen, ziur, normala ez zen zerbait, ulertezi-
nezko zerbait ari zela gertatzen nire etxean. Ez nintzen beldur, baina nengoen... nola esan bada hori... aztoraturik nengoen harriduraz. Ez nuen prestatu errebolberra, sumatzen bainuen ez nuela ezertarako beharko. Zain egon nintzen.

Luzaro egon nintzen zain, ezertarako erabaki-
rik ezin harturik, gogoia argi, baina eromenez-
ko antsiaz. Zain egon nintzen, zutik, hango zara-
ta geroz eta handiagoa entzuten, aldian-aldian
bortxazko intentsitate bat hartzen baitzuen,
urduritasunezko, haserrezko, misteriozko asal-
damendu batezko orroa ematen baitzuen.

Gero, bat-batean, nire koldarkeriaz lotsatu-
rik, giltza multzoa hartu, behar nuena aukeratu,

eta sarrailan sartu nuen, bi bider birarazi, eta neukan indar guztiaz ateari bultza eginez, trenkadaren kontra jotzera bidali nuen ate orria.

Fusilaren tiroa balitz bezala entzun zen kolpea, eta horra non, eztanda hari sekulako trumilka hotsak erantzuten dion nire etxeko goiko aldetik. Hain bat-batekoa, hain ikaragarria, hain gortzeko modukoa izan zen, non urrats batzuk eman bainituen atzera, eta, nahiz eta alferrekoztat eduki orduan ere, errebolberra zorrotik atera bainuen.

Zain geratu nintzen oraindik, labor ordea. Harrigarritzko urrats hotsa entzuten nuen orain nire eskailerako mailetan, zoruan, tapizetan, ez ordea oinetako hotsa, gizonaren oskiena, makuluena baizik, zurezko eta burdinazko makuluena, zinbalak balira bezala jotzen ari. Eta horra non ikusten dudana, bat-batetik, nire atalondoaren gainean, besaulki bat, nire irakurtzeko besaulki handia, zalantza-balantza kanpora bidean. Lora-tegian zehar joan zen. Haren ondotik beste batzuk, nire salakoak, gero kanape apalak, beren hanka laburretan krokodiloak balira bezala tarraska, gero nire aulki guztiak, ahuntzen

gisa jauzika, eta aulkitxo guztiak, untxiak bezala trostan.

Hura zirrara! Belar multzo batera joan herrestan eta hantxe geratu nintzen kuzkurturik, nire altzarien jarraigo hari begira, zeren han baitzihoazen guztiak, bata bestearen ondotik, zein bizkor zein geldiro, bakoitzaren tamainaren arabera. Nire pianoa, nire piano etzan handia, zaldi trosta batez igaro zen, alboetan musika zurrumurru bat zuela, gauza txikiak inurriak balira bezala igarotzen ziren hondarretan herrestan, zepiloak, kristalak, kopak, ilargiak ipurtargien distirak eragiten zizkiela. Zapiak herrestan zebiltzan, putzuetan zabaltzen ziren, itsasoko olagarroen modura. Non ikusten dudan nire bulegoko mahaia, joan den mendeko etxeko oroigarria, jaso ditudan gutun guztiak zituena, nire bihotzaren historia guztia, nik hainbeste sufritu dudan historia zaharra! Eta argazkiak ere baziren barruan.

Kolpetik ez nuen gehiago beldurrik, gainera jauzi egin nion, eta heldu egin nion, lapurrari heltzen zaion bezala, ihesi doan emakume bati heltzen zaion bezala; eutsi ezinezko abiada batez

zihoan, ordea, eta nire ahalegin guztiagatik, nire haserreagatik, ezin izan nion abiada baraxtu ere. Nola etsi-etsian eusten nion izugarrizko indar hari, lurrera erori nintzen haren kontra borrokan. Orduan han itzulikatu ninduen, hondarretan arrastaka erabili ninduen, eta altzariak, haren atzetik baitzihoazen, nire gaineratik ibiltzen hasiak zitzaizkidan, hankak zapalduz eta zaurituz; gero, mahaia askatu nuenean, gainerako guztiak gorputzaren gaineratik igaro zitzaizkidan, zalduneriako karga bat zelatik eroritako soldadu baten gaineratik igaroko litzatekeen bezalaxe.

Izumenez eroturik bada, ibilbide handitik kanpora alde egin ahal izan nuen, eta zuhaitz artean ezkutatu berriro, nireak izanak nituen gauzarik txikiak, apurrenak, apalenak, ahaztuenak ere nola desagertzen ziren ikusteko.

Ondoren, orain etxe hutsek bezalako oihartzuna zuen nirean, ateak ixteko danbada ikaragarri bat entzun nuen urrutian. Etxean goitik beheraino jo zuten, harik eta azkenean, neuk, burugabe halako honek, ihes horretarako zabaldua nuen aturrekoa, azkenik, itxi zen arte.

Neuk ere ihes egin nuen, hirirantz lasterka, eta ez nintzen nire onera itzuli kaleraino iritsi eta han jende berandutua topatu nuen arte. Ezaguna ninduten hotel bateko atea jo nuen. Neure eskuez jantziak astinduak nituen, hautsa kentzeko, eta nire giltza sorta galdu nuela esan nien, eta haien artean zela baratzekoa ere, nire morroi-neskameak aparteko etxe batean bizi zirena, nire fruituak eta nire barazkiak lapurretatik gordetzen zituen itxitura horma baten atzean.

Begietaraino sartu nintzen eman zidaten ohean. Baina ezin izan nuen lo egin, eta nire bihotza taupadaka entzunez eman nuen goize-rainokoa. Goizean goizik nire jendeari jakinarazteko agindua eman nuen, eta goizeko zazpietan gelariak atea jo zuen.

Aurpegia asaldaturik zuela ematen zuen

— Ez behar handia izan da gaur gauean, jauna, esan zuen.

— Zer izan da?

— Jaunaren altzari guztiak lapurtu dituzte, den-dena, gauzarik txikienetaraino.

Poza eman zidan berri horrek. Zer dela-eta? Nork jakin? Neure buruaren jabe nengoen, disimulatzen jakingo nuela ziur, ziur ez niola inori ikusitakoaren ezereen berri emango, gordeko nuela, beldurgarrizko sekretu bat bezala gordeko nuela nire kontzientzian. Erantzun nion.

— Giltzak lapurtu zizkidaten berberak izan dira hortaz. Oraintxe bertan poliziarri jakinarazi behar zaio. Oraintxe jaikiko naiz, eta une batean zurekin nauzu.

Bost hilabete iraun zuen ikerketak. Ez zuten ezer argitu, ez zuten aurkitu ezta nire oroitzapenik txikiena ere, lapurren arrastorik arinena ere. Arraio! Esan banie nekiena... Esan banie... neu sartuko ninduten, neu, ez lapurrak, horrelako gauza ikusi ahal izan zuen hau baizik.

Ai! jakin nuen bai, isiltzen. Baina ez nuen berriro altzariz jantzi etxea. Alfer-alferrik zen. Berriro hasiko baitzen lehen bezala. Eta ez nuen berriro hara sartu nahi. Ez nintzen sartu. Ez nuen gehiago ikusi.

Parisa etorri nintzen, hotelera, eta medikue-tara joan nintzen nire nerbio egoera begiratzera,

oso kezkatu-rik bainengoen negargarrizko gau hura ezker-
o.

Bidaiatzeko gomendatu zidaten. Haien ahol-
kua bete nuen.

II

Italiara txango bat eginez hasi nintzen. Eguz-
kiak on egin zidan. Sei hilabetez ibili nintzen
hara-hona, Genoatik Veneziara, Veneziatik Flo-
rentziara, Florentziatik Erromara, Erromatik
Napolira. Gero Sizilia igaro nuen, lurralde mires-
garria izaeragatik eta monumentuengatik, Gre-
koek eta Normandiarrek utzitako erlikiak, hain
zuzen. Afrikara joan nintzen gero, bake handian
igaro nuen gameluak, gazelak eta arabiar alde-
rraiak hara-hona dabiltzan basamortu lasai
handi hori, aire arin gardenean, ez gauez ez egu-
nez, inolako goganbeharririk ez dabilena.

Marseillatik itzuli nintzen berriro Frantziara,
eta Probentzako alaitasuna gorabehera, zerua-
ren argi apalak tristatu egin ninduen. Ustez sen-
daturik dagoelakoan min sor batek gaitzaren

jatorria oraindik ere ez dela itzali adierazten dion gaixoaren halako susmo bitxi hori sentitu zuen berriro kontinentera itzultzean.

Gero Parisa etorri nintzen berriro. Handik hilabeterako, ordea, aspertu egiten nintzen. Udazkena zen, eta negua baino lehen Normandian zehar txango bat egitea deliberatu nuen, ez bainuen ezagutzen.

Rouendik hasi nintzen, jakina, eta zortzi egunez ibili nintzen hara-hona arreta gabe, pozez, zoramenez, erdi aroko hiri horretan, aparteko monumentu gotikozko museo harrigarri horretan.

Arratsalde batez, ordea, laurak aldean, erreka bat, «Eau de Robec» deitua, tinta bezain beltza, doan kale gezurrezkoa dirudien batera sartzen ari nintzela, nire arreta, hango etxeen itxura bitxi antzinakoari jarria bainuen, aterik atera luzatzen zen antigoaleko salgaien denda sail batek eraman zidan bat-batean.

Ederki asmatua zuten lekua, zaharkin-saltzaille zeken haiek, ametsetako karrika hartan, erreka patu txarreko haren gainean, oraindik ere

behinolako haize-orratzak kurrinka ari ziren teila eta arbelezko teilatu zorrotz haien azpian!

Saltegi beltz haien barrenean pila-pila eginik ikusten ziren kutxa zizelatuak, Rouengo, Neverseko, Moustierseko faiantzak, irudi margotuak, beste batzuk haritz zurezkoak, kristoak, amabirjinak, santuak, elizako jantziak, kasuilak, aldareko ontziak ere bai, eta baita zur urreztatuzko sagrario zahar bat ere, Jainkoak alde egina. Ai! zein haitzulo bereziak etxe garai haietan, etxe handi haietan, sototik ganbararaino edozertariko gauzez beteak, gehiago ez zirela uste zen gauzez, beren berezko jabeak, beren mendea, beren garaia, beren boladak igarota ere bizirik, gauza bitxi gisa belaunaldi berriek eros zitzen.

Gauza zaharretarako zaletasuna berriro ari zitzaidan pizten zaharkinzelez betetako hiri honetan. Dendarik denda nindoan, Eau de Robecur laster okaztagarriaren gainetik lau ohol ustel botaz egindako zubiak bi pausotan igaroz.

Erruki! Zer zirrara! Nire armairurik ederrenetako bat agertu zitzaidan antzinako altzarientzako kanposantu bateko katakonbatarako sarrera zirudien ganga gauzaz bete baten ertzean. Gor-

putzaren atal guztiak ikaraz nituela hurbildu nintzen hartara, hainbestearainoko ikaratan non ez bainintzen ukitzera ere ausartzen. Eskua luzatzen nuen, zalantza egiten nuen. Huraxe zen, ordea: Luis XIII armairu berdinek ez zuena, behin bakarrik ikusita ere edonork ezagutuko lukeena. Horretan, aurreraxeago, galeria hartako barren ilunenetara begiraturik, nire hiru besaulki sumatu nituen, puntu xehezko tapizeriaz estaliak, eta gero, haraxeago, nire Henri II mahai biak, hain bakanak non jendea Paristik ere etortzen baitzen haiek ikustera.

Pentsa ezazue! pentsa nire gogo egoera!

Eta aurrera jarraitzen nuen, herbaldurik, emozioz hiltamuan, baina aurrera jarraitzen nuen, ni bihoztuna naiz eta, aurrera jarraitzen nuen garai ilunetako zalduna sorginkeriazko egoitza batean sartzen zen bezala. Eta pilaz pila nirea izandako guztia ari nintzen aurkitzen, nire argi lanparak, nire liburuak, nire koadroak, nire oihalak, nire armak, dena, nire gutunez betetako bulego mahaia salbu, hura ez bainuen ikusi.

Soto ilunetara jaitsi, eta berriro goiko solairuetara igo, ari nintzen. Bakarrik nengoen. Dei-

tzen nuen, inork ez zidan erantzuten. Bakarrik nengo; ez zegoen inor labirintua bezain etxe zabal bihurri hartan.

Gaua iritsi zen, eta nire aulkietako batean eseri behar izan nuen iluntasunean, ez bainuen alde egin handik. Aldiro-aldiro oihu egiten nuen: — Ea! Ea! Inor ba al da!

Ordu betea baneraman, segurik, pausoak entzun nituenean, pauso arinak, bareak, ez dakit non. Ia-ia ihes egin nuen; baina, zurrundurik, berriro deitu nuen, eta argi bat sumatu nuen aldameneko gelan.

— Nor da hor? —galdetu zuen ahots batek.

Nik erantzun nuen:

— Erosten bat.

Erantzun zuten:

— Oso berandu da dendetan horrela sartze-ko.

Berriro esan nuen nik:

— Ordu bete eta gehiago daramat zure zain.

— Etor zintezke bihar.

— Bihar, Rouendik alde egina izango naiz.

Ez nintzen ausartzen aurrera egiten, eta bera ez zetorren. Oraindik bistan neukan bere argia-

ren distira bi aingeru gudu zelai bateko hildakoen gainetik hegan zihoazen tapiz batean. Hura ere nirea zen. Esan nuen:

— Zer? Bazatoz?

Erantzun zidan:

— Zure zain naukazu.

Jaiki nintzen eta harenganantz joan nintzen.

Gela handi baten erdian gizon txiki-txiki bat zegoen, txiki-txikia eta oso lodia, oso lodia, ikuskarietakoa balitz bezala, ikuskari higuingarri bat.

Bizar bakana zuen, ile desberdin, bakandu eta horixkakoa, eta ile batik ere ez buruan! Ezta ile bat ere! Ni ikusteko kandela besoa jasota zeukanez, ilargitxo bat balitz bezala iruditu zitzaidan haren buruan, altzari zaharrez gainezka zegoen gela zabal hartan. Aurpegia zimurtua eta puztua zuen, begiak ez zitzaizkion ikusten.

Neureak nituen hiru aulkiren tratua egin nuen, eta diru kopuru handi bat ordaindu nuen hantxe bertan, eta hoteleko nire gelako zenbakia eman nion. Biharamun goizeko bederatziak baino lehen ekarri behar zizkidaten.

Eta irten egin nintzen. Oso adeitasun handiz lagunduzidan ateraino.

Handik zuzenean polziaren komisario zentralarengana joan nintzen, eta nire altzarien lapurreta eta egin berria nuen aurkikuntzaren berri eman nion.

Bilera jaso gabe argibideak eskatu zituen telegrafoz lapurreta haren txostena jaso zuen epaile bulegora, erantzunaren zain itxaroteko eskaturik. Handik ordu betera iritsi zitzaion, nire atseginerakoa.

— Oraintxe bertan atxilotaraziko dut gizon hori eta bertatik egingo diot galdeketa, esan zidan, zeren baliteke susmoren bat hartu izana, eta zure gauza guztiak desagerraraztea. Zoaz afaltzera, eta zatoz bi ordu barru, hemen edukiko dut, eta zeure aurrean egingo diot berriro galdeketa.

— Atsegin handiz, hala ere, jauna. Eskertzen dizut bihotz-bihotzetik.

Nire hotelera joan nintzen afaltzera, eta uste izango nukeena baino hobeto jan nuen. Nahiko pozik nengoen behintzat. Harrapatua genuen.

Bi ordu geroago polizi funtzionarioarengana itzuli nintzen berriro; zain neukan.

— Ba, begira, jauna —esan zidan ikusi ninduelarik—. Ez dugu aurkitu zure gizon hori. Nire agenteek ezin izan diote eskua erantsi.

Ai! Alditxartu behar nuela iruditu zitzaidan.

— Baina... Haren etxea behintzat aurkitu duzue? —galdetu nion.

— Hori bai. Eta zaindu ere zaindu eta begiratu duzu gizona berriro etorri arte. Baina gizona bera, desagerturik.

— Desagerturik?

— Desagerturik. Gauak bere ondoko andrea-renean ematen ditu normalean, Bidoin alarguna-renean, zaharkin-saltzailea hura ere, ondo sorgin bitxia gainera. Gaur gauean ez du ikusi, eta ezin du haren berririk eman. Bihar arte itxaron behar da.

Alde egin nuen. Ai zein hitsak, asaldagarriak, sorginduak iruditu zitzaizkidan Rouengo kaleak.

Gaizki lo egin nuen, gaizki, loaldi bakoitzeko amets gaiztoak nituela.

Kezkatuegi edo presatuegi eman nahi ez nuenez, hamarrak arte itxaron nuen, biharamunean, poliziarengana joateko.

Saltzailea ez zen berriro agertu. Denda itxita zegoen oraindik.

Komisarioak esan zidan:

— Egin behar diren tramite guztiak egin ditut. Epaile bulegoa jakinaren gainean dago, elkarrekin joango gara denda horretara eta zabaldu egingo dugu, eta zuk esango didazu zer den zurea.

Zalgurdi batek eraman gintuen. Poliziak zeuden, sarrailagile batekin, dendako atearen aurrean, eta zabaldu zuten.

Sartzean ez nuen ikusi ez nire armairua, ez nire besaulkiak, ez nire mahaiak, ez ezer, bere garaian nire etxea jantzi zuen guztitik ezer ere ez, baina ezer ere ez, bezperan nire gauzaren bat topatzeke pauso bat bera ere egin ezin nuelarik.

Komisario nagusiak, harriturik, mesfidantzaz begiratu zidan hasieran.

— Jainkoarren, jauna —esan nion—, altzari hauen desagertzea saltzailea desagertzearekin batera gertatzeak badu zer pentsatua.

Irribarre egin zuen.

— Egia da! Gaizki egin zenuen zure oroigarria atzo erosi eta ordainduz. Susmoa hartu du.

Berriro esan nion.

— Ezin dut ulertu, ordea, atzo nire altzariak zeuden leku guztietan beste batzuk nola dauden gaur.

— A! erantzun zuen komisarioak, gau osoa izan du, eta laguntzaileak inondik ere. Etxe honek ondokoetarako bideren bat badu, segurik. Ez izan beldur, jauna, arreta guztia jarriko dut afera honetan. Ez digu ihes egingo gaizkile horrek, habia guk daukagu eta.

.....

Ai! nire bihotza, bihotz nirea, nire bihotz gai-xoa, nola jotzen zuen taupadaka! Hamabost egunez geratu nintzen Rouenen. Gizon hura ez zen gehiago etorri. Arraioa! Arraioa! Zerk traba egin edo harritu ote zuen gizon hura?

Horretan, hamaseigarren egunean, goizean, gutun bitxi bat jaso nuen nire etxe lapurtu eta geroztik hutsik geratutako zaintzaile zegoen lorezainarengandik; hona gutuna:

«JAUNA,

»Jakinaren gainean jarri beharra daukat berori, inork ulertzen ez duen gauza bat, poliziak ere ez guk baino gehiago ulertzen ez duena, gertatu dela bertan gauean. Altzari guztiak itzuli dira, denak salbuespenik gabe, denak, txikienetarik. Etxea lapurreta bezperan zegoen bezalaxe dago berriro. Ertzakea da. Ostiraletik larunbaterako gauean gertatu zen. Bideak zangatuta daude erabat, kanpoko itxuratik atera dena arrastaka ekarri izan balute bezala. Desagertu ziren egunean ere halaxe zegoen.

»Berorren zain gaude, bada; berorren zerbitzaririk apalena.

»RAUDIN, PHILIPPE».

Ez horixe, ez horixe, ez horixe. Ez naiz gehiago hara itzuliko.

Rouengo komisarioari eraman nion gutuna.

— Abilezia handiz itzulia da. Egin dezagun hildakoarena. Egunotakoren batean harrapatuko dugu.

.....

Ez dute harrapatu ordea. Ez. Ez dute harrapatu, eta orain beldur naiz, harena, nire atzetik jaregindako piztia basati bat balitz bezala.

Ezin aurkitu! Ezin dute aurkitu, ilargia bezalako burukaskoko gizon hori! Ez dute inoiz harra-patuko. Ez da itzuliko bere etxera. Zerk axola dio hari. Nik bestek ezin du aurkitu, eta ez dut nahi.

Ez dut nahi! Ez dut nahi! Ez dut nahi!

Eta berriro itzulita ere, bere dendan berriro sartzen baldin bada ere, nork frogazake nire altzariak haren etxean zeudenik? Nire testigantza baizik ez dago, egon, haren kontra, eta ohar-tua naiz zein susmagarri ari den bilakatzen testigantza hori.

Ez ordea! Bizimodu hori ezin zen gehiago eraman. Eta ezin nuen ikusitakoaren sekretua gehiago gorde. Ezin nuen jende guztia bezala bizitzen jarraitu, horrelako gauzak berriro hasiko ote ziren beldurrez.

Osasun etxe hau zuzentzen duen medikua ikustera etorri, eta dena kontatu diot.

Gauza asko eta luzaro galdetu ondoren, esan dit:

Prest egongo al zinateke, jauna, alditxo batez hemen geratzeko?

— Pozik, gainera, jauna.

— Zerekin ba al duzu?

— Bai, jauna.

— Nahi al duzu etxetxo bat aparte?

— Bai, jauna.

— Lagunen bisitak hartu nahi al dituzu?

— Ez, jauna, ez, inorenik ez. Rouengo gizona gauza da, mendekuz, hona ere nire bila etortzeko.

.....
Eta bakarrik nago, bakarrik, bakar-bakarrik, orain dela hiru hilabetez gero. Beldur bat baizik ez dut... Zaharkin-saltzaile hura erotuko balitz... eta osasun etxe honetara ekarriko balute... Pre-sondegiak ere ez dira leku seguruak...

(1890eko apirilaren 6an)